

Gerra Zibila **ARETXABALETAN**
Ezin ahaztu!

La Guerra Civil en **ARETXABALETA**
Ezin ahaztu!



José R. Intxauspe López (Koord./Coord.)
Arantza Berezibar Galdos
Aitor Antxia Leturia
Kepa Antxia Leturia



Eusko Ikaskuntzak eta Aretxabaletako Udalak bere eskerrona adierazi nahi diote ale honetan parte hartu duten autoreei, eta honen irizpideak errespetatzen dituztela, honek ez duelarik esan nahi bereziki horiekin bat daudenik.

Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Aretxabaleta muestran su agradecimiento a los autores que han colaborado en este volumen y repetan sus criterios y opiniones, sin que ello signifique que asuman en particular cualquiera de ellos.

Gerra Zibila Aretxabaletan. Ezin ahaztu! = La Guerra Civil en Aretxabaleta. Ezin ahaztu! / Intxauspe López, José R. [Koor.]. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2011.

483 or. : ir. ; 31 cm.

ISBN: 978-84-8419-225-1

Euskarazko itzulpena / Traducción al euskera: Belaxe Itzulpen Zerbitzua

Argazki kredituak 339. orrian / Créditos fotográficos en la pág. 481
Azaleko argazkiak / Fotografías de la portada: Aretxabaletako Argazki Taldea

L.G.: 55-1540-2011

Fotokonposaketa: Imanol Tapia (Donostia)
Inprimaketa: Michelena artes gráficas (Astigarraga)

Aurkibidea

GERRA ZIBILA ARETXABALETAN. EZIN AHAZTU!

AGURRA	7
SARRERA.....	9
1. GIPUZKOAKO HAUTESKUNDE-SOZIOLOGIA II. ERREPUBLIKAN ZECHAR (Berezibar Galdos, Arantza)	13
1.1. Monarkiaren amaiera eta Errepublikaren ezarpena	15
1.2. 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeak	15
1.3. 1931ko ekainaren 28a: Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeak.....	17
1.4. 1933ko hauteskundeetan euskal nazionalismoa garaile	20
1.5. 1934ko udako autonomia-ahalegina.....	24
1.6. 1934ko urriko iraultza	24
1.7. 1936ko hauteskundeak.....	25
1.8. Gatazka soziopolitikoak	27
1.9. Ondorioak.....	28
2. ARETXABALETAKO EGUNEROKO BIZITZA (1930-1940) (Antxia Leturia, Aitor)	29
2.1. Biztanleria eta kaleko bizitza	31
2.2. Eskoletako irakaskuntza	31
2.3. Erlijio bizitza.....	38
2.4. Bizitza publikoaren xehetasunak	40
2.5. Lan mundua	45
3. ARETXABALETA GERRAN (Intxauspe López, José R.)	47
3.1. 1934ko urriko iraultza Aretxabaletan	49
3.2. Gerra Zibilaren hasiera	59
3.3. Aretxabaleta frankisten mende	74
3.4. Frontea egonkortzeko ahaleginak	81
3.5. Frankisten ofentsiba eta Murugainen galera	98
3.6. Biktima guztien zerrenda	102
3.7. Errepresio frankista	131
3.8. Juan Antonio Ansaldo eta Felix Urtubi, aparteko hegazki pilotuak	135
4. ARETXABALETA 1930-39 HAMARKADAN, EUSKAL PRENTSAN (Antxia Leturia, Kepa) ..	147
DOKUMENTUEN ERANSKINAK	299
SIGLAK ETA LABURDURAK	325
ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA.....	327
OHARRAK.....	331
ARGAZKI KREDITUAK.....	339

Índice

LA GUERRA CIVIL EN ARETXABALETA. EZIN AHAZTU!

SALUDO	345
INTRODUCCIÓN	347
1. SOCIOLOGÍA ELECTORAL DE GIPUZKOA DURANTE LA II REPÚBLICA (Berezibar Galdos, Arantza)	349
1.1. Fin de la Monarquía e instauración de la República	349
1.2. Elecciones municipales del 12 de abril de 1931	349
1.3. Elecciones a Cortes Constituyentes del 28 de junio de 1931	351
1.4. Elecciones de 1933: triunfo del Nacionalismo Vasco	353
1.5. El intento autonómico del verano de 1934	356
1.6. La Revolución de Octubre de 1934	357
1.7. Las elecciones de 1936	358
1.8. La conflictividad sociopolítica	359
1.9. Conclusiones.....	360
2. EL DESARROLLO DE LA VIDA COTIDIANA DE ARETXABALETA (1930-1940) (Antxia Leturia, Aitor)	361
2.1. La población y la vida en las calles	361
2.2. La enseñanza a través de las escuelas	363
2.3. La vida religiosa	367
2.4. Detalles de la vida pública	367
2.5. El mundo laboral	370
3. ARETXABALETA EN GUERRA (Intxauspe López, José R.)	371
3.1. La Revolución de Octubre de 1934 en Aretxabaleta	371
3.2. El inicio de la Guerra Civil	380
3.3. La caída de Aretxabaleta	393
3.4. La estabilización del frente.....	399
3.5. La ofensiva franquista y pérdida de Murugain	409
3.6. Relación de todas las víctimas	412
3.7. La represión franquista	435
3.8. Juan Antonio Ansaldo y Félix Urtubi, dos ases de la aviación.....	438
APÉNDICE DOCUMENTAL	445
SIGLAS Y ABREVIATURAS.....	469
FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA	470
NOTAS.....	473
PIES Y CRÉDITOS FOTOGRÁFICOS	481

Agurra

Hamaika ordutako lanaren fruitu da esku artean dugun liburu zoragarri hau. Ibilbide luzea egin du informazioa jaso eta testigantzak jasotzeari ekin zitzaionetik. Halere, urteak ez dira alferrik pasatzen, eta harrotasunez esan liteke Aretxabaletan Gerra Zibilean gertatutakoa ulertarazten laguntzen digula Jose-rak, Aitorrek, Arantzak eta Kepak esfortzu handiz landutako liburuak.

Memoria historikoaz ari garenez, gerra garaiko alde bateko zein bestekoak aipatzen dira, baina modu objektiboan jasotzen da gure herrian gertatutakoa, bere hartan azalduz, zauri zaharrak zabaltzeko barik eta gerrak utzitako orbainak erakutsi barik. Guztioi irakaspenak emanez, beste inoiz halakorik gerta ez dadin.

Gerra Zibila Aretxabaletan liburuaren egile-taldeari dagokionez, lanaren kalitatearen erabateko garrantia ematen dute, aldezturik egindako beste hainbat lan eta argitalpenen maila ikusi besterik ez da-goelako. Norberak bere aletxoa ipiniz, lan-talde serio eta eraginkorra osatu dute, beti ere beren denbora libreari hartutako dedikazioa musu truk eskainiz.

Hemendik aurrera, liburua herriko etxe, elkarte eta eskoletako apaletan tokitxo izatea gustatuko litzaidake, guztiok ikus eta ikas dezagun itsukeria bidelagun eskasena dela. Eta iragana ikasteko tresna ego-kia den neurrian, kontsultarako behar-beharrezkoa liburu izatea opa diot. Baina hori, gure hautua da.

Beraz, eskerrik asko Aretxabaletako Udalaren izenean liburuan modu batera edo bestera, orrialdeak idatziz, maketazioa eginez, testigantzak jasoz, testigantzak emanez, grabazioak eginez, parte hartu du-zuen herritar guztioi iragana gure esku jarri izanagatik.

Aretxabaletako Udala

Sarrera

2006. urtean ekin genion proiektuari, Eusko Ikaskuntzaren eta Aretxabaletako Udalaren bekari esker. Lanean buru-belarri eta gogotik ikertzen eman ditugun bost urteak gogorrak izan dira, baina oso pozgarriak aldi berean, gerra zibil zital hartatik bizirik irtendako jendea ezagutu dugulako. Lagun horien guztien testigantzak eta ekarpenak funtsezkoak izan dira orduko gertaerak baieztatzeko eta aurkitutako dokumentuen sinesgarritasuna eta balioa ziurtatzeko. Ikerlana uste baino gehiago luzatu zaigu, baina, atzerapena zuzitzeko, azken bost urteotako ibilbidean bestelako proiektuak ere kaleratu ditugula azpimarratu behar dut: adibidez, José M^a Horcajada-ren *La Mancha nos dio un gudari* oroitzapen-lana eta *Malko gorriak* dokumentala DVD formatuan. Esku artean duzuen proiektuaren inguruan garatu ditugu biak.

Gure herriaren historia argitzea izan dugu helburu nagusia. Horretarako, II. Errepublikako agintaldia eta gerra zibila (1936-1939) ikertu ditugu. Era berean, oroimen historikoa berreskuratzeko ahaleginean diharduten taldeen aldarrikapenekin bat egin nahi izan dugu, eta gure ekarpentxoak eskaini. Gure mugak ongi asko ezagutzen genituen, ikerlanean parte hartu duten guztiak amateurak baitira, baina, gabeziak gainditzeko, gogo biziz jardun dugu lanean, ekinaren ekinez, emaitzak geroko belaunaldientzat idatzita uzteko asmo sendoa genuela. Kontuan izan behar da dagoeneko oso testigantza gutxi lor daitezkeela, belaunaldi hartako gehienak zenduta baitaude, eta gainerakoei gure eskaera oso berandu iritsi zaie, ia denek adierazi diguten bezala.

Militarrak altxatu zirenetik 75 urte igaro dira jadanik. Ezin genuen denbora gehiago pasatzen utzi eta, ikerketak aurrera egin ahala, gure konpromisoa tinko indartu zen. Hausnarketetan, denboraren lerroa oso laburra dela ikusi dugu: ikerlaneko belaunaldi protagonistaren bilobak gara, gure gurasoak haurrak ziren garai hartan, eta, gero, nagusitan, ez zuten hitz egiterik izan, diktadorearen inguruan ehundutako sare frankistak galarazita. Gerra bukatu eta 20-25 urtera jaio ginen gu. Ez da horrenbeste denbora, ezta? Erregimenaren azken kerua arnastu genuen, eta orain guk geuk egiten ditugu galderak. Iraganak eta orainak axola digutelako baina, batez ere, etorkizunaz arduratzen garelako. Horregatik murgildu gara gure lan honetan. Izenburuko deiadarra, EZIN AHAZTU!, Miguel de Amilibiaren *Los batallones de Euskadi* liburutik hartu dugu, *Dragoien* batailoian hildako gudariei buruzko pasarte batetik. Guk ere EZIN AHAZTU! esan nahi dugu ama eta amona guztiak gogorarazteko, haiek ere beste barrikada eta fronte batzuetan borrokatu baituten.

Liburuak ondo bereizitako lau atal ditu. Lehen atalak soziologia politikoa du aztergai, Errepublika sortu berritik altxamendura bitartean Gipuzkoan izandako hauteskunde guztien nondik norakoak jorratzen dituela. Bigarren atalean, ikuspegi orokorretik zehaztasunera igaro gara, 1930-1940 hamarkadan Aretxabaletako eguneroko bizimodua nolakoa zen azaltzeko, eta era guztietako ideologiak zituzten orduko 2.500 herritarren gizartea, kultura-arloa, lana, politika eta gainerako alderdiak islatzeko. Lehen bi atalen testuingurua oinarri hartuta, hirugarrenean gerrari lotutako gertakariak landu ditugu: 1934ko mugimendu iraultzailea, militarren altxamendua, Defentsa Batzordearen sorrera, Aretxabaleta nola erori zen faxisten mende, frontea egonkortzeko ahaleginak, errepublikanoen bonbardaketak eta, azkenik, frankisten eraso eta Murugainen galera. Beste hiru kapitulu oso interesgarri erantsi ditugu: lehena Juan Antonio Ansaldo eta Félix Urtubi abiazio-pilotu trebeei eskainia, bigarrena frankismoaren errepresioaren eraginari buruzkoa, eta hirugarrena gerra zibilaren on-

dorioz gure herrian hildako 78 lagunen ingurukoa. Azken horiei dagokienez, ideologia guztietako eta bi bandoetako hildakoak biktimatzat jo eta zerrendak eta sailkapena egin ditugu.

Laugarren atala hemerroteketan Aretxabaletari buruzko artikuluen bilketa-lan zoliaren emaitza izan da. Orduko (1931-1937) euskal prentsan argitaratutako 186 kronika dira guztira: adibidez, Jesús Peña Aitzza eta Máximo Alberdi kronikari aretxabaletarren testuak. Garai hartako eguneroko bizimodua sakonago ezagutzen lagunduko digute.

Azkenik, liburuari Aretxabaletako plano bikaina erantsi diogu, 1951ko urtarilekoa, testua irakurtzen ari garen bitartean gertaera eta ikono nagusiak bertan begiratzeko eta kokatzeko; izan ere, 12-15 urtetan herria ez zen ia batere aldatu. Bestalde, gogora ekarri behar dugu Durana kaleko etxe bikoitien zenbakiak, 26tik aurrera, ez direla gaur egungo berberak. Halaber, Abrasivas Laurak eta Manufacturas de madera U.A.B. (La Industrial Moderna) fabrika gerra ostean ireki zutela ere zehaztu behar dugu. Azkenik, barkamena eskatu nahi dizuegu planoak ebakitzeagatik. Udalerraren forma langaren ondorioz, planoak minimizatu egin behar izan dugu, xehetasunak hobeto ikus daitezen.

Erabilitako dokumentu-iturriak lanaren bukaeran zehaztu ditugu, azken atalean: bibliografia, artxiboak, hemeroteka.... Ferroleko Ipar-mendebaldeko Bitarteko Artxibo Militarrean gerra-kontseiluez lortutako informazio baliotsua azpimarratu behar dugu, funtsezkoa izan baita gure lana biribiltzeko. Ezin bestez kontsultatu beharrekoak izan arren, aipatzekoak dira, era berean, Avilako Artxibo Militar Nagusia, Oroimen Historikoaren Dokumentazio Zentroa, Aireko Armadaren Artxibo Historikoa, Artxibo Historiko Nazionalea, Administrazioaren Artxibo Nagusia eta beste hainbat. Eta gure herrialdean, Sabino Arana Fundazioa, IRARGI eta, jakina, Aretxabaletako Udal Artxiboak, besteak beste.

Dokumentuei dagokienez, izugarrizko alde dago frankisten bandoaren eta nazionalista eta errepublikanoen bandoaren artean, lehenengoen jardueri eta, batik bat, hildakoen gorespen-ekintzei buruzko albisteak eta informazioak izugarri ugariak baitira, jakina, garaileak izan baitziren. Beraz, lekukoek testigantzak funtsezkoak izan dira informazio-gabeziak gainditzeko. Dokumentuetan jasotako xehetasunak azaltzerakoan bando galtzaileari eman diogu lehentasuna, kaltetuena eta ezezagunena delako, eta, batik bat, partaideei eta euren familiei gure aitoren zintzoena eskaini nahi izan diegulako. Esanak esan, irabazleak ez ditugu alboratu, frankismoa jaun eta jabe izandako urte luzeetan nahikoa etekin jaso zuten arren. Hori guztia egiaren eta justizia sozialaren aldeko ekarpen lagungarria izatea espero dugu.

Ikusiko duzuenez, ikerlanak hainbat iturri grafiko eskaintzen ditu, argazkiak utzi dizkiguten guztien eskuzabaltasunari esker. Aretxabaletako Argazki Taldearen (AATren) funtsak nabarmen handitu dira, horrela,

Bukatzeko, ahalik eta lanik zorrotzena eta profesionalena egiten saiatu gara, eta gure helburua lortu izana espero dugu. Egia esan, emaitza ez da biribila edo behin betikoa, hainbat gai geratu baitira lantzeke, hala nola, gerran ebaluatutako haurrak, frankismoko presoek zigorak, espetxealdiak eta langile-batailoak. Gai horiei buruzko datuak ere baditugu, baina kaleratu aurretik sakonago eta zorrotzago ikertu beharko genituzke. Gure lana, beraz, lehen urratsa da; beste ikerketa batzuetan lagungarri izatea eta gure ondorengoek ekarpen gehiago egiten jarraitzea nahi genuke.

Azkenik, gure eskerrona adierazi nahi diegu lagundu diguten pertsona eta elkarte ugariei; bestela, gure proiektua ez genuen inondik inora mamitzerik izango.

Gure esker on berezia adierazi nahi diogu Aranzadi Zientzia Elkarteari, eta, zehazki, Paco Etxebarriari eta Lourdes Herrastiri, euren ekarpenengatik. Eskerrik beroenak Intxorta 1937 Kultur Elkarteari, eta, batik bat, Juan Ramón Garai, Jesús Gutiérrez, José Luis Valenciaga, Josuren Murgizu eta Julia Monge bidelagun zintzoei. Eskerrik asko Ferroleko ipar-mendebaldeko Bitarteko Artxibo Militarreko arduradunei, Aretxabaletako Erregistro Zibileko funtzionarioei eta Parrokiaren Artxiboari, erraztasun handiak eman dizkigutelako gure lana gauzatzeko.

Maila pertsonalean, bihotzez eskertzen ditugu Lucio Oteiza, José M^a Horcajada, Julia Makazaga, Natividad Sogorb, Natividad Amuriza, Ángel Gago, Asunción Antxia, Santiago Lombide, Felisa Antonia Elcoro, Ángel Arrese, Daniel Gastañaga, Pilar Azkarretazabal eta Isidora Garciaetxaberen testigantzak,

baita zalantzak argitu dizkiguten noizbehinkako informatzaileen laguntza ere: Miguel Arenaza, Eduardo Altube, Pedro Urteaga, Karmelo Igartua eta Matilde Urtubirena, alegia. Zoritxarrez, batzuk jadanik ez daude gure artean, baina beti izango ditugu gogoan. Eskerrik asko guztiei, ezin hobeto hartu gaituzuelako eta laguntza ordainezina eman diguzuelako.

Gure esker ona adierazi nahi diegu José del Teso, Jose M^a del Palacio eta Aitor Ibáñez de Garatxanarentzat, lanerako prest eta ezagutzeko irrikan egoteagatik beti.

Martín Garairi eta Félix Beltrán de Herediari, liburuari atxikitako planoak egiten emandako denboragatik.

Aretxabaletako Udalari, Arritxu Olideni eta Inaxio Garrori, gure proiektuan sinesteagatik, eta Garazi López de Etxezarreta, Leticia Padrones eta Beatriz Akizu Eusko Ikaskuntzako kideei euren pazientzia agortezinagatik.

Eta eskerrik asko, bihotz-bihotzez, gure ondoan izan ditugun aretxabaletar guztiei, asko eta asko izan baitira.

1. Gipuzkoako hauteskunde-soziologia II. Errepublikan zehar

Berezibar Galdos, Arantza



1936ko otsailaren 12ko hauteskundeak ez ziren izan, berez, Espainiako Gerra Zibilaren iturburua, baina lehen konspirazio-planak orduantxe sortu ziren, emaitzen ondorioz. 1936-39ko sarraskiaren aurreko ibilbide luzea Errepublikak agintean emandako bost urteetan hasi ziren urratzen, eskuineko eta ezkerreko alderdien arteko amildegi sakona areagotu ahala.

1.1. Monarkiaren amaiera eta Errepublikaren ezarpena

1930eko abuztuaren 17an, Errepublikaren aldeko taldeak Donostian elkartu ziren, monarkiaren kontrako fronte errepublikano bakarra sortzeko asmoz. Monarkia betirako kentzea eta Errepublika ezartzea zuten helburu. "Donostiako Ituna" sinatu eta bi erabaki nagusi hartu zituzten: Errepublika eta eskualde-autonomiak ezartzea¹. Halaber, Batzorde Exekutiboa ere izendatu zuten, erabakiak gauzatzeko eta lan guztiak koordinatzeko.

Euskal autonomistek parte hartu ez zuten arren, bilera hura oso garrantzitsua izan zen Euskal Herriarentzat eta Gipuzkoarentzat, autonomiaren auziari erantzun zabala eskaini ziolako. Hori guztia, izan ere, bete-betean islatu zen 1931tik 1936ra bitarteko legeintza-hauteskundeetako emaitzetan.

Mugimendu iraultzaileak porrot egin zuen, ordea, abenduaren 12ko Jakako altxamendu militarra zapuztu eta sustatzaileak, Fermín Galán kapitaina eta bere ofizialak, fusilatu egin zituztelako. Gainera, greba orokorrerako deirik ere ez zen egin azkenean. Dena den, monarkiari ez zitzaion denbora asko geratzen.

1931ko urtarrilaren 23an, diktadura erori egin zen. Alfonso XIII.a legaltasun konstituzionala ezartzen saiatu zen, baina monarkiaren egituren eta gizarte-, ekonomia- eta politika-errealitatearen arteko aldea gero eta handiagoa zen. Itunari esker, errepublikanoek berrantolatzea eta monarkia kanporatzeko ekin-tzak antolatzea lortu zuten.

Monarkiaren azken gobernuak 1931ko otsailaren 28an eratu zen, eta udal-hauteskundeetarako deia egin zuen apirilaren 12rako, baina oposizioko errepublikano eta sozialistek erregimen-aldaketari buruzko bozketa bihurtu zituzten, Errepublika ezartzeko nahiak eraginda. Beraz, hauteskundeen izaerak udal-eremua gainditu zuen.

1.2. 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeak

Probintzietako hiriburuetan (50etik 41etan) eta industria-hiri handietan, errepublikano eta sozialistek irabazi zituzten 1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeak. Monarkikoek orokorrean emaitza onak lortu zituzten arren, apirilaren 14an Eibarren Errepublika aldarrikatu zuten. Eibar aitzindaria izan zen, eta, gero, estatuko gainerako lurraldeak lotu zitzaizkion. Alfontso XIII.a erbestera joan eta behin-behineko lehen gobernu errepublikanoa eratu zuten, Alcalá Zamora buru zela.

1.2.1. Hauteskunde-legedia

Hizpide ditugun bozketetan 1907ko abuztuaren 8ko Hauteskunde Legeak finkatutako prozedurari jarraitu zitzaion, eta honako oinarritzko xedapen hauek bete ziren, besteak beste²:


- Botoa emateko eskubidea 25 urtetik gorako gizonezko espainiarrei besterik ez zegokien.
- Botoa ematea derrigorrezkoa zen.

- 25 urtetik gorako gizonezko espainiar laikoak besterik ezin ziren hautagai izan.
 - Zuzeneko sufragioa eta gehiengozko ordezkaritza-sistema, barrutien arabera. Bozketa plural mugatua, gutxiengoek ordezkaritza izan zezaten.
 - Behar baino hautagai gehiago aurkezten ez ziren barrutietan, aurkeztutako horiek zuzenean izendatuko zituzten (29. artikulua)³.
- Martxoaren 15ean, udalek bilera egin zuten, udalerri bakoitzak zenbat zinegotzi izango zituen eta barrutietan nola banatuko ziren adosteko.

1.2.2. Gipuzkoako hauteskundeak

Han-hemenka sortutako gorabehera txikiak alde batera utzita, hauteskunde-eguna lasaia izan zen, oro har, eta jende asko joan zen botoa ematera (% 79,16ko partaidetza probintzian).

Gipuzkoan hautatutako zinegotzien artean katoliko-monarkiko "orokorrak" ziren nagusi, hau da, alderdietako militantziari lotutako diziplinaren mende ez zeudenak. Probintziako udalbatzetako 859 zinegotzitatik 318 (% 37,02) talde horretakoak ziren, eta Gipuzkoako 89 udalerrietatik 37tan gehiengoa lortu zuten⁴.



Comuni3n Tradicionalista eta PNV alderdien emaitzak nahiko antzekoak izan ziren. Tradizionalistek 149 zinegotzi lortu zituzten, eta gehiengoa 16 udalerritan; nazionalistek 175 zinegotzi, eta gehiengoa 13 udalerritan⁵.

Ezkerreko errepublikano eta sozialisten ordezkari-tza minoritarioa izan zen, eta, gainera, hirigune jakin batzuetara mugatua: 106 zinegotzi lortu zituzten, guztira, Gipuzkoako 16 udalerritan. Dena den, Eibarren, Irunen, Arrasaten, Erreterian eta Donostian gehiengoa berenganatu zuten⁶.

1.3. 1931ko ekainaren 28a: Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeak

Alcal3 Zamora buru zuen behin-behineko lehen gobernu errepublikanoa eratu ondoren, Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeak egitea erabaki zuten, Gorteek gero Konstituzio berria onar zezaten.

1.3.1. Hauteskunde-legedia

Gorteetarako hauteskundeak egin aurretik, apirilko bozketetan indarrean zegoen legedia berritzea erabaki zuten. 1931ko maiatzaren 8ko dekretuaren bidez, legegintza-hauteskundeei buruzko ordura arteko arauak erro-tik aldatu zituzten, "jauntxo-en hertsapena, boto-erosketa eta bestelako ustelkeriak saihestu eta botoa askatasunez emateko, hauteskunde-en borondatea benetan isla dadin". Hona hemen berrikuntza batzuk:

- Hautesleen eta hautagaien gutxiene-ko adina 25 urtetik 23ra murriztea.

- Emakume eta apaizei hautagai izateko eskubidea ematea.

- Hauteskunde-barrutien hedadura handitzea. Gipuzkoako bost barrutiek-in bakar bat osatu zuen. Lurralde-barruti berriak sei diputatu izango zituen: lau gehiengoaren orde-z eta bi gutxiengoaren orde-z.

- Barruti txiki-etako izen bakarre-ko bozketaren orde-z, probintzien arabera-ko zerrenda-boz-keta (aulki bat 50.000 biztanle-ko) ezarri zuten, lehen-go sistema-k jauntxokeriak sustatzen zituelakoan.

Zerrenda-bozketaren sistema ez zen proportzionala, baina boto gehien lortzen zituen gutxiengo-ari ordezkari-tza bermatzen zion eta gehiengoa saritu egiten zuen. Hautesle bakoitzak bere gogoko hautagaiak aukeratzen zituen, baina ez aulki guztietarako, legeak finkatutako mugaraino (% 80 inguru) bai-zik. Botoen gehiengo erlatiboa lortzen zuen alderdi-ari edo alderdi-koalizio-ari, betiere % 20ko ordezkari-tzara eskuratuz gero, gehiengo-ari zegozkion aulki guztiak ematen zizkieten; gainerako aulkiak gutxiengo-arentzat izaten ziren, ehune-ko horretara hurbildu arren.

Hautagai minoritario batek ere ez bazuen botoen % 20 eskuratzen, aulki guztiak gehiengoaren esku geratzen ziren. Azkenik, zerrenda bat ere ez bazen % 20a iristen, handik hamabost egunera beste boz-keta bat egiten zen, gehiengo sinple bidez. Bestalde, 29. artikulua, diputatuak hauteskunderik egin gabe zuzenean izendatzeko aukera ematen zuena, indargabetu egin zuten.

Sistema berria ez zen oso egokia norbere kasa jarduteko; bai, orde-a, alderdi antolatuentzat. Horiek koalizioak sortzera ere bultzatzen zituen, boto gehien lortzen zituen zerrendari zegokion saria-z baliatzeko.

1.3.2. Gipuzkoako gatazka politikoa-k

Errepublikarekiko harremanetan ika-mika ugari sortu ziren hasieran, baina, gero, 1934tik aurrera, egoera baretu egin zen. Euskal Herrian eta, bereziki, Gipuzkoan bi auzi nagusi sortu ziren: autonomia eta erlijioaren ingurukoak.

Euskal Herria Estatuan txertatzeko moduari eta bere testu-etako formulazioei buruzko eztabaidak jaun eta jabe izan ziren Euskal Herri-ko eta Gipuzkoako politikagintzan⁷. Euskal Herri-ko Autonomia Esta-tutua lortu arte igaro ziren bost urteetan, euskal alderdien arteko eta alderdi horien eta gobernu zentra-laren arteko tirabirak etengabeak izan ziren⁸.

Bestalde, erlijioaren gaiak tentsio handia sorrarazi zuen. II. Errepublika laikoa eta antiklerikala zen, eta Euskal Herrian, batik bat karlisten eta nazionalisten artean, sentimendu katolikoa eta klerikala oso errotuta zegoen. Bi ikuspegiak aurrez aurre zeuden⁹.

1.3.3. Estatutuak

1931tik 1936ra bitartean, hainbat proiektu egin ziren:

1.3.3.1. Eusko Ikaskuntzaren Estatutua: euskal alkateek eskatuta, Eusko Ikaskuntzak Euskal Estatuaren Estatutu Orokorra idatzi eta aurkeztu zuen 1931ko maiatzaren 31n. Bertan, lau probintziek osatutako Euskal Estatu autonomia aldarrikatzen zen, Espainiako estatuaren baitan. *Euzkadi* izango zuen izena. Euskal alderdi gehienek proiektuarekin bat egin zuten.

1.3.3.2. Lizarrako Estatutua: erlijioaren gaia oztopo bihurtu zen berriro ere. PNV eta Comución Tradicionalista alderdiek emendakin bat erantsi zioten Eusko Ikaskuntzaren proposamenari, Euskadik Vatikanorekin konkordatu sinatzeko autonomia erlijiosoa izan zezan. Hego Euskal Herriko udalak Lizarran elkartu ziren emendakinari buruzko bozketa egiteko, eta hantxe sortu zen Lizarrako Estatutua, 1931ko ekainaren 14an onartu zutena.

1.3.3.3. Ezkerreko alderdiek (PSOE, errepublikanoek eta, Gipuzkoan, ANV) Euskadin Errepublika finkatzea zuten helburu, eta Eusko Ikaskuntzaren Estatutua onartzearen alde egin zuten, ñabardura batzuekin, alegia, Lurralde Batzorde Kudeatzaileek proposatutako aldaketak onartuz eta eskuineko alderdietakoenak baztertuz.

1.3.3.4. Alderdi Errepublikano Federalak beste estatutu bat aurkeztu zuen, baina Gipuzkoarentzat bakarrik, probintzia horren eta beste hiruren (Araba, Bizkaia eta Nafarroaren) artean lotura nabarmenik ez omen zegoelakoan. Testu hura alderdiak 1931ko maiatzaren 22an onartutako txostena zen, izatez.

Madrilan, Lizarrako Estatutua antikonstituzionaltzat jo eta baztertu egin zuten. 1932an beste estatutu bat idatzi zen, konstituzio-xedapenetan oinarrituz, baina Nafarroan ez zutenez onartu, beste hiru probintziak hartu zituen barne.

1.3.4. Erlijioaren auzia

Gobernuak eta Gorte Konstituziogileek hainbat neurri onartu zituzten erlijio-kontuetan, hala nola, Gasteizko gotzaina kanporatzea eta bikario nagusia atxilotzea, Jesusen Lagundia desagitea eta erlijio-ordenei irakaskuntzan aritzeko debekua ezartzea. Euskal Herrian oso gogor kritikatu zituzten eta bertako gehiengo katolikoak Elizaren kontrako neurritzat hartu zituen. Ondorioz, indar katolikoek, batik bat tradizionalistek eta PNV alderdiak, bat egitea eta gobernuaren kontra borrokatzea erabaki zuten, autonomiaren eta beste zenbait auziren inguruko desadostasun politikoak alde batera utzita.

1.3.5. 1931ko ekainaren 28a: Gorte Konstituziogileetako diputatuak aukeratzeko hauteskundeak

Gipuzkoan, gainerako probintzietan bezala, erlijioari eta autonomiari lotutako auziengatik aurrez aurre zebiltzan bi bloke handi aurkeztu ziren.

1.3.5.1. Eskuineko hautagaiak: Candidatura Vasca Defensora del Estatuto (CVDE), hau da, Comución Tradicionalistak, PNV eta katoliko independenteek bat eginik osatutako zerrenda, Lizarrako Estatutuaren aldekoa. Euskal Herriaren askatasunak Lizarrako Estatutuaren bidez defendatzea eta Eliza Katolikoaren eskubide eta eskumenak etorkizunean onartuko zen Konstituzioan bermatzea ziren programaren ardatz nagusiak.

Zerrenda osatzeko arazoak gainditu ondoren, hautagai hauek aurkeztu zituzten: Antonio Pildain Zapiain (independentea), Julio Urquijo Ibarra (tradizionalista), Rafael Picavea Leguía (independentea), Jesús María de Leizaola Sánchez (PNVko kidea).

CVDEren oinarriak ez ziren oso sendoak, kideen arteko desadostasun ideologikoak sakonen ondorioz. Estatutua antikonstituzionaltzat jo zutenean, koalizioa bertan behera geratu zen.

1.3.5.2. Ezkerreko hautagaiak: errepublikanoek, sozialistek eta ANVko osatutako zerrenda. Alderdi bakoitzak bere hautagaiak askatasunez aukeratu zituen: 2 errepublikano, Juan Usabiaga Lasquibar eta José María Amilibia Machimbarrena, sozialista 1, Enrique de Francisco Jiménez, eta ANVko kide 1, Justo Gárate Arriola. Errepublika defendatzea eta finkatzea hartu zituzten helburu nagusitzat. Funtsezko ardatzak irakaskuntza eta langileen ekonomia- eta gizarte-eskubideak ziren, eta autonomia-aldarrikapenak, ez oso irmoak, erregimena finkatzeko lehentasunaren mende zeuden¹⁰.




Enrique de Francisco sozialista, gaztez inguratua, Aretxabaletan mitina eman eta gero.

1.3.5.3. Alderdi Komunistak, ezkerreko errepublikano eta sozialistengandik bereizita, bere hautagaiak aurkeztu zituen: José Bullejos Sánchez, Juan Astigarribia Andonegui, Jesús Larrañaga Churruca eta Luis Zapiain Aguinaga.

1.3.6. Hauteskundeetako emaitzak

Hurrengo taulan, Gipuzkoako eta Leintz Haraneko (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga udalerrietako) emaitzak azaltzen dira.



Bai Gipuzkoako bai Leintz Haraneko emaitzek argi erakusten dute probintziako gizartean bi joerak zeudela hedatuta, eskuineko alderdiek gehiengoa lortu arren, ezkerrekoen emaitzak ere onak, aurreko hauteskundeetan baino hobeak, izan baitziren. PCE alderdia, oster, ez zegoen batere errotuta.

1.4. 1933ko hauteskundeetan euskal nazionalismoa garaile

1931tik 1933ra bitartean, gizartearen politizazioa indartu, mobilizazioak ugartu eta alderdi politikoetako afiliazioak handitu egin ziren. Hazkunderik handiena PNVk izan zuen.


Estatuari buruzko plebiszitua egin eta gero, alderdien arteko harremanak inoiz baino urriagoak eta hotzagoak izan ziren. Ildo horretan, monarkikoak eta tradizionalistak ziren salbuespen bakarrak. Euskadin, 1931ko bipolarizazioak ikuspegi-aniztasunari eman zion bidea, PNVk karlistekin hautsi (PNV estatutuaren eta errepublikanoen aldeko zegoelako) eta ezkerreko alderdiak zatitu egin zirelako. Izan ere, ezkerrekoen arteko desadostasun estrategiko eta politikoak konponezinak izan ziren.

1.4.1. Euskal Estatuari buruzko plebiszitua


Euskal Estatutuaren proiektuak 1933ko azaroaren 5ean lortutako onespenez berebiziko bultzada eman zion PNVri azaroaren 19ko hauteskundeetarako.

Gipuzkoako gizartean estatutuaren aldeko jarrera nagusi zen erabat ("baietzaren" aldeko iruzurra egin zen, baina ez zen batere beharrezkoa). Hiru probintzietan orokorrean baietzak garaipen biribila lortu zuen, baina Arabako abstentzioa handia (% 41,5eko) oztupo bihurtu zen autonomia-prozesuan.

Euskal Estatutuari buruzko erreferenduma 1933-11-05ean



Euskal Estatutuari buruzko erreferenduma Leintz Haranean



1.4.2. Hauteskunde-borroka

Konstituzioak eta 1933ko uztailaren 27ko Legeak ezarritako aldaketen ondorioz, hauteskunde haiek oso bestelakoak izan ziren, ordura artekoekin alderatuta. Konstituzioak, batetik, botoa emateko eskubidea eman zien emakumeei, eta, bestetik, "panachage" sistemaz baliatzeko aukera onartu zien hautesleei. Hau da, hautesle bakoitzak bere hauteskunde-barrutiko edozein zerrendatako edo alderditako hautagaiak aukera zitzakeen (zerrenda irekiak)¹¹.

1.4.2.1. Sei hautagai-zerrenda aurkeztu ziren:


- Unión de Derechas (UD), CT eta URG alderdiek osatua. Ordena, jabetza, familia, aberria, tradizioak eta autoritatea aldarrikatzen eta iraultzaileak salatzen zituen. Derogazionistak ziren. Hautagaiak:
 - Ramiro de Maeztu Whitney (URG)
 - Agustín Tellería Mendizábal (CT)
 - Antonio Paguaga Paguaga (CT)
 - María Rosa Urraca Pastor (CT)
- PNV bakarrik aurkeztu zen, bere planteamendu politikoak azaroaren 5ean onartutako Estatu-tuaren defentsan oinarrituz. Hautagaiak:
 - Jesús María Leizaola Sánchez
 - Manuel Irujo Ollo
 - Rafael Picavea Leguía
 - Juan Antonio Irazusta Muñoa
 - Telesforo Monzón Ortiz de Urruela
- Coalición Republicana, alegia, lau alderdi errepublikanoen (PR, AR, PF eta FCRPG) zerrenda. Elkarren arteko desadostasunak gorabehera, koalizioa sortzea lortu zuten. Hautagaiak:
 - Juan Usabiaga Lasquibar (PR)
 - Nicolás Bizcarrondo Gorosabel (AR)
 - Manuel de la Torre Eguía (PF)
 - José Miguel Gomendio (FCRPG)
- Alderdi Sozialista ere bakarrik aurkeztu zen, langileentzat botere osoa aldarrikatzeko asmoa oinarri hartuta. Barne-desadostasun batzuk alde batera utzita, honako zerrenda hau osatu zuten:
 - Toribio Echevarria Ibarbia
 - Julia Álvarez Resano
 - Enrique de Francisco Giménez
 - Federico Angulo Vázquez.
- Alderdi Komunistaren erronkarik handiena langile eta nekazarien iraultza zen. Hautagaiak:
 - Juan Astigarribia Andonegui
 - Ricardo Urendo Camiyo
 - Jesús Larrañaga Churruca
 - Luis Zapirain Aguinaga
- ANVren zerrenda, estatutuaren aldekoa. Oinarrizko erreferentziazat estatutua hartuta, ANVk hainbat alderditako hautagaiak (beste zerrenda batzuetan ere azaltzen ziren estatutistak) eta bere ordezkari bat aurkeztu zituen. Horrek ez du esan nahi beste alderdi horiekin koalizio motaren bat egin zuenik. Hautagaiak:
 - José Imaz Arrieta (ANV)
 - Jesús María Leizaola Sánchez

- Nicolás Bizcarrondo Gorosábel (AR)
- Juan Usabiaga Lasquibar (PR)

Hauteskunde-kanpainako gai nagusiak, beti bezala, erlijioa eta autonomia izan ziren, baina, koalizioak sortzeko aukerak aztertzerakoan beste auzi batzuk ere hartu ziren kontuan: adibidez, Azañaren gobernuaren gestioa.

Hurrengo grafikoan ikusten denez, 1933ko hauteskundeetako garailea PNV izan zen, Gipuzkoan bost diputatu eskuratuz. Dena den, eskuineko blokeak ere diputatu asko lortu zituen. Galtzaile handiak ezkerreko alderdiak izan ziren.

**Gorteetako diputatuak aukeratzeko hauteskundeak
(1933-11-19)**



Hona hemen Gipuzkoako barrutiko sei diputatuak:

- Jesús María Leizaola Sánchez
- Manuel Irujo Ollo
- Rafael Picavea Leguía
- Juan Antonio Irazusta Muñoa
- Telesforo Monzón Ortiz de Urruela
- Ramiro de Maeztu Whitney

1.5. 1934ko udako autonomia-ahalegina

Autonomiaren auziari buruzko tirabirak eta gatazkak etengabeak izan ziren, bai alderdi politikoen artean, bai horien eta gobernuaren artean. 1931ko eta 1933ko saioek porrot egin ondoren, 1933ko azaroko hauteskundeen ostean nagusitutako egoera politiko berrian inoizko tentsiorik gogorrenak sortu ziren, euskal autonomia eratzeke izapide parlamentarioak bertan behera geratu zirenean.

1934ko udan zehar, auziak okerrera egin zuen Euskal Herrian, gobernu zentralak ardo eta alkohol-len gaineko zerga-salbuespena ezartzea erabaki zuelako. Aipatutako erabakiak, lurralde- eta udal-sarrerak erruz murrizteaz gain, Kontzertu Ekonomikoaren zerga-arauak urratzen zituela iruditu zitzaizen askori.

Foru Aldundiak Partido Radical alderdiaren esku zeuden, ia hutsaren pareko ezarpena zuen arren. Gauzak horrela, Kontzertuaren aldeko udal-mugimendua sortu zen eta nazionalistek eta ezkerreko errepublikano eta sozialistek bat egin zuten.

Unerik gorena Zumarragako Biltzarra izan zen, nazionalistak eta sozialistak estreinakoz elkartu baitziren, bat eginik jarduteko asmoz. Diputatu katalan eta euskaldun guztiak gonbidatu zituzten, gobernuari aurkeztu beharreko erabakia adosteko.

Asmoak asmo, ezin izan zuten inolako erabakirik adostu, udal-ordezkaritza askok ez baitzuten iris-terik izan. Irailaren 4an euskal udalek dimisioa aurkeztu zuten, eta behin-behineko egoera horrek 1936ra arte iraun zuen, urte hartako hauteskundeen ondoren berriro osatu baitziren. Gobernuak, dekretu baten bidez, udalak aldi baterako kudeatzeko batzordeak sortzeko eskumena eman zion gobernadore zibilari. Alderdiei dagokienez, udaletan tradizionalistak eta erradikalak ziren nagusi.

1936ko urriaren 1ean, Gerra Zibila puri-purian zegoela, Gorteek Euskal Herriko Autonomia Estatu-tua onartu zuten.

1.6. 1934ko urriko iraultza

1933ko azaroaren 19ko gorteetarako hauteskundeak zentro-eskuinak irabazi zituen. Lerrouxi, Partido Republicano Radical alderdiko hautagaiari, zegokion gobernua eratzea, baina CEDAren (eskuinaren) babes parlamentarioa behar zuen, ezinbestez. CEDAk baldintza jakin batzuk ezarri zizkion: eliza-ikastetxeek ekinean jarraitzea, Kongregazioen Legea bertan behera uztea, lan-legedia berrikustea eta nekazaritza-erreforma geldiaraztea. Gainera, Sanjurjo jeneralak 1932an emandako estatu-kolpean zerikusia izandako guztiei amnistia ematea hitzartu zuten.

PSOE alderdia, Largo Caballero buru zela, ez zegoen ados, eta handik egun batzuetara batzorde exekutiboak beste programa bat idatzi zuen. Eskuina eta zentroa asaldatu egin ziren programan jasotako asmoekin: besteak beste, lurra nazionalizatzea, erlijio-ordena guztiak deuseztatzea eta ondasunak konfiskatzea, armadaren ordezkari milizia demokratikoa ezartzea eta guardia zibila desagitea. 1934ko otsailean, Batzorde Iraultzailea eratu zuten, gobernuaren kontra altxatzeko prest zegoena, eta gazte sozialistak armak eskuratzen eta ezkutuan trebatzen hasi ziren. Karlistak eta Falangea artean beste horrenbeste ari ziren egiten.

Gobernuak nekazaritza-erreformen kontra hartutako neurriek, Generalitatekin sortutako gatazka instituzionalak, ezkerrekoen artean hedatutako usteak (eskuina Errepublikaren kontra zegoela), CEDAk gobernuan sartzeko zuen grinaitsuak... greba orokor iraultzaileari eman zioten bidea. Grebaren aitzindaria PSOE izan zen, baina ezkerreko eta zentro-ezkerreko beste alderdi batzuek babesa eman zioten; horiek guztiek, bat eginik, erakunde legalekin hautsi eta aurrerantzean ez zituztela onartuko jakinarazi zuten.

Greba orokor iraultzailea urriaren 5ean hasi zen. Estatu-ko lurralde gehienetan hedatu zen, batik bat Asturiasen; bertan, izan ere, gerra zibil txiki bat sortu zen.

Urriko iraultza Gipuzkoako zenbat herritan ere islatu zen. Gune nagusiak Eibar eta Arrasate izan ziren, bietan errebolta-riak asmo berberen alde altxatu baitziren. Arrasaten, ordu gutxitan herri osoa kontrolatzea lortu zuten. Goizeko bostetarako, mikeleteak, gaueko zaindariak, tren-geltokia, aurrezki-kutxa

eta oinarritzko elikagaiak saltzen zituzten dendak menderatu zituzten. Ordurako, erreboltari talde armatuek toki estrategiko guztiak hartu zituzten, bakar bat izan ezik: guardia zibilen kuartela.

Azken helburua ez zuten lortu, ordea, kuartela erasotu arren, guardia zibilek ez baitzuten amore eman. Erreboltariak eskuineko buru nagusiak atxilotu eta Herriko Etxera eraman zituzten. Azkenean, iraultzak porrot egin eta udalaren inguruetara armadako indarrak iristen hasi zirenean, Herriko Etxean atxilotutako preso batzuk beste toki batera eramaten hasi ziren. Horretan ari zirela, matxinatuek Marcelino Oreja eta Dagoberto Resusta hil egin zituzten. Ricardo Azcoagak, atxilotutako beste preso batek, ihes egi-tea lortu zuen. Hirugarren hildakoa Eugenio Edurra izan zen, zauritu ondoren zendu baitzen. Urriaren 6an, armadak iraultza erabat zapuztu eta Batzorde Iraultzaileko kideek ihes egin zuten.

Altxamenduaren porrota kolpe izugarria izan zen demokraziarentzat, eta oso ondorio larriak eragin zituen: Kataluniako Estatutuaren etendura, langileen errepresioa eta ezkerreko udalen deusezta-pena. Gobernu berriak nekazaritza-erreforma bertan behera uztea, irakaskuntza publikoa zokoratzea eta zerga berririk ez ezartzea erabaki zuen, jesuitei jabetza guztiak itzultzeaz gain. 1935ean, alarma-egoera urte osoan egon zen indarrean.

1.7. 1936ko hauteskundeak

1935aren bukaeran erradikalen eta zedisten aliantza hautsi eta gobernu berria eratu zuten. Gobernu-buruak, Manuel Portela Valladares, urtarrilean Gorteak desegin eta hauteskunde-deia egin zuen otsai-laren 16rako.

Gorteak desegiteko dekretua ezagutzera eman bezain laster, hauteskunde-kanpaina hasi zen. Ar-tean indarrean zegoen hauteskunde-sistemak gehiengoak saritzen zituenez, koalizioak osatzeko beharrak polarizazioa sorrazten zuen, eta, ondorioz, indar zentristak ia desagertuta zeuden. Bi bloke handi sortu ziren: zentro-eskuinekoa, José María Gil Robles buru zuena, eta ezkerrekoa, "Fronte Popular" izenez eza-guna. Zentro-eskuineko blokea CEDAk, monarkikoek eta karlistek osatzen zuten; ezkerrekoa, berriz, so-zialistek eta ezkerreko errepublikarrek, helburu desberdinak izan arren.

Fronte Popularraren programak bi ardatz nagusi zituen: 1934ko urriko iraultzako preso eta erbes-teratuei amnistia ematea eta 1931-1933an abiarazitako erreforma-politikak berrezartzea. Euskal Herrian, Estatutua ere defendatu zuten.

Bloke kontrairaultzaileak, erlijio katolikoari eta espainiar aberriari tinko loturik zegoela, gatazka po-litikoa indarkeriaren bidez konpontzeko beharra eta Errepublikaren kontrako altxamendu militarra alda-rrikatzen zituen.

PNVk gainerako alderdiekin zertan ez zetorren bat nabarmendu zuen: eskuinekoekin gizarte-gaie-tan, ezkerrekoekin erlijio-kontuetan eta biekin arazo nazionalen.

Hauteskundeen nondik norakoak aipatzen hasi aurretik, Gipuzkoako egoera argitzea komeni da. Es-painian polarizazioa zen nagusi: "frente populistak" eta "kontrairaultzaileak" aurrez aurre zeuden, baina Gipuzkoan, Euskal Herri osoan bezala, ez zen halakorik gertatzen, PNVk, moderatua eta katolikoa izanik, egoera orekatzen eta gizarte-bakeari eusten laguntzen baitzuen.

1936ko otsailaren 16ko hauteskundeetan, ezkerreko indarren koalizioak edo Fronte Popularrak gehiengo absolutua lortu zuen Espainiako parlamentuan, 1931-33ko nagusitasuna berreskuratuz.

Euskal Herrian bigarren buelta egin behar izan zen, botoen arteko desberdintasunak txikiegiak zi-relako¹². Izan ere, ordezkari gehien —nazionalistek— eta gutxien —Fronte Popularrak— lortu zituzten ze-rrenden artean 10.000 botoko aldea besterik ez zegoen. Gainera, nazionalistek eskuineko koalizioak baino 5.000 boto pasatxo gehiago eskuratu zituen, eta koalizioak Fronte Popularrak baino 4.000 gehiago. PNVk, gainera, porrot egin zuen gehiengoaren aulki guztiak eta gutxiengoaren aulki batzuk bereganatzeko ahaleginetan. Gauzak horrela, bigarren bueltako hauteskunde-egunak, martxoaren 1ak, igandea, garran-tzi berezia hartu zuen lurraldean.

Egun batzuk lehenago, koalizio kontrairaultzaileak bere zerrenda erretiratu zuen, bi eratako arrazoi zirela eta:

- Kanpo-arrazoiak: Fronte Popularrak estatuan gehiengo absolutua zuenez, alferrikako iruditu zitzairen hautagaiak aurkeztea, porrot egingo zutela jakinik.

- Barne-arrazoiak:


1. Elizako hierarkiak PNVren aldeko botoa bidezkozatzat jo zuen, alderdi katolikoa zelako.
2. Koalizioko kideen ikuspegiaren arteko desadostasunak. Comuni3n Tradicionalista eta Uni3n Regionalista alderdien Gipuzkoako ordezkariak jarraitzaileei abstenitzea gomendatu zieten, boto askatasuna eman arren. Derecha Vasca Aut3noma (DVA) alderdiak, berriz, PNVri botatzea aholkatu zien bazkide eta jarraitzaileei.

Martxoko hauteskunde-egunean, otsailekoan ez bezala, istiluak oso ugariak izan ziren. Donostian eta beste udalerrri batzuetan ekintza bortitzak (tiroketak, hauteskontzi-apurketak, hertsapenak...) egin zituzten. Gertakari horien ondorioz, Oartzunen lagun bat hil zen, eta Donostiako eremu batzuetan eta Arrasateko batean hauteskundeak martxoaren 3an errepikatu behar izan ziren.

Martxoak 8an, hauteskunde-batzordeak emaitzak jakinarazi zituen: PNVko lau hautagaiak eta Fronte Popularreko bi izango ziren hurrengo diputatuak.

Beraz, Gipuzkoan ere nolabaiteko bipolarizazioa sortu zen, heltzeaz zegoen iraultzaren ondorioz. Eskuinak Errepublikaren kontrako jarrera argi eta garbi azaldu zuen. Izan ere, jakinekoa denez, altxamenduari aurre egin zioten bakarrak nazionalistak eta Fronte Popularra izan ziren.

Gorteetako diputatuak aukeratzeko hauteskundearen emaitzak Gipuzkoan 1936an



Bestalde, eskuineko muturrik kontserbadoreenak Gipuzkoan izandako gorakada azpimarratu behar dugu. Lurraldeko 89 udalerrietatik 28tan Coalición Contrarrevolucionaria alderdiak lortu zituen boto gehien; ia denak herri txikiak ziren, 10.000 biztanle baino gehiago zituen bakarra Tolosa baitzen, eta 5.000tik gorako bakarrak Azkoitia, Oñati eta Hondarribia. Guztien artean probintziako biztanleriaren % 17 osatzen zuten. Herriak txikiak izan arren, bistakoa da eskuinak Gipuzkoan eremu zabala bereganatu zuela. Bestalde, nazionalisten zerrendako botoen % 8 inguru eskuinera joan zen.

Fronte Popularrak Gipuzkoako sei udalerririk handienetan irabazi zuen —guztien artean probintziako biztanleriaren % 44 zuten—, baina, 1933ko hauteskundeekin alderatuta, ez zuen eman inolako aurrerapausorik ez hedapen geografikoan, ezta politikoan ere, eta, jakina 1931ko emaitzetatik asko urrundu zen. Ikusten denez, altxamenduari zuzenean aurre egin behar izan zion bakarra, ezkerra, Gipuzkoako sistema politikoaren osagairik ahulena zen. Dena den, Gerra Zibilaren lehen fasea hiriguneetan gauzatu zenez, ezkerrek berebiziko eragina izan zuen, gune horietan, batik bat Donostiako eskualdean, ongi finkatuta baitzegoen, probintziako gainerako eremuetan ez bezala.

1.8. Gatazka soziopolitikoak

Historiografia tradizionalak II. Errepublikako azken bake-hilabeteetan sortutako lan-gatazkak eta istilu politikoak etengabe aipatu ohi ditu. Arrazoi orokor hori, ordea, ez da baliagarria Gipuzkoarentzat, biztanleen jokabide politikoak, Lurralde Historikoko alderdi-sistema eta alderdi politikoaren ezarpena kontuan hartuta. Nabardura hori egin ondoren, otsailetik uztailera bitartean lan-munduan eta politikan izandako gorabeherak bereizita aztertuko ditugu.

1.8.1. Gatazka politikoak

Ezkerreko eta eskuineko kideen indarkeriazko ekintzak oso urriak izan ziren Gipuzkoan. Zenbait alderdi politikori lotutako miliziak (MAOC, sozialistak, erreketek eta falangistak) Donostiako eskualdean sortu ziren gehienbat, lurraldeko gainerako eremuetan, erreketek izan ezik, ez baitzuten ia inolako presentziarik. Garai hartako gertakariak aipagarriena Manuel Banús falangista gaztearen heriotza izan zen, ez bairik gabe. FET y JONS alderdiko militantearen heriotzak zuzeneko lotura izan zuen, Gipuzkoa mailan, Gerra Zibilaren atariko bi gertakari garrantzitsurekin: Castillo asalto-tenientearen eta Calvo Soteloren erailketekin. Calvo Sotelo Renovación Española taldeko burua zen.

1.8.2. Lan- eta gizarte-gatazkak

Gerra Zibila piztu aurreko giroaren bigarren berezitasun nagusia lan- eta gizarte-istiluen gorakada nabarmena izan zen.

Ezkerrek otsaileko hauteskundeetan lortutako garaipenaren ondorioz, langile-erakundeak jardunean hasi ziren berriro, ekimen aldarrikatzaileak etengabe antolatuz. Langileen egoera txarra zen, ekonomia-krisiak eraginez, eta, ezaugarri horri gizaratearen polarizazioa gehitu zitzaionez, otsailetik uztailera bitartean Errepublikaren agintaldiko lau urteetan baino greba gehiago egin ziren ondoz ondo. Hori guztiz berria zen Gipuzkoan.

1936ko otsailetik uztailera, Gipuzkoan 27 lan-gatazka sortu ziren. Bizkaiko kopurua antzekoa izan zen, eta Nafarroakoa txikiagoa. Gatazkarik gogorrena eraikuntzarena izan zen. Eraikuntzako greba Donostian antolatu eta ia estatu osoan hedatu zen. Apirilaren 25ean, UGTri eta CNTri atxikitako eraikuntzarloko sindikatuek 40 lanorduko astea aldarrikatu zuten Donostian. Adostasunik lortzen ez bazen greba-deia egingo zutela jakinarazi zuten. Gatazka luzatu egin zen, eta, tartean, hainbat indarkeria-ekintza gauzatu ziren: adibidez, janari-denden kontrako erasoak. Egurraren arloko langileek eta Pasaiaiko arrantzaleek grebarekin bat egin ondoren, are egoera korapilatsuagoa sortu zen. Gatazkak 5.000 langile hartu zituen barne.

Beste ezaugarri aipagarri bat STV sindikatu nazionalistak Errepublikaren amaierako giro gatazka-tsuan izandako jokaera dugu. Eraikuntzako ordezkarien aldarrikapenei atxikitzea erabaki eta apirilaren 28an greba batzordean sartu zen, UGTrekin eta CNTrekin batera, Gipuzkoako sindikalgintzan ordura arte inoiz ere sortu gabeko indar multzoa osatuz. Klase-sindikalgintzaren inguruko lankidetza Pasaiaiko arrantzaleen greban mamitu zen berriro.

Azkenik, gatazken geografia zehaztea ere garrantzitsua da. Oñatiko altzarigileen, Urretxuko karrorazien eta Eibarko metalurgia-langileen grebak izan ezik, gainerako guztiak Donostiako eskualdean egin ziren. Udalerririk gogorrenak hiriburua eta Pasaia izan ziren, langile eta sindikatu gehien zituztenak, alegia. Donostiak eta Pasaia erabat nabarmendu ziren altxamenduaren hasierako egunetan, langile-erakundeek Errepublika defendatzeari ekin baitzioten.

1.9. Ondorioak

II. Errepublikako legegintza-hauteskundeek xehetasunak aztertu ondoren, honako ondorio nagusi hauek atera ditzakegu¹³:

Alderdi-aniztasuna, hauteskunde-blokeak sortzeko joera eta muturreko pluraltasun polarizatua. Hauteskunde-kanpainak ardatzak autonomia- eta erlijio-arazoak izan ziren, gizarte-gaiak baino gehiago.

Euskal Herriko iritzi politikoak eta estatuko gainerako lurraldeetakoak ez zetozen bat, Gorteetarako hiru hauteskundeek agerian utzi zuten bezala.

Euskal gizartearen pluraltasun politikoa Gerra Zibilaren aurretik: hauteskunde-geografien arteko desberdintasun nabarmenen ondorioz, gerra hasi ondoren Euskal Herria bitan banatu eta eremuek aurrez aurre jardun zuten.

2. Aretxabaletako eguneroko bizitza (1930-1940)

Antxia Leturia, Aitor



Atal honetan, 1930-1940 hamarkadan Aretxabaletako eguneroko bizitza nolakoa zen aztertuko dugu. Orduko errealitateari lotutako hainbat alderdi jorratuko ditugu: demografia, hirigintza-bilakaera, bizitza maila, soldatak, prezioak, irakaskuntza, eliza, ohiturak, politika...

2.1. Biztanleria eta kaleko bizitza

1930ean, 2.271 biztanle zituen Aretxabaletak, 1935ean 2.356 eta 1936an, Gerra Zibila hasi zen urtean, 2.060. Ikusten denez, 300 bat lagunekoa galera izan zuen biztanleriak. Handik aurrera, kopurua etengabe handitu zen urtez urte: 1937an 2.134 biztanle, 1938an 2.185, 1939an 2.318, eta 1940an 2.441.

Biztanleen erdia baserri-auzoetan bizi zen. Bestalde, ekar dezagun gogora Bedoña auzoa Aretxabaletakoa zela orduan.

1930an kaleak "pintatu" eta izen berriak ezarri zizkieten: adibidez, Mitarte kalearen amaieratik aurrera zihoanari "Ensanche-ko kalea" deitu zioten.

Santiago Ondarra jauna alkate izendatu zuten. Alkatetzako zereginak ez ezik, maisu-lanak ere egingen zituen. Ika-mikak izan zituen beste zinegotziekin, maisu-lanetan egoki ez zebilela uste zutelako, eta, azkenean, zortzi zinegotzik alkatea kargugabetzea lortu zuten. Orduan, Andrés Izaguirre alkate izendatu eta 1924ko errolda (2.094 biztanlekoa) onartu zuten.

Garai hartako eguneroko bizitza ez zen batere eroso. Hona hemen ohiko soldata batzuk:

- Ofizialek (sarrailagileek edo antzeko lanpostuetan zihardutenek): 7-8 pta/eguneko.
- Baserritarrek, batez beste: 7 pta/eguneko.
- Arotz, igeltsero eta saskigileek: 12 pta/eguneko.
- Dendariek: 12 pta/eguneko.
- Maistrek: 2.500 pta/urteko; maisuek: 4.000 pta/urteko.
- Medikuek: 4.000 pta/urteko.
- Botikariek: 9.000 pta/urteko.
- Abokatuek: 11.000 pta/urteko.
- Mikeleteen kaboek: 2.750 pta/urteko.

Soldatak eskasak ziren, baina elikagaiak garestiak: ogiak 60 zentimo balio zuen, dozena bat arrautzak 3,60 pta, kilo bat patatak 30 zentimo, kilo bat oliok (halaxe saltzen zen) 2,25 pta, arrozak 75 zentimo kiloko, dilistek 1,30 pta.... Udal hiltegian hilero 16 zekor hiltzen ziren, batez beste. Aretxabaletan, 30.000 kilo behi-haragi eta 15.000 kilo txerriki jaten ziren urteko¹⁴.

Eguneroko elikagai nagusiak txerrikiak eta barazkiak ziren, baina babarrun gorriak, urdaia, patatak, porruak, kafesnea eta berakatz-zopa ere jaten zituzten. "Aita gurea, ama gurea, zopak jan eta lo-gurea". Igandeetan garbantzuak jaten zituzten, eta, horregatik, larunbat eguerdiko kanpaiei "garbantzu-kanpaia" deitzen zieten, biharamuna jai-eguna zela eta garbantzuak jango zituztela adierazten zutelako. Emakumezko arrain-saltzaile bat kalez kale ibiltzen zen antxoa freskoak txakur handi batean saltzen zituela hots egiten.

Aurreko hamarkadan tren-geltokia egin zuten, eta eraikuntza-lanen inguruan iritsi ziren lehen etorkinak Gaztela eta Leonetik eta, batik bat, Zamorako probintziatik. Gaur egun ere, oraindik, etorkinen artean Zamoran jaioetakoak dira nagusi: "[...] batzuek txapel txiki bat zuten buruan, belarrietaraino sartuta, eta beste batzuek bisera. Gehienek panazko prakak zeramatzen soinean, eta labana txiki bat poltsikoan [...]".

1934ko iraultzaren ondorioz, hamarkada osoan zehar, herritar dirudunek eta jabeek guardia zibilen kuartela eraikitzeko eskatu zuten. Halaxe eraiki zuten egungo kuartela¹⁵.

Herriko industrialariak, merkatariek eta gainerako jaun garrantzitsuek, berriki jazotako gertakari iraultzaileek jende zintzoa inolako babesik gabe utzi dutela ikusita, Udalarengana jo dute, guardia zibilen postu iraunkor bat ezartzeko eska dezan. Izan ere, biztanleen lasaitasuna ziurtatzeko moduko indar defendatzailerik ez dagoelako sortu da babesgabetasun-egoera hori. Gainera, lantegiak irekitzen ari direla eta dagoeneko 700 bat langile daudela kontuan hartuta, ezinbestekoa eta premiazkoa iruditzen zaie kuartela eraikitzea, joan den urriaren seko eta 6ko gertakariak errepika ez daitezen, dendak eta biztanle zintzoak iraultzaileen mende egon baitziren, tropek mugimendua zapuztea lortu zuten arte.



Guardia zibilen kuartela, gaur egun. Armairi errepublikarra dauka.

Guardia zibilek herriko industriari, merkatarik eta jabeen eskaria onartu eta eraikina prest egon bezain laster joango zirela erantzun zieten. 1776 m² erosi zituzten 5.461,5 pezetatan, eta lanen kostua 105.907 pezetakoa izan zen. Kuartela 1936ko urtarilaren 10ean inauguratu zuten.

Herriaren erdialdean ere aldaketak egin zituzten: plazako hormak erautsi, beste plaza bat eraiki eta iturria tokiz aldatu zuten.

1934an, Genaro Arenazak bolatokia eraiki zuen, 8.319,16 pezeta ordainduz.

Garai hartan oso auto gutxi zeuden Aretxabaletan: 17 guztira. Hona hemen autoen eta jabeen zerrenda¹⁶:

Auto eta automobilen 1934ko zerrenda

Jabea	Matrikula	Marka
Aguirregaviria y Zubia	SS-5810	Whippet
M ^a Josefa Urtubi Ercilla	NA-1593	
Luis Fuentes Astiz	SS-6817	Essex
Eugenio Aguirregaviria	VI-1019	Buick
Pedro Lasagabaster	BI-6363	Fiat
Lezama y Cía	SS-6757	Essex
Pablo Zuazabeitia	VI-639	Peugeot
Roque Aguirre	BI-3273	Amilcar
Silvestre Idigoras	VI-1222	Ford
Tomas Aguirre	SS-4907	Renault
Roman Mondragon	SS-7931	Citroën
Romualdo Leanizbarrutia	SS-3954	Renault
Antonio Mtnez de Aguirre	VI-455	Renault
Valentin Herrasti	SS-7094	Chevrolet
Luis Arrue	Ezezaguna	Ezezaguna

2.2. Eskoletako irakaskuntza

1903an, gutun bat iritsi zen Arrasatetik. Moja agustindarrak Aretxabaletara zihoazela eta Otalorako lorategietako bainuetxean edo Bainu Berrietan finkatzeko asmoa zutela zioen. 1910eko erroldan 22 moja azaltzen dira, denak euskaldunak

Handik urte batzuetara, moja beneditarrak (*moja frantsesak*) iritsi ziren. 1920ko erroldan 23 azaltzen dira, horietako 14 frantsesak. Moja beneditarrek hitzarmena sinatu zuten udalarekin, Villa Genoveva izeneko etxean bizi eta eskolak ere bertan eman ahal izateko. 7 urterako hitzarmena zen, berez, baina 1924ko erroldan ez da moja beneditarrik aipatzen.

Pedro Viteri filantropo arrasatearrak bere jaioterrian eta inguruko udaletan, baita Aretxabaletan ere, eskolak eraikitzeke dirua eman zuen. Batzuk jadanik eraikita zeudela, 1905eko abuztuaren 16an Aretxabaletako eskolaren lehen harria ezartzeko ekitaldia egin zen. Ekitaldiko gonbidatuetakoa bat González-Tablas jenerala zen, eta laguntzaile batek haxe galdetu zion handik zebilen haur bati:

- Hemen jaio al da pertsonaia handirik?
- Ez dut uste, hemen txikiak jaiotzen gara denok –erantzun zion mutikoak.

Viteri eskolan, Aretxabaletako ikastetxe bakarrean, herriko neska-mutil guztientzako lekua zegoen. Mutilen maisua Santiago Ondarra zen, eta nesken maistra Francisca Azurmendi. Segurako senar-emazteak ziren.



Nesken eskola eta Francisca Azurmendi maistra.

Bi gela zeuden. Batean sei urtetik hamalaura bitarteko mutikoek ikasten zuten, eta bestean adin bereko neskatoek. Irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen zituzten, Moyanoren entziklopediari jarraituz. Irakasleek batzuetan euskaraz hitz egiten zuten gauzak argi azaltzeko, batik bat haserretu eta, sarta eskuan hartuta, mahaitik altxatzen zirenean.

Errepublikaren garaian eskoletako gurutzeak kendu egin zituzten. Ikasle askok greba egin zuten, eta biharamunean gurutze txiki bat bularrean ezarrita joan ziren eskolara.

Arbela, egur-berogailua eta lamina pilo bat hormetan zintzilik: sugeak, krokodiloak, pelikanoak, hipopotamoak, lehoiak, burruntsiak, tximeletak... Horiexek ziren geletako altzariak eta apaingarriak. Horma nagusian Gibraltarreko Haitzaren irudia, Espainiako bandera eta guzti, ezartzen zuten, denek aurrez aurre izan zezaten.

Artean ez zegoen boligraforik, eta tintontziak erabiltzen ziren. Ikasmahai bakoitzak tintontzi bat zeukan, euliz eta klarion-hautsez betea.

Larunbat goizetan, ikasleak ilaretan jarri eta maisu-maistrek belaunak, azazkalak eta belarriak arretaz begiratzen zizkieten, galipot- eta lokatz-arrastorik edo ezkorik (belarrietan) ba ote zuten ikusteko. Txukun ez zegoen ikaslea bere burua berriro garbitzera behartzen zuten.

Ikastolei dagokienez, ez dago argi Errepublikaren garaian zenbat ziren zehazki. Gehienak Federazioaren kontrolpean zeuden, eta den-denak PNV alderdiaren eraginpean. 1935ean, Eusko Ikastola Batza elkarteak 27 ikastola zeuden, guztira, hamabi udaletan. Izan ere, udal batzuetan ikastola bat baino gehiago zegoen. Gainera, beste bost irekitzeko asmoa zuten, horietako bat ibiltaria, Errepublikaren "misio pedagogikoen" tankerakoa. Ikastola berriak Arrasaten, Aretxabaletan, Sestaon eta Deustun nahi zituzten finkatu, eta horiei ibiltaria gehituko zitzaient. Aretxabaletakoa, ziur aski, ekinean ere hasiko zen¹⁷.

Hona hemen 1930etik 1940ra bitarteko irakasleen zerrenda:

Irakasleen zerrenda (1930-1940)

Auzoa edo herria	Urtea	Izena	Soldata (pta/urte)
Aozaratza	1928	Fermín Colás Yagüe	?
Aretxabaleta (eskolaurrekoak)	1931	Pilar Usandizaga Azkunaga	2.000
Aretxabaleta (neskak)	1931	M ^a Pilar Calvo Taberna	2.000
Aretxabaleta (mutilak)	1931	Victor Gorrotxategi Gorrotxategi	2.000
Aretxabaleta (mutilak)	1931	Juan M. Intxausti Peña	3.000
Aretxabaleta (mutilak)	1933	Santiago Ondarra	3.000
Aretxabaleta (neskak)	1933	Francisca Azurmendi	2.000
Aretxabaleta (neskak)	1939	M ^a C. San Pedro Barrenetxea	3.000
Aretxabaleta (neskak)	1940	Caridad Martínez Galdos	5.000
Aretxabaleta (neskak)	1940	M ^a Concepción Pérez Pérez	4.000

Santiago Ondarra maisua eta Francisca Azurmendi maistra, Aretxabaletan urte luzez eskolak ematen jardun ondoren, beste ikastetxe batera joan ziren, udalarekin izandako eztabaida batzuen ondorioz. Bien pos-tuak betetzeko, lehiaketa egin zuten. Hona hemen 1933ko neska-mutil ikasleen kopuruak, erroldaren arabera:

1933ko eskola-errolda

Eskola	Taldeak	Mutilak	Neskak	Guztira
Eskola Unitarioak (Viteri eskolak)	Aretxabaleta	73	69	142
	Etxebarri	18	11	29
	Oro	6	3	9
	Arkarazo	11	5	16
	Bedoña	25	22	47
	Isurieta	5	3	8
	Galartza	14	13	27
Guztira		152	126	278
Aozaratzako eskola	Larrino	11	10	21
	Aozaratza	14	11	25
	Areantza	7	4	11
	Goroeta	24	9	33
Guztira		56	34	90
Guztizkoak		208	160	368

Herrian baziren ikasteko aukera gehiago ere. STV sindikatuak doako marrazketa-eskolak antolatu zituen bazkideen seme-alabentzat, baina maisuak, Ángel Aznar jaunak, Venezuelara erbesteratu behar izan zuen gerra bukatu eta gero.

Aretxabaletaren eta Eskoriatzaren artean, Marianisten ikastetxea zegoen. Jolastoki eta pasealeku handiak zituen. Kaleko mutilak eta Arkarazo eta Mendiola auzoetakoak joaten ziren bertara.

1935-1936 ikasturtearen bukaeran, Gerra Zibilaren atarian, ikastetxe hauek zeuden:

- Eskola Unitario Nazionalak: 4 eskola unitario, 2 mutilenak eta beste bi neskenak. Bakoitzean 60 ikasle zebiltzan. Maisu-maistrak:

Mutilenak:

1. unitarioa: Roque Manuel Mateo Rodríguez.

2. unitarioa: Benito Alonso Rodríguez.

- Roque Manuel Mateo Rodríguez: Cabanillasen (Nafarroa) jaioa, 1882ko abuztuaren 15ean. Ota-lora kaleko 8. zenbakian bizi zen, bere ama alargunarekin (Segunda Rodríguez).

- Benito Alonso Rodríguez: Tuteran (Nafarroa) jaioa, 1894ko urtarrilaren 12an. Cirila Galarza San Millán maistrarekin zegoen ezkontuta eta seme bat, Jesus, zeukaten. Durana kaleko 29. zenbakian bizi ziren.

Neskenak:

1. unitarioa: Isabel Navarro López.

2. unitarioa: Matea Elorza Campos.

- Isabel Navarro López: Ampudian (Palentzia) jaioa, 1909ko uztailaren 28an. Manuel Rivas Nogueraekin zegoen ezkontuta eta bi seme-alaba zituzten: Manuel eta M^a Carmen. Durana kaleko 34. zenbakian bizi ziren, Fermina del Pozo neskamearekin. Senarra Eskoriatzako maisua zen.

- Matea Elorza Campos: 1886ko irailaren 21ean jaioa. Anastasio Marzana Landabururekin zegoen ezkontuta eta 5 seme-alaba zituzten: Benita, Salvador, Carmen, Milagros eta Benedicto. Bizkaitarrak ziren, Arrazuakoak. Durana kaleko 42. zenbakian bizi ziren.

- Eskola Nazional Mistoa: 2 zeuden, bata eskolaurreko umeentzat eta bestea neska-mutil handi-agoentzat. Lehenengoa Viteri eskolako beheko solairuan zegoen, eta bigarrena Aozaratza auzoan. 75 eta 35 ikasle zituzten, hurrenez hurren. Maisu-maistrak:

Eskolaurreko haurrena: Cirila Galarza San Millán.

- Cirila Galarza San Millán: Lezan (Arabak) jaioa, 1889ko urriaren 28an. Lehen adierazi dugun moduan, Benito Alonso Rodríguez maisuarekin zegoen ezkontuta.

Aozaratzako eskolakoa¹⁸: Fermín Colás Yagüe.

- Fermín Colás Yagüe: Campillo de Aragón herrixkan jaioa, 1887ko urriaren 11n. Ezkongabea zen. Gregorio Gabilondo Amilbururen ordeztatu zen, 1922ko apirilaren 15ean lanpostua utzi baitzuen, 15 urtez jardun ondoren.

1936ko irailaren 24an, faxistek Aretxabaleta hartu zuten, eta berehala hasi ziren "gauzak konpon-tzen". Horra zer zioen azaroak 9ko dokumentu batek¹⁹:

Udalerria Fronte Popularraren milizia gorrien mende egon den denboran eskolako eraikinak, ospitaleak eta guardia zibilen kuartelak izandako kalteen zerrenda. Guztira 1879,80 pta.

Gerra piztu zenean, uda Orion igarotzen ari zen Zaragozako eta Calatayudeko ikasle talde bat Ber-garara eraman zuten, eta handik Aretxabaletara, toki lasaiagoa zelakoan. Nazionalak Aretxabaletan sartu zirenean, Gasteizera eraman zituzten lehenbizi eta Zaragozara gero. Gertakariak kezka handia sortu zuen, egun batzuetan ikasleak "desagertuta" egon zirelako²⁰.



Mutilen eskola eta Benito Alonso maisua.



Eskola mistoa eta Cirila Galarza maistra.

1936tik 1937ra bitartean, ikasle kopurua 425etik 350era murriztu zen. Faxistak 1936ko irailean sartu zirela kontuan hartuta, "normaltasuna" berrezarri arte, neska-mutilek oso oporraldi luzea izan zuten. Eskolak 1937ko maiatzaren 10ean hasi ziren berriz jardunean.

1938an, udalak gutuna bidali zuen Gobernu Zibilera, bi maistra falta zirela jakinarazteko eta bi ordezeko izenda zitzala eskatzeko. Beste zerbait gaineratu zuten: irakaskuntza hobetzeko, bi eskola eraiki beharko lirakeela, bata Bedoñan eta bestea Galartzan.

Ohitura onak zaintzeko eta hedatzeko, Lehen Hezkuntzako Udal Batzordea eratu zuten. 1939an, Gerra Zibila bukatu eta denbora gutxira, kide hauek zituen:

Lehen Hezkuntzako Udal Batzordea (1939)

Eustaquio Alcorta Michelena	Alkatea	Lehendakaria
Toribio Elcoro Gorosarri	Zinegotzia	Kidea
Benito Alonso Rodríguez	Maisua	Behin-behineko kidea
Jose Cruz Iturrioz Telleria	Parrokoa	Kidea
Tomas Aguirre Goicolea	Medikua	Kidea
Cecilia Olave Uriarte	Gurasoen ordezkaria	Kidea
Juan Pablo Lizarralde	Gurasoen ordezkaria	Kidea

Hona hemen Batzordeak hartutako erabaki batzuk²¹:

- Eskola unitarioetako gela bakoitzean 50 ikasle eta eskolaurreko gela bakoitzean 80 egongo dira.
- Eskolara joatea derrigorrezkoa izango da. Igande eta jai-egunetan ikasleak, gelaka, mezatara joango dira. Irakasleak zerrenda irakurriko du, eta bidezko arrazoirik gabe huts egiten dutenei zigorra ezarriko die.
- Eskola-ordutegia haxe izango da: goizez 08:30tik 11:30ra eta arratsalde 14:00etatik 16:00etara. Uztailaren lehen hamabostaldian eta irailaren bigarren hamabostaldian, 08:00etatik 12:00etara.
- Ikasleak ongi jantzita eta oinetako egokiekin joango dira eskolara, aurpegia eta eskuak txukun eta garbi ditzutela.

Irakasleen etxearen alokairua ordaintzea tokian tokiko udalaren betebeharra zen. Aretxabaletako udalari, biztanle kopuruaren arabera, 25 pezeta ordaintzea zegokion, baina maisu-maistrek askotan borrokan ibili behar izan zuten, behin baino gehiagotan, diru hori eskuratzeko.

2.3. Erlijio bizitza

Erlijioari dagokionez, jendearen bizitzan funtsezko hainbat une edo urrats zeuden: bataioa, bi jaunartzeak, zazpi urterekin lehena eta hamalarekin bigarrena, sendotza eta ezkontza, olio santuak eta hiletak.

Garai hartan, bi bekatu mota bereizten zituzten: arinak edo benialak eta larriak edo heriozkoak. Seigarren aginduari arretaz begiratzen zitzaion, eta aitortzak hortik hasten ziren beti. Etxeetan arrosarioa errezatzen zuten gauero, afalaurretik mahaia jartzen zuten bitartean.

Bestalde, Garizumako "misio" zalapartatsuak ezin ditugu aipatu gabe utzi. Goizeko eta arratsaldeko zazpiak aldera, beirateetako errezelak itxi eta, eliza barrua ia ilunpetan zegoela, predikatzailak, esku ba-

tean gurutzea hartuta, dardarka uzten zituen denak bere ahots ozen eta irmoarekin. Aste Santuan tabernak itxi eta kanpaiak, txirrinak eta era guztietako hotsak mututu egiten ziren. “Miserereen” artean, herritarak lehian aritzen ziren, karrakari eraginez ahalik eta zaratarik handiena ateratzen saiatuz. Iluntzean, *aramaittekuak* edo Agur Mariaren kanpaiak entzun bezain laster, neskek etxera itzuli behar izaten zuten

Pazko-igandean, nahitaezkoa zen bekatuak aitortzea eta Jauna hartzea. Gainera, amabitxiek karpaxoa oparitzen zieten seme-alaba besoetakoei.

Mezak, bezperak, arrosarioak, bederatziturrenak eta prozesioak egiten ziren. Kanpai-hotsak ongi asko bereizten zituzten: adibidez, mutiko edo neskato bat ala gizon edo emakume bat hiltzorian zegoela adierazten zutenak.

Jasokunde-egunean, herritar bakoitzak berrogei kredo errezzatu behar zituen etxean edo kalean, bakana edo taldean.

Solfeoa sakristian ikasten zuten, eta eliz kanten entseguak koruan egiten ziren. Lehenbizi gregorianoak ikasten zituzten, gero Eslavaren, Goikoetxearen eta Palestinaren lanak, eta, jakina, Perossiren meza pontifikala. Ignacio Usandizagak jotzen zuen organoa. Aretxabaletako parrokiako egungo harmoniuma 1905ean erosi zuten, udalak lagunduta.



Gazte errepublikarrak gramola entzuten. (1) Francisco Otero, (2) Francisco del Teso, (3) Florentino Andrés eta (4) Ladis del Teso.

Errepublikan zehar, eskoletan katekesia kendu ondoren, mezatan emakumeek erabiltzen zituzten eserlekuetan jartzen ziren ikasleak. Dantza lotuak debekatuta zeuden neska-mutilentzat, baina Domingo Uribesalgo “Alkur-ri” gramofonoa erosteko baimena eman zion udalak, eta jai-egunetan dantzaldiak antolatzen hasi zen. Lehen pieza “Marcial Lalanda” pasodoblea izaten zen beti. Dantzan ari zirela, Uribesalgok etiketatxo bat ezartzen zien mutilei sarrera ordaindu zutela egiaztatzeko. “Hau Arrasateko

banda baino hobea da; kioskorik ere ez da behar” esaten zuten parte-hartzaileek. Behin, Arkarazoko jaie-tan (San Millan), auzoko parroko on Remigiok gurutzea eskuan hartu eta plazan dantzan ari ziren biko-teak banatzen jardun zuen, Jainkoaren aginduz, beharbada. Egunkarietan apaizak egindakoari buruzko iruzkin barregarriak argitaratu zituzten, baina ez zen, inondik inora, horrelako jarrerak zituen bakarra. Adibidez, Mariaren Alaben lagunarteak kongregazioko neskak berehala kanporatzen zituen, plazan mu-til batekin dantza lotuak egiten ikusiz gero. Ez dakigu “Luistarrek” (mutilen kongregazioak) jarrera bera zuten ala ez.

2.4. Bizitza publikoaren xehetasunak

1931ko hauteskundeetarako, 1929ko errolda hartu zuten kontua. Erroldaren arabera, 2.287 biztanle zeuden, eta hauteskundeetan % 81,98k eman zuen botoa. Emaitzak hauexek izan ziren:

- Katoliko eta monarkikoek: 5 zinegotzi.
- PNV alderdiak: 5 zinegotzi.

Udalbatza osatzeko ekitaldira alderdi sozialistako kideak ere joan ziren, eta kide hautatu berriei bo-toak indarkeriaren bidez erosi eta zinegotzi batzuk baztertu izana leporatu zieten. Orduan, gobernadoreak saioa baliogabetzea erabaki zuen.

Udal-hauteskundeekin batera, Madrileko Gorteetakoak ere egin ziren. Hona hemen emaitzak:

- Candidatura Vasca en defensa del Estatuto: 421 boto, % 82,54.
- Errepublikanoen, sozialisten eta ANVren aliantzak: 89 boto, % 17,45.

Azkenean, udal-ordezkarri berriak apirilaren 22an izendatu zituzten:

- Alkatea: Pedro Jauregi Leibar.
- Alkateordeak: Domingo Lasagabaster Leibar eta José Galdos Gorosarri.
- Sindikoa: Gregorio Idígoras Isasmendi.
- Zinegotziak: Pedro Gastañaga Idígoras, Timoteo Uribe-Etxebarria Arenaza, Santiago Arenaza Ga-biria, Andres Bengoa Bengoa, Eustaquio Alkorta Mitxelena eta Antonio Garai Arriola.

“Presidenteari lagundu eta herritarren alde jardungo dugu beti, zuzentasunez jokatzuz” adierazi zuen Eustaquio Alkortak monarkikoen izenean.

Ekainaren 15ean udal berria eratu zuten, katoliko-independenteek 6 zinegotziak eta EAJ-PNVren 4 zinegotziak izendatuz.

- Alkatea: Pedro Jauregi Leibar.
- Alkateordea: Domingo Lasagabaster Leibar eta Andrés Izagirre.
- Sindikoa: Gregorio Idígoras Isasmendi.
- Zinegotziak: José Galdos Gorosarri, Bernardino Zubia, Pedro Gastañaga Idígoras, Santiago Arenaza Gabiria, Eustaquio Alkorta Mitxelena eta Antonio Garai Arriola.

Udalaren Osoko bilkurak Errepublikaren gobernuko presidenteari idazkia bidaltzea erabaki zuen²²:

Espainiako estatuaren egituraketa berria dela eta, udal honetako gutxiengo nazionalistak, na-zio gisa dagozkigun eskubide natural eta historikoak berretsi ondoren, Euskal Herriaren autodetermi-naziorako lehen ekintza gauzatzeko eskatzen du, hau da, gainerako iberiar errepublikekin konfederal-tutako Euskal Errepublika sor dadila... Ildo horretan, euskal lurretatik Donostiako itun handian hitzartutakoa betearazteko borrokatzen ari direnei erabateko babesa eskaintzen die.

Aretxabaletako alkatea eta Gipuzkoako beste alkate batzuk Donostian elkartu ziren, Gipuzkoako Estatutua eta Euskal Estatutu Orokorra idazteko lanak abiarazteko.

1934ko urriaren 22an, gobernadoreak alkate berria izendatu eta udal berria eratu zuen²³. Orduan ere, 1933ko eskaera berbera zegoen mahai gainean: guardia zibilen kuartela eraikitze beharra.

- Alkatea: José M^a Amuriza Gojenola.
- Alkateordeak: Domingo Uribesalgo Trojaola eta Juan Pablo Lizarralde.
- Sindikoa: Gregorio Idígoras Isasmendi.
- Zinegotziak: Antonio Garai, Juan San Martín Martínez eta Eustaquio Alkorta Mitxelena.

2.4.1. Elkarre politikoak eta sindikalak

Errepublikaren garaian, Gerra Zibila piztu arte, langileen eskubideak defendatzen zituzten sindikatuak sortu ziren joera politiko jakin batzuen inguruan. Karlismoaren jarraitzaileek Zirkulu Tradizionalista sortu zuten, ohitura zaharrei eusteko asmoz.

Zirkulu Tradizionalista 1932ko maiatzaren 25ean eratu zuten. Elkarrearen egoitza Durana kaleko 26. zenbakiko 1. solairuan zegoen, eta geroago Durana kaleko 32. zenbakira eraman zuten. Lehen zuzendari-tza-batzordeko karguak hauek izan ziren²⁴:

- Lehendakaria: Severiano Olaran Galfarsoro.
- Lehendakariordea: Toribio Elcoro Gorosarri.
- Idazkaria: Santos Eizagirre Ostolaza.
- Kontularia: Eustasio Oianguren Elortondo.
- Diruzaina: Timoteo Ezpeleta Viteri.
- Kideak: Pedro Zubizarreta Múgica, Mateo Gallastegi Zarrigoitia, Timoteo Uribe-Etxebarria Zubizarreta eta Severiano Altube Legorburu.

1934an, lau langile-elkarre zeuden Aretxabaletan: Solidaridad de Trabajadores Vascos (Euskal Langileen Elkartasuna), Sindicato Metalúrgico UGT (UGTren Metalurgiako Sindikatua), Eusko Nekazari Bazkuna eta Sindicato Libre de Obreros Católicos (Langile Katolikoen Sindikatu Librea). Lehenengoen egoitza Durana kaleko 26. zenbakian zegoen, eta bigarrenarena Otalora kaleko 18. zenbakiko 2. solairuan.



UGTko bazkideak eskolen ondoan, argazkirako prest. Ziur aski, maiatzaren 1eko ospakizunetan aterako zuten.



1932. Batzokiko Ezpatadantza taldea.

UGT sindikatuko²⁵ zuzendaritza-batzordea²⁶: (130 bazkide)

- Lehendakaria: Saturnino Bravo Santamaría.
- Idazkaria: Manuel Martínez Quincoces.
- Diruzaina: Eutiquiano Sánchez López.
- 1. kidea: José Martínez Jiménez.
- 2. kidea: Vicente Lizarralde Izurrategi.

STVren zuzendaritza-batzordea²⁷: (276 bazkide)

- Lehendakaria: Juan Zaldibia.
- Lehendakariordea: Alejandro Garciaetxabe.
- Idazkaria: Pablo Lizarralde.
- Idazkariordea: Félix Alberdi.
- Diruzaina: Celestino Madariaga.
- Kideak: Felipe Elorza eta Bibiano Guridi.

Zentro Errepublikanoa Otalora kaleko 4. zenbakian zegoen. Zuzendaritza-batzordea 1935eko ekainaren 23an²⁸:

- Lehendakaria: Luis Sauquillo.
- Lehendakariordea: Silverio Vélez de Mendizabal.

- Idazkaria: Remigio Lombide.
- Diruzaina: Eugenio Zaldibia.
- Akten idazkaria: Rufino Hurtado.
- Kideak: Francisco Arkauz, Clemente del Teso eta Tomás Soria.

Emakumeen Batza PNV alderdiko emakumeen elkartearen zen. 1935eko zuzendaritza-batzordea²⁹:

- Lehendakaria: Mercedes Abarrategi.
- Lehendakariordea: Eugenia Alberdi.
- Idazkaria: Miren Ariño.
- Idazkariordea: Julia Azkarretazabal.
- Diruzaina: Basilisa Antxia.
- Kideak: María Agirrebeña, Manuela Unamuno eta Julia Galdos.

Batzokiko edo Eusko Etxeko zuzendaritza-batzordea³⁰:

- Lehendakaria: Victoriano Akizu.
- Lehendakariordea: Mateo Lasagabaster.
- Diruzaina: Eduardo Gabilondo.
- Vicetesorero: Leonardo Urrutia.
- Idazkaria: José Galdos.
- Idazkariordea: Manuel Beitia.
- Kideak: Tomás Agiriano, Emilio Antxia eta Juan Arregi.

1935eko bukaeran, Administrazioaren Zuzendaritza nagusiak zuzendaritza-karguak izendatzeko eta bazkide kopuruak jakinarazteko eskatu zien UGT (125) eta STV (263) sindikatuari, Eusko Nekazari Bazkunari (156), Zentro Errepublikanoari (61), Batzokiari (160) eta Zirkulu Tradizionalistari (60).



(1) Santiago Urkia, (2) Constantino Carmona eta (3) Florentino Andrés zentro errepublikanoan.



Alderdi politikoen eta
sindikatuaren ikurrak eta
zigiluak.

1936an, hainbat elkarte zuzendaritza-batzordeetan aldaketak egin zituzten.
Zentro Errepublikano zuzendaritza-batzorde berria, 1936ko apirilaren 4an³¹:

- Lehendakaria: Santiago Urkia.
- Lehendakariordea: Rufino Hurtado.
- Idazkaria: Florentino Andrés.
- Idazkariordea: Constantino Carmona.
- Diruzaina: Tirso Gutiérrez.
- 1. kidea: Pedro Aldanondo.
- 2. kidea: Eugenio Zaldibia.
- 3. kidea: Francisco Gutiérrez.

Solidarios Vascos (STV) sindikatuaren zuzendaritza-batzorde berria³²:

- Lehendakaria: Isidoro Garciaetxabe.
- Lehendakariordea: Eugenio Aretxaga.
- Idazkaria: Juan Peña.

- Idazkariordea: Félix Agiriano.
- Kideak: Julián Arkauz, Francisco Zabala, Félix Iturricastillo eta José Etxeandia.

UGTren zuzendaritza-batzorde berria³³:

- Lehendakaria: Rufino Hurtado.
- Lehendakariordea: Vicente Alonso.
- Idazkaria: Isidro Monge.
- Idazkariordea: Constantino Carmona.
- Diruzaina: Florentino Andrés.
- 1. kidea: Ángel Gago.
- 2. kidea: Tomás Soria.
- 3. kidea: Pedro Aldanondo.

Euzko Nekazari Bazkunaren zuzendaritza-batzorde berria³⁴:

- Lehendakaria: Domingo Azkarretazabal.
- Lehendakariordea: Isidoro Txintxurreta.
- Idazkaria: Isidoro Arenaza.
- Diruzaina: Bernardo Zubizarreta.
- Kideak: Pedro Leibar, Francisco Altube, Ignacio Garai, Domingo Lasagabaster, Francisco Uribe-Etxebarria, Rufino Mondragón, José Izurategi eta Jerónimo Uribesalgo.

2.5. Lan mundua

Aretxabaletako lantegirik garrantzitsuena eta ezagunena Industrias Beroa zen, Luis Arruerena. Aluminiozko sukalde-ontziak, tresna elektrikoak eta aluminiozko galdaketa-lanak egiten zituen. Gainerako lantegiak metalurgikoak ziren, sarrailagintzaren arlokoak.



Beroa lantegia; atzean, tren-geltokia.

Horietako bat Aguirregaviria y Cía etxea zen, sarrailagilea eta burdinazko elementuen ekoizlea. Eizagirre, Acha y Cía edo Vasco Cerrajera lantegia 1935ean itxi zuten, langile asko kale gorrian utziz. Dena den, urte berean, Cerrajería Valle de Léniz (CVL), Echeandía eta Zubizarreta y Cía (Ilargi) enpresa sarrailagileak eta Alvarez, Iturbe y Cía fundizioa ireki zituzten, arlo horietako beharrei erantzuteko.

Lezama fabrikan ijezketa-lanak egiten zituzten, eta Arregui y Cía (Argi) enpresan tresna elektrikoak eta berogailuak. Lau aroztegi zeuden: Jauregi anaiena, Timoteo Ezpeletarena, José María Amurizarena eta Hilario Errastirena.

Azkenik, Romualdo Leanizbarrutiaren zapata-fabrikak berebiziko garapena izan zuen gerra-garaian.

Atal honetan, atxikitako mapa eta eranskineko fabriketako langile-zerrendak erabiltzea komeni da.

3. Aretxabaleta gerran

Intxauspe López, José R.



3.1. 1934ko urriko iraultza Aretxabaletan

Zalantzarik gabe, 1934ko urriko gertakariak erabakigarriak izan ziren Espainiako II. Errepublikaren ibilbidean, baina frankismoaren nostalgiko askok Gerra Zibilaren arrazoitzat jo ohi dituzte, eta hori ez da egia, inondik inora. Ez naiz hasiko gai horretaz eztabaidatzen eta iritzia ematen, historialari prestigiotsuek sobera aztertu baitute. Nork bere ondorioak atera ditzala. Historia hor dago, ordea, eta, adibidez, nola uler daiteke 34ko iraultza, Primo de Riveraren diktadurari erreparatu gabe? Zein izan zen iturburua eta zein ondorioa?

Historialariei, ikertzaileei eta gaian trebatutako irakurleei nire asmoa zein den argitu nahi diet: neure herriaren, Aretxabaletaren historia azaltzea, tokian tokikoa, bertako kontuak argitzea, ikuspegi edo azterketa orokorretan murgildu gabe, puzzle zatitxo hau historiaren bilbean egoki txertatzeko. Gaia horrenbeste ezagutzen ez dutenei bibliografiako lanak irakurtzea gomendatuko nieke, gertakariak baloratu eta ikuspegi zuzenagoa izan dezaten. Dena den, nire azalpenak kokatzeko, denok aski ezagutzen ditugun gertakarietan oinarritu behar izan dut, jakina.

Atal hau idazteko, Ferroleko ipar-mendebaldeko Bitarteko Artxibo Militarrean (A Coruña) aurkitutako dokumentazioan oinarritu naiz, zehazki 175-34 auzian: "Aretxabaletako udalerrian (Gipuzkoan) sortutako mugimendu iraultzailean parte hartu zuten hainbat lagunen kontrakoan. Aipatutako ekintzak 1934eko urriaren 5ean, 6an eta 7ean gertatu ziren". Epaiketa-prozesuaren berri ematen duten 304 folio dira guztira, baina ebazpenaren inguruko atala falta da; galdu egingo zen edo, bestela, dokumentu-kutxa kontaezin haietako batean egongo da, nahastuta. Zorionez, Jesús Múgica Bañalesen (12.997-41 auzia) eta Pedro Carmona Rodríguezen (4.297-40 auzia) kontrako gerra-kontseiluetan epaiaren kopia bat dago, eta beharrezko informazioa bertan aurkitu dut.

Azkenik, artxiboko dokumentu-iturriak osatzeko, gertakarien protagonista baten, Lucio Oteiza Cortazarren, ahozko testigantza eskainiko dizute, atalari bukaera emateko modurik onena baita.

Ondoren, 1934ko gertakari iraultzaileetan gure herrian zer gertatu zen azalduko dizuet, errealitatea ahalik eta zorrotzen islatzen saiatuz.

3.1.1. Mugimendu iraultzailea eta Errepublika Sozialaren aldarrikapena

1934ko urriaren 5ean, ostirala, goizeko lehen orduetako lan-giroak ziurgabetasuna zuen ezaugarri. Aretxabaletako UGTko kideek ez zekiten egun horretarako deituta zegoen greba orokorrarekin zer jarrera hartu, ez baitzieten argibiderik edo agindu garbirik eman. Manuel Martínez Quincoces goizeko seietan lanetik atera eta bere txandako lankide batzuekin hitz egiten aritu zen. Gero, etxean bere burua garbitu, txukundu eta mendi aldera joan zen buelta bat ematera. Herrira itzuli zenean, jende multzo txikiak ikusi zituen. Arrasaten gertatutakoa komentatzen ari ziren denak. Klean Angel Zubillaga *Miner* aurkitu zuen. Izeba baten hileta-elizkizunera zihoala esan zion³⁵, eta Manuelek laguntzea erabaki zuen, Arrasaten gauzak zertan ziren ikusteko. Oinez abiatu eta goizeko bederatzi eta erdiak aldera iritsi ziren. Hiletak bertan behera geratu zirela jakin bezain laster, Herriko Etxera joan ziren³⁶.

Arrasateko Batzorde Iraultzailea 200 gizon inguruk osatzen zuten. Gehienak UGT sindikatuko, gazte sozialistetako edo sozialisten elkarteko kideak ziren. Egunsentian herria mende hartu zuten, Errepublika Sozialista aldarrikatzeko asmoz. Dozena erdi bat batzordekide komunistak ziren, hala nola, Francisco Az-

konaga Arana, eta tartean bazen Acción Nacionalista Vasca (ANV) alderdiko jarraitzailearen bat ere: Gabriel Goitia, esaterako. Mugimenduari ekiteko aginduak Eibartik eman zizkieten goizaldeko ordu bata aldera³⁷.

Liderrak, Celestino Uriartek, Aretxabaletara berehala itzultzeko eta lantegi guztiak gelditzeko agindua emateko esan zien Manuel Martínez Quincocesi eta *Minerri*. Automobil batean eraman zituzten. Gidaria Valentín Goikolea zen, Unión Cerrajerako mekanikaria. Eizaguirreraren lantegira joan ziren, Aretxabaletako UGTko buruari, Saturnino Bravori, Arrasaten jasotako aginduen berri emateko.

Goizeko hamarrak eta laurdenetan, lantegiko atezaindegian UGTko zuzendaritzakoei deitzeko eskatu zuten eta Saturnino Bravo, Pedro Axpe eta Jacinto Martínez de Alegría langileak bertaratu zitzaizkien. Elkarrekin hitz egin ondoren, Julián Eizaguirre administratzailearengana jo zuten, hurbileko gizona baitzen. Lantegia geldiarazteko asmoaren berri eman ziotenean, lehenbizi Luis Fuentes Astiz ingeniariarekin hitz egin eta langile guztiak horretarako prest zeuden ikusi beharko zuela erantzun zien Eizaguirrek. Taldeak argi utzi zion lantegia itxi egingo zela, onera ala txarrera. Luis Fuentes Solidaridad de Obreros Vascos sindikatuko buruarengana, Marcelo Antxiarengana, joan zen, zer egiteko asmoa zuen galdetzeraz. Antxiak ezertxo ere ez zekiela erantzun eta jaka jantzi zuen berehala, lanpostua uzteko. Gauzak horrela, hamar eta erdiak aldera, zuzendaritzak motorrak geldiarazteko eta lantegia husteko agindua eman zuen³⁸.

Saturnino Bravok, orduan, Lezama eta Beroa lantegietarako joateko eta geldiarazteko agindu zien beste guztiei. Lezamako bulegoetan, zuzendariarekin, Santos Ariñorekin, hitz egin zuten. Arrasaten greban zeudela jakinarazi, lantegia geldiaraztea gomendatu eta giroa oso berotuta zegoela gaineratu zioten. Lantegiak husten zituzten bitartean, Saturnino Bravo eta Pedro Axpe Herriko Etxera abiatu ziren Arrasatetik ekarri zituen automobilean, jarraibide berriak ezagutzera.

Herriko Etxean, Aretxabaletara itzultzeko eta indar publikoei armak kentzeko agindu zien Celestino Uriartek³⁹. Herriko Etxetik hurbil zegoen erloju-denda baten ondoan, Celestino Uriartek laguntzeko agindu zien Arsenio Rodríguezi eta Celestino Herizi. Biek ehiza-eskopetak zeramatzaten eskuetan. Celestino Uriarte, ondoren, SS-8385 matrikuladun automobil berde batera igo eta Aretxabaletara abiatu zen. Feliciano Salazar González *El Baratillo* zen gidaria.

Hamaikak aldera, langileak elkartuta zeuden plazatik hurbil geratu zen ibilgailua. Langile haietako gehienak greba-deiarekin bat egin zuten UGTko kideak ziren. Saturnino Bravo mikeleteen kuartelera abiatu zen zuzenean, bere jarraitzeak atzean zituela, armak kentzeko prest. Udaletxe barruan, Aurrezki Kutxa Probintzialaren bulegoetan, bi mikelete zeuden: Jerónimo Beitia kaboa eta Juan Pagalday. Saturnino Bravok Espainian iraultzak irabazi zuela eta arma eta munizio guztiak kentzeko agindu ziotela jakinarazi zien. Armak onera entregatzeko eskatu zien, jarraian. Jerónimo Beitia kaboa. Bravok aginpidetik ez zuela eta armarik ez ziola emango erantzun zion. Orduan, Arsenio Rodríguezek eta Celestino Herizek eskuak altxatzeko agindu eta armak, uhalak, pistolak eta kargadoreak kendu zizkieten. Saturnino Bravok kaboaren pistola hartu eta fusilak, aiztodun baionetak, munizioak eta kartutxo-kaxak ematera behartu zituen⁴⁰.

Juan Pagalday mikeleteak fusila eta munizioak etxean zituenez, Saturnino Bravo, Julio Urkia eta Arsenio Rodríguez berearekin joan ziren. Bitartean, José Iturrospek, Pedro Axpek, Avelino García *Zamoricak* eta Saturnino eta José Sauquillo anaiek, besteak beste, Beitia kaboa atxilotu eta sindikatuaren lokalera (Herriko Etxera) eraman zuten. Etxeko armak eman eta gero, Pagalday mikeletea ere Herriko Etxera eraman zuten, eta hantxe egon ziren arratsaldeko ordu biak laurden gutxi aldera arte. Ordu horretan, libre utzi zituzten, kalera ez ateratzeko baldintzarekin.

Armak konfiskatzen jarraitu behar zutenez, hamar lagun inguru Domingo Uribesalgo *Alkurren* dendara joan ziren. Domingok ehizarako bolbora, kartutxoak eta suziriak saltzen zituen. Goizeko hamaika eta erdietan, kartutxoak eta dendako beste gauza guztiak emateko agindu zioten *Alkurren* emazteari. Senarra plazan zegoen, eta bertara joan eta beste horrenbeste egiteko eskatu zioten. Baina Domingo Uribesalgok, askoz ere lehenago, salgaien erdia baino lehenago ezkutatzea erabaki zuen, jendea asaldatuta zebilela ikusita⁴¹. Taldea dendako kartutxoak, bolbora eta gainerako lehergailuak hartzen hasi zen. Saturnino Sauquillok paketeak otarrean sartzen zituen, bere anaia Josek eta Damián Eigurenek zenbatu egiten zituzten

eta Ladislao del Tesok dena idazten zuen, Domingo Uribesalgoren emaztearen aurrean. Avelino García eta Pedro Fernández kanpoan zeuden, armak eskuetan, denda zaintzen. Lucio Oteizak eta Rafael Múgicak, Obdulio Rodríguez eta Julio Urkiaren laguntzarekin, otarreak Herriko Etxera eraman zituzten⁴².

Herriko Etxearen barruan, Pedro Axpek paketeak tximinian eta bolbora-kutxak beste gela batean utzi zituen. Gero, herritarrentzako bandoa idaztea erabaki zuten. Lehen testua Julio Urkiak idatzi zuen, baina ilunegia iruditu zitzaien, eta Saturnino Bravok beste bat idatzi eta Ángel Zubillagari eman zion. Zubillaga eta Eulogio Ochoa danbor-jolea kalez kale ibili ziren, bandoa irakurtzen⁴³:

Espanian Errepublikak Soziala gailendu denez, Aretxabaletako Batzorde Iraultzaileak jakinarazten du:

1.a- Oraintxe bertan debekatuta geratzen dela kalean 3 lagunetik gorako multzoetan elkartzea, balkoietara ateratzea eta, batik bat, ehizako eta edo bestelako armekin ibiltzea.

2.a- Dendak itxita egongo dira, eta ezingo dute ezer ere saldu Batzorde honek baimenik eman gabe.

3.a eta azkena. Agindu horiek betetzen ez dituenari zigor gogorra ezarriko zaio, eta, ondorioei dagokionez, guk ez dugu izango inolako erantzukizunik”.

Batzordeak

Lantegiak itxita, indar publikoak menderatuta eta Domingo Uribesalgoren dendako armak konfiskatuta zeuden, denak ustekabeen harrapatu baitzituzten. Hurrengo urratsa biztanleria kontrolatzea zen, eta bandoa horretarako irakurri zuten, herritarrei jarraibideak argiak emateko. Gero, hainbat talde edo patruila antolatu zituzten etxez etxe partikularren armak, gehienbat ehiza-eskopetak, konfiskatzeko. Era berean, gauez eta egunez kaleak zaintzeko txandak ezarri zituzten.

Hamabost bat lagun ibili ziren etxez etxe armak hartzen: besteak beste, Saturnino, Ángel eta José Sauquillo, Obdulio Rodríguez, Lucio Oteiza, Damián Eiguren, Ladis del Teso, Rafael Múgica, Pedro Axpe, Maximino Gil, Julio Urkia, Octavio Gago, Aurelio Carmona, Francisco Gutiérrez, Avelino García eta Félix Alberdi Gorostiza *Cuartillo*. Hamabiak eta erdietatik ordu biak arte, etxe hauetan izan ziren:

[...] bospasei lagunek, besteak beste Julio Urkiak eta Saturnino eta José Sauquillok, bainuen inguruko etxe berri bateko bigarren solairuan eskopeta bat hartu zuten. Ondoren, bainu-etxera joan ziren, eta han armarik ez zegoela esan zieten. Gero, Añotaren etxera abiatu ziren [...] ⁴⁴

[...] On Santos Ariño eta bere seme Hilario etxera joan ziren, eta deklaratzailerak “Ibarra ostatura”, apopilo baitzegoen bertan. Kanpoan eseri zen, ostaturako beste apopilo batzuekin batera. Handik gutxira, gizon talde armatu batzuk ikusi zituzten pasatzen. Etxez etxe zebiltzan, herritarrei armak konfiskatzen. Bazkalorduan Ibarra ostatura iritsi ziren, asmo berarekin. Jabea, Pedro Azkoitia jaunari, eta Luis Fuentes apopiloari ea arma gehiago zituzten galdetu eta ezetz erantzun zieten, joan egin ziren. Ez dut gogoratzen zenbat ziren zehazki [...] ⁴⁵

Bazkaltzen ari zirela, ordu biak laurden gutxi aldera, lagun talde armatu bat sartu zen bere finkan. Armak emateko agindu zioten, eta, ukatu egin zenez, mehatxatu egin zuten, gizon armatu gehiago etorri eta indarrez kenduko zizkiotela esanez. Eskopeta bana zeukaten eskuetan, eta batzuek pistolak ere bai [...]. Hiru atea zaintzen geratu ziren, eta gainerakoak barruan sartu ziren. Ukatu egin zen armak orduantxe ematera, baina legeak hala agintzen bazuen berak eramango zizkiela agindu zien. Hori entzun zutenean, joan egin ziren denak [...] ⁴⁶

Egun hartan, eguerdiko hamabiak eta erdietatik ordu bata bitartean, gizon armatu batzuk joan zitzaizkion etxera. Ehiza-eskopeta emateko esan zioten, eta hala egin behar izan zuen, armekin mehatxatu zutelako ⁴⁷.

Ordu batean, gizon batzuek etxean sartu [...] eta eskopeta emateko esan zioten. Kulata emango ziela baina kanoia Eibarren artezen ari zitzaizkiola erantzun zien. Azalpena ontzat eman zuten, itxuraz, eta ez zioten armarik kendu ⁴⁸.

Gero, beste batzuekin batera [...] armak konfiskatzen ibili zen. Viviano eta Morico izeneko batzuek eskopeta bana hartu eta bi armak sindikatura eraman zituzten. Añotaren etxera ere armak eskatu zituzten, baina etxeko jaunak agiriaren bat eskatu zien, eta azkenean ez ziren sartu ⁴⁹.

Biztanleei hartutako eskopeta guztiak Herriko Etxera, ekintzen gune nagusira, eraman zituzten. Gainera, konfiskatutako armez gain, iraultzaile batzuek euren ehiza-eskopetak erabili zituzten hasieratik.

Arsenio Rodríguez, Celestino Heriz eta Feliciano Salazar *El Baratillo*, Arrasatetik etorritako iraultzailerik kementsuenak, euren herrira itzuli ziren, baina hango egoera oso larria zen benetan. Goizaldeko bost eta erdiak aldera, Eugenio Edurra karlistari tiro egin zioten, Bergarako Labe Garaietako bere lantegira bizikletaz zihoala. San Frantzisko elizaren aurrean zaintza-patruila batek ikusi eta gelditzeko esan zion hainbat aldiz, baina aurrera jarraitu zuen, jaramonik egin gabe, eta mokorrean zauritu zuten. Handik egun batzuetara, Eibarko ospitalean hil zen. Batzorde Iraultzaileak herriko gune estrategikoak menderatu, biztanleentzako bandoa kaleratu eta jende asko atxilotu zuen. Atxilotutako guztiak Herriko Etxera eraman zituzten. Menderatzeko geratzen zitzairen gune bakarra guardia zibilen kuartela zen. Luzaroan setiatu zuten, gero eta bortitzago erasotuz. Azkenean, emakumei eta haurrei ateratzen utzi eta eraikin osoan gasolinaz busti zuten, guardia zibilak barruan zirela, sua eman eta behingoz menderatzeko asmoz. Baina, halako batean, arratsaldeko ordu biak inguruan, Takolo aldetik Gasteizko armadako tropen kamioiak ikusi zituzten. Hurbiltzen ari ziren, eta iraultzaileak, oso urduri, kuarteletik aldendu eta Herriko Etxera joan ziren. Bertan, atxilotutako hiru gizonik garrantzitsuenak hartu zituzten: Marcelino Oreja, Dagoberto Resusta eta Ricardo Azkoaga. Korrika eta presaka alde egin zuten hiru atxilotuekin, eta, bat-batean, deskarga-hotsak entzun ziren...⁵⁰

Bazkalostean, Ángel Zubillaga bakarrik abiatu zen Arrasatera⁵¹, eta, aldapara iritsi zenean, tiro-hotsak entzun zituen. Orduan, hiruzpalau lagunekin egin zuen topo. Horietako bat, Tiburcio Lazaga, bere lan-kidea zen. Zer gertatzen ari zen galdetu zion, eta Oreja eta Resusta jaunak hil omen zituztela erantzun zion Tiburciok, kalean entzun baitzuen berria. *Miner* harri eta zur geratu zen, batez ere Resusta jaunaren heriotzarekin: biak lantegi berean (UCEM) zebiltzan, eta mesede batzuk egin zizkion. Hunkituta eta buru makur, Aretxabaletara itzuli eta etxera joan zen. Ez zen kalera irten hurrengo goizera arte.

Arratsaldean, iraultzaile taldeek Aretxabaletako kaleak patruilatzen jarraitu zuten, eskopetak, fusilak eta pistolak aldean zeramatzatela. Arratsaldeko seiak aldera, Gasteizetik iritsitako Flandes erregimentuko bi infanteria-konpainiak, Camilo Alonso Vegaren agindupean, kaleak zeharkatu zituzten Arrasateko bidea hartzeko eta altxamendua zapuzteko. Tropak joan eta ia berehala, Saturnino Bravoren aginduetara zegoen errebolitari taldeak tiroak jaurti zituen airera, biztanleak kikitzeke. Ziur aski, jende asko aterako zen kalera, jakin-minak jota, tropak ikustera. Tiro-hotsekin, kaleak hutsik geratu ziren.

Ilunsentian, "normaltasuna" berriro nagusi zela, herria zaintzeko txandak hasi ziren antolatzen. Zazpi eta erdiak aldera, Ladis del Tesori 12 mm-ko eskopeta eman zion Saturnino Bravok, eta zaintza-zerbitzua egitera abiatu ziren elkarrekin San Martin ingurura, Jesús Múgica zegoen gunera. Múgicarekin elkartu zirenean, Saturnino Bravo geltokira joan zen, bakarrik. Lucio Oteiza iluntzeko zortzi eta erdietatik goizaldeko ordu bata arte egon zen zerbitzuan, eskopeta batekin. Gaueko hamarretatik goizeko ordu biak arte, Obdulio Rodríguez eta Saturnino Sauquillo, eskopeta banarekin, eta Damián Egiguren eta Saturnino Bravo, azken hori pistola batekin, errepidea zaintzen egon ziren. Tarte horretan, Saturnino Sauquillok Peña izeneko gizon bat ikusi zuen sakristauren bizilekutik ateratzen, eta etxera joateko esan zion. Hurrengo txandan, goizaldeko ordu bi eta erdietatik seiak arte, Saturninoren anaia, José, egon zen errepidean, *Cuartillo*, Florencio Iturrospe eta *Zamorica* kideekin batera. Pedro Carmonak, Ángel Gagok, Pedro Axpek eta Gregorio Unzuetak Santutxoaren eremua zaindu zuten, herrian sarreran.

Txandaren hasieran eta amaieran, Herriko Etxera joaten ziren denak armak hartzera edo uztera.

Gregorio Gabilondo Amilburu sakristauari, goizean goiz elizara zihoala, talde txiki bat hurbildu zitzaion. Kanpairik ez jotzeko eta apaizari egun hartan mezarik ez zela egongo esateko agindu zioten.

Urriaren 6an, larunbata, goizeko seietan, Batzorde Iraultzailekoak elkartzen hasi zirenean, errebolta bertan behera geratu zela zioen zurrumurrua hedatu zen. Ordurako, Arrasate militarren mende zegoen. Iraultzak porrot egin zuen. Errepublika sozialista ezartzeko ametsa zapuztu eta amesgaiztoen garaia heldu zen.

3.1.2. Ihesaldia eta lehen atxiloketak

Sei eta erdietan, indar militarrek Aretxabaleta hartu eta atxilotu egingo zituztelakoan, mendian ezkutatzea erabaki zuten. Handik ordu-erdira, Saturnino Bravok, José eta Saturnino Sauquillok, Félix Alberdi Gorostizak, Pedro Axpek, Lucio Oteizak, Jesús Múgicak, Obdulio Rodríguezek eta Damián Egigurenek ihes egin zuten, baina Mendiolan geratu eta eztabaidatzen hasi ziren, batzuek herrira itzuli nahi zutelako eta beste batzuek ez. Azkenean, denak itzuli ziren, Pedro Axpe, Saturnino Bravo eta Félix Alberdi izan ezik.

Geratzea erabaki zuten hiru kideak Kurtzebarrira iritsi, Bentabarrira jaitsi eta Duranara (Arabara) joan ziren, errepidetik. Aurrera jarraitu zuten, noraezean, eta Aberasturitik hurbil dagoen zubi batean eman zuten gaua. Biharamunean, hilaren 7an, goizez Aberasturitik atera eta mendian barrena Gatzaga Gainera iritsi ziren. Aretxabaletara errepidetik itzultzea erabaki zuten, eta gaueko hamar eta erdiak aldera iritsi ziren. Tropak herrian zeudela jakin zutenean, kalera ez atzeratzea eta gaua Pedro Axperen etxean igarotzea erabaki zuten. Pedro San Martin auzoan bizi zen, herrigunetik bostehun bat metrora. Hilaren 8ko goizean Gatzaga Gainera abiatu ziren berriz, trenbideari jarraituz. Bederatziak aldera, Arrikurtzen (Leintz Gatzagan) Arlaban postuan zauden mikeleteek ikusi egin zituzten. Félix Alberdi⁵² atxilotu egin zuten, baina Saturnino Bravok eta Pedro Axpek ihes egitea lortu zuten. Legutiorako (Araba) bidea hartu eta, arratsaldeko seiak aldera, Gasteizera iritsi ziren errepidetik kanpo.

Hilaren 8ko gainerako orduak eta hurrengo egun osoa Gasteizko etxe batean eman ondoren, hilaren 10eko goizean Saturnino Bravo Sociedades Obreras elkartearen egoitzara joan zen laguntza eske. Banatzea erabaki zuten, eta Saturnino Bravori Aretxabaleta joatea iruditu zitzaion egokiena. Hantxe atxilotu zuten, egunean bertan. Pedro Axpek beste bost egun egin zituen Gasteizen, hilaren 15era arte geratu baitzen. 16an, lehenbizi Legazpira joan zen trenez, gero Arrasatera automobilerik eta azkenik Aretxabaletara oinez. Bertan atxilotu zuten, biharamunean.

Ángel Zubillagak ere ihes egin zuen. Jaioterrira, Leintz Gatzagara, joatera erabaki zuen, han izeba bat bizi zelako. Bidean José Zubiarekin, Ignacio Agirregabiriarekin eta Severiano Serranorekin egin zuen topo. Gasteiztik zetozen, eta Ricardo Azkoagak Arrasaten gertatutakoaz esandakoak jakinarazi zizkieten. Zubillaga hilaren 8ra arte geratu zen Gatzagan, eta egun hartan etxera itzuli zen, hamabiak inguruan. Etxean zegoela, mikelete-kaboa joan zitzaion. Kendutako armez zerbait ba al zekien galdetu zion, eta Zubillagak ezetz erantzun zuen. Biharamunean, atxilotu egin zuten.

Gainerako erreboltariak (44) etxean edo lanean atxilotu zituzten. Hona hemen atxiloketen kronologia, urratsez urrats (ikus 1. eranskina, 301. or.)⁵³:

- Urriak 6: Dionisio Rodríguez eta Feliciano Salazar.
- Urriak 8: Félix Alberdi Gorostiza eta Valentín Goikolea.
- Urriak 9: Ladislao del Teso, Manuel Martínez, Ángel Zubillaga, José Sauquillo eta Saturnino Sauquillo.
- Urriak 10: Saturnino Bravo.
- Urriak 11: Obdulio Rodríguez.
- Urriak 12: Pedro Carmona, Ángel Gago, Octavio Gago, Avelino García, Olegario Llanos eta Julio Urkia.
- Urriak 16: Damián Egiguren, Pedro Fernández eta Lucio Oteiza.
- Urriak 17: Pedro Axpe, Maximino Gil, Francisco Gutiérrez, Rafael Múgica eta Gregorio Unzueta.
- Urriak 18: Florentino Andrés eta Florencio Iturrospe.
- Urriak 19: José Antoñanzas, Aurelio Carmona, Constantino Carmona, Tomás Castro, Celestino Heriz, Rufino Hurtado, Ignacio Franco, Isidro Monge, Jesús Múgica, Francisco Otero eta Eutiquiano Sánchez.
- Urriak 22: Francisco Gago, Tirso Gutiérrez eta Ángel Sauquillo.
- Abenduak 1: José Iturrospe⁵⁴.

Gertakarietako buru nagusiak urriaren 6tik 17ra bitartean atxilotu zituzten. Dionisio Rodríguez Zentro Errepublikanoko etxezaina izateagatik atxilotu zuten. Gero, urriaren 18tik 22ra bitartean, atxilotuek eta lekukoek deklarazioetan aipatutako jendea atxilotu zuten. Bakoitzak zenbateraino parte hartu zuen zehazten saiatu ziren. Azkenik, abenduaren 1ean, José Iturrospe atxilotu zuten, bere partaidetzaren nondik norakoak argitzeko.

3.1.3. Errepresioa eta gerra-kontseilua

Eibarko eta Arrasateko greba iraultzailea armadak zapuztu zuen. Bi herriak probintziako gunerik gogorrenak izan ziren, ezbairik gabe. Aretxabaletako iraultzaileek Arrasateko aginduak zorrotz bete zituzten, baina, jakina, askoz ere herri txikiagoa zen, langile-sindikatuaren indarra ez zen berbera eta ez zen inor hil.

Eibarren, ostera, 6 lagun hil ziren: 4 iraultzaile, asaltoko guardia 1 eta tradizionalisten burua, Carlos Larrañaga. Azken hori Aretxabaletako parrokoaren, Emilio Larrañaga Olaizolaren, anaia zen. Arrasaten 4 lagun hil ziren: lehen aipatutako hirurak (Eugenio Edurra, Marcelino Oreja eta Dagoberto Resusta) eta iraultzaile bat (Secundino Vitoria Goitia), errepresioaren lehen biktima izan zena.

Urriaren 6an, Seigarren Dibisio Organikoaren jeneral buruak, gerra-egoera aldarrikatu zuen Dibisioaren eskumeneko eremu osoan. Gipuzkoako gobernadore zibilak, Emeterio Mugak, bere botereak komandantzia militarreko León Carrasco Amilibia koronelaren esku utzi zituen. Grebalari iraultzaileen kontrako errepresioa armadak gauzatu zuen, errebolteriak atxilotuz, epaituz eta zigor gogor eredugarriak ezarri.

Errepresioaren helburu nagusiak langile-elkarteak izan ziren, batik bat UGT sindikatu sozialistako kideak eta, bereziki, buruak.

Pedro Barruso historialariak Gipuzkoako gertakariei buruzko ikuspegi orokorragoa eskaini digu. Hona zer dioen langile-mugimenduak eta sindikalgintzak jasandako errepresioaren eraginaz⁵⁵:

Greban zehar itxitalako enpresetako langileek berriz onartzeko eskatu behar izan zuten, ordura arteko onurak galdu zituzten. Jabeek, gainera, langile kopurua murrizteko aukera izan zuten.

Errepresioak langile-mugimendua zeharo desegin zuen, erakunde sozialista, anarkista eta komunisten lokalak itxiz eta buruak atxilotuz. Aurrerantzean, klandestinitatean jardun zuten, ezkutuan, langileengan ia inolako eraginik izan gabe.

Urriaren 10ean, lehen jarduera judizialei ekin zitzaion Arrasaten, 8. mendi-batailoiko kapitaina, Antonio Acha Aguirre, instrukzio-epaile izendatu ondoren. Lehen neurria UGT sindikatuko lokala (Herriko Etxea) arakatzea eta ixtea izan zen. Hona hemen Aretxabaletako Herriko Etxean aurkitutako armen, munizioen eta efektuen zerrenda:

Herriko Etxean aurkitutako armen eta munizioen zerrenda (1934)

Zer arma edo munizio	Zenbat	Oharrak
Mauser fusila, C saila, 1092 zk.	1	Juan Pagalday mikeleteari eman zizkieten, Aretxabaletako postuko funtzioetarako erabil zitzan, iraultzaileek armak kendu baitzizkieten. Zerrendari ordainagiriak erantsi zizkieten.
Aihotza, C saila, 1092 zk.	1	
Mauser fusila, B saila, 8354 zk.	1	
Pistolen uhalak	2	
Fusilen kartutxo-uhalak	2	
Gerra-kartutxoak	245	
Instrukzio-kartutxoak	5	
Perdigoi-zaku txikiak, beteta	20	
Perdigoi-zaku txikiak, erdi beteta	22	
16 kalibreko eskopeten kartutxo-kaxak	21	
12 kalibreko eskopeten kartutxo-kaxak	42	
16 milimetroko kartutxo-kaxak	30	
14 milimetroko kalibreko kartutxo-kaxak	14	
12 eta 16 kalibreko kartutxo-kaxak	25	
Tako-kaxak	12	
Ordezko pistoiz betetako kaxak	4	
Bolbora-poteak, 250 gramokoak	8	
Eskopeten kartutxo-kaxak, hutsik	15	

Inkulpatuen etxeak arakatu eta armak kendu zizkieten: Manuel Martínezi 12 mm-ko kanoi bateko eskopeta, Ladis del Tesori 12 mm-ko bi kanoikoa, Ángel Zubillagari 16 mm-ko bi kanoikoa, Jesús Múgicari 12 mm-ko kanoi batekoa, eta Gregorio Unzuetai aizto handi bat larruzko zorro batean. Saturnino Bravori hiru eskopeta kendu zizkieten: bata 16 mm-ko bi kanoikoa, bestea 16 mm-ko kanoi batekoa (kakorik gabe) eta hirugarrena 12 mm-ko kanoi batekoa. Ehiza-kartutxo ugari ere konfiskatu zituzten.

Urriaren 10etik 17ra bitartean, atxilotuek eta lekukoek deklaratu egin zuten, batzuek Arrasaten eta beste batzuek Aretxabaletan, komeni zen moduan. Hilaren 18an, instrukzio-epaileak, Antonio Acha kapitainak, Infantería Ramiro Llamas del Toro infanteria-komandantearen esku utzi zuen auzia, prozedura judizialaren epaile izendatu zutelako. Komandantea 6. dibisioko auzien epaile iraunkorra zen.

Urriaren 22an, epaileak 43 akusatu auzipetzeko autoa eman zuen. José Iturrospe libre zegoen jandak, ez zutelako kontrako kargurik aurkitu, baina, lehenago aipatu dugun moduan, abenduaren 1ean berriro atxilotu zuten. Bestalde, Celestino Uriarte ihes eginda zegoen. Karguaren arabera, errebelamendu militarra babestu edo eragin izana leporatu eta behin-behineko espetxeratze-agindua ezarri zion epaileak. Autoaren amaieran, ohiko formaltasunak azaltzen ziren⁵⁶:

A todos los cuales se les hará saber este acuerdo, publicándose las oportunas requisitorias para el procesado Celestino Uriarte, en ignorado paradero; se les prevendrá de sus derechos y que pueden impugnar este procesamiento en el plazo de tres días siguientes al de su notificación; que se les requiera para que, de estimarlo conveniente, señalen defensor de la clase correspondiente; que se dé cuenta de

este acuerdo a la Autoridad Judicial y al Señor Comandante Militar de San Sebastián con duplicada relación de procesados para su noticia al Ministerio de la Guerra, según lo ordenado; procédase al embargo de bienes muebles e inmuebles de los procesados hasta la cantidad de CINCUENTA MIL PESETAS a resultas de las responsabilidades civiles que puedan derivarse de esta causa, dándose comisión para este embargo al Señor Juez de primera Instancia e Instrucción de Vergara.

Todo con arreglo al artículo 421 del Código de Justicia Militar, los correspondientes al Código penal Ordinario por razón de los delitos cometidos, demás de general aplicación de ambos Códigos y disposiciones del bando publicado con motivo de la declaración del estado de guerra a fecha seis de Octubre del corriente año (1934).

Auziperatuak Hondarribira eraman zituzten, Guadalupeko fortera. Probintzian atxilotutako guztiak presondegi hartan zeuden; gehienak eibartarrak eta arrasatearrak ziren. Urriaren 20an *La Voz de Guipúzcoa*⁵⁷ egunkarian argitaratutako berriaren arabera, 720 preso ziren guztira.

Urriaren 24an eta 25ean deklaratu egin zuten, eta 27an Eustasio Amilibia sozialista abokatu defendatzaile izendatu zuten. Abokatuak 41 akusaturen babesa hartu zuen bere gain, eta abenduaren 8an José Iturrospe ere defendatzea onartu zuen. Abenduaren 19an, beste bi akusatuak, José eta Saturnino Sauquillo anaiek, Gabriel Laffite izendatu zuten abokatu defentsari.

Eustasio Amilibia defentsa prestatzen ari zen bitartean, Aretxabaletako presoek ordezkari-batzordea eratu zuten herriko alkateari, José María Amurizari, eskutitza idazteko⁵⁸. Batzordekideak Félix Alberdi, Pedro Fernández eta Florencio Iturrospe ziren, eta gutunean haxe eskatu zioten alkateari⁵⁹:

1. Gure seme-alabei eta emazteei laguntzeko, etxe askotan goseak daudelako, bizitzeko oinarrikoena ere ez dutela.
2. Gure egoera larriaren ondorioz, hemen gauden bitartean ezingo dugu etxerik ordaintzen jarraitu, eta, beharbada, haurrak eta emazteak kale gorrian utziko dituzte.

Gutunean azaltzen den data 1934ko azaroaren 21a da. Bistakoa da familia-zamak zituzten presoek ekimena izan zela, ertzetan senar-emazteen izenak eta seme-alaba kopuruak idatzi baitzituzten. Hona hemen Natividad Amurizak gaiaz emandako testigantza⁶⁰:

Jacinto izeneko gorri bati emaztea hil zitzaion eta hileta zibila egin zion. Jacinto manifestazioetan ibilia zen, beste batzuekin batera, eta guardiek preso eraman zuten Guadalupera. Ez dakit zenbat ziren guztira: 19 edo 20 inguru. Nire aita alkatea zen orduan. Presoen emazteak etxera etorri eta senarrak bisitatzen uzteko eskatu zioten. Aita Donostiara joan zen gobernadoreari baimena eskatzera, eta eman egin zion. Horrela, Guadalupera joan zen 20 emakumerekin. Jacintok biziki eskertu zion emazteak eraman izana [...].

Zenbait presok beste gutun bat bidali zuten, libre uzteko erabakia har zezatela “erregutuz”, erreboltan ia inolako edo inolako partaidetzarik ez zutelako izan. Horrela, adibidez, Francisco Oterori eta Eutiquiano Sánchezi behin-behineko askatasuna eman zieten 1934ko azaroaren 12an. Arrasatekoak ziren biak, eta bertan bizitzeko eta guardia zibilen postuko komandantearengana bertaratzeko agindu zien epaileak. Abenduaren 10ean, sumarioa amaitu eta judizio plenarioa burutu ondoren, beste 6 preso utzi zituzten libre: Florentino Andrés, José Antoñanzas, Constantino Carmona, Tomás Castro, Ignacio Franco eta Rufino Hurtado. Gainerako 36 akusatuak behin-behineko espetxealdia luzatu zieten, gerra-kontseiluaren ebazpena ezagutu arte. Fiskalak heriotza-zigorra eskatu zuen Saturnino Bravorentzat, biziarteko kartzela-zigorra 17rentzat eta behin-behineko giltzapealdia 18rentzat.

Azken epaia eman aurretik, fiskaltzak auzia berrikusi eta eskaerak aldatu zituen:

- 30 urte: Saturnino Bravo.
- 26 urte: Pedro Axpe, Manuel Martínez eta Ángel Zubillaga.
- 23 urte: Avelino García, Arsenio Rodríguez, Saturnino Sauquillo eta Ángel Sauquillo.
- 20 urte eta egun 1: Damián Eiguren, Obdulio Rodríguez, José Sauquillo, Ladis del Teso, José Iturrospe, Pedro Carmona, Rafael Múgica, Jesús Múgica eta Lucio Oteiza.
- 20 urte: Julio Urkia.

- 16 urte: Aurelio Carmona, Octavio Gago eta Pedro Fernández.
- 12 urte eta egun 1: Francisco Gago, Francisco Gutiérrez, Dionisio Rodríguez, Félix Alberdi, Maximino Gil, Gregorio Unzueta eta Feliciano Salazar.
- Askatasuna: Tirso Gutiérrez, Florencio Iturrospe, Ángel Gago, Olegario Llanos, Isidro Monge eta Jacinto Martínez de Alegría.

Azkenik, 1935eko martxoaren 12an gerra-kontseilua egin zuten Donostian, Ondarretako presondegian. 34 akusatuei —Valentín Goikolea eta Celestino Heriz Arrasateko auzian epaitu zituzten— zigor hauek ezarri zizkieten errebelamendu militarrean parte hartzeagatik (ikus 2. eranskina, 302. or.):

- 20 urte: Saturnino Bravo.
- 16 urte: José Sauquillo, Saturnino Sauquillo, Pedro Axpe, Avelino García, José Iturrospe, Manuel Martínez, Arsenio Rodríguez eta Ángel Zubillaga.
- 12 urte eta egun 1: Félix Alberdi, Pedro Carmona, Aurelio Carmona, Damián Egiguren, Pedro Fernández, Francisco Gutiérrez, Octavio Gago, Maximino Gil, Rafael Múgica, Jesús Múgica, Lucio Oteiza, Obdulio Rodríguez, Ángel Sauquillo, Feliciano Salazar, Gregorio Unzueta eta Ladis del Teso.
- 10 urte: Julio Urkia⁶¹.
- Askatasuna: Ángel Gago, Francisco Gago, Tirso Gutiérrez, Florencio Iturrospe, Jacinto Martínez de Alegría, Olegario Llanos, Isidro Monge eta Dionisio Rodríguez.

Kontseiluak, bestalde, Aretxabaletako mikeleteen jokabidea eta jarrera arduragabeak izan zirela adierazi zion agintaritza judizialari.

Laburbilduz, auzipetutako 44 lagunetatik 16 libre utzi, 2 Arrasateko auzian epaitu eta 26 kondenatu egin zituzten. Celestino Uriartek, Arrasateko eta Aretxabaletako errebolatarien buruzagirik garrantzitsuenak, ihes egitea lortu zuen, eta, ondorioz, auzi-iheslaritzat jo zuten.

Kondenatuak Iruñeko San Cristobal presondegi-gotorlekura eramane zituzten. Fronte Popularrak 1936ko otsaileko hauteskundeak irabazi ondoren eman zuen amnistiari esker, libre geratu ziren denak. Beraz, hizpide izan ditugun gertakarietan jardundako parte-hartzaile askok 16 hilabete egin zituzten preso. Errepublikako soziala aldarrikatzera ateratu ziren gizon idealista iraultzaile haien ametsa hutsaldu egin zen.

Bukatzeko, Lucio Oteizaren testigantza bikaina dakarkizuet. Gertakarietako protagonistetako bat izan zen⁶². Hona hemen Lucioaren hitzak:

1934ko iraultzan hemen, Aretxabaletan, greba egin genuen. Greba iraultzailea izan zen. Arrasaten bezala, batzuek eskopetekin, armekin edo beste zerbaitekin ateratu ziren kalera. Mikeleteei armak kendu zituzkieten, inolako arazorik gabe, berehala eman baitzuten amore. Ez zen egon ez atxilotetarik, ez ezer.

1934ko urriaren 5ean, oso jende gutxi ateratu zen armak eskuetan: hiruzpalau lagun eskopetekin. Horien inguruan, manifestariak zihoazen. Gu (bere buruaz ari da) ere hurbildu egin ginen, ikusminak jota. Solidarios Vascos sindikatukoek ez zuten parte hartu, baina greba egin zuten; horrelako zerbait gertatzen zenean, berehala etortzen ziren guregana, elkarrekin ongi moldatzen ginelako. Biharamunean, dena zapuztu zen. Batzuk mendira joan ziren ihesi eta beste batzuk lanera. Ni Vasco Cerrajeran nenbilen, eta ireki zutenean lantegira joan nintzen, baina kanpora ateratu ninduten.

Alkurren otarre bat, ehizarako trastez betea, neramalakoz ez dakit zer kontu hasi zitzaizkidan esaten munizioei buruz. Gu bi mutiko ginen, eta kuxkuxean genbiltzan, besterik gabe, baina, halako batean, "Eraman hau sindikatura!" esan ziguten, eta hala egin genuen.

Orduan UGTko kidea nintzen, eta, gero, gazte sozialistetan sartu eta bazkide egin nintzen.

Guardia zibilak atxilotu egin gintuen, eta ni Arrasateko udaletxeko areto batera eramane ninduten. Jendea harapatu ahala, areto hartan sartzen zuten. Arrasatearrak ere bazeuden, jakina.

Handik Donostiara eramane gintuzten zutenean, Ondarretara, Guadalupe izeneko fortera. Epai-ketan, errebelamenduari lagundu izana leporatu eta 12 urteko eta egun 1eko kartzela-zigorra ezarri zitadaten. Batzuei 20 eta 30 urteko espetxealdia ezarri zieten. Hilabete bat inguru egin genuen Ondarretan, eta handik San Cristobalera, Iruñeko presondegira, eramane gintuzten. Han, Asturiasen egondako

asaltoko guardiek sekulako jipoiak eman zizkiguten. Guardiek eta zuzendaritzak gezurretako "istiluak" edo probokazioak asmatu eta, diziplina ezartzeko aitzakiarekin, "barrearen tutua" egin ziguten 40 bat laguni: batek kolpeka eramaten zintuen beste batengana, horrek kolpeka berriz hirugarrenarengana, eta hala jarraitzen zuten, banan-banan astinduz. Borrarekin jotzen gintuzten, eta borrarik ez zutenek kulatarekin.

Fronte Popularrak hauteskundeak irabazi ondoren, amnistia eman zuten egunean bertan atera ginen kalera. Zurrumurrua lehenago hedatu zen, ordea, eta presondegian diziplinari eta ordenari muzin egiten hasi ginen. Izarekin edo eskura genuen edozerekin kartelak eta paskinak egin genituen... Arratsalde, laurak edo bostak aldera, atera ginen kalera Iruñean eta han behean hiri erdia zegoen gure zain.



Aretxabaleta (Viteri eskolak), 1936ko martxoaren hasieran. 1934ko iraultzako presoak libre geratu ziren, Fronte Popularrak emandako amnistiaren ondorioz. (1) Jesús Múgica, (2) Ladis del Teso, (3) Pedro Carmona, (4) Octavio Gago, (5) Ángel Sauquillo, (6) Obdulio Rodríguez, (7) Aurelio Carmona, (8) Saturnino Bravo, (9) José Iturrospe, (10) Francisco Gutiérrez, (11) José Antoñanzas, (12) Pedro Fernández, (13) Máximino Gil, (14) Damián Eiguren, (15) José Sauquillo, (16) Saturnino Sauquillo, (17) Pedro José Axpe eta (18) Lucio Oteiza.

3.1.4. Ondorioak eta aztarna politikoak

Atalari bukaera emateko, hainbat ondorio atera genitzake hizpide izan ditugun gertakariei buruz. Aretxabaletako mugimendu iraultzaileak hiru ezaugarri bereizgarri izan zituen:

1. Mugimendu sozialista izan zen gehienbat, UGT sindikatuko kideek hartu baitzuten parte funtsean. Langile-mugimendu horrek errepublika sozialista aldarrikatzen zuen.

2. Matxinada iraultzailezat har daiteke, talde-ekintza armatua izan baitzen. Lantegi guztiak geldiarazi, udalaz jabetu, indar publikoei armak kendu, bandoa kaleratu eta etxeetako armak konfiskatu zituzten. Azken urratsa ordena publikoa kontrolatzea eta zaintzea izan zen. Esanak esan, ez ziren iritsi Arrasateko eta Eibarko mailara, bi udalerri horietan atxilotetak, erresistentzia gogorrak (batik bat guardia zibilen kuarteletan) eta hildakoak egon baitziren.

3. Arrasateko Batzorde Iraultzailearen mendeko mugimendu osagarria izan zen. Celestino Uriarte izan zuten buru. Ikusi dugunez, Aretxabaletako Batzordea kanpotik iritsitako aginduak hitzez hitz betetzera mugatu zen.

PNV alderdiaren eta STV sindikatuaren ekarpenari eta partaidetzari dagokienez, José Luis de la Granja Sainzen hitzak ekarriko ditugu gogora⁶³:

Historikoki argi dago PNV alderdiak eta STV sindikatuak ez zutela parte hartu mugimendua prestatzen eta bideratzen, urriaren aurretik izandako jokabideak eta iraultza hasi ondoren buruek bazkideei helarazitako aginduek agerian uzten duten moduan. Aginduak garbiak izan ziren: ezertan eta inola ere ez parte hartzea. Agirreren Entre la libertad y la revolución (1935) memoria-liburuan hori guztia aipatzen da:

PNV: "Mugimendu batean ere ez parte hartzea eta agintariek emandako aginduei jaramon egitea".

STV: "Arriskurik gabe lan egin badaiteke, langileek lanean jardungo dute, baina, arazorik edo arriskurik egonez gero, erretiratu egingo dira, gure erakundeak agindu gabeko jardueretan parte hartu gabe".

Beraz, PNVko eta STVko zuzendaritzek erdibideko jarrera neutrala hartu zuten, ez baitzuen egin ez iraultzaren alde, ez kontra.

Marcelo Antxiak, Aretxabaletako STVko lehendakariak, lanpostua utzi zuen grebaren aldeko keinua egiteko, baina gertakari iraultzaileetan ez zuen batere parte hartu, sindikatuaren jarraibideak betez.

Gertakari iraultzaileak bukatu eta gero, Aretxabaletako udalbatzaren kezka nagusia ordena publikoa bermatzea zen. Bi mikelete gutxiegi zirela ikusita, udaleko indar nagusiek, tradizionalista eta monarkikoez, eta lantegietako jabeek guardia zibilaren kuartela eraikitzeke gestioak abiarazi zituzten. 1934ko ekintza iraultzaileak gertatu eta urtebetera, eraikita zegoen jadanik.

Lantegi batzuetako jabeen jokabide oportunistak ere azpimarratu behar da. Adibidez, Luis Fuentes, Eizaguirre edo "Vasco Cerrajera" enpresaren jabeak, egoeraz baliatuta, Aretxabaletako lantegia itxi eta Lakuntzan (Nafarroan) beste bat ireki zuen, hango laneskua merkeagoa zelako. Langile asko utzi zituen langabezia.

3.2. Gerra Zibilaren hasiera

1931ko apirilaren 14an, II. Errepublika ezarri zuten. Gobernu berriak onartutako lehen erreforma-neurriek berebiziko aldaketak eragin zituzten Espainiako gizartean eta ekonomian. Ordura arte militarrek egon ziren beti agintean, zuzenean edo zeharka (gobernuengan eragina izanez), talderik kontserbadoreen babesak eta Elizaren onespenez zutela. Errepublikaren garaipena arriskutsua zen horien guztien botere-gosearentzat, dena kolokan jar baitzezakeen. 1929an hasitako ekonomia-krisi larriak, Errusiatik iritsitako ideologia marxistaren hedapenak eta Europar (adibidez, Frantzia eta Britainia Handia) finkatutako eredu demokratikoez egoerarik kaskarrean zeuden gizarte taldeak lozorrotoz atera eta esnatu egin zituen. Askatasuna nahiz zuten. Europako mapa politikoak hainbat aukera politiko eskaintzen zituen: demokrazia, komunismoa eta faxismoa (Alemanian eta Italian). Espainia ez zen geratu nazioarteko joeren eraginpetik kanpo; aitzitik, bertan bezala, gainerako nazioetan ere makina bat gorabehera sortu zen, denboraren poderioz.

Politikan eta gizartean, aurrez aurre zeuden muturreko joerak gailendu ziren. 1934ko urriko gertakari iraultzaileak eta "biurteko beltza" izenez ezagutzen den eskuineko gobernu-aldia kontrako ideologiaren arteko bateraezintasun gogorren adibide garbiak ditugu. Politikaren polarizazioak bi bloke edo bando sorrarazi zituen: eskuinekoa (CEDA) eta ezkerrekoa (Fronte Popularra). Egoera gero eta larriagoa zen. Fronte Popularrak 1936ko hauteskundeetan lortutako garaipena eskuinak oso gaizki hartu zuen, eta, gobernu berriak ezkerreko lehen politikak finkatu zituenean, indarkeria-giroa hedatu eta bi blokeei lotutako talde paramilitarrak elkarren kontrako erasoak eta kontraerasoak egiten hasi ziren. Lehen konspirazio militarrek zertu ziren, alderdirik kontserbadoreen, monarkikoen eta Falangearen babesaz. Gobernu errepublikanoak neurriak hartu eta arriskutsuenak iruditzen zitzaizkion jeneralak Madriletik urrundu zituen: besteak beste, Varela, Queipo de Llano, Goded, Franco eta Mola. Franco Kanarietara bidali zuten, eta Mola Iruñera. Mola, konspirazioaren ustezko "zuzendaria", Iruñera bidaltzea sekulako hanka-sartzea izan zen, gerora ikusi

zen moduan, karlistekin harremanetan jartzeko aukera eman baitzioten. Molak konspirazioa antolatu eta altxamendua gauzatzeko modua hausnartzeari ekin zion, ildo bereko jeneralen eta talderik tradizionalisten babesa bilatzeaz gain. Errekete edo karlisten miliziek eta falangisten miliziek militarrekin bat egin zuten, eta altxamenduko indar armatuak izan ziren gerora.

Uztailaren 12an, José Castillo, asaltoko gardien teniente sozialista, hil egin zuten, eta ezkerrekoak berehala mendekatu ziren José Calvo Sotelo, Renovación Española alderdiko burua, erailez. Bi heriotzen ondorioz, Molaren asmoak ziztu bizian gauzatu ziren. Uztailaren 17an, ostirala, Melillako goarnizioa matxinatu egin zen, arratsaldean, eta biharamunean Afrikako iparraldeko eta Kanarietako armadak beste horrenbeste egin zuen. Orduan, penintsulako militar konspiratzaileek altxamenduarekin bat egin zuten. Matxinadak toki guztietan erantzun berbera ez zuela ikusita, Errepublikako gobernuak behar baino garrantzi txikiagoa eman zion, eta beranduegi hasi zen erantzuten. Lehen orduetan irmotasunez ez erantzun izanaren ondorioz, militarren altxamendua errazago hedatu zen.

3.2.1. Militarren altxamendua eta lehen erreakzioak

Gipuzkoan, militarren altxamenduari buruzko lehen berriak ilunak eta nahaspilatsuak izan ziren. Gipuzkoako hiriburuan, altxamenduari atxiki behar zitzaizkion militarrek ez zekiten zer egin, eta gobernu zibilak lasaitzeko eskatu zien. Agintari militarrek, hau da, León Carrasco koronela (komandantzia militarreko burua) eta José Vallespín teniente korolena (Loiolako kuarteletako arduradunetako bat) zalantzan zeuden, nondik jo jakin gabe. Ezkerreko alderdi politiko eta sindikatueta kideak, berriz, berehala atera ziren kalera, ez baitzuten inolako zalantzarik.

Ángel Gago Raposo UGT sindikatuko eta Juventudes Socialistas Unificadas (JSU) alderdiko kidea zen. Lehen ordu haietako bizipenak azaldu zizkigun, Aretxabaletan⁶⁴:

Hilak 17ko gauean, Zentro Errepublikanoan geundela, Errepublika arriskuan dago! entzun genuen [irratiz]. Gau hartan ez genuen etxean lo egin, kalez kale ibili baikinena ea zer zetorkigun ikusteko. Eibarko izeba baten senarrak Anitua arma-fabrikan egiten zuen lan, eta igande batzuetan pistolak ekartzen zizkigun pintura-ontzietan. Igande batzuetan, 14 pistola ekarri zizkigun. Bada horietako batzuk genaramatzen aldean.

Guillermo Lasagabaster Gorosabel *Mala leche*⁶⁵ Arrasateko elkarte sozialistaren bururik garrantzitsuenetakoa izan zen, eta antzeko ikuspegia eman zigun egun hartaz:

Uztailaren 18an, altxamendua oso larria zen benetan, penintsula osoan eta Espainiako hiriburu garrantzitsu guztietan hedatu baitzen.

Gasteizen, altxamendua gailendu egin zen. Bertatik bertara geneukan, 33 km-ra, eta bi udalerrien arteko bidean ez zegoen Fronte Popularreko talde bat bera ere. Beraz, Arrasateko herria kinka larrian eta geure burua arriskuan ikusita, ehiza-eskopetak, tiro bakarreko errifle zaharrak eta pistola batzuk eskuratu genituen hasieratik, sortuta geneukan Gerra Batzordeak armak Eibartik ekartzea lortu baitzuen.

Gipuzkoako gobernu zibila babesik gabe zegoenez, Errepublikaren aldeko alderdi politikoak eta UGT, STV eta CNT sindikatueta ordezkariak elkartu egin ziren, egoera menderatzeko. Irujo, Lasarte eta Amilibia diputatuak ere ezkerrekoen ekimenarekin bat egin zuten. Militarrek noraezean zebiltzala ikusita, ezkerreko taldeak kalera atera eta armak bilatzeari ekin zioten Errepublikaren alde egiteko. Orduan, León Carrascok tropak kuarteleratzea erabaki zuen. Herri-ekimena izan zen. Altxamendua hasieran ez nagusitu arren, hiriburuaren kontrola kolokan zegoen.

Debagoienan, hasierako ekimenen eta ekintzen ardatza Arrasate izan zen. Arrasatek 8.000 biztanle inguru zituen, eta industria oso errotuta zegoen. Bertako langile-elkarteetako kideak, batik bat UGTkoak, eta Juventudes Socialistas Unificadas alderdikoak berehala mugitu eta atera ziren kalera. 1934ko urriko iraultzan trebatutako gizon kementsu eta ausarten esanera jarri ziren, lider peto-petoak baitziren. Bueruetako bat Celestino Uriarte izan zen. Aretxabaletara albisteak eta aginduak Arrasatetik iristen ziren beti,

Arrasatera Eibartik eta Eibarrera Donostiatik. Harreman-kate horren zergatiak probintziako alderdi eta sindikatueta udal-batzordeen antolamendua izango zen, ezbairik gabe.

Jarraian, Guillermo Lasagabasterrek eskuz idatzitako dokumentuan oinarrituko naiz, xehetasunak aipatzeko, gertakariak protagonista baten ahotik ezagutzea interesgarria iruditzen baitzait, beste historialari batzuen erreferentzia historikoetara jotzen ibili gabe⁶⁶:

Uztailaren 18ko gaua herritik kanpo igaro genuen, Arabako (Gasteizko) errepideko bidegurutze guztiak zehatz-mehatz zainduz.

Hilak 19an, Gerra Batzordeak guardia zibilen brigadarekin hitz egin zuen. Brigadakoek lasai egoteko esan zieten, legezko gobernu defendatuko zutela beti, eta ez matxinatuak.

Hilak 20an, Gerra Batzordeak —herritarrek ziren denak— bandoa kaleratu zuen: “Gauzak zertan diren ikusita, legezko gobernuaren, gure askatasunen eta Errepublikaren alde armak hartzeko prest dauden guztiak joan daitezela udaletxera izena ematera”.

Herriko gazte guztiok joan ginen udaletxera, baina ez zituzten behar beste arma. Beraz, 100 gazteri armak eman eta gainerakoei hurrengo agindura arte zain egoteko esan behar izan zieten.

Gipuzkoak eta Bizkaiak Errepublikaren alde jarraitzen zuten. Bilboko gobernu zibilak eta bere goarnizioak gobernu errepublikanoari leialtasuna adierazi zioten hasieratik. Nafarroan, altxamendu-konspirazioaren sorburuan, militar erreboltariak nagusitu ziren. Arabako hiriburuari begira zeuden denak. Uztailaren 19ko goizeko zazpitan, altxamenduari hasiera eman zitzaion. Camilo Alonso Vega teniente koronelari, Flandes erregimentuko 5. mendi-infanterriko buruari, zegokion Mola jeneralaren aginduak betearazteko ardura. Arabako ibilbide politiko tradizionalista kontuan hartuta, altxamendua arazorik gabe gailenduko zela uste zuten.

Berehala, bi zutabe antolatu ziren: bata bizkaitarra eta beste gipuzkoarra. Gehienak milizianoak ziren, baina guardia zibil eta karabinero errepublikazale batzuk ere gehitu zitzaizkien. Uztailaren 21ean, astearte, Gipuzkoako zutabea Donostiatik Arrasatera joan zen, han Eibarko indarrekin elkartzeko. Gero, bi zutabeak Gasteizera joan ziren. Bizkaitarrak Otxandion geratu ziren, eta gipuzkoarrak Donostiara itzuli ziren, bertako goarnizioa matxinatu egin zela jakin ondoren.

Guillermo Lasagabasterrek zehatz-mehatz azaldu zigun zer egin zuen Gipuzkoako zutabea⁶⁷:

20ko gauean bertan automobil-ilara bat etorri zen Eibartik, Cecilio Gómez asaltoko gardien tenientearen aginduetara, eta gazte eibartar haiek Arrasatekoekin elkartu ziren. Goizaldeko lehen orduan Gasteiz aldera hurbiltzea zen gure helburua, ez baikenekien etsaiak non aurkituko genituen.

Hilak 20ko goizeko bostetan [akatsa da, 21ean izan baitzen] abiatu ginen, Cecilio Gómezen esanera, batzuk autobusez errepidean zehar eta beste batzuk, bitartekariak, oinez mendian barrena.

Inolako gorabeherarik izan gabe, Landara iritsi eta gure posizioetan kokatu ginen, Gerra Batzordearekin ados jarrita. Izan ere, aginduak Batzordeak ematen zizkigun.

Gerra Batzordeari Gasteiztik errepublikanoz betetako tren berezi bat atera zela eta Arrasatera zihoala jakinarazi zioten, telefono-dei baten bidez. Batzordekoek ez zuten sinetsi, Gasteiz faxisten mende egonik errepublikanoak handik tren batean ateratzea zeharo burugabea iruditu baitzitzaien.

Gauzak horrela, prestatu egin ginen. Cecilio Gómez tenienteak oso agindu zorrotzak eman zizkigun: trena etorritz gero, argi zegoen barruan Errepublikaren kontra altxatutako militar traidoreak aurkituko genituela, eta ez errepublikanoak. Beraz, Landako geltokitik hurbil zegoen trenbide-bihurgunean harriz eta hondar-zakuz betetako auto bat jartzeko esan zigun, trenak talka egin zezan.

Trenari bidea mozteko zuhaitz batzuk ezarri eta gero, harri eta zur geratu ginen errepidetik automobil bat hurbiltzen ikusi genuenean. Bertan, buruzagi militar eta falangista batzuk zetozen bazterrak arakatzeraz. Cecilio Gómezek tirokatzeko esan zigun, baina, deskarga itxi bat jaurti genien arren, gidariak azkar-azkar biratu eta ihes egitea lortu zuen. Gidariaren erreakzio lasai, kementsu eta adoretuari esker, barruko inor ere ez zen hil. Dena den, tiroketaren ondorioz, autoak kristalak hautsita eta gurpilak zulatuta zituen. Orduan, Gasteiztik alde egindako gure kide batzuk iritsi ziren. Hiriburuan gauzak zertan ziren azaldu eta azkar erasotzeko esan ziguten, erraz menderatuko genuelakoan. Guk tirokatutako autoa errepidean ikusi zuten: barrukoak bendatuta zeuden, baina itxuraz zauri arinak zituzten.

Gero, kontserba hotzak jan eta ardo pixkat edan genuen. Halako batean, autobusak hasi ziren iristen, denak milizianoz gainezka. Eibartik eta beste toki batzuetatik zetozen Gasteizko eraso pres-tatzera.

Bat-batean, Gasteizko propaganda-hegazkin txiki bat azaldu zen zeruan. Inguruak miatu eta bueltan joan zen. Bitartean, Arrasaten kuartel nagusia sortu zuten, Errepublikaren aldeko indarrak eta alde guztietatik iristen ari ziren milaka miliziano boluntarioak bertan elkartzeko.

Carrasco koronelak, Fronte Popularreko buruei euren esanak beteko zituela hitzeman zien arren, matxinatzea erabaki zuen, legeko gobernuarekin leialak izaten jarraitzen zuten agintariak Do-nostiatik Arrasatera abiatu zirela jakin zuenean.

Arratsaldeko bostetan, Gasteiz konkistatzeko irrikan eta zeharo kementsu geundela, agindu de-satsegina iritsi zitzaigun Arrasateko kuartel nagusitik: gure asmoak bertan behera uzteko eta Arrasa-tera itzultzeko, Carrasco jenerala Donostian matxinatu zelako. Arrasatera iritsitakoan, une hunkigarriak izan genituen biztanle zibilekin eta, bereziki, emazte eta emaztegaiekin, baina azkar agurtu genituen, presaka genbiltzalako. Iluntzeko zazpian iritsi ginen Eibarrera. Ezin konta ahala karabana zeuden ber-tan, eta afari hotza jan genuen. Zortzietan, albiste txarra eman ziguten telefonoz: Arrasateko guardia zibilen kuartela matxinatu egin zela, gazte guztiak herritik joan eta gero.

Gipuzkoako mugimendua geldiarazteak lehentasuna zuzenez, aurrera jarraitu genuen, berriari jaramonik egin gabe. Zortzi eta erdietan, milizianoz betetako autobusak banan-banan abiatu ziren. Goi-zaldeko bostetan Donostiatik hurbil geunden jadanik. Badaezpada ere, etsaiak gure iritsieraz ez kon-turatzeko, autobus guztiek farolak itzalita zeramatzaten.

Goizeko zazpian hirirako bidea hartu eta lehen kaleetan sartu ginen, Garmendia komandan-tearen eta beste buru batzuen agindupean. Ilaran gindoazen denok, banan-banan [...].

Azalpenak osatzeko, xehetasun batzuk gaineratuko ditut. Arrasateko PNVko kide batzuk Gasteizera joandako zutabearekin batera abiatu ziren, baina, itzuli zirenean, haiekin ez jarraitzea erabaki zuten⁶⁸. Ha-laber, guardia zibilen kuartelek hartutako jarrera ere aipatu behar da. Arrasateko guardia zibilak eta eu-ren familiak, Oñatikoekin eta Aretxabaletakoekin batera, kuartelean sartu eta hantxe geratu ziren. Gau-zak horrela, Eibartik lauhun bat gizon armatu joan ziren Arrasateko kuartelera, asaltoko guardiako ofizial bat buru zutela⁶⁹. Jarrera horren arrazoia argitzeko eskatu eta erantzun garbirik ez zutenez eman, guar-dia zibil guztiei Donostiara zihoan zutabeari atxikitzeko agindu zieten. 8 besterik ez ziren geratu Arrasa-ten⁷⁰.

Gauzak erroitik aldatu ziren, ordea, artean "isilik" zeuden militarrek altxamenduaren alde jartzen hasi zirenean. León Carrascok, komandantzia militarreko buruak, legeko gobernuarekin bat zetorrela esaten zuen, baina ekintzetan ez zitzaion asko igartzen. Artilleriako erregimentuko gizon batzuekin Arrasateko zutabea sartzeko agindu zioten, baina, agindua momentuan bertan bete beharrean, denbora pasatzen utzi eta, azkenean, indarrak kuarteleratzea erabaki zuen. Loiolako kuarteletako arduradunak, Vallespín teniente koronelak, eta kapitain batzuek aginduei muzin egin eta Gobernu Zibilar probintziako agintea euren esku uzteko eskatu zioten; bestela, Donostia bonbardatuko zutela gaineratu zuten. Traizio garbia egin zuten, beraz. Zutabea itzultitakoan egoerak zer norabide hartuko zuen ikustea besterik ez zen geratzen.

Uztailaren 22an, militarrek Donostia kontrolatzen saiatu ziren, falangista taldeen laguntzarekin. Hi-rigunean sartu eta eraikinik egokienetan babestu ziren: María Cristina hotelean, kasinoan eta komandantzia militarrean, besteak beste. Arrasatetik eta Eibartik zetorren zutabeak hiriburuaren inguruko herrietatik iri-tsitako jendetza ikaragarria aurkitu zuen Donostian sartu aurretik. Antolatu, taldeak osatu eta kaleetan sartu ziren, kontu handiz. Metrailatu eta Loiolako kuarteletik obusak jaurti zizkieten. Hantxe zauritu eta hil ziren lehen kideak.

Donostiaz jabetzeko borrokaldiak 7 egun iraun zuen, uztailaren 22tik 28ra arte. Hiriburuko milita-rreren erreboltak porrot egin zuen, baina etsaiak, Nafarroako erreketen aginduetara, Gipuzkoa mendera-tzen hasita eta Oiartzun, Erreterria eta Beasain hartuta zeuden. Gerra zibila piztuta zegoen.

Bukatzeko, laburbilduz, aretxabaletarrek horretan guztian partaidetza handirik ez zuela izan na-barmendu nahi nuke, herria eta Arabako mugaldeko mendiak zaintzeaz gain. Dokumentuetan azaltzen den bakarra Pablo Urtubi⁷¹ farmazeutikoa da, Gasteizerako bidea hartu zuen zutabeko anbulantzia batean joan

baitzen, Victoriano Múgica mediku bergararrarekin batera. Azkenean itzuli egin behar izan zuten, lehen azaldu dugun moduan. Era berean, Arrasateko gizonek Donostiako kaleetako enfrentamenduetan izandako adorea eta jarrera kementsua ekarri behar ditugu gogora. Lau lagun hil ziren: Eusebio Berecibar, Benito Uranga, Camilo Ibáñez eta Pedro Olmedo⁷².

Uztailaren 27an, Loiolako kuartelaren kontrako borroketan Justo Rodríguez asaltoko guardien tenienteari zauri larriak eragin zizkioten, eta ezin izan zituen gainditu. Uztailaren 28an, Lakarko tertzioko erreketeeek Augusto Pérez Garmendia, Estatu Nagusiko komandantea, tiroka hil zuten, Errenteria aldera zihoala. Abuztuaren 3an, Cecilio Gómez asaltoko teniente Lasarten hil zen, esku-granada batek jota. Oso heriotza garrantzitsuak izan ziren, zendutako hirurak oso militar trebeak baitziren, eta funtsekoak, beraz, indar errepublikanoak antolatzeko eta borroka bideratzeko.

Militar traidoreei dagokienez, Loiolako kuartelak menderatu ondoren, León Carrasco koronela atxilotu eta Foru Aldundira eraman zuten. Handik denbora batera, hilda agertu zen. Vallespín teniente koronelak, berriz, Iruñera iristea lortu eta matxinatuekin bat egin zuen.

3.2.2. Errepublikako Defentsa Batzordearen sorrera

Batetik, lehen egunetako aginte-hutsunea bideratzeko eta betetzeko premia zegoen. Donostiako militarrek altxatu ondoren, Gobernu Zibileko ordezkariak Eibarrera alde egin behar izan zuten, Gipuzkoako zutabearekin batera. Bestetik, etsaiak, Nafarroako mugaldeen finkatuta zeudela, mehatxu larriak ziren Gipuzkoarentzat. Antolatzea premiazkoa zen benetan. Faxisten altxamenduak sorrarazitako anabasa hartan, Errepublikaren aldeko mugimendu iraultzailea ekinean hasi zen. Aipatutako botere-hutsunea betetzeko beharrak eraginda, 1936ko uztailaren 27an, Loiolako kuartelek amore eman zuten egunaren bezperan, Errepublikako Defentsa Batzordea eratu zen. Pedro Barruso historialariaren arabera, "legaltasun errepublikanoaren aldeko indar guztiak bateratzeko eta Gipuzkoako bizitzaren alderdi zehatz guztiak bideratzeko sortu zuten"⁷³.

Gipuzkoako Defentsa Batzordean, Fronte Popularraren ordezkariak (PSOE, PCE, IR, ANV...) eta PNV alderdiko eta CNT sindikatuko kideak elkartu ziren. Komisariotzak osatu zituzten, Gipuzkoako bizitzari lotutako zerbitzuak antolatzeko eta garatzeko. Hasieran, kargu hauek hautatu zituzten⁷⁴:

- Batzordeko lehendakaria: Miguel Amilibia (PSOE)
- Gerra Komisariotza: Jesús Larrañaga (Euskadiko PC)
- Hornidura Komisariotza: Sergio Echevarría (PSOE)
- Garraio Komisariotza: José Aguado (IR)
- Ordena Publikoaren Komisariotza: Telesforo Monzón (PNV)
- Harreman, Informazio eta Propaganda Komisariotza: Miguel González (CNT)
- Finantzen Komisariotza: José Imaz (ANV)

Uztailaren 30ean, probintziako osasun-arazoak konpontzeko, arlo horretako komisariotza sortzea erabaki zuen Fronte Popularrak.

- Osasun Komisariotza: Julio Rodríguez Mena

Handik ia hilabete batera, abuztuaren 24an, beste bi talde eratu zituzten sortzen ari ziren premiei erantzuteko:

- Lan Komisariotza: Guillermo Torrijos (UGT)
- Gizarte Laguntzako Komisariotza: Rafael García

Komisariotza bakoitzean erakunde politiko eta sindikal guztietako ordezkariak zeuden.

Debagoiena eskualdea Eibarko Defentsa Batzordearen eremua zen. Abuztuaren hasieran sortu zuten, Gipuzkoako hiriburuko Batzordearen ereduari jarraituz, eta Juan de los Toyos sozialista izendatu zuten batzordeburu. Debagoieneko eta Debabarreneko herri guztiak hartzen zituen barne, ia Zumarragaraino iritsiz.

Militarren iraultzaren lehen egunetatik, ezkerreko erakunde politiko eta sindikalak egoeraren larritasunaz jabetu eta antolatzen hasi ziren. Euskal Nazionalistak zalantzan zeuden, aginduen zain. Azkenean, tokian tokiko udaleko Defentsa Batzordean sartu ziren. Aipatutako Batzordeak sortzerakoan, bi talde ideologikoen arteko errezeloak nabarmen azaleratu ziren. Fronte Popularrekoak (ezkerrekoak) eta euskal nazionalistak ez ziren elkarrez asko fidatzen, baina bazekiten bat eginik jardun behar zutela, ezinbestez.

Araba matxinatuen mende erori zenean, Debagoieneko herrien kokalekuak eragindako kezkaren ondorioz, bertako udaletan Defentsa Batzordeak sortu zituzten berehala, Errepublikaren alde egiteko.

Arrasateko Defentsa Batzordea uztailaren 19an eratu zuten, eta jeltzaleak 20an atxiki zitzaizkion. 11 kide zituen, eta Nicolás Uriarte alkate sozialista zen batzordeburua. Hona hemen kide guztiak:

- 2 kide sozialista (PSOE): Celestino Uriarte eta Jesús Uranga
- UGTko 2 kide: Salvador Lazpiur eta Marcos Vitoria
- PNVko 2 kide: Nicolás Uriarte eta Juan Arregi
- STVko 2 kide: Gregorio Uriarte eta Romualdo Uribetxebarria
- ANVko 2 kide: horietako bat Eusebio Marcaide
- IRko kide 1: Felipe Letona

Leintz Gatzagako udalak bere gain hartu zuen herria babesteko eginkizuna. Udala Zacarías Ruiz de Alegriak, gatz-fabrikaren jabeak, kontrolatzen zuen. Alkateordea zen, tradizionalista, eta Gasteizen altxatutako militar batzuen senidea. Alkateordearen botere handiak desadostasunak sorrarazi zituen biztanleen artean, eta, azkenean, Zubillagak, Batzokiko lehendakariak, Batzordeko kide guztiak kanpokoak izatea proposatu zuen, mendekuak eta errepresaliak saihesteko. Proposamena denek onartu zuten. Defentsa Batzordea uztailaren 29an eratu zuten, 4 kide hauek izendatuz: Antonio Gamarra, Araba Buru Batzarreko idazkaria, Juan eta Julio Gamarra, aurrekoaren anaiak, eta Gerardo Zubillaga, Batzokiko lehendakariaren semea. Antonio Gamarra hilaren 27an iritsi zen Leintz Gatzagara, Gasteiztik ihes egin ondoren. Batzordeburu izendatu zuten⁷⁵, bere balioa aitortuz. Kargu haiek Eskoriatzako Defentsa Batzordeak berretsi zituen. Leintz Gatzagako Batzordeko jeltzaleak bikainak ziren benetan: egunero egindako guztiari buruzko aktak idazten zituzten, bidaiatzeko baimenak eman... Zeinen trebeak zirela ikusita, Juan eta Julio Gamarrari Eskoriatzan funtzio berberak emateko eskatu zuen Arrasateko Batzordeak. Biharamunean, Aretxabaletako Batzordeko kideak Gatzagara igo ziren, zer urrats eman behar zituzten jakitera. Handik egun gutxira, ezkerrekoak kexatu egin ziren Arrasateko Batzordean Fronte Popularreko ordezkariak ez zegoelako. Kexaren ondorioz, beste Batzorde bat eratu zuten, 3 jeltzalez eta ezkerreko 2 ordezkari osatuta, alkatea buru zela. Udal guztietako Defentsa Batzordeetan ordezkariak izateak zenbat kezkatzen zituen ikusita, argi dago alderdietako kideen arteko orekari zorrotz erreparatu beharko ziotela.

Eskoriatzako Defentsa Batzordeak ezin hobeto antolatuta jardun zuen, Gamarra anaiei esker. Kideen artean, Centro Republicano Federal alderdiko, STVko eta udaleko ordezkariak zeuden. 5 komisariotza sortu zituzten: Gerrakoa, Ordena Publikoarena, Hornidurena, Finantzena eta Garraioena. Bosten eraginkortasuna erabatekoa izan zen.

Aretxabaletan, altxamenduaren aurreko giro politikoan hiru joera edo ideologiatako taldeak zeuden: ezkerrekoak, euskal nazionalistak eta kontserbadore edo tradizionalistak. Ezkerrekoen artean errepublikanoak eta sozialistak ziren nagusi, komunistek eta anarkistek ez baitzuten ia inolako indarrik. Euskal nazionalistak talderik ugariena ziren, eta ANV ezkerrekoen eta jeltzaleen artean zegoen. Azkenik, karlistak eta monarkikoak joera tradizionalistarik edo kontserbadorerik gogorrenei loturik zeuden.

Aretxabaletako Defentsa Batzordeak 12 kide zituen:

- Ezkerreko (Unión Republicana alderdiko eta UGT sindikatuko) 6 ordezkari:
 - Saturnino Bravo
 - Manuel Martínez
 - Ladis del Teso

- Luis Sauquillo
- Remigio Lombide
- Santiago Urkia
- PNV alderdiko eta STV sindikatuko 6 ordezkari:
 - Pedro Jauregi
 - Mateo Lasagabaster
 - José Antonio Usandizaga
 - Anastasio Marzana
 - Ángel Aznar
 - Máximo Alberdi



Defentsa Batzordearen zigilua.

Errepublikano eta sozialisten ordezkariak UGTko 3 kide (Saturnino Bravo, Manuel Martínez eta Ladis del Teso) eta Zentro Errepublikanoko beste 3 (Luis Sauquillo, Remigio Lombide eta Santiago Urkia). Gainerako kideak jeltzaleak edo STV sindikatuko ordezkariak ziren.

Uztailaren 21ean hasi ziren ekinean, bi bururen aginduetara. Bata Saturnino Bravo zen, 1934ko iraultzeko liderra, eta beste Pedro Jauregi, orduko alkatea.

Sozialistek jarrera aktiboagoa hartzen zuten bitartean, jeltzaleak ordena ziurtatzera mugatu ziren. Bidasoa Institutuak kaleratutako *La Guerra Civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por José Miguel de Barandiaran*⁷⁶ lanean, euskal kulturaren aitak 1938ko otsailaren 4an Máximo Alberdi Ceberio jeltzalearekin izandako elkarrizketa azaltzen da, besteak beste. Máximo Alberdi Defentsa Batzordeko kidea zen, eta garai hartan Biarritzen zegoen erbesteratuta. Hona hemen elkarrizketaren pasarte bat:

Gorriei gehiegikeriarik edo neurrigabekierarik egiten ez uzteko sartu ginen, batik bat, Udaleko Defentsa Batzordean. Gorriekin aurrez aurre jarrita, ez genuen lortuko helburu hori, ez baikenuen ez armarik, ez inolako laguntzarik agintarien aldetik. Dena den, agindu bakarra eman ziguten: ordena publikoa bermatzera mugatzea, beste ezertan ere esku hartu gabe.

Bestalde, Defentsa Batzordearen antolamenduari buruzko dokumentuak oso urriak direnez, ez dago argibide gehiegi ematerik. Jakin badakigu Máximo Alberdi Elorriora abiatu zela irailaren 21ean, frankistak Aretxabaleta hartzeko zorian zeudelakoan. Defentsa Batzordearen, Solidaridad sindikatuaren, PNVren, UGTren eta Zentro errepublikanoaren dokumentuak zeramatzan aldean. Biztanle zibil gehiagok ere alde egin zuten herritik, frankistak sartzeko arriskua zela eta. Máximo elbarria zen soldadutzan harrapatutako gaitasun baten ondorioz, eta kazetaritza-kronikak idazten zituen egunkari nazionalistetan, lan joria eginez. Horregatik, Batzordeko administrazio-lanen arduraduna izango zela uste dugu, eta, itxuraz, gorde beharreko dokumentuak babesteko ere aukeratu zuten.

Dokumentu batean Defentsa Batzordeko milizianoen abuztuko nominak eta komisariotza bakoitzaren hartzekodunen zenbatekoak zehazten dira. Dirudienez, 7 komisariotza zituzten: Gerrakoa, Garraioena, Hornidurena, Ordena Publikoarena, Komunikazioena, Finantzena eta Informazioena⁷⁷.

Gerra Komisariotzak miliziak antolatzen zituen. 1938an Ladis del Tesori egindako gerra-kontseiluan "Udaleko Defentsa Batzordeko kidea eta gerra-komisarioa"⁷⁸ izatea leporatu zioten. Errepublikaren aldeko Aretxabaletako Defentsa Batzordeko milizianoen zerrendan izen-abizen hauek (denak sozialistak) azaltzen dira:

1936ko abuztuan zerbitzuak ematen jardun zuten milizioanoak

Zk.	Izena	Zk.	Izena
1	Eusebio Arrese Idígoras	20	Florentino Andrés Díez
2	Gregorio Unzueta Urzelai	21	Pedro Axpe Sagasta
3	Saturnino Sauquillo Etxebarria	22	Clemente del Teso Sandoval
4	Jesús Múgica Bañales	23	Vicente Lizarralde Izurrategi
5	Ángel Sauquillo Etxebarria	24	Jesús Zubizarreta Bengoa
6	Damián Egiguren Zubizarreta	25	Jacinto Martínez de Alegría Inurria
7	Lucio Oteiza Cortazar	26	Santiago Umerez Anduaga
8	Ángel Gago Raposo	27	Cirilo Erostarbe Fernández
9	Francisco del Teso Sandoval	28	Máximino Gil Múgica
10	José María Lombide Gastañaga	29	Tomás Soria Gauna
11	Félix Alberdi Gorostiza	30	Celestino Etxebarria Ameztegi
12	Sabino Ugarte López de la Calle	31	Miguel Llobregat Espinosa
13	Obdulio Rodríguez Lentijo	32	Julio Urkia Orense
14	Rafael Múgica Rodríguez	33	Antonio Estrada Ábalos
15	Nicolás Martínez de Butrón	34	Leopoldo Castro Sandoval
16	Eugenio Zaldibia Fernández de la Peña	35	Dionisio Rodríguez Lentijo
17	Aurelio Carmona Rodríguez	36	José Antoñanzas de Diego
18	Constantino Carmona Rodríguez	37	Pedro Carmona Rodríguez
19	Octavio Gago Raposo	38	Vicente Alonso Andrés

Miliziano bakoitzak eta Batzordeko kide bakoitzak 10 pezeta kobratzen zituen eguneko. Dokumentua Luis Sauquillok sinatu zuen, Batzordeko lehendakaria edo finantza-arduraduna zen aldetik.

Aipatutako dokumentuan zehazten denez, Komunikazio Komisariotza Ladis del Teso eta Máximo Alberdi batzordekideek zeramaten⁷⁹. Ildo horretan, halako herri txiki batean Informazio eta Komunikazio Komisariotzak bereizita egotea bitxia iruditzen zaigu.

Ordena Publikoaren Komisariotza Batzordeko jeltzaleen esku zegoen. Telesforo Monzón burukidea ere Gipuzkoako Defentsa Batzordeko Ordena Publikoaren Komisariotzako lehendakari izendatu zuten. Ordena eta gurtza katolikoa bermatzea eta presoek bizitzak zaintzea zituzten zeregin nagusiak. Ordura arte, PNV alderdiaren jokabidea nahiko anbigua izan zen. Máximo Alberdik bere alderdia kinka larrian zegoela azaldu zuen⁸⁰:

Uztailaren amaiera aldera, Euzko Alderdi Jeltzaleko batzorde bat etorri zitzaigun: Azkarate jauna (Bergarako biztanlea), Mujika jauna (Bergarako medikua) eta Gorroñogoitia jauna (Arrasatekoa). Nafarroako eta Arabako altxamendu militarra eta milizien mugimendua zuzenean euskal nazionalisten kontra zihoazela esan eta adibide zehatzak eman zizkiguten, lotura hori egiaztatzeko. Ziotenez, armak hartzea ezinbestekoa zen gure bizitzak eta lurraldea babesteko, eta boluntarioak biltzeari ekin behar genion. Esanak esan, armak hartzea jendeari hasieran ez zitzaion egokia iruditu, eta, beraz, Uri Batzarra abuztuaren erdira arte ez zen hasi boluntarioak biltzen.

PNV alderdia abuztuaren hasieran hasi zen bazkideak militarizatzen. *Euzko Gudarostea* sortu zuen Azpeitian, eta hirigune horretan 1.349 gudari bildu zituzten. Komandantzia ere eratu zuten, kide hauek izen-datuz: Telesforo Monzón, José María Lasarte, Salvador Aranburu, Miguel José Garmendia, Lino Lazkano, Miguel Ayerdi eta Tomás Mitxelena. Gudarien agintari militar gorena edo komandante-burua Cándido Sasetaren zen, eta komandanteak Eduardo Urtizberea, Jesús Luisa, Enrique Etxeberria, José María Fernández de Lecuona eta José Placer ziren⁸¹.

Eibarko Batzordea Leintz Haranean ahalik eta jende gehien elkartzeko saiatu zen, eta, besteak beste, 33an, 34an eta 35ean soldadutzan egondako gazteei deitu zien. Antonio Gamarra jeltzaleak, Udal Batzordeen antolamenduaren funtsezko ardatzetako batek, Euskal Milizietako gudariak nola errekrutatu zituzten adierazi zion On José Miguel de Barandiarani⁸²:

Begarako barrutiko PNVko Uri Batzarretako ordezkariok Bergaran elkartu ginen, bertako alkatena buru genuela. Bileran, erabaki hauek hartu genituen:

1. Arlo militarrean edo politikoan jardundako mutilen fitxak Eibarko Batzorde delegatuari bidaltzea eta alderdiarentzat kopia bat gordetzea.
2. Fitxa horietan, PNVko bazkide eta jarraitzaile gazteak jadanik euskal milizietan daudela gaineratzea.
3. Mutilak PNVren kuarteletan biltzea.

Hori guztia ezagutzera eman ondoren, Begarako barrutiko 550 mutiletatik 450 inguru euskal milizietan sartu ziren.

1936ko abuztuaren 15a aldera, *Leintz Haraneko Euzko Gudarostea* sortu zuten, eskualdeko 400 bat gudariarekin. Irailaren hasieran gudari haientzako kuartela egitea erabaki zutela adierazi zuen Máximo Alberdik. Kokalekuari zegokionez, "Eskoriatzako marianisten ikastetxea aukeratu zuten, eta ez Aretxabale-tako bainu-etxea, gorriek azken hori konfiskatu eta hondatu egingo zutelakoan"⁸³.

Dirudienez, Eibarko Batzordearen erreklutamendu-deiak ez zuen arraska handirik izan, eta bertan behera utzi zuen. Eskoriatzako gudarosterako izena eman zuten mutil askok Eibarkora ez joan behar izateko egin zuten hori, eta, Eibarko Batzordeak deialdiari amaiera eman bezain laster, etxera itzuli ziren. Azkenean, 192 mutil (ia erdiak) geratu ziren marianisten kuartelean. Aramaiokoak, Leintz Gatzagakoak, Eskoriatzakoak eta Aretxabaleakoak ziren denak⁸⁴ (ikus 3. eranskina 303. or.).

Defentsa Batzordeek, bestalde, komisariotzen mantenimenduaren ondoriozko gastuei egin behar zieten aurre. Hona hemen komisariotza bakoitzaren abuztuko nominen zenbatekoak⁸⁵:

Gerra Batzordeko milizianoen eta kideen hartzekodunak	10.400,00
Garraio Batzordeko langile eta kideenak	2.080,00
Hornidura Batzordeko langile eta kideenak	1.040,00
Ordena Publikoaren Batzordeko langile eta kideenak.....	1.550,00
Komunikazio Batzordeko langile eta kideenak	520,00
Finantza Batzordeko langile eta kideenak	520,00
Informazio Batzordeko langile eta kideenak	520,00
Abuztuko hartzekodunen guztizkoa pezetatan	16.640,00

Baliabideak nola edo hala lortzeko nahiak eraginda, legezko gobernuaren kontrako ideologiak zitu-tzenei isunak ezarri zizkieten: adibidez, Mariano Zubizarreta Mújicari (300 pta), Juan Urrutia Villarri (500 pta), Eustaquio Alkorta (1.000 pta) eta beste askori⁸⁶. Batzordeak gutuna bidaltzen zion kasuan kasuko biztanleari, isuna ezarri zitzaiola jakinarazteko eta zenbatekoa zehazteko. Bakoitzaren baliabide ekonomikoen arabera zenbatekoa ezarri ohi zuten. Isun guztiak Defentsa Batzordearen egoitzan, Otazu jauregian, ordaintzen ziren. Máximo Alberdik xehetasun hauek eman zizkion On José Miguel de Barandiarani⁸⁷:

Hamabi edo hamalau mila pezeta inguru bildu zituzten. Isunik handiena (2.000 pta-koa) Galdor-Barrutiari, Landeta etxearen jabeari, ezarri zitzaion, baina ez zuen ordaindu. Eustaquio Alcor-tari 1.000 pta-ko isuna ezarri zitzaion, Severiano Olarani ere 1.000 pta-koa etab.

Gorriek apaizei ere ezarri nahi zizkieten, baina guk, euskal abertzaleok, aurre egin genien eta, azkenean, amore eman zuten. Apaiz bakar bati ezarri zioten isuna: moja agustindarren kaperauari, Andrés Leibar jaunari. 1.000 pta ordaindu zituen.

Isunen eta herri-harpidetzen bidez bildutako diruari esker, gastuak ordaindu zituzten.

Gipuzkoako Defentsa Batzordeak gari kantitate jakin bat biltzeko agindu zion Hornidura Komisa-riotzari, eta hala egin zuen. Donostiara bidalitako gariaren balioa 50.000 pta-koa zen. Horra zer erantsi zuen Máximo Alberdik⁸⁸:

Handik denbora batera (irailaren 20an) gari gehiago bidali zuten Eibarrera, eta bidalketa berriaren balioa ere 50.000 pta-ko zen, gutxi gorabehera. Baina nekazariei ezin izan zieten gari hura ordaindu, Gi-puzkoako Batzorde Defentsak dirua kobratu baino lehen, frankistek Donostia hartu baitzuten, eta gero Gipuzkoa osoa, baita Aretxabaleta ere. Gobernuaren eraginpeko eremuetan bizi ziren nekazariak beste-rik ez zuten kobratu. Adibidez, Malkorre baserriko Alejandro Arregui eta Landeta baserriko Ignacio Are-nazari erositako gariaren truke zegokiena ordaindu zieten, Bilbon.

Bestalde, Garraio eta Hornidura Komisariotzen buruak ez dakigu nor izan ziren. Lehenengoari da-gokionez, jakinekoa da Rufino Hurtado *Picolo*, Industrias Beroa lantegiko gidari mekanikaria, autoak kon-fiskatzen ibiltzen zela Batzordearentzat. Besteak beste, Roque Agirrerenak eta Silvestre Idígorasena hartu zituen. Altxamenduaren lehen egunetan, Rufino eta miliziano batzuk Landako geltokia zaintzen ari zirela, ogiz betetako kamioneta bat hurbildu zen; barruan, Araiko okina zetorren. Okina preso hartu eta ka-mioneta konfiskatu zioten. Handik bost egunera libre utzi zuten, ibilgailurik gabe. Irun eta Hondarribia erori ziren egunetan zehar, *Picolo* goizero probintziaren barnealdera joaten zen kamionetan, beste bi kideekin batera, eta gauean dena beteta ekartzen zuten bueltan. 15 egunetan egin zuten hori. Roque Aguirrekin eztabaida bizia izan zuen. Behin, autoa (Amilcar modelo, BI-3273 matrikuladuna) kalera ateratzeko agindu zion Roqueri. Hartu eta eraman egin zuen, eta gauez itzuli zion. Biharamunean, Roque autoa neska batzuekin paseatzeko erabili izana leporatu zion, eta *Picolo*k mehatxatu egin zuen. Autoaren erabileraren inguruko ika-mikak sortutako gaitzondoa areagotu egin zen beste gau batean gertatutakoaren ondorioz. *Picolo* Roqueren establezimenduan sartu zen berrogei bat milizianoekin eta afaria prestatzeko agindu zion emazteari. Denentzako beste janari ez zuela erantzun zion emazteak, eta Batzordera joan eta jaki eta guzti itzuli ziren. *Picolo* haserre zegoen emaztearen erantzunarekin, eta autoa erretzea proposatu zien kideei, baina ez zioten jaramonik egin. Orduan, pistolarekin autoa tirokatu eta piezak kendu eta eraman egin zi-tuen, funtzionatzerik izan ez zezan⁸⁹. Beste egun batean, Ladis del Tesori laguntzera joan zen, autoz, Go-roeta auzoan txanda-aldaketa bat egitera eta Eibartik milizianoentzako uhalak eta oinetakoak ekar-tzera⁹⁰. Azkenean, irailaren 20an, Roque Agirrek eta beste lagun batzuek Gasteizera ihes egin zuten mendian barrenaz.

Bitartean, miliziano boluntarioak Gerra Komisariotzaren esanera jarri ziren. Gipuzkoaren eta Ara-baren arteko mugaldea babestea zen helburu nagusia. Lehenago adierazi dugunez, Ladis del Teso izendatu zuten gerra-komisario. Handik urte batzuetara, Ladisen kontrako gerra-kontseilua zela eta, Rufino Hur-tado milizien komandante "izendatu" zuten⁹¹. Lehen egunetatik, taldeak antolatu zituzten mendizerrak zaintzeko: Elgea, Andarto, Lizargarate, Mugarriluze, Isuskizta etab. Lehen irteera haietan egoera bitxiak sortu ziren arma-eskasiaren ondorioz, Lucio Oteizak irribarrea ahoan azaldu zigun moduan⁹²:

Hemendik (Aretxabaletatik) Isuskiztara joan ginen, Landa gainean zegoen postura, bertatik Le-gutio eta Gasteizko ortu guztiak ikusten zirelako. Cirilo Erostarbe Landakoa zen. Abiatu ginen bost la-gunetatik Cirilo zen pistola zeukan bakarra. Goian telefono bat zegoen, elkarri mugimenduen berri ema-teko, eta pistola... zerbait generamala esateko besterik ez genuen hartu.

José del Tesok bere familiakoen bizipenei buruz idatzitako lanean aita Clementek kontatutako pa-sadizo bat aipatzen du. Clemente Elgea mendizerra patruilatzen ari zela gertatu zen⁹³:

Elgeako mendi-hegalean zegoen etxola batean karlistak egoten ziren. Gu patruilatzera joaten ginen, baina, gerrako lehen egunetan, ganorazko armarik ez genuenez, eskopeta batekin egiten nien tiro. Barre eta burla egiten ziguten... Baina, halako batean, fusil bat lortu nuen. Gu ikusi eta, beti bezala, burua ateratzen hasi zirenean, tiroka hasi nintzen. Korrika alde egin zuten denek, eta denboraldi batez ez ziren itzuli.

Irailaren hasieran, antolamendua askoz ere eraginkorragoa zen. Adibidez, Eskoriatzako Gerra Komisariotzak hainbat miliziano talde bidali zituen Elgea mendizerra kontrolatzera. Era berean, 30 milizianoz osatutako bi talde eratu zituzten Mugarriluzeko blokaoa zaintzeko. Talde horietako hogeitak miliziano joan ziren bertara, errifle eta guzti. Udal Batzordeek hartutako lehen neurrietako bat tokian tokiko biztanleen armak konfiskatzea izan zen. Hala ere, behar beste arma ez zituztenez, partekatu eta Batzordeari itzuli egin behar izaten zizkieten zerbitzu bakoitza bukatu bezain laster. Halaber, jantziak eta oinetakoak ere behar zituztenez, Eskoriatzako Batzordeak hainbat zenbakitako 50 pare mendi-bota, artilezko galtzetin sendoak, "monoak" edo buzoak, aldagarriak, kantineplorak eta jateko tresnak... eskuratu zituen bere milizianoentzat.

Dena den, ezin dugu esan benetako frontea zenik, baliabide militarrek oso urriak izateaz gain, armada-antolamendurik ez zutelako. Ekintza txiki batzuk egitera eta gune estrategikoak menderatzera eta zaintzera mugatu ziren.

3.2.3. Defentsa Batzordearen lehen atxiloketak

1936ko abuztuaren hasieran, Aretxabaletako Defentsa Batzordeak, beste herri batzuetakoek bezala, atxiloketak egin zituen: tradizionalistarik nabarmenenak eta ideologia horren jarraitzaileak edo ustezko jarraitzaileak. Kontrako pentsaera zutenak kontrolatzea nahitaezkoa iruditzen zitzairen altxatutako ena- ginpeko eremuetara alde egin ez zezaten.

Máximo Alberdi atxiloketez oroitzen da⁹⁴:

Aretxabaletan, biztanle hauek atxilotu zituzten: Pablo Arrue jauna (tradizionalista: armak zituen aldean), José María Amuriza jauna (tradizionalista, eta, gero, euskal udalak indargabetu zituztenean, alkate kudeatzailea), Emilio Saiz (tradizionalista), Domingo Zuazua (tradizionalista) eta Ramón Arrue. Horiek guztiak udaleko Defentsa Batzordearen aginduz atxilotu zituzten, eta beste batzuk Gipuzkoako Defentsa Batzordearen aginduz, Antzuolan aurkitutako dokumentu batean altxamenduaren mugimenduarekin zerikusia zutela egiaztatu ondoren. Silvestre Idígoras, Severiano Altube, Eustasio Oyanguren, Pío Garay, Timoteo Ezpeleta, José Aldanondo [Echeverría Aldanondo, berez] eta Fortunato Aguil- lar ziren. Arrasateko Defentsa Batzordeak Simón Ansola apaiza atxilotu zuen altxamenduaren aldeko- ei Araban sartzen laguntzeagatik.

Arrasateko Gerra Komisariotzako dokumentu batean abuztuaren 10ean Bergarara eraman zituen 59 atxilotuen izen-abizenak datoz⁹⁵. Horietako 5 Aretxabaletakoak ziren: Hermenegildo eta Román Gal- dos anaiak, Pablo Arrue, Simón Ansola jauna eta Julián Olabe. Azkena oñatiar batek atxilotu zuen Aran- tzazun, ihesi zihoala.

Bergaran kartzela bat zegoen, barruti judizialeko burua baitzen, eta eskualdean atxilotako guztiak bertara eramaten hasi ziren. Handik gutxira, gainezka zegoenez, udal-biltegira eta mintegira eraman be- har izan zituzten. Datarik gabeko behin-behineko zerrenda batean Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasa- teko, Aramaioko, Oñatiko eta Bergarako 163 atxiloturen izen-abizenak aipatzen dira. Uztailaren bukaeratik irailaren erdira bitartean atxilotu talde txikiak etengabe iritsi zirela kontuan hartuta, kopurua askoz ere handiagoa izango zen ziur aski. Zerrendetan Antzuolako, Eibarko, Legazpiko, Azkoitiko, Azpeitiko eta Zes- toako jendea ere azaltzen da, baina Bergara inguruko herrietan lan egingo zutela edo biziko zirela uste dugu. Horrenbeste jende zaintzea eta behatzea oso korapilatsua zen, eta gauzak okertu egin ziren pre- sondegietako langileei hiriburu- etako karte- zetetara joateko agindu zieten- ean. Presoak zaintzeko ardura Juan Agirrebeñari zegokion, baina, urte asko zituenez, Pedro Casa-Torre suhiaren eta Prudencio Gallastegi koi- natuaren esku utzi zuen erantzukizuna. Azkenean, preso guztiak bi lokaletan sartu zituzten: kartzelan eta mintegian. Kartzelako presoak lau milizianoz osatutako lau txandatan zaintzen zituzten, eta mintegikoak

zortzi milizianoz osatutako lau txandatan. Zortzi horietako bat kaboa izaten zen. Miliziano zaintzaileak egunero aldatzeak behar beste jende ez zutela uzten du agerian.

Areantzako apaiz On Simón Ansolaren atxilotetaren inguruko xehetasunak bereizita aipatzea me-rezi du. Aretxabaletan atxilotu zuten bertako hiru biztanlek eta Arrasateko hiruk. Lehenbizi Arrasateko kartzelara eraman zuten, eta gero Bergarakora, lehen aipatu bezala. Abuztuaren 16ko gauean zehar, Arrasateko 13 lagunekin batera, kartzelatik atera, kamioneta batean sartu eta Arrateko santutegira (Eibarrera) eraman zuten. Han torturatu eta jipoitu egin zituzten, eta batzuk mehatxatu ere bai: armak non zeuden esaten ez bazuten, fusilatu egingo zituztela. Domingo Arzamendi Aranzabal, Felipe José Azurza Arregi, Prudencio Iraeta Lasa, José María Ayani Brioso, Antonio Pagoaga Makibar, Pablo Otadui Jauregibarria, Jaime Asua Zubero, Robustiano Zubillaga Agirre, Galo Lete Jausoro, Nicasio Barrena Kortabarria, Félix Amozarrain Uribe-Etxebarria, Regino Huertas Axpe eta Juan José Gorosabel Gorosabel ziren Arrasateko presoak⁹⁶.

Aretxabaletako Defentsa Batzordeak Pio Garai, Silvestre Idígoras eta Severiano Altube atxilotu zituen, baita herritar gehiago ere: abuztuaren 21ean, Domingo Uribesalgo; 22an, Eustasio Oianguren, Domingo Zuazua eta Fortunato Aguilar; 26an, José María Amuriza eta Emilio Saiz; biharamunean, 27an, José Etxeberria Aldanondo.

Herritar horiek guztiak Viteri eskolara eraman zituzten, presondegi moduan erabiltzen baitzuten. Defentsa Batzordeko milizianoek zaintzen zituzten, eta presoek etxekoei arropak eta jatekoak eramaten uzten zieten. Euskal nazionalistek, ordena publikoaren bermatzea zegokiela, igandeetan presoek mehatara joaten uzteko eginahalak egin zituztela azaldu zigun Máximo Alberdik⁹⁷:

Gobernuaren agintaldian zehar, elizetako ospakizunek bere horretan jarraitu zuten, betiko moduan. Lehen egunetan, sekulako eztabaidak izan genituen udaleko Defentsa Batzordeko ezkerrekoekin, presoek ez zietelako elizara meza entzutera joaten utzi nahi. Gu oso gogor jarri ginen, presoek igandetan elizara joaten uzteko, eta mehatxatu ere egin behar izan genituen, armez baliatzeko prest geundela esanez.

Juan Pablo Lizarralde Izurrategi atxilotu, Bergarako kartzelara eraman eta 23an libre utzi zuten. Aretxabaletan, Eustaquio Alkorta, Juan San Martín eta Timoteo Ezpeleta atxilotu eta handik egun gutxira libre utzi zituzten.

Atxilotuak herri-auzitegira eramaten zituzten⁹⁸, hau da, udaletxeko bulegoetara. Epaileak, jakina, Defentsa Batzordeko kideak ziren. Galderak egin ondoren, erantzunen eta deklarazioen arabera, libre utzi edo kartzelan sartu zituzten.

Herritarrak atxilotzeaz gain, Zirkulu Tradizionalistaren egoitza eta atxilotu batzuen etxeak arakatu zituzten, armak eramateko, besteak beste. Adibidez, Domingo Uribesalgok ehizarako gauzak, bolbora eta suziriak saltzen zituen bere dendan, eta dena konfiskatu zioten. Defentsa Batzordearen helburu nagusia ahalik eta arma gehien eskuratzea zen.

3.2.3.1. Presoak Bilbora

Irailaren 20an, Gipuzkoako Defentsa Batzordearen agindua iritsi zitzaion Zumaiatik: atxilotuak Bilbora eraman zitzatela. Máximo Alberdik azaldu zigunez, nazionalista askok agindua ez betetzea erabaki zuten, eta marianisten kuartelera joan ziren armak hartzera, aurre egiteko prest. Ezkerrekoek ere armak hartu zituzten, agindua betearazteko. Egoera hain larria zenez, jeltzaleek amore ematea erabaki zuten⁹⁹:

PNVko uri-batzarreko ordezkariak, STVko udal-batzordeko kideak eta Defentsa Batzordean geunden nazionalista guztiak elkartu egin ginen, bilera batean. Alferrikako odol-isurketarik ez gertatzeko, agindua betetzea erabaki genuen eta gutarrak jarrera aldatzeko konbentzitu genituen.

Irailaren 21ean, Arabako matxinatuak Leintz Harana erasotzeko asmoa zutelakoan, presoak Bizkaiko hiriburura eraman zituzten kamioi batean.

Aretxabaletako 16 preso eraman zituzten Bilbora, Bergaran zeudenak eta Ramon Arrue (Algortan atxilotua) ere barne hartuta.

Altxamenduari atxikitako lehen atxilotu bizkaitarrak ez ezik, Gipuzkoan okupatutako eremuetako presoak ere eraman zituzten Bilbora, Larrinagako, Aingeru Zaindarien komentuko, Karmeloko eta Galera Etxeko kartzeletara. Era berean, Altuna Mendi eta Cabo Quilates itsasontziak presondegitzat erabili zituzten.

Aretxabaletako Errepublikaren Defentsa Batzordeak atxilotutako eta Bilbora eramandako biztanleen zerrenda

Izena	Jaitorerria	Lanbidea	Adina	Egoera
José Etxeberria Aldanondo	Legazpia (Gipuzkoa)	Langilea (Beroa)	56	Ezkongabea
Domingo Uribesalgo Trojaola	Aramaio (Araba)	Merkataria	41	Ezkondua
Fortunato Aguilar Sologaistoa	La Pola de Gordón (Leon)	Postaria	40	Ezkondua
Emilio Saiz Barco	Mamolar (Burgos)	Tornularia (Lezama)	64	Ezkondua
Severiano Altube Arrazkarate	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	Langilea (Beroa)	40	Ezkondua
Silvestre Idigoras Iñarra	Eskoriatza (Gipuzkoa)	Gidaria (Beroa)	32	Ezkondua
Eustasio Oiangueren Elortondo	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	Langilea (Beroa)	48	Ezkondua
Hermenegildo Galdos Bereikua	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	Argiketaria (Beroa)	48	Ezkongabea
Pablo Arrue Usandevayas	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	Langilea (Beroa)	28	Ezkongabea
Domingo Zuazua Zangitu	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	Igeltseroa	68	Ezkondua
Román Galdos Bereikua	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	Tailerretako burua (Beroa)	46	Ezkondua
Julián Olabe Uriarte	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	Torneatzailea (Beroa)	41	Ezkondua
Ramón Arrue Bengoetxea	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	Industrialaria (Beroa)	31	Ezkondua
Simón Ansola Txurruka	Elgoibar (Gipuzkoa)	Apaiza (Areantza)	38	Zelibea
Pio Garay Elkorobarrutia	Aretxabaleta (Gipuzkoa)	Nekazaria (Galartza)	34	Ezkondua
José María Amuriza Gojenola	Bilao (Bizkaia)	Arotza	36	Ezkondua

1936ko irailaren 25ean, frankistak Bilbo bonbardatu eta gero, hiritar pilo bat presondegi bihurtutako itsasontziak zeuden kaira joan ziren, zeharo asaldatuta. Bertan, Cabo Quilateseko 41 preso eta Altuna Mendiko 29 hil zituzten. Urriaren 2an, errepublikanoek indarkeriazko beste ekintza bat egin zuten: Jaime I.a korazatuko tripulaziokoek Cabo Quilateseko 38 preso hil zituzten. Eratorik odoltsuena 1937ko urtarrilaren 4koa izan zen. Frankisten hegazkinek Bizkaiko hiriburua bonbardatu eta gero, jende talde handi bat, amorru biziz, kartzeletara joan zen presoak hiltzera. José Luis de la Granjaren arabera¹⁰⁰, 224 preso hil zituzten: 6 Karmelon, 53 Galera Etxean, 56 Larrinagan eta 109 Aingeru Zaindarien komentuko kartzelan.

Eraildako presoetako bat Emilio Saiz Barco zen, Aretxabaletako postaria. Aingeru Zaindarien komentuko espetxeko sarraskian hil zuten. Domingo Uribesaldo *Alkurrek* zorte handiagoa izan zuen, edo benetako miraritzat jo daiteke gertatu zitzaiona, Casa Galera kartzelako fusilamendu orokorrean 7 balaz zauzitu arren, ez baitzen hil. Kartzelako presoak patiora atera eta fusilatu egin zituzten. Gurutze Gorrikoak gorpuk ateratzen ari zirela, *Alkurrek* laguntza eskatu zien, eta Basurtuko ospitalera eraman zuten berehala. Han, bi ebakuntza egin zizkieten eta suspertu eta zauriak sendatu ondoren, Karmeloko presondegira eraman zuten lehenbizi eta Larrinagakora gero.



Defentsa Batzordeak atxilotutako eta Bilbora eramandako presoak euren askatasuna ospatzen Arrueren txaletean (1937ko Andramaixak). (1) Pablo Arrue, (2) Hermenegildo Galdos, (3) Ramón Arrue, (4) Julián Olabe, (5) José M^a Amuriza, (6) D. Simón Ansola, (7) Román Galdos, (8) Silvestre Idígoras, (9) José Etxeberria, (10) Severiano Altube, (11) Pio Garai, (12) Domingo Uribesalgo eta (13) Eustasio Oianguren.

3.2.3.2. Arruetarren kontrako herri-epaiketa

1936ko abuztuaren 23ean eta 25ean onartutako eta biharamunetan (hilaren 24an eta 26an) *Gaceta de la República* egunkarian argitaratutako bi dekreturen bidez, herri-auzitegiak sortzeko aginduen berri eman zuen gobernuak. Euskal Herrian, irailaren erdi aldera, Bizkaiko Herri Auzitegia eratu zuten, eta, 1936ko urriaren 8an, lehen Eusko Jaurlaritzari autonomia-estatutua onartu ziotenean, izena aldatu zioten: Euzkadiko Herri Auzitegia. "1936ko uztailaren 17tik mugimendu subertsiboa bukatu arte egiten diren errebelamendu- eta sedizio-delituak eta Estatuaren Segurtasunaren kontrakoak epaitzea [...]"¹⁰¹ zen auzitegiaren funtzioa.

1937ko martxoaren 22an, Euzkadiko Herri Auzitegiak¹⁰² Luis Arrue Galdosen eta bere semerik gazteenaren, Ramón Arrue Bengoechearen, kontrako epaiketa abiarazi zuen. Aita-semeak Industrias Beroa enpresaren jabeak ziren.

Epaiketaren iturburuak edo oinarriak Aretxabaletako Defentsa Batzordeak fabriketan eta partikularren etxeetan egindako miaketak izan ziren. Jakinekoea denez, armak aurkitzea eta eramatea zuten helburu. Beroan, 44 zenbakiko hiru errifle aurkitu zituzten, hornidura eta guzti; lantegiko zaintzaileenak ziren. Jabearen etxean —herritarrek Arrueren txaleta deitzen zioten¹⁰³— 9 mm-ko *Star* pistola bat, 32 tirodun bi kargadore oso eta 9 tirodun beste bi aurkitu eta eraman zituzten. Halaber, Ramón Arruek gaur-mahaian zituen pilula-kaxak, bi babes-txaleko, kalibre txikiko eskopeta bat eta balinak ere konfiskatu zituzten. Dena den, Luis Arrue salatzeako frogak nagusiak Arrasateko guardia zibilen kuartelean aurkitu zituzten: lantegiko ezkerreko langileei buruzko fitxak, bakoitzaren joera politikoa eta aurrekariak zehazten

zituztenak¹⁰⁴. Adibidez, Santiago Urkia Zabaletari buruzko fitxak sozialista zela zioen eta aurrekari hauek leporatzen zizkion¹⁰⁵:

Oso gizon arrisksua da gizarte-bakearentzat, ezkutuan eta isilpean dabilelako beti. Boterearen kontrako ekintzak egitea edo egoerak sortzea gomendatzen du, baina gero ez du zuzenean parte hartzen.

Jendetza handiak mugiarazten dituzten edo indarkeria-egoeretan aurrez aurre jarduten duten buruzagi horietakoa ez den arren, izugarri trebea da muturreko ideiak hedatzen.

Guardia zibilen kuarteleko fitxetan jasotako informazio motari buruzko adibide garbia Rufino Hurtado de Santiago *Picolorena* da. Estremistatzat jotzen zuen, besteak beste¹⁰⁶:

Arrisksua da. Nahiko gizon baketsua dirudi, itxuraz, baina zeharo makurra da, hau da, argia, maltzurra eta pozoitsua. 1935eko urriaren 21ean, komunista motako Cres. (sic) eta hainbat astetan preso-en alde bildutako diruaren ordainagiriak zeuzkan. Kopuru handi haiek Gregorio Uriarteri ematen zizkion. Ikusten denez, beraz, zenbait udalerritako elementu arrisksuen arteko bitartekaria zen. Langa-bezian dago eta gorrien laguntzari esker bizi da. Bilerak bere ostatuan antolatzen ditu, eta larunbat edo igandeetan udaleko beste ezkertiar garrantzitsu guztiekin elkartzen da. Bazterrak nahasten hain trebea izanik, mugimendu sozialen bat sortuz gero, berehala atxilotzea komeniko litzateke.

Máximo Alberdik adierazi zigunez, fitxak Industrias Beroa enpresaren bulegoetan egin zituzten otsailko hauteskundeak baino pixka bat lehenago. Guardia zibilen fitxategietan, 12 solidariori buruzko informazioa ere aurkitu zuten¹⁰⁷.

Eduardo Gabilondo (euskal nazionalista), Isidoro García-Etxabe (nazionalista, STVko lehendakaria), Alejandro García-Etxabe (nazionalista, aurrekoaren anaia), Lorenzo Etxebarría (tradizionalista), Bonifacio Alberdi (nazionalista), Julián Arkauz (ANVren jarraitzailea), José Galdos (nazionalista), Eugenio Logrado (afizilazio politikorik gabekoa), Máximo Alberdi (nazionalista), Gerardo Zubillaga (solidario nazionalista) eta Juan Zaldibia (solidario nazionalista) ere, guztiak solidarioak, guardia zibilen fitxategietan azaltzen ziren.

Denak, lau izan ezik, Beroako langileak ziren. Ondoren, bere fitxa irakurri zion On José Miguel de Barandiarani:

Máximo Alberdi Ceberio, nazionalista, solidarioa, muturreko ideologiaduna, buruzagi estremista. Edozer egiteko prest dago edo gauza da. Izugarri arrisksua. Asaldurarik edo mugimendurik gertatuz gero, berehala atxilotu.

Luis Arrue Galdosi fitxak guardia zibilei eman izana leporatu zioten, 1934ko urriko iraultzatik bertako kuartelekoekin nahiko harreman estua zuelako. Izan ere, Aretxabaletako kuartela 1936ko lehen hila-beteetan ireki zuten arren, Luis Arruek nahiago izan zuen Arrasatekoekin harremanetan jarraitzea. Gainera, Gipuzkoako gobernadore zibil Emeterio Mugak langileen segurtasuna bermatzeko eta lantegia zaintzeko bidali zizkion arma-lizentziak aurkitu zizkieten.

Arazoi horiengatik eta eskuineko politiken aldekoak izateagatik, bi susmagarriak atxilotzea erabaki zuten.

Altxamenduaren hastapenetan, Aretxabaletatik kanpo zeuden biak. Luis Arrue Galdos Donostian edo Madrilen egongo zen, ziur aski, hiri horietara sarritan bidaiatzen baitzuen negozio-kontuengatik. Semeak, Ramónek, asteburuak Algortan igarotzen zituen emaztearen gurasoen etxean¹⁰⁸. 1936ko abuztuaren 15ean, Aretxabaletako Defentsa Batzordeko kideak Algortara joan ziren Ramón atxilotzera, Rufino Hurtado *Picoloren* jarraibideak betez. Rufinok ongi asko zekien non zegoen jabearen semea, Beroako txoferra baitzen. Ramón Arrue ezkonanaia baten etxean zegoen babestuta. María Bergareche Garayk, taldea hurbiltzen ikusi bezain laster, senarrari deitu zion, eta Luis ihes egiten saiatu zen, etxearen atzealdeko horma batetik salto eginez. Baina ezkongai-bikote batek ikusi eta atxilotzera zetozenei non zegoen esan zieten. Atzetik joan zitzaizkion eta soro batean harrapatu zuten. Getxoko udaletxera eraman zuten, bertako Defentsa Batzordeko kideengana, gau hartan bertan Aretxabaletako bidea hartzeko asmoz. Baina udal-agintariek ezetz esan zieten, Gipuzkoako gobernadore zibilak ez baitzien Aretxabaletara bidaltzeko

agindu. Azkenean, Aretxabaletako Batzordeko kideek euren asmoa bertan behera utzi zuten, atxilotua Bilboko presondegi batera eramango zutela jakinarazi zietenean. 1936ko abuztuaren 29an, Cabo Quilates itsasontziko presondegira eraman zuten¹⁰⁹.

Epaiketara itzuliz, 1937ko martxoaren 23an Euzkadiko Herri Auzitegiak sumarioari hasiera eman zion, Bilboko instrukzioko 3. epaitegiaren bidez. 1937ko apirilaren 27ko gaueko hamar eta erdietan, ahozko epaiketari ekin zioten. Herri Auzitegia hiru magistratuk eta hamalau epailek osatzen zuten. Alderdi politiko eta sindikatuen ordezkariak ziren. Akusatuei erreboltariei lagundu izana leporatu eta Bilboko Elkar-goko Ramón Basterra letradua ofiziozko txandako abokatu defentsari izendatu zuten. Luis Arrue Galdosi hamalau urteko, zortzi hilabeteko eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zioten, eta, gainera, auzi-ihes-larizat jo zuten. Fiskalak, aldiz, Ramón Arrueri erantzukizun kriminalik ez leporatzea erabaki zuen, adituen txostenaren eta dokumentuen bidez buru-nahasmendu salbueslea zuela egiaztatu baitzen. Izan ere, urte hartako urtarilaren 30ean, Ramón Arrue Bizkaiko Zoroetxe Probintzian (Bermeon) sartu zuten, eta bertako mediku eta zuzendariak, Antonio Babío Bátizek, sinatutako egiaztagiria aurkeztu zuten epaiketari¹¹⁰. Aipatutako dokumentuari esker, kartzela-zigorra saihestu zuten, preso komunikatua izaten jarraitzeko agindua eman baitzuen epaileak. Azkenik, bietako bakoitzari 5.000 pezeta ordaindu behar izan zituen, epaiketaren kostuei aurre egiteko.

Handik bi hilabetera, ekainean, Bilbo frankisten mende erori zenean, Ramón Arrue Aretxabaletara itzuli eta udal-epaile izendatu zuten. "Biurteko beltzean" ere kargu berean jarduna zen. Ez dirudi, beraz, burua hain nahastuta zuenik.

3.3. Aretxabaleta frankisten mende


Hasieratik, Nafarroako indarrek Gipuzkoa arriskuan jarri zuten, militar, erreketek eta falangisten zutabeak lurraldea hartzeko prest baitzeuden. Nafarroako indarren burua Mola jenerala zen, estatu-kolpearen sustatzaile nagusia. Gipuzkoa menderatzeko ekintzak Iruñetik bideratu zituen. Uztailaren 21ean, Burgozera joan eta bere erantzukizunak Solchaga jeneralaren esku utzi zituen, baina, hala ere, ez zion Gipuzkoaz jabetzeko urratsetan esku hartzeari utzi. Okupazioaren lehen fasea altxamenduaren egunean, uztailaren 18an, hasi eta hilaren 28an bukatu zen, Loiolako kuartelek amore eman zutenean. Nafarroatik hiru zutabe irten ziren aldi berean, Gipuzkoan hiru lekutatik sartzeko eta hiru helburu garbi lortzeko asmoz: Cayuela teniente koronelaren zutabea Beasainera joan zen, Latorre teniente koronelarena Tolosara, eta Beorlegui koronelarena Irunera eta mugaldera. Errepublikanoen indarrak bidera atera zitzaizkien eta lehen borrokaldiak sortu eta lehen fronteak finkatu ziren.

Donostia eta probintzia osoa Errepublikaren alde zegoen. Molak lurraldea azkar menderatzea espero zuen arren, uste baino askoz ere gehiago kostatu zitzaien, errerepublikanoen erantzun gogorraren eta orografiaren ondorioz. Arazoak arazo, Nafarroatik etorritako zutabeek zatitu eta aurrera jarraitu zuten, beste zutabe txikiago batzuen babesari eta laguntzari esker, eta uztailaren 28an Beasain eta abuztuaren 1ean Ordizia hartzea lortu zuten. Oria haranean barrena hedatu eta abuztuaren 11n Tolosa hartu zuten. Dena den, Bidasoa aldea menderatzea ezinbestekoa zen zutabeentzat, muga kontrolatuz gero, etsaiak isolatuta utziko zituztelako, nazioarteko laguntza jasotzeko aukerarik izan gabe. Gainera, itsasora iristeko bi-deak behar zituzten. Beorleguiaren tropak beste bi zutabetan banatu ziren: bata Ortiz de Zárate koronelaren esanera zegoen, eta bestea García Valiño koronelaren agindupean. Bidasoa okupatzeari ekin aurreko urratsen ardatzak Oiartzun harana eta Irungo inguruak izan ziren. Gunerik garaienak (Aiako Arrietako Aia-Pikoketa-Erlaitz-Gorostiaga-Pagogaña tontorretan eta Elaitza-Zubeltzu-San Martzial) erasotu zituzten, indar errerepublikanoen kontra borrokatuz, azken horiek oso gogor babestu baitzituzten bi defentsa-lerroren bidez.

Abuztuaren erdi aldera, Cayuelaren eta Latorreren zutabeak Tolosan elkartu eta Iruretagoyena koronelaren esanera jarri ziren, Oria haraneko ekintzei ekiteko. Ondoren, Zizurkil, Aduna eta Sorabilla menderatu eta hilaren 16an Andoain hartu zuten. Bitartean, González Unzalu komandantearen aginduetara zegoen beste zutabe batek ezker aldeko hegala babestu zuen, Bidaniara zihoala.

Beorleguiren indarrek abuztuaren 26rako San Martzialeko azken hesia deuseztatzea zuten helburu, Los Arcos teniente koronelaren zutabearen laguntzarekin, Irun menderatzeko azken erasoari ekin ahal izateko. Errepublikanoek oso gogor borrokatu zuten, eginahalak eginez, baina hegazkinen eta artilleriaren bonbardaketa etengabeen eta munizio-eskasiaren ondorioz, azkenean amore eman eta alde egin behar izan zuten, Irun babesik gabe utziz. Irailaren 3an, altxamenduko tropek Behobia hartu zuten, eta 5ean Irun erori zen, bonbardaketa bortitzak jasan ondoren. Donostiarako bidea irekita zegoen faxistentzat, inolako oztoporik gabe. Errepublikanoek, Gipuzkoako hiriburua nolabait babesteko eta etsaien sarrera ahalik eta gehien atzeratzeko, bi defentsa-lerro ezarri zituzten: bata Jaizkibelen eta Gaintxurizketako gainaren artean; bestea San Marcos, Txoritokieta, Santiago Mendi, Santa Barbara eta Oriamendiko forteen artean, Hernanitik gertu. Azken ahalegin horrek porrot egin zuen, ordea, Nafarroako zutabeak alde guztietatik sartu baitziren Donostian. Hiriburua irailaren 13an okupatu zuten, eta ondoren ia probintzia osoan gailendu ziren.

Etsaiak behea jota zeudenez, Molaren eta Solchagaren tropak Gipuzkoa osoa okupatzera abiatu ziren. Matxinatuen azken oztopoa Deba arroa gainditzea zen. Hori zela eta, berrantolatu eta beste hiru zutabe sortu zituzten:



Debako zeharkaldiaren mapa.

- Iruretagoyena koronelarena.
- Arcos teniente koronelarena.
- Alonso Vega teniente koronelarena.

Hiru zutabeen helburua probintzia osoa okupatzea zen, bereziki Urretxu-Zumárraga gunea, Irun eta Altsasua lotzen zituen trenbide-linearen zirkulazioa bermatzeko eta Bilbora iritsi ahal izateko¹¹¹.

Helburua lortzeko, bi urrats zituzten:

- 1. urratsa: Urolako lerroa mendean hartzea.
- 2. urratsa: Debako lerroa mendean hartzea.

Urola eta Deba haranen iturburuak inguratzea eta, aldi berean, beste indar batzuek aurrez aurre erasotzea erabaki zuten. Zutabe bakoitzeko gizonak hainbat zutabe txikitan banatu eta denek batera jardungo zuten, elkar osatuz.

Iruretagoyenaren zutabea probintziaren iparraldetik barneratu zen, bi multzo osatuz (Latorrena eta Cayuelarena), González Unzalu komandantearen agindupeko erreserba-zutabe batek babesten zituela. Zutabe horien ibilbidearen ardatza kostaldeko errepidea izan zen, eta paraleloan zeharkatu zuten Deba ibaia-
ren lerroa aurkitu arte. Probintziaren erdialdean, Los Arcosen zutabea beste lau multzotan banatu zen, Díez de Ribera, Pérez Salas, Tejer eta Saleta buru zituztela. Bi ardatz finkatu zituzten: Tolosa-Azpeitia-Elgoibar eta Beasain-Zumarraga-Bergara errepideak. Dena den, Brinkola, Oñati eta San Prudentzioraino heldu ziren¹¹². Hirugarren eta azken zutabea, Alonso Vegarena, hegoaldetik (Arabatik) sartu zen Gipuzkoan, Arlaban mendatea zeharkatuz eta Debaren ibilguari jarraituz, Leintz haranean hedatzeko eta Arrasatera iristeko.

Irailaren 15ean Latorre Mendizorrotzera iritsi zen, eta Cayuela Andatza mendira. 17an, hegoalderago, Tejeroren taldeak Ormaiztegi hartu zuen. 19an, Latorre Usurbilera jaitsi eta Los Arcosen zutabeak Urola haranean barneratu ziren. Zutabeek Bidania-Errezil (Díez de Ribera) Itsaso-Astigarreta-Murumendi (Pérez Salas), Gabiria-Legazpi (Tejero) eta Brinkola (Saleta) hartu zituzten.

Hilaren 20an, Iruretagoyenaren eta Los Arcosen zutabeek aurrera jarraitzen zuten bitartean, Latorrek Aia hartu zuen, kostaldetik sartuta. Probintziaren erdialdean, Azpeitia-Loiola-Azkoitia (Díez de Ribera), Beizama-Urrestilla (Pérez Salas), Zumarraga-Urretxu-Deskarga mendatea (Tejero) eta Oñati inguruko goialdeak (Saleta) erori ziren.

21an, Latorrek Zarautz eta Zumaia okupatu zituen, Cayuelak Arroa eta Zestoa, Díez de Riberak Elgoibar eta Azkarate gaina, Tejerok Antzuola eta Saletak Oñati.

Orduan, aipatutako zutabeak hedatzen ari zirela, Camilo Alonso Vega teniente koronelaren zutabea ere ekinean hasi zen, Gipuzkoan Arlaban mendatetik sartu eta guztien artean probintzia osoa okupatzen laguntzeko asmoz. Alonso Vega Gasteizko goarnizio-indarren eta Flandes erregimentuko 5. mendi-batailoien burua zen. Zutabea bikain hornituta zegoen¹¹³: bost fusil-konpainia, metrailadore-konpainia bat, Flandes erregimentuko 5. mendi-batailoiko makina, langile, lehergailu eta transmisioen sekzioak, batailoiei bereko bi gerra-gurdi blindatu, bata metrailadore eta guzti, Gasteizko asaltoko guardiaren konpainia bat, Espainiako Falangeko zenturia bat, mendi-artilleriako 2. erregimentuaren bi obus-bateria (105 mm-koak) eta gerra-gurdien kontrako 70 mm-ko pieza bat atxikita zeraian kamioi blindatua.

Alonso Vegaren taldea, Arabako zutabea izenez ezaguna, hiru multzotan banatu zen:

1.- Saleta komandantearena:

Flandes erregimentuko 5. mendi-batailoiko 1. eta 2. konpainiak eta metrailadore eta transmisioen sekzio bat, Espainiako Falangearen zenturiarekin batera. Multzo edo azpizutabe horren lehen helburua Isuskitze mendia hartzea zen, Arlaban mendatearen mendebaldeko tontor nagusia zelako.

2.- Calbacho (sic) komandantearena¹¹⁴:

Flandes batailoiko 3., 4. eta 6. konpainiak eta metrailadore, makina eta transmisioen sekzioak, baita asaltoko gardien konpainia bat ere. Arlaban mendateko ekialdeko goialdeak menderatzea zuten helburu.

3.- Campomar tenientearena:

Gerra-gurdien kontrako pieza, bi blindatuak eta langile eta lehegailuen sekzio bat. Erditik, errepi-detik, barneratu eta mendatea, mikeleteen etxea eta Leintz Gatzaga herria okupatzea zen multzo-aren helburua.

Zutabe motorizatua irailaren 20ko gaueko hamar eta erdietan atera zen Gasteiztik, isil-isilik eta ar-giak itzalita. 1. eta 3. taldeek Uribarri-Ganboan eman zuten gaua, eta 2. taldeak Marietan, zutabeko bu-ruzagiekin batera. Haiexek izan ziren ekintzen abiapuntuak.

Bestalde, errepublikanoen defentsa-lerroak Elgea mendizerrako blokaoetan eta Isuskitza, Jarindo, Maroto eta Kurtzeta mendietako tontorretan zeuden finkatuta, besteak beste. Irailaren 17an, Arrasateko Gerra Komisariotzak, Celestino Uriarteren aginduetara, milizianoak honela banatzea erabaki zuen¹¹⁵:

- Lizargarate 50 gizon, 25eko txandak eginez.
- Irazabal 60 gizon, 20ko txandak eginez.
- Isuskitza 62 gizon, 31ko txandak eginez.
- San Bernabe 93 gizon, 31ko txandak eginez.
- Arlaban 62 gizon, 31ko txandak eginez.
- Kurtzeta 42 gizon, 21eko txandak eginez.
- Jarindo..... 104 gizon, 52ko txandak eginez.
- Maroto 90 gizon, 45eko txandak eginez.
- Zulatzaileak 20.

Bezperan Bilboko ehun bat miliziano¹¹⁶ eta Eibarko 44 gehitu zitzaizkien. Arma eta munizio gutxiegi zituzten, zer zetorkien kontuan hartuta¹¹⁷:

- Errifleak	136	kartutxoak.....	9.200
- Mosketoiak eta fusilak	170	kartutxoak.....	20.000
- Karabinak	8	kartutxoak.....	360
- Pistola metrailatzaileak	11	kartutxoak.....	2.900
- Subfusilak.....	4	kartutxoak.....	560
- Morteroak	4	kartutxoak.....	300

Aitzineko miliziano taldeek erreketek batzuk hurbiltzen ikusi zituztenean, lehen tiroketa arinak sortu ziren¹¹⁸. Erreketeen kokalekuetatik, Bilbotik zetozen hainbat hegazkin errepublikano ikusi zituzten pasa-tzen. Gasteiz eta hiriburua bonbardatu zituzten.

Hilaren 21ean, Alonso Vega zutabeak Debagoienan sartu zen, erasoaldiari ekiteko. Calbachoren tal-dea goizaldeko 03:15ean oinez abiatu eta egunsentian Santa Marina gainera iritsi ziren. Han, eskuinalde-tik, Marietako eta Olaetako erreketek babestu zituzten. Miliziano errepublikanoen posizioak gotortuta zeuden, lur-zakuen, alanbraden eta atzealdean han-hemenka ezarritako blokaoen bidez, baina etsaiek Txu-rrutegi eta San Bernabe mendietako tontorrak erasotu eta menderatu zituztenean, alde egin behar izan zuten. Frankistek Arlaban mendatea, mikeleteen etxea eta Leintz Gatzaga hartu zituzten, hurrenez hurren. Hain gogor eta azkar ari zirenez hedatzen, 6. konpainiak Aitzorrotzen kokatzea erabaki zuen, handik zu-tabearen eskuineko hegala zaintzeko eta aurre egin eta toki gehiagotara iristeko¹¹⁹.

Saletaren taldea goizaldeko lauretan irten zen Uribarri-Ganboatik Isuskitza mendirantz. Defenda-tzaileek atzera egin eta Maroton babestu behar izan zuten, etsaien armamenduaren nagusitasuna ikusita. Mikeleteen etxea okupatu eta gero, Flandesko 2. konpainia eta Falangeko zenturia Leintz Gatzagan sartu ziren, eta 1. konpainiak eta metrailadoreek Isuskitzan eman zuten gaua.

Campomarren taldeak bere helburua lortu zuen, baina errepideaz baliatuta. Milizianoek Landako zu-bian ezarritako lehegailu batzuk indargabetu zituzten, artean ez baitzuten lehertzeko astirik izan. Dena den, eztanda egin arren, ez zuten ezertxo ere lortuko, Alonso Vegaren gizonak ongi asko zekitelako non zeuden¹²⁰.

Joaquín Vidal teniente koronelak —Garellanoko 6. mendi-batailoiko burua zen, eta Errepublikaren alde borrokatu zuen Bilboko zutabearen agintari nagusia ere bai— errefortzuak bidali zizkien, berehala, Otxandioko kuartel nagusitik. Goizeko 11:00etan, asaltoko guardien konpainia bat iritsi zen, Benito Reola sarjentuaren aginduetara zegoen asaltoko guardien konpainia bat Zarimutzera iritsi zen, defentsa handik antolatzen¹²¹.

Guillermo Lasagabasterrek, Arrasateko Gerra Komisariotzako milizianoak, okupatzaileen lehen erasoan eta defendatzeko ahaleginen xehetasunak eman zituen¹²²:

Lehen posizioen kontra egindako lehen erasoetan emaitza onak lortu zituzten etsaiek, haien eta gure indarren armen arteko aldea sekulakoa zelako. Ondorioz, gure indarrek atzera egin behar izaten zuten, gutxika, momentuan bertan prestatzen genituen lerroetaraino.

Etsaiek hain kementsu zebiltzanez, Reola asalto-tenienteak kontraerasoa antolatu zuen Eskoriatzan, Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorritako eta Arabatik ihes egindako milizianoekin, baina emaitzak ez ziren izan uste bezain onak. Ez zuten Isuskitza berreskuratzetik lortu eta Galindo (sic) mendian posizioak finkatzera mugatu ziren.

Etsaiek, askoz ere arma gehiago eta hobeak zituzten arren, oso astiro egiten zuten aurrera, eta geldotasun horrek miliziak sutan jartzen zituen. Halako batean, Leintz herritik hurbil zegoen etxe batean aurre egiten hasi zitzaizkien. Orduan, Reola asalto-tenienteak eta bere agindupeko asaltoko guardia batzuk hamar eta erdiko bateria arin bat hartu eta etxea momentuan bertan lurreratu zuten. Harritzko eraikinen horma zaharretatik fusil metrailadore batekin erantzun zieten. Etxea erortzerakoan, asaltoko guardia batzuk hil egin ziren harrien azpian, eta onik irten zirenek fusil gutxi batzuk eta fusil metrailadorea eraman zituzten.

Defendatzaileek posizioak indartzen zituzten bitartean, Aretxabaletan biztanle zibil batzuk eba-kuatzen hasi ziren. Kamioietara igo eta, etxetik ia ezer ere eramateko astirik izan gabe, Bizkaira abiatu ziren, gerra-hotsetatik aldentzeko. Elorriora joan ziren.

Hilaren 22an, Alonso Vegaren zutabeko gizonak bezperan okupatutako guneeetan finkatu ziren, segurtasuna indartzeko. Gobernuari atxikitako milizianoak Marin-Zarimutz lerroan zehar ezarri ziren, eta, ekialdetik, Aitzorrotzeko ermitan. Calbacho komandanteak azken posizio hori arriskuan jarri zuen, artilleriaren laguntzaren zain zegoela. Goizeko 10:00etan Leintz Gatzagako errepide zaharrean zegoen bateria batek ermita tirokatu eta 10:30ean Calbachoren taldea barrura sartu zen. Zutabeko gainerako indarrak, motordun ibilgailuak izan ezik, 15:45ean iritsi ziren. Bateria Aitzorrotzeko ermitaren azpian kokatu eta Aguerre eta Amilla baserriak eta Santa Luzia (Lete) ermita tirokatzen hasi ziren. Eusten saiatu arren, azkenean okupatu egin zituzten. Calbachoren taldeak baserrietan eta inguruko gune garaietan igaro zuen gaua, eta zutabek gainerako indarrek Aitzorrotz mendian.

Campomarren taldea atzerago zegoen, Leintz Gatzagako errepide zaharretik baitzeturren, astiro, leherketak saihesten eta Eskoriatzarekiko komunikazioa konpontzen eta berrezartzen.

Bihamunean, hilaren 23an, Eskoriatza kinka larrian jarri zuten. Aitzorrotzeko artilleriak behin eta berriz bonbardatu zuen, eta, aldi berean, Calbachoren taldeak posizio hobeak bereganatu zituen, eskuineko hegaletik sartuz eta herria inguratzeko moduan kokatuz. Saletaren taldeak, asaltoko guardiek babestuta, herrian sartzea eta errepidearen mendebaldean (ezkerraldean) zeuden pinudietan finkatzea lortu zuen. Han, Benito Reolaren indarrek oso gogor egin zieten aurre¹²³. Campomarren taldeak, blindatuez eta gerra-gurdien kontrako piezaz baliatuta, errepidea hustu eta Eskoriatza okupatzen lagundu zien.

Gauen zehar, errefortzuak iritsi zitzaizkien: San Martzial (Burgos) erregimentuko bi fusil-konpainia eta metrailadore-konpainia bat, Zuloaga komandantearen aginduetara. Ezkerraldeko hegalean zegoen zutabea ordeztu zuten¹²⁴.

Guillermo Lasagabasterrek defendatzaileen ikuspegia azaldu zigun¹²⁵:

Etsaia etengabe erasotzen ari zitzaigunez, gure Gerra Batzordeak gizonak eta, batik bat, gerra-materialak lehenbailehen bidaltzeko eskatu zien Bilboko buruzagiei; bestela, jai genuen. Etsaien ekinaldi bortitzei ezingo genien inondik inora erantzun, bi bandoen armen arteko aldea izugarria zelako.

Hamabost eta erdiko bi kanoi, atzeritik orduantxe ekarritako fusil berri batzuk eta miliziano boluntarioak bidali zizkiguten, berehala. Horrek adorea eman zigun hasieran, baina beranduegi zen kontraerasoari ekiteko. Etsaiak egunero erasotzen gintuen, eta ez genuen antolatzeke astirik. Jasotako armak ere urriegiak ziren, etsaienekin alderatuta.

Ibarrola komandanteak, milizien indar guztien buru zela, oso erresistentzia gogorra antolatu zuen Aretxabaletatik gertu, arerioa behingoz menderatzeko itxaropenaz.

Irailaren 24an, osteguna, Mesedetako Andre Mariaren egunean, Alonso Vegaren zutabea Aretxabaleta okupatzera abiatu zen. Egunsentian, Saletaren taldea Eskoriatzako mendebaldera joan zen, Alonso Vegaren zutabearen ezkerreko hegala eta San Martzialeko konpainia zeuden tokira. Handik, arerioen erresistentzia gogorra zapuztu eta Apotzaga auzoa hartu zuten. Bitartean, Calbachoren taldeak eskuineko hegaletik jarraitu zuen, atzean 3. eta 6. konpainiak zeramatzala, eta Mendigain, Otelacerain eta Coregain (sic) okupatu zituen. Horrela, Aretxabaletako ekialdean kokatu ziren.

José María Horcajada, 16 urteko miliziano boluntarioa, horren guztiaren lekuko izan zen¹²⁶:

Etxekoak kamioi batean Bizkaia aldera joan zirenean, frontearen nengoan. Gerran parte hartu nahi nuen, eta nire lagun Juanito Múgicarekin joan nintzen izena ematera. Azkenean, neu joan nintzen frontera. Basalaun nengoela, Arkaratzotik hurbil, haiek Eskoriatzan sartu ziren. Laguntzen ibiltzen nintzen: ohatilari-lanetan, munizioa edo janaria eramaten... Adibidez, fronteak Basalaun egin zituen egunetan, Aitzorrotzetik kanoiak jaurtitzen zizkiguten.

Pasadizo bat etortzen zait beti gogora. Gasteizko tropek, gu aurrez aurre erasotzen hasi beharrean, Eskoriatzako zubitik salto egin eta Apotzagara igotzeari ekin zioten. Zelai maldatsu bat zegoen, oso aldapa handikoa, eta, goitik erasotzen ari zitzaizkien arren, igotzen jarraitu zuten. Apaiz bat ere ikusi nuen, sotana soinean, eta haren irudia betirako geratu zait buruan.

Gero, Mendiola aldetik sartzen hasi zirenean, dena bertan behera utzi eta alde egin behar izan genuen, euren mende ez erortzeko.

Saletaren taldeak oso gogor zigortu zuten Apotzagarako igoeran, baina, gora iritsi zirenean, berehala menderatu ziren, lau miliziano fusilatuz. Laurak batera lurperatu zituzten, uhal eta guzti, elizatearen ondoko hilerriko zulo batean. Ondoren, Apotzagaetxebarrira joan, San Blas ermitaren aldameneko bide zaharretik jaitsi, artasoro bat zeharkatu eta Aretxabaletan sartu ziren Kalebarrenetik. Lehenbizi asaltoko guardien tropak sartu ziren, euren alkandora urdinekin. Arratsaldeko lauretan, faxistek Aretxabaleta bete-bete okupatu zuten.

Campomarren taldeak errepidean aurrera jarraitu zuen marianisten ikastetxera iritsi arte. Bertan gelditzea erabaki zuten, Arrasatetik blindatu bat zetorrela esan zitelako. Halako batean, Basalau aldetik zetozen hiru ohatilari eta zauritu bat ikusi zituzten marianisten inguruan¹²⁷, eta hantxe bertan tirokatu eta hil zituzten, blindatua etor zitekeelakoan. Okupatzailek egindako bigarren fusilamendua izan zen.

La Libertad egunkariak, Gasteizko zaharrenak, berria argitaratu zuen: "*Asaltoko guardiak Aretxabaletan sartu ziren baionetekin*. ZORTZI FUSILAMENDU izenburua zeraman zutabeak honako hau zioen¹²⁸:

Atzo fusilatutako lau gorrien gorpuak lurperatu berri zituzten. Geroago ere beste horrenbeste fusilatu zituzten, eta beharbada gehiago, ez baikara gogoratzen hildakoak zenbat ziren zehazki. Armak eskuetan harrapatu zituzten miliziano gorriak eta gorputz armatuetako zenbait ofizial ziren hildakoak.

Herenegun, haietako batzuk Eskoriatzako ospitalera jaitsi ziren zauritu batekin; itxuraz, armada iristeke zegoela uste zuten.

Fusilatuen artean Gasteizko mutil gazte baten gorpua aurkitu zutela esan ziguten. Haren anaia, lehentxeago Arabako kargu publiko batean jardundakoa, beste fronteko buruetako bat omen zen. Batzuek zalantzan jarri zuten hildakoa mutil gazte hura ote zen, baina, ezbairik gabe, baserritar-arropak ez zituen gorpu bakarra zen, monoaren azpian frakak eta alkandoraren azpian jertsea baitzeramatzan; beste batzuek bete-betean baieztatu ziguten.

José María Horcajada, ihesi zihoala, Basalau ingurura jaitsi zen, milizianoei materialak eramateko erabiltzen zuen asto saskidunarekin. Zorionez, ohatilaria eta zauritua fusilatu zituzten tokira minutu ba-



La Libertad egunkariak Aretxabaletako okupazioari eta 8 fusilamenduei buruz argitaratutako berria.

tzuk lehenago iritsi zen. Aretxabaletan sartu eta marianisten txaraditik Errotabarrira iritsi zen, errepediaren eta trenbidearen artean zegoen hormaren babesaz baliatuta. Etengabeko tiroketen ondorioz, bala bat tek animalia jo eta ziztu bizian aldendu zen. Horcajadak Aretxabaletako beste muturrera iristea lortu eta Galartzako bidea hartu zuen, milizianoekin elkartzeko. Etsaiak atzetik zituela, Arrasatetik zetorren kamioi blindatuaren leherketa ikusi zuen¹²⁹:

Tropak Aretxabaletan sartu zirenean, Arrasatetik zetorren kamioi blindatu bat Santutxo aldera iritsi zen, eta Kalebarrenera abiatu zenean BOOM! Mantxue etxean ezarritako kanoiekin leherrarazi zuten. Kamioian Mane izeneko bat zihoala gogoratzen dut. Azkenean, blindatua handik eramatea lortu genuen.

Kamioia Campomarren taldeak leherrarazi zuen. Arrasateko hiru miliziano hil ziren: Domingo Abarrategui, Pedro Ruiz de Alegria eta Timoteo Zubizarreta. Cruz Ugartek oso zauri larriak izan zituen eta ezin-duta geratu zen bizitza osorako. Blindatuaren gidaria ere hil egin zen, baina ez genekien nor zen. Datu bakarra ezagutzen genuen: donostiarra zela¹³⁰.

Alonso Vegaren operazio-egutegietan jasotako bajen arabera, fusil poloniarrek, munizioak eta 10 gorpu aurkitu zituzten. Gorpu bat ofizial batena zen. Bere bandoko hildakoen zerrenda, Jesús Vegas sarjentua eta 6 soldadu aipatzen ditu, besteak beste, eta, zaurituen artean, On Julián Peñafiel (Flandesko erregimentuko alfereza), Ignacio Martínez Redondo (San Martzial erregimentuko tenientea) eta tropako 44 kide¹³¹.

Arabako Gobernu Militarreko txostenaren arabera, aldiz, hamahiru gorri (sic) hil eta fusil mexikarrak eta mauser kartutxoak betetako hamar kaxa hartu zizkieten; frankisten bandoan, berriz, 3 lagun hil eta 34 zauritu ziren.

Guillermo Lasagabasterrek Aretxabaleta erori aurreko borrokak oso gogorrak izan zirela berretsi zigun¹³²:

Jo eta su borrokatu genuen, dena emanez. Aretxabaletako kaleetan ere eginahalak egin genituen, hormetan babestuz eta etxe batzuetan ezkutatuz. Ibarrola komandanteak kalean bertan ematen zituen aginduak. Baina etsaien armen nagusitasun ikaragarriaren ondorioz, alde egin behar izan genuen. Lagun batzuen gorpuak hantxe geratu ziren, eta zauri larriak zituzten zenbait kide ospitaletara eraman genituen.

Dena den, lehen egunean, gure bi kanoiekin oso ondo moldatu ginen eta etsai asko hil genituen, baina biharamunean gure artilleroek Arrasatera alde egin behar izan zuten, etsaien infanteria ia bertan

zegoelako. Haien artilleroek gure bi kanoiak ikusi eta erasotzen hasi ziren. Gure artillero batzuk zauritu eta kanoiak hondatu egin zituzten.

Hurrengo urratsak, jakina, Arrasatera eramango gaitu.

Hilaren 25ean, ostirala, eguneko borroka gogorrek bukatu ostean, San Martzial erregimentuko konpainia bat Aretxabaletara iritsi zen egunsentian, Alonso Vegaren zutabea babestera eta indartzera. Teniente koronelak Saletaren taldea Aretxabaletan uztea erabaki zuen, herria eta ezkerreko hegala defendatzeko, azken eremu hori arrisku larrian baitzegoen. Goizeko lehen orduan, Koregainera abiatu ziren, bateriaren eta San Martzialeko konpainiarekin batera, eraso prestatzera eta Kurtzetxiki mendia menderatzera. Kurtzetxiki, izan ere, Arrasatera heltzeko giltzarria zen.

Calbachoren taldea eta bateriak Koregainen zeuden. Bertatik, Koruagaineko baserriak eta Bedoñako baserriak eta ermita arakatzen hasi ziren, eta, azkenean, borrokaldi gogorren ondoren, 3. eta 6. konpainiek bazter guztiak okupatu zituzten. Gero, Urkemendigainera joan ziren.

Egunkariaren arabera, egun hura ere gogorra izan zen. Gauean, 3. eta 6. konpainiak Urkemendigaineko posizioetan geratu ziren, 4. konpainia eta metrailadoreena Bedoñan, zutabeko buruzagiak Koruagainen, eta bateria eta San Martzialeko konpainia Koregainen.

Milizianoek ezkerreko hegaletik erasotu zituzten, baina porrot egin zuten. Bajen kopuruak argi erakusten du izugarri gogor borrokatu zutela: 3 hildako (horietako bat 6. konpainiako burua, Cecilio Arnal tenientea) eta 48 zauritu. Calbacho komandanteak, 2. taldeko buruak, oso zauri larriak izan zituen.

Irailaren 26an, larunbata, miliziano defendatzaileen egoera jasanezina zen. Gorriak ari ziren ikusten. Kurtzetxiki mendian ezin zuten ezer egin, trintxerarik ez zutelako. Arrazoi horregatik, hain zuzen, bezperan lagun asko hil ziren bertan. Gainera, etsaiak San Prudentzio aldetik sartzen eta Kanpazar gainetik barneratzen ari zirenez, arriskuan zeuden.

Gauzak horrela, Alonso Vegaren zutabeak azken urratsak eman zituen. Jakinekoea denez, hasierako helburua Arrasate hartzea zen. Flandes erregimentuko 4. eta 6. konpainiak Kurtzetxikira abiatu ziren, eta, bitartean Koregainen ezarritako 8. bateriak eta Bedoñako metrailadoreek defentsa-lerroak hustu zituzten, aipatutako gune estrategikora zihoazen tropek bidean arazorik ez izateko. Era berean, 9. bateria eta Flandesko 1. konpainiako bi sekzio Koregainera joan ziren, lehenengoa Gasteiztik eta beste biak Aretxabaletatik.

Frontea hautsia zegoenez, milizianoek Kanpazar mendatera ihes egin behar izan zuten, Arrasate babesi gabe utziz. Alonso Vegaren tropek Kurtzetxiki hartu bezain laster, 2. taldea Arrasatera abiatu zen, Gutiérrez komandantearen agindupean. 16:30ean okupatu zuten. 4. konpainia hegoaldetik sartu zen bi metrailadoreekin, eta 3. eta 6. konpainiak ipar-ekialdetik, beste bi metrailadoreekin. Elizako kanpaiak jo zituzten, okupazioaren berri emateko.

Orain, ikuspegi orokorrari lotuz eta Gipuzkoa hartu zuten hiru zutabeen ibilbidea aipatuko dugu. Alonso Vegak Debagoiena mende hartzen zuten bitartean, beste bi zutabeek ere gauza bera egin zuten tokitan tokiko eremuetan. Hilaren 22an Deba (Latorrek), Soraluze (Pérez Salasek), Bergara (Tejerok) eta Zubillaga (Saletak) okupatu zituzten, 23an Mendaro (González Unzaluk), 24an Arno mendia (González Unzaluk) eta Munetako Haitzak (Pérez Salasek), 25ean Angiozar (Tejerok), 26an San Prudentzio (Saletak) eta Kalamua mendia (Díez de Riberak), 27an Mutriku (Latorrek) eta 28an Urkarregi mendia (Cayuelak).

Urriaren 6an, Latorrek Ondarroa eta Berriatua okupatu zituen, Gipuzkoaren eta Bizkaiaren arteko muga zeharkatuz. Gipuzkoan, lerro bakarra ez zen erori frankisten mende: Elgetako Intxorta mendien eta Eibar hiriaren arteko eremua. Azken gotorlekua izan zen.

3.4. Frontea egonkortzeko ahaleginak

1936ko irailaren amaierarako, ia Gipuzkoa osoa tropa frankisten mende zegoen. Artean amore eman ez zuen eremu bakarra Bizkaiko mugaldekoea zen: Kanpazar-Intxorta mendiak (Elgeta)-Eibar ardatza, hots, Euskal Herriko Maginot-lerroa.

Miliziak berehala berrantolatu ziren. Ordura arte, faxisten kontra borrokatu zuten tropetako kide gehienak miliziano boluntarioak ziren, asaltoko guardia batzuk, zenbait karabinero eta Errepublikaren aldeko mikeleteak ere atxiki zitzaizkien arren. Miliziano haiek erakunde politiko eta sindikalen arabera taldeak osatzen zituzten, eta, ondorioz, alderdi politikoa militarra baino garrantzitsuagoa zen. Gauzak zertan ziren ikusita, ezinbestekoa zen etsaiekin aurrez aurre borrokatzeko moduko armada sendoa sortzea, eta, beraz, diziplinan oinarritutako egitura militarra ezartzea. Horrela, lehen batailoiak eratu ziren: nazionalistak, sozialistak, komunistak eta anarkosindikalistak.

Urriaren 1ean Gorteek Euskal Estatutua onartu eta 7an *Euzkadiko* lehen Gobernua eratu zuten. Lehen lehendakaria José Antonio Aguirre (PNV) izan zen.

Milizianoen batailoiak antolatzeko erantzukizuna Iparraldeko Armadako Estatu Nagusiaren eta *Euzkadiko* Gobernuaren esku geratu zen.

3.4.1. Militarizazioa: batailoiak eta soldadualdien mobilizazioa

Leintz Harana eta Arrasate erori zirenean, Arrasateko Gerra Komisariotza Elorrioren finkatu zen, okupatutako herrietatik alde egindako familia asko bizi baitziren bertan. Defentsa-batzordeak gauzak antolatzen hasi ziren, Máximo Alberdik azaldu zigun moduan¹³³:

Aretxabaletako Defentsa Batzordeak, bertatik ihes egiterakoan, nahikoa janari (garbantzuak, bakailaoa, azukrea, tomatez, arroz, kafez, olio eta ikatzez betetako kaxak etab.) ateratzea lortu zuen: Elorrioren, gizarte-laguntzako etxea ireki zuten Aretxabaletatik ebakutatutako biztanleentzat, eta, geroago, Bergaratik etorritakoentzat. Notarioaren etxean finkatu ziren, parrokiatik gertu. Notarioaren abizena Vildosola zela uste dut. Berrogei bat lagun bizi ginen han, eta jatorduetan ehun inguru elkartzen ginen. Elikagai jakin batzuk erosteko, Aretxabaletako karlistei ezarritako isunen bidez bildutako dirua erabiltzen genuen. Pixkanaka, jendea Bizkaian zehar barreiatu zen. Hala ere, gure laguntza-etxea azaroaren erdira arte egon zen irekita, Elorrioko Udaleko gizarte-laguntzako sailarekin bat egin zuten arte, alegia.

Azken milizianoak, Kanpazar gainetik ihesean zihoazela, etsaien aitzineko talde bat aurkitu zuten, eta, tiroketa gogor baten ondoren, funtsezko gune hartaz jabetzea lortu zuten. Guillermo Lasagabasterrek horretaz guztiaz hitz egin zigun¹³⁴:

Gure miliziek kontraerasoa burutu ondoren, buruzagiek Elorrioko egoitza kuartel nagusitatz hartu zuten, eta non kokatu behar genuen jakinarazi ziguten, berehala. Miliziak posizio berrietan ezarri eta gero, buruzagiak lehen batailoiak zehatz eta zorrotz antolatzen hasi ziren, buru-belarri. Izan ere, milizianoek ordura arteko borroka guztietan hartu zuten parte, jokabide eredugarria izanik beti. Gizon zakar haiek dena ematen zuten. Etsaiek prestakuntza militarra zuten lehendik; gu, berriz, zibilak ginen eta soldadutzarik egin gabeko buruzagiak genituen.

Horregatik, agintari nagusiak [...] batailoiak osatzen hasi ziren. 1936ko irailaren 28rako Dragoen batailoia antolatuta zegoen jadanik. Hernaniko, Gasteizko eta beste toki batzuetako mutilak zeuden, baina gehienak Arrasatekoak ziren.

Lucio Oteiza aretxabaletarra Dragoen batailoian ibili zen, eta hiru iruzkin egin zizkigun gaiari buruz¹³⁵:

[...] Eusko Jaurilaritzak parte hartu zuen, eta Dragoen batailoiko kideei armak eman zizkiguten Kanpazarren. Fusil txekiarrak hartu genituen eskuetan, hantxe bertan [...].

Intxortara iristen ari ginela, Angiozar gainean lehen tiroak jaurti zizkiguten. Orduantxe hil zitzaizkigun lehen kideak. Ziur aski, batailoiko lehen hildakoa Ángel Sauquillo izan zen. Arrasateko konpainiak atzetik erasotu gintuen, eta guk aurrez aurre erantzun behar izan genion.

Dragoen batailoia oinarria Guadalupe izan zen —Guadalupe forteaz ari da, urriko iraultzako beste preso batzuekin batera egon baitziren bertan—. Arrasateko, Aretxabaletako, Hernaniko... ardatzak elkartu ziren. Taldeak han sortu ziren, eta buruzagiak ere han izendatu zituzten. Gerardo Ruiz zen komandantea.

Lucioren bigarren iruzkineko eraso urriaren 4an gertatu zen, *Dragoiak* Intxorta mendiak hartzera zihoazela, frontearen lerroa indartzeko asmoz. Aretxabaletako *Dragoien* konpainiako kide hauek zauritu ziren: Ángel Gago, Aurelio Carmona, Clemente del Teso, Eugenio Zaldibia eta Saturnino Sauquillo. Ángel Sauquillo eta Vicente Aranbarri hil egin ziren. Gerraren ankerkeria argi eta garbi azaleratzen hasia zen.

Dragoien 22. borroka-batailoia Arrasateko eta Aretxabaletako JSUko gazteek, Donostia, Hernani, Pasaia eta Erreterria aldeko milizianoek eta Arabatik ihes egindako lagun batzuek osatzen zuten. Honako egitura hau zeukaten: buruzagitza (Gerardo Ruiz komandantearen aginduetara) eta bitartekarien sekzioa; lau infanteria-konpainia eta metrailadore-konpainia bat; sekzio mistoa; gizarte-zerbitzuen eta kuartelarien sekzioa; txoferrak eta armazainak. 1. konpainiako guztiak Arrasatekoak ziren, 2. konpainiakoak Aretxabaletakoak eta Arabatik alde egindako gazteak, 3. konpainiakoak donostiarrak, eta 4. konpainiakoak hernaniarrak. Horiei guztiei Pasaia metrailadoreen konpainia gehitu zitzaion.

Denboraren poderioz, batailoia *Meabe zutabea*n sartu zen, eta, gerran zehar, Intxorta mendien okupazioan (1936ko urrian), Untzilla eta Murugain mendien defentsan (1937ko martxoaren 31ko erasora arte) eta Karraskaineko eta Barazar mendateko borroketan hartu zuten parte. Era berean, 11. Eusko Gudarostearekin batera, Euban eta Lemoako Haitzeko borrokaldietan jardun zuen, baita Burdinazko Gerrikoaren ingurukoetan ere, *El Gallo* izeneko eremuan. Gero, Santanderren, batailoiko kide batzuk *Larrañaga* brigadan eta beste *Rosa Luxemburgon* sartu ziren. Brigada komunistak ziren biak. Bizirik ateratzea lortu zutenek Reinosa eta Cabezón de la Sal udalen arteko poltsan borrokatu zuten *Larrañagarekin*, eta Mazuco mendian (Asturiasen) ere bai, 1937ko irailean. Azkenean, El Musel portuan (Gijonen) atxilotu zituzten¹³⁶.

Aretxabaletako JSUko miliziano guztiak *Dragoietan* sartu ziren. Bertako jeltzale gehienek, aldiz, *Saseta* batailoian jardun zuten, eta batzuk *Amaior* eta *Loiola* batailoietan.

Euzko Gudaroztea, PNV alderdiak eratua, *Euzkadiko* indar militar nagusia izan zen, 28 batailoirekin. Gure azterlanari dagokionez, aipagarriena 53.a edo *Saseta* izan zen, 1937an sortua infanteriako taldeei laguntzeko. Gudari gehienak gipuzkoarrak ziren. Lau konpainia zituen: 1.a *Beti aurrera*, 2.a *Aitzol*, 3.a *San Martzial* eta 4.a *Zarrabeiti*. Geroago, bosgarren konpainia osatu zuten Plentzian, ofizial gipuzkoarrekin eta gudari bizkaitarrekin. Lehen komandantea Jesús Luisa Esnaola izan zen, bigarrena, aurrekoaren ordekoa, Andrés Plazaola, hirugarrena Roque Amunarriz eta azkena Joseba Salegi¹³⁷.

Saseta batailoiko gudari aretxabaletarrak 4. konpainian zeuden, *Zarrabeiti* edo *Zarragoitia* izenean. Hainbat frontetan jardun zuten, hala nola, Intxortetan (Elgetan), Akondian (Eibarren) eta Reinosan. Azken horretan gudari asko hil ziren. Santofia Ituna sinatu eta gero, armak entregatu zituzten.

Ildo horretan, ekar dezagun gogora jeltzaleak Leintz Hareneko Euskal Milizietan sartu zirela, eta, Alfonso Vegaren zutabearen mende erortzeaz zeudenean, askok, alde egin beharrean, herrian geratzea erabaki zutela, zalantzan baitzeuden, zer egin jakin gabe, euren alderdia altxamenduaren lehen egunetan bezala. Arazorik izango ez zutelakoan zeuden, ez baitzuten ezer txarrik egin, ezta inor hil ere. Baina oker zebiltzan, frankistek biztanleria kontrolatzeari ekin baitzioten, Aretxabaleta hartu bezain laster. Lantegi guztietako langileen zerrendak egin eta izen bakoitzaren ondoan milizietan jardundakoa zen ala ez idazten zuten. Aldi berean, tropak etxez etxe ibili ziren bazterrak arakatzen "susmagarrien" bila, Defentsa Batzordearen agintaldian zehar ezkutuan egondako edo berriz ere etxera itzultitako karlisten edo tradizionalisten laguntzarekin, ziur aski. "Informatzaile" paregabe bat ere izan zuten: Joaquín Galdos Gorosarri jeltzalea, Aretxabaletako batzokiko idazkaria. Militarrek altxatu zirenean, Lakuntzan (Nafarroan) zegoen lanean. Bi egun eman zituen atxilotuta, eta askatu zutenean Gasteizera joan zen. Gauzak zertan ziren ikusita, Arabako erreketen 9. konpainian sartzea erabaki zuen. Tropa frankistekin sartu zen Aretxabaletan, eta konpainiako kideek, Galdosen ibilbidea ezagutzen zutenez, etxeak miaztera eraman zuten. Jeltzale asko atxilotu eta Biteri eskolan giltzaperatu zituzten. Horietako bat Santiago Lombide zen¹³⁸:

Etxean atxilotu ninduten. Bi soldadu eta Joaquín Galdos sarjentua etorri ziren. Galdos nazionalista zen, soldadutzan sarjentu izandakoa. Horra zer galdetu zidan:

- Norena da taula hau?
- Anaiarena.

- Eta non dago zure anaia?
- Eta non daude zeureak?

Santi Lombideren anaia José María *Dragoietako* kidea zela kontuan hartuta, oso erantzun adierazgarria eman zion. Joaquín Galdosen anaia José¹³⁹ beste bandoko gudaria (zaintzailea) zen, eta koinatua, Celestino Madariaga Gallastegi, *Sasetako* tenientea.

Azkenik, Joaquín Galdosek ihes egin, errepublikanoen eremura joan eta bere benetako bandoarekin jardun zuen¹⁴⁰.

Dena den, frankisten armadak, soldadu gehiago behar zituenenez, eurekin jardutera derrigortu zituen: batzuk Arrasateko erreketeen Zumalacárregui tertzioan eta beste batzuk deialdiko soldadu moduan.

Armadan sartzera derrigortutako biztanle gehienek Zumalacárregui tertzioan jardun zuten. Hiru konpainia zituen: 1.a Oñatiko erreketeeana zen, 2.a Arrasateko erreketeeana, eta 3.a Bergarakoena. Aretxabaletarrak bigarrenean sartu zituzten, eskualdeko unitatean, Nafarroako III. brigadan. Lehen ekintza 1937ko otsailaren 14an egin zuten, Murugain inguruko posizioak zaintzeko. Zumalacárregui tertzioari Ntra. Sra. del Camino erreketekonpainia¹⁴¹, Aretxabaletan kuarteleratu, atxiki zitzaion eta, bat eginik, 4. konpainia osatu eta Apotzagako posizioak indartu zituzten. Benetako lehen borroka martxoaren 31koa izan zen. 2. konpainiak Untzilla eta Murugain mendien erasoan parte hartu zuen, Oriamendi tertzioari atxikita, EzQUIROZ komandantearen aginduetara jardunez. Aurrez aurre *Dragoiak* zituzten, eta haietako asko lagunak edo senitartekoak ziren. Aurrerantzeko ibilbidean gerra zibileko gunerik gogorrenetan egon ziren. Nafarroako brigadak berrantolatu ondoren, 1937ko apirilaren 30ean, Zumalacárregui tertzioa I. brigadan sartu zuten. Bizkargi hartu, Burdinazko Gerrikoa hausteko erasoetan parte hartu eta Malmasin mendian borrokatu zuten. Gero, Arrigorriagan atseden hartu eta San Cebrián de Mudá udalera (Palentziara) joan ziren, Santanderko frontea haustera. Valdecebollas eta Cueto mendietako posizioak erasotu, Reinosan sartu, Cabezón de la Sal udaletik igaro, Asturiasen barneratu, Mazucoko borroketan parte hartu eta Gijonera iritsi ziren. Orduan eman zioten bukaera iparraldeko gerrari. Iruñera itzuli zirenean, baja kopuru izugarriaren ondorioz, Zumalacárregui tertzioa Montejurrako 2. eta 3. konpainiekin bateratu zuten. Berriz atseden hartu eta Guadalajara abiatu ziren, baina desbideratu eta Teruelgo frontera joan ziren, Alfambrako operazioetan aritzera. Handik Levantera jo zuten, Espadán mendizerrara. Azkenik, Ebroko batailan eta Kataluniako frontean parte hartu zuten.

Bi bandoetako gorputz eta unitateen militarizazioari dagokionez, gerrak aurrera egin ahala, jende-premia gero eta larriagoa zen, soldatu asko hiltzen baitziren. Beraz, gabezia hori nola edo hala konpontzeko, kintoei deitzen hasi ziren.

Estatu frankistak bere mende eroritako eremuetako gazteak soldadu joatera behartu zituen, soldadualdien araberako deialdiak eginez. Lehen deialdi orokorra 1936ko abuztuaren 8an egin zuen Burgosko Defensa Nazionaleko Batzordeak, 29. dekretuaren bidez¹⁴²:

Como presidente de la Junta de Defensa Nacional y de acuerdo con la misma, a Decretar lo siguiente:

PRIMERO.- Se dispone la urgente incorporación a filas de los individuos del cupo de filas y del de instrucción, tanto de haberes como acogidos a los beneficios del Capítulo XVII, de la Ley de Reclutamiento, pertenecientes a los reemplazos de 1933, 1934 así como los de 1935 que se encuentran en sus casas.

SEGUNDO.- Estos movilizados se incorporarán a los Cuerpos que prestaron servicio si se encuentran éstos dentro de la zona ocupada por nuestro Ejército, y si esas Unidades se hallaren fuera de ella la incorporación tendrá lugar a Cuerpos de la misma Arma o Cuerpo en que sirvieron más próximos al lugar de su residencia habitual. En el caso de que por la especialidad del Cuerpo de su procedencia no hubiera igual en nuestra Zona, quedarán adscritos para prestar servicio al similar que exista.

TERCERO.- Quedan exceptuados de su incorporación, los que se encuentren prestando servicio en Fábricas, Talleres o Servicios Públicos dedicados a trabajos convenientes a la buena marcha de las operaciones, los que desde luego serán militarizados. Estas faltas de incorporación deben acreditarse por los Directores de los Centros Y Autoridades locales ante la Autoridad Militar de la Provincia en que re-

sidan, la que procedería a la concesión de ese beneficio, si hay lugar a ello y a dar cuenta a los Cuerpos respectivos.

CUARTO.- La falta o retraso en la incorporación será castigada con arreglo a los preceptos del Código de Justicia Militar.

6ª División – Sección de Estado Mayor.

Gerra aurretik, gazteak 21 urterekin joaten ziren soldadutzara, baina adina aurreratu egin zuten, lehen aipatutako jende-beharra zela eta. Lehenbizi, 1935ean soldadutzara joan ez ziren gazteei (1914an jaio-takoei) deitu zieten, eta gero 1933ko eta 1934ko soldadualdietakoei, hurrenez hurren.

Hurrengo deialdien xehetasunak ez dira oso argiak. Aretxabaleta hartu berri zuten arren, udal-gobernu berria ez zen hasi ekinean urriaren 2ra arte. Horrela, irailaren 28an 1935eko, 1934ko, 1933ko eta 1932ko bigarren hiru hilekoko kintoei soldadu joateko egindako deialdia ez zuten bete¹⁴³. Aipatzekoa da, bestalde, gobernuko berriko kideak Gipuzkoako Gerrako Batzorde Karlistak proposatu zituela.

Flandes erregimentuko 5. mendi-batailoiak ez zuen denborarik galtzen, eta gazteak errekrutatzeko zereginetan dekretuen burokraziari zorrotz jarraitzen zion. Irailaren 29an, baimen mugagabea zuten gazteei batailoian berehala sartzeko agindua helarazi zieten. Hala egin behar izan zuten, adibidez, Esteban Leanizbarrutia Igartuak, José Urkia Bengoak eta Salustiano Herrasti Zufiriak biharamunean bertan. Ez ziren izan lehenengoak, uztailaren 19an, militarren altxamenduaren hurrengo egunean, Espainia Zalditeria Erregimentuko Burgosko buruzagitza-bulegoak Cándido Arregi Garai, Alejandro Arkauz Iturriaga eta Andrés Anduaga Lizarralde lehenbailehen errekrutatzeko agindu baitzion Aretxabaletako udalari. Abuztuaren 10ean, Arapiles erregimentuko 7. mendi-batailoiak (Lizarrakoak) beste horrenbeste egin zuen Eugenio Cortazar Galdos, Teodoro Etxeberria Ugalde, Máximo Garai Ercilla, Lorenzo Bernal Blanco eta Juan Arkauz Murgiondo gazteekin. Abuztuaren 27an, artilleria arineko erregimentuko 11. konpainiak (Burgoskoak) Rufino Agiriano Arenaza bertaratzeko agindua eman zuen, eta hilaren 31n Marcelino Bengoa Lizarralde bertaratzekoa. Azken agindu hori handik hilabetera, irailaren 27an, jaso zuten berriz, Domingo Elorza Azkoagari deitzeko eskaerarekin batera. Azkenik, irailaren 24an, América infanteria-erregimentuko 23. konpainiak (Iruñekoak) Alejandro Iturbe Otadui eta Pedro Ingidua Bolinaga errekrutatu zituen.

Horrek ez du esan nahi deialdia jaso zuten gazteek aipatutako talde horietan jardun zutenik. Aitzitik, asko beste unitate batzuetan sartu zituzten: adibidez, Máximo Garai Ercilla Flandes erregimentuko 1. mendi-batailoiko 2. konpainian, 1936ko urriaren 26an. Beste batzuk kontrako bandoan zebiltzan: esate baterako, Esteban Leanizbarrutia *Dragoien* 22. batailoiko 1. konpainiakoa zen, eta Cándido Arregi *Saseta* batailoiko gudaria.

Ordura arte, soldadu joateko deialdiak erregimentu eta unitate militarrek egin ohi zituzten, baina udal-batzorde berriak aurrerantzean errekrutamenduez arduratzea erabaki zuen. Zerrendak osatu eta Sailkapen eta Berrikuspen Batzordera igortzen zituen. 1936ko urriaren 24an, Donostiako 38. zenbakiko *Caja de Recluta* zelakoak urte hartako soldadualdiko lehen zozketa egin zuten. Zerrendako 20 gazteei zenbaki hauek tokatu zitzaizkien:

**Donostiako 38. zenbakiko *Caja de Recluta* zelakoak 1936ko
urriaren 24an egindako zozketa**

ZK.	Erreklutaren izena	Zozketan tokatutako zk.
1	Alzola Murua, Vicente	1.552
2	Arenaza Zugasti, Félix	1.672
3	Azcoitia López De Muniain, Esteban	1.823
4	Beitia Eriz, Manuel	1.887
5	Echarri Soraluze, Lorenzo	2.056
6	Echeverria Garay, Pablo	10
7	Garay Echave, Vicente	220
8	Garay Elcorobarrutia, Ambrosio	221
9	Garcia-Echave Zuazua, Pedro José	231
10	Gastañaga Eriz, Daniel	275
11	Jausoro Galdos, Felipe	546
12	Mabinabeitia Aguirre, Juan	696
13	Múgica Bañales, Jesús	804
14	Osinaga Urrutia, Joaquín	932
15	Oteiza Cortazar, Lucio	961
16	Unzurrunzaga Vergara, Santos	1.228
17	Urquia Elorza, Julián	1.269
18	Zaloña Cenitagoya, Leandro	1.355
19	Zubizarreta Arregui, Eugenio	1.389
20	Zugasti Erostarbe, Felipe	1.397

1936ko deialdiko gazteen zerrenda orduantxe osatu zuten. 1937ko errekrutamenduak eta sailkapenak bi txandatan gauzatu zituzten. Deitutako gazteei udaletxean gorputza, taila eta bularraldeko perimetroa neurtu eta, emaitzaren arabera, baliagarritzat edo salbuetsitzat jo zituzten, besterik gabe. Gazteen tailaren arabera behin betiko lehen zerrenda urtarilaren 14an egin zuten, eta bigarrena maiatzaren 9an.

1937ko urtarrilaren 14ko zerrenda

Zk.	Izena	Taila (mm)	Perimetroa (cm)	Gai ala ez gai
1	Alberdi Ceberio, Bonifacio	-	-	Iheslaria
2	Altube Herrasti, Eugenio	1.630	87	Gai. Soldadua
3	Altube Uribechevarria, Ramón	1.669	86	Gai. Soldadua
4	Arcauz Murgiondo, Jesús			Marianista Cádizen. Erabakiaren zain
5	Arenaza Urizar, Millán	1.641	87	Gai. Soldadua
6	Arratibel Olalde, José	1.626	81	Gai. Soldadua
7	Arregui Garay, Juan	1.688	87	Ezgai (63 - F- 1 taldea)
8	Chinchurreta Ugalde, Isidro	1.667	85	Gai. Soldadua
9	Echave Garay, Timoteo	1.702	96	Gai. Soldadua
10	Galdos Zuazua, Juan José	-	-	Zumalacárregui tertzioko erreketea
11	Garay Iriarte, Francisco	1.630	83	Gai. Soldadua
12	Gorostiaga, Manuel	1.740	89	Gai. Soldadua
13	Herrasti Idígoras, Jesús	-	-	Zumalacárregui tertzioko erreketea
14	Jáuregui Urcelay, Ciriaco	1.723	92	Gai. Soldadua
15	Lascurain, Antonio	1.710	91	Gai. Soldadua
16	Lete Alday, Pedro José	1.660	86	Gai. Soldadua
17	Lombide Gastañaga, José M ^a	-	-	Iheslaria
18	Macazaga Aguirregaviria, José M ^a	-	-	Bergaran. Erabakiaren zain
19	Ochoa Garcia-Echave, Antonio	-	-	Iheslaria
20	Ondarra Azurmendi, Agustín	-	-	Bilbon. Iheslaria
21	Sauquillo, Ángel	-	-	Iheslaria
22	Uriarte Esquibel, Julio Eugenio	1.631	89	Gai. Soldadua
23	Uribechevarria Arenaza, Ramón	1.621	82	Gai. Luzapenaren zain
24	Uribechevarria Barrena, Teodoro	1.638	82	Gai. Luzapenaren zain
25	Uribechevarria, Aniceto	1.515	75	Ezgaitasun egiaztatua. Zeharo salbuetsia.
26	Urquia Elorza, Santiago	1.740	89	Gai. Soldadua
27	Urquia Orense, Julio	-	-	Iheslaria
28	Urrutia Unda, Joaquín	1.595	77	Ezgaitasun egiaztatua. Zeharo salbuetsia
29	Zubiberri, Pedro	-	-	Angiozarren. Iheslaria
30	Zubizarreta Berraondo, Pedro	1.724	93	Gai. Soldadua
31	Zugasti Cortabarria, Julio Eugenio	1.696	86	Gai. Luzapenaren zain
32	Zugasti Legorburu, Luciano	1.630	94	Gai. Soldadua
Leintz-Gatzagako zerrenda				
33	Arenaza Zubillaga, Francisco	1.661	86	Gai. Soldadua
1935ko soldadualdia				
34	Arrese Idígoras, Eusebio	-	-	Ez ziren bertaratu 1. mailako luzapena berrikustera. Ezgaitzat hartuak.
35	Rodríguez Lentijo, Obdulio		-	
1933ko soldadualdia				
36	Andrés, Florentino	-	-	Ez ziren bertaratu luzapena berrikustera. Soldadu izendatuak.
37	Martínez, Manuel	-	-	
38	Peña, Juan	-	-	

1937ko maiatzaren 9ko zerrenda

Zk.	Izena	Taila (mm)	Perimetroa (cm)	Gai ala ez gai
1	Aguriano Arenaza, Prudencio	1.740	91	Gai. Soldadua
2	Aguiriano Herrasti, Ceferino	-	-	Iheslaria
3	Aranzabal Beitia, Emeterio	1.550	90	Gai. Soldadua
4	Arenaza Zugasti, José Domingo	Anaia Bonifaciok bertaratu eta haxe jakinarazi zien: José Domingo Bilbon zegoela, mugimenduak hantxe harrapatu zuelako. Udalak sailkapena aldatu eta iheslaritzat jo zuen.		
5	Arenaza Zugasti, Marcelino	1.720	88	Gai. Soldadua
6	Cortabarría Ocaranza, Pedro	1.750	82	Gai. Soldadua
7	Echeverría Ugalde, Máximo	Aita bertaratu zen. Semea Donostiako ospitale militarrean zaurituta zegoela eta bertan ohatilari-lanak egiten zituela jakinarazi zien. Soldadu izendatu zuten.		
8	Eraña Echave, Ricardo	1.700	81	Gai. Soldadua
9	Gabilondo Fernández de Arroyabe, Ángel	Zumalacárregui tertzioko erreketea		
10	Galdos Arana, Ricardo	Zumalacárregui tertzioko erreketea		
11	Garay Elcorobarrutia, Prudencio	Zumalacárregui tertzioko erreketea		
12	Herrasti Zufiria, Pablo	1.715	83	Gai. Soldadua
13	Jausoro Galdos, Prudencio	1.745	98	Gai. Soldadua
14	Lasagabaster Oquina, Tomás	Zumalacárregui tertzioko erreketea		
15	Larrinaga Gaztañaga, Faustino	-	-	Iheslaria
16	López de Letona Telleriarte, Antonio	1.712	86	Gai. Soldadua
17	Mendieta Madinabeitia, Simón	1.730	87	Gai. Soldadua
18	Oyanguren Acha, Francisco	Zumalacárregui tertzioko erreketea		
19	Peña Echeverría, José	1.800	93	Gai. Soldadua
20	Unanue Macazaga, Justo	1.650	85	Gai. Soldadua

1938ko zerrendak otsailaren 3an egin zituzten. Uztailaren 7an, *Caja de Recluta* zelakoak 1933ko, 1934ko eta 1935ko soldadualdietako laguntza-zerbitzuetan jardundako gazteei soldadu joateko deia egin zien. Valentín Orueta Madina Flandes erregimentuko 5. konpainiara bidali zuten, eta Leonardo Lasagabaster Okina Gasteizera, Numancia zalditeria- eta ehiztari-erregimentuko 6. konpainiara. Lino Iturbe Otadui ere jaso zuen deia. Uztailaren 23an 1937ko, 1938ko, 1939ko eta 1940ko soldadualdietakoei deitu zieten, arrazoi berarengatik: Eugenio Altube Errazquin, Aniceto Uribe-Etxebarria Kortabarría, Cándido Eraña Etxabe eta Eusebio Gastañaga Eriz gazteei, hain zuten. Urriaren 20an, 1941ko soldadualdiko hirugarren hiruhilekoko gazteak (1920ko uztailan, abuztuan eta irailean jaioetakoak) eta aurreko soldadualdietako hiruhileko berekoak mobilizatu zituzten.

1938 otsailaren 3ko zerrenda

Zk.	Izena	Taila (mm)	Bularreko perimetroa (cm)	Gai ala ez gai
1	Aguiriano, Agapito	1.645	82	Gai. Soldadua
2	Altube, Emeterio	1.570	89	Gai. Soldadua
3	Altube, Pedro	1.700	82	Gai. Soldadua
4	Altube, Francisco	-	-	Iheslaria
5	Bengoa, Miguel	1.632	84	Gai. Soldadua
6	Eraña, Cándido	1.702	82	Gai. Soldadua
7	Garay, Miguel	1.788	87	Gai. Soldadua
8	Gastañaga, Eusebio	1.690	85	Miopea, 5 dioptria. Zeharo salbuetsia
9	Gorroño, José M ^a	1.764	84	Gai. Soldadua
10	Herrasti, Luis	1.600	82	Gai. Soldadua
11	Jáuregui, Victor	1.730	90	Gai. Soldadua
12	Jausoro, Juan	1.594	81	Gai. Soldadua
13	Madinabeitia, Julián	1.660	87	Gai. Soldadua
14	Orobengoa, Félix	1.674	84	Gai. Soldadua
15	Orueta, Jesús	1.690	85	Gai. Soldadua
16	Peña, Lorenzo	1.676	89	Gai. Soldadua
17	Unanue, Melchor	1.700	86	Gai. Soldadua
18	Urrutia, José M ^a	1.610	75	Gabeziak garapen organikoan. Aldi baterako baztertua
19	Zubizarreta, Eugenio	1.608	89	Gai. Soldadua
20	Zubizarreta, Pablo	1.670	87	Gai. Soldadua

Esku artean izan dugun dokumentazioan oinarrituz, frankistek soldadu joatera behartutako gazteen zerrenda osatu eta bakoitzak zer unitatetan jardun zuen zehaztu dugu (ikus 4. eranskina, 306. or.).

Gazte horiei erreketetean borondatez sartutako guztiak gehitu zitzaizkien.

Militarrak altxatu zirenean, 1935ko soldadualdiko gazteak soldadutzan zeuden, eta, beraz, nahitaez borrokatu behar izan zuten, idealen kontra egon arren. Batzuk hil egin ziren borrokaldietan. Beste batzuk ihes egin zuten: adibidez, Clemente del Teso ez zen itzuli udako atsedenal-di-baimena bukatu eta gero, eta bere konpainiak, Burgoseko San Marcial infanteria-erregimentuko 22.ak, iheslaritzat jo zuen berehala¹⁴⁴. Clemente boluntario sartu zen Defentsa Batzordean lehenbizi eta *Dragoietan* gero. Bere taldekide ohien kontra borrokatu behar izan zuen.

Clemente del Teso hurrengo ataleko protagonista izango da.



Daniel Gastañaga Eriz,
San Martzial infanteria-erregimentuko
22. konpainiakoa (Burgos).



(1) Tomás Garai Etxabe, Flandes
erregimentuko 5. mendi-batailoikoa
(Vitoria-Gasteiz).



Leonardo Lasagabaster Okina, Numancia
zalditeria-erregimentuko 6. konpainiakoa
(Vitoria-Gasteiz).



(1) Santiago Lombide Gaztañaga,
Zumalacárregui tertzioko erreketea.

(1) José M^a Gorroño Arregi Donostian
desfilatzen.



Román Olabe Zubillaga,
ANVko 1. batailoiko
gudaria.



(1) Fermín Garai Etxabe,
Loiola batailoiko gudaria.



Aberdi Ceberio anaiak, hirurak Saseta
batailoiko gudariak. (1) Félix, (2) Bonifacio
eta (3) Jesús.

Saseta batailoiko gudariak Eibarko frontean.
 (1) Facundo Alzola, (2) Jesús Peña, (3)
 Lorenzo Etxeberria, (4) Antonio Otxoa eta
 (5) Diego Urcelay.



Francisco X. Sagastaren txartel
 militarra. Zuazua y Urresti
 batailoikoa zen.



Eusebio Arrese Idígorasen txartel
 militarra. Dragoen batailoiko 22.
 konpainiakoa zen.



Jorge Uribesalgo Zaloña, Nafarroako
 V. Brigadako 6.5 kanoi taldekoa,
 Errotabarrin, argazkia atzeratzeko
 prest.

Leandro Zaloña
Zenitagoia, abiazioko
kideekin, Salburuko
aireportuan.



Clemente del Teso Sandoval, San Martzial
erregimentuan (Burgosen) soldadutza
egiten ari zela, baimen batean zehar
desertatu eta Dragoietan sartu zen.



Calixto Eraña Bengoa,
América erregimentuko 23.
konpainiako soldaduekin
(Iruñea).

3.4.2. Errepublikanoen bonbardaketak Aretxabaletan

Camilo Alonso Vegaren tropek herria hartu zutenetik Mola jeneralak 1937ko martxoaren 31ko ofentsiba handia gauzatu zuen arte, sei hilabetez, Aretxabaletako frontea zeharo egonkorra izan zen. Fronteko lerroa udalerriaren ekialdean kokatu zen, Otxandio-Aramaio zeritzon eremuan, Untzilla auzoko goialdeak eta Murugain mendia erreferentziazat hartuta.

Fronteak, herriko sarbideetan ezarririk, Isurieta, Galartza eta Gellao auzoak —azken hori Aretxabaletakoa— erabat mehatxatuta zituen, eta biztanle askok baserriak utzi eta atzeguardiako guneetan bizi ziren senitartekoen etxeetara jo zuten babes bila. Geroago, herriguneko zenbait biztanlek ere gauza bera agin zuten, errepublikanoak euren posizioetatik obusak jaurtitzen hasi zirenean.

Aretxabaletako eguneroko bizitza era guztietako tropa militarren eraginpean zegoen. Okupazio-tropei dagokienez, Aretxabaletan emandako sei hilabeteetan, erreketek gipuzkoarrak eta nafarrak, batik bat Nuestra Señora del Camino taldekoak, falangistak, legionarioak, deialdiko soldaduak, gehienak Burgosko San Martzial infanteria-erregimentuko 22. konpainiakoak, eta tropa mairu eta alemanetako soldaduak bidali zituzten herrira, trenbide-linea berrezarri ondoren kontingente militarren joan-etorriak asko erraztu zirelako. Julia Makazaga Industrias Beroa lantegiko bulegaria zen. 19 urte zituen Aretxabaletan kuartel-giroa gailendu zenean, eta bulegoko eguneroko jardunean lan asko egin behar izaten zituen militarrentzat¹⁴⁵:

Militarren garraioen arduraduna nintzenez, geltokian bulegoan baino denbora gehiago ematen nuen. Tren militarrek soldaduz gainezka zihoazen beti. Adibidez, borroken ondoren Gasteizera eramaten zituzten. Behin, trenbideko faktoreari, Manolori, paper batzuk ematera joan nintzen. Trenean mairuak zeuden eta, ikusi nindutenean, "a zer neska puska" eta horrelako gauzak hasi zitzaizkidan oi-hukatzen, elkar animatuz. Trenetik jaitsi nahi zutela ere esaten zidaten. Beldurrak airean, faktorearengana joan eta besotik heltzeko eta geltoki barrura eramateko eskatu nion. Izututa nengoen.

[...] Idazmakina bat neukan, eta soldaduei ordaindu beharreko kopuruen zerrendak egitera bidaltzen ninduten egunero: 0,25 honegatik, 0,25 beste horregatik... Zerrenda luze-luzeak izaten ziren.

Aretxabaletak kuartela zirudien. Otazu jauregia komandantziatzat edo kuartel nagusitzat hartu zuten, eta tropetako gainerako kideak euren beharren arabera moldatutako eraikin eta eremuetara bidali zituzten. Soldaduak Viteri eskolan zeuden; erreketek, berriz, bolatokiaren ondoan, UGTko egoitzaren eraikineko beheko solairuan (Otalora kaleko 18. zenbakian) eta Antonio Martínez de Aguirreraren etxearen azpialdeko zalditegian, Durana kaleko 16. zenbakian, udaletxearen parean. Ikusten denez, herriaren erdigunean finkatu ziren, eta inguruetako gune garai estrategiko guztietan ere bai, etsaiak behatzeko. Soldadu gehien Apotzagaetxebarrin zeuden, frontea bertatik bertara zutelako. Begixan (Arkarazo) baserriaren ondoan, tontorraren babespean, aleman antiaereoak finkatu ziren. Okupazio-tropak Mendiaretx eta Uxarte baserrien lerro berean ere kokatu ziren, zuhaiztien aldamenen, eta Otalorazelain kanoi-bateriak ezarri zituzten eremua ongi babesteko. Lau gune nagusi horiez gain, hainbat kontrol- eta zaintza-postu ezarri zituzten, gehienbat Arrasaterako irteeraren esparruan.

Beste aldean, errepublikanoak euren posizioak indartzen saiatu ziren. 1936ko urriaren hasieran, batailoiak jadanik eratuta zeudela, *Dragoien* 1. eta 2. konpainiek Kanpazar gaina hartu zuten, eta beste biek Karraskain mendia. Lehen mugimenduak azaroaren amaieran egin zituzten, Legutioko eraso zela eta.

Azaroaren 2an, *Dragoien* lau konpainiak Karraskainen elkartu ziren. Posizioei eustea lortu zuten, etsaiekin tiroketa gutxi batzuk izan ondoren. Batailoia azaroaren 26an hasi zen ekinean, Guillermo Lasagabasterrek azaldu zigun moduan¹⁴⁶:

Azaroaren 26an, gure Estatu Nagusiak etsaien bi lerro erasotzeko agindu zigun. Bata Arrasate-tik bi kilometrora zeukaten ezarrita, "Maitena" etxea dagoen mendian, eta bestea Olandixotik gertu. Etsaiak ustekabean harrapatzea zen gure helburua, euren indar guztiak Arrasatera bidaltzera behartzeko, gure beste batailoiek Legutio errazago har zezaten.

Agindua zorrotz bete genuen. Dragoien bi konpainia Karraskainetik abiatu eta, lau ordutan oinez egin ondoren, Aramaioa iritsi ginen. Hilaren 27ko goizaldeko ordu bietan, Murumendiko bidea hartu

genuen. Bitartean, Udalan geratutako bi konpainiak gauetz "Maitena" etxearen inguruetan kokatu ziren gauetz, goizaldeko 08:00etan erasoari ekiteko asmoz.

Goizeko 05:00etarako bi konpainiek Murumendi hartuta zeukaten, inolako gorabeherarik izan gabe. 10 gizon utzi zituzten bertan, sarjentu batekin, eta besteak Arrasate aldera joan ziren, bidean gutxika aurrera eginez. Goizeko 08:00etan, gure buruzagiak aginduta, denok batera tiroka hasi eta etsaien jatorrizko posizioetara iritsi ginen. Ustekabeen harrapatu arren, okupatutako azalera izugarri hartan ezarrita zauzkaten alanbrezko hesiak ezin izan genituen zeharkatu. Gainera, gune estrategiko guztiak menderatzeko, eskudra bat behar genuen gutxienez. Behar beste gizon ez genituenez, fusil metrailadoreen eskudra bakarri iritsi zen etsaien posizioetaraino. Ni ere tartean nintzen. Baina erasotzen hasi ziren, eta, tiroketa ikaragarri baten ondoren, 300 bat metro atzera egin eta zuhaitz batzuen atzean babestu ginen, adore handiz.

Posizio haiek okupatzea sekulako arrakasta izan zen guretzat, Aretxabaletan eta Arrasaten fusilekin eta morteroekin borrokatu eta gero. Gainera, Gasteizko errepide nagusia moztea lortu genuen.

Guillermok esan bezala, etsaia nahasteko ekintza hura arrakasta biribila eta pizgarri handia izan zen, baina lorpenei eustea gehiago kostatu zitzaien¹⁴⁷:

Bi konpainiak bakarrik halako azalera handia hartzea lorpen handia izan zen, baina, lehen lerroko gune estrategikoak zaintzeko beste jende ez genuenez, ilundu bezain laster, atzeragoko posizioetara joaten ginen.

Etsaiak horretaz jabetu ziren, nonbait, Santa Luzia egunean, goiza argitzen hasi bezain laster lehen lerroko trintxeretara joan eta hantxe aurkitu baikenituen, ustekabeen. Gauetz okupatu zituzten, gu iritsi aurretik.

Aurrez aurre, babesik gabe, borrokatu behar izan genuen, eta gutako batzuk hil egin ziren. Azkenean, lauhun metro atzerago joan ginen, Bastar gain izeneko posizio berrietaraino.

José M^a Arriarán eta Santiago del Valle gertakari hartaz, besteak beste, mintzatu ziren *Arrasate 1936. Una generación cortada* liburuan. Dirudienaz, Txiribito izeneko eremuan, Mandoain aldean, aurreko gune batean zeuden finkatuta, baina gauero hutsik geratzen zen, Naparrena baserrira joaten zirelako lanera. Horretaz jabetu eta biharamunean bertan, etsaiek segada egin zieten. Victor Bolinaga Arregi (1. konpainia-koa) eta Arruti donostiarra hantxe hil ziren¹⁴⁸.


Fronte egonkorra finkatu zuten denboraldian zehar, beste gertakari garrantzitsu bat jazo zen: Juan Antonio Errarte Garai, Gellao baserrikoa, desagertu eta hilda azaldu zen, 76 urte zituela. 1936ko abenduaren 28ko iluntzean Gellanozabal baserritik atera zen asto bat falta zitzaiolako, eta ez zen itzuli. Baserrir hura, auzoko beste asko bezala, bi bandoen artean zegoen kokatuta. Gorpua 1937ko martxoaren 29an aurkitu zuten Untzillako bizilagun batzuek. Corain (sic) mendian zegoen, ote zurien artean erdi lurperatuta, erdi ustelduta. Buruzagi errepublikanoek gorpua Azkoagako hilerrira eramateko agindu zuten, autopsia egin ziezaioten. Luis Alberdi apaizaren arabera, tiroka, aihozkadaka, kulata-kolpeka... hil zuten.¹⁴⁹

Dragoiek Untzilla, Murugain eta bien magalak hartu zituzten, Bastar Gain eta Bastar Azpi izeneko guneetaraino. Frankistak Apotzagan zeuden, eta okupatuta zauzkaten gunerik aurreratuena Etxabe baserria zen, Gellaon. Frontea bateratzea eta gunerik garaianetan finkatzea funtsezkoa zen estrategia militarrentzat.


Clemente del Tesok Untzillako San Pedro parrokiako kanpandorretik metrailata batekin tirokatu ohi zituen etsaiak, eta Valero morteroarekin obusak ere jaurtitzen zituen guardia zibilen kuartelaren kontra¹⁵⁰. Behin, morteroarekin etsaiak tirokatzen ari zela, bonba bat Etxabe baserriaren tximiniatik sartu zen, baina, zorionez, ez zen lehertu¹⁵¹. Barruan, besteak beste, Tomás Agirre medikua zegoen. Gerra ostean, hauxe esan zion kontsultan: "Hori da punteria, hori,... ederretik libratu ginen!"¹⁵².

Lucio Oteizak etsaien trintxeren gertutasunaren inguruko beste pasadizo bitxi eta dibertigarri bat kontatu zigun¹⁵³:

Frontea Untzillaren eta Etxabe baserriaren lerroaren artean egonkortu zenean gertatu zen. Zerri bat bi bandoen arteko eremuan zegoen, Etxabe baserritik hanka egin ondoren. Orduan, Eusebio Arresek tiroa jaurti eta bete-betea eman zion, punteria bikaina baitzuen. Baina zerriaren gorputik gertuen



RECHAVALETA.



zeuden frankistak ikusi eta eraman egin zuten. Eusebio sutan jarri zen. Frankistek, barre-algaraka, eskerrak ematen zizkioten oturuntza ederra egingo zutelako.

Aste Santuan, ofentsibari ekin baino egun batzuk lehenago, Untzillako elizako irudiak kanpora atera eta, aurrean bandera gorria ezarrita, prozesio-itxurak egin zituzten etsaia zirikatzeke eta adarra jotzeko¹⁵⁴.

1937ko urtarrilean, otsailean eta martxoan zehar, errepublikanoen bonbardaketen mehatxua etengabea izan Aretxabaletan eta Arrasaten. 15,5eko bi kanoiek izua sorrarazi zuten. Errepublikanoek, helburu militarrez gain, lantegietako produkzioa geldiaraztea lortu nahi zuten.

Urtarrilaren 9an, Aretxabaletako herriguneak bonbardaketarik bortitzena eta suntsitzailena jasan zuen. Arratsaldeko 17:00ak aldera, Kurtzeta gainetik elkarren ondoren jaurtitako lau kanoikada Durana kalean eta inguruetan erori ziren. Erasoaren helburu nagusia Lezamaren galdategiko tximinia eraustea zen, produkzioa geldiarazteko, baina lehen hiru obusek uste baino bide laburragoa egin eta Durana kalean erori ziren. 26., 36. eta 38. zenbakietako etxeak ia erabat suntsitu eta 32. eta 34. zenbakietakoak osorik erre ziren¹⁵⁵. Laugarren kanoikadak lantegiko tximiniaren goiko aldea bitan zatitu eta ke-laino beltz handiak sorrarazi zituen (ikus erantsitako mapa).

Lucio Oteizak azken hori baieztatu zigun¹⁵⁶:

Militar-karrera egindako Donostiako artilleria-teniente bat genuen. Bikaina zen, aparta beneratzen. Neurriak hartu —koordinadez ari da— eta laugarren kanoikadan tximinia eraitsi zuen.

Ondoriorik tamalgarrienak 34. zenbakiko etxeko sutean gertatu ziren, Felicia eta Dolores Usandizaga, Ignacio Usandizaga udal-idazkariaren alaba eta ahizpa, hil baitziren.

Herritarrek bonbardaketen kontrako neurriak hartu behar izaten zituzten: adibidez, leiho guztiak ixtea eta argiak itzaltzea. Bereziki prestatutako babeslekuak ere bazituzten beheko solairu batzuetan, baina oso jende gutxi erabiltzen zituen. Elizako arkupeetan lur-zakuak zeuden ezarrita, hobeto babesteko, eta jende gehiena haraxe joaten zen bonbardaketetan,

Martxoaren 4ko bonbardaketa gogorrean, Galartzako elizateko dorrea suntsitu zuten¹⁵⁷:

Aretxabaleta eta Galartzako elizatea bonbardatu zituzten. Ikaratuta geratu ginen, bereziki Galartzako elizatearen kontra jaurti zituzten hamabost eta erdiko piezak ikusita. Dozena erdi tiroarekin elizako dorre liraina eraitsi zuten. Galartza zaintzen ari zirenak korrika alde egin zuten babes bila, Murokoak metrailatzen zituzten bitartean. Euren artilleroen punteriar buruzko iruzkin harroak argi eta garbi entzuten genituen.


José de Artechek hitz horiek bere egunerokoan idatzi eta *El abrazo de los muertos* liburuan jaso zituen. Izan ere, Artecheren liburua funtsezko da fronte horretan gertatutako guztia frankisten bandoaren ikuspegitik ezagutzeko, eta hurrengo kapituluko nondik norakoak kokatzen ere lagunduko digu.

3.5. Frankisten ofentsiba eta Murugainen galera

Frontea egonkortu eta sei hilabetera, Bizkaia okupatzeko ahaleginak porrot egin ondoren, Mola jeneralak 1937ko martxoaren 31ko ofentsiba handia prestatu zuen.

Arabako fronteak hiru eremu hartzen zituen barne: Ubideakoa, Otxandio-Aramaiokoa eta Mekoletakoa. Faxisten tropek Albertia-Murugain mendizerrako defentsa-lerroa zeharkatu behar zuten, Nafarroako brigadak toki egokietan kokatu ziren, aurrera egiten hasteko. Horrela, IV. brigada Albertia mendia azpialdera joan zen, Legutiotik gertu, II.a Leintz-Gatzagatik Eskoriatzaren eta Aretxabaletaren arteko mugaraino hedatu zen, eta III.a Murugain hartzeko prestatu zen.

Errepublikanoek hainbat batailo zituzten, defentsa-lerro horretan¹⁵⁸. Albertia mendian, *Stalin* batailoia (Meabe zutabeko 2. taldea), *Pizkundia* (*Ariztimuño* metrailadore-batailoiko 2. konpainia) eta *Largo Caballero* batailoia (Meabe zutabeko 1. taldea) zeuden; Maroto mendian, *Abellaneda* batailoia eta metrailadoreen bi konpainia eta sekzio bat; Jarindon, metrailadoreen konpainia bat eta erdi eta sekzio bat;



Frankistek 1937ko maiatzaren 31n egindako erasoaldiren mapa.

Asensiomendin, *Azaña* batailoia; Untzillan eta Murugainen, *Dragoien* 1. eta 2. konpainiak; atzealdean, Aramaion, *Octubre* batailoia; Aramaioren eta Santa Agedaren artean, *Dragoien* beste bi konpainiak; eta, azkenik, San Adrianen, *Rebelión de la Sal* batailoiko 2. konpainia.

Aurreko egunetan, kontingente asko iritsi ziren Aretxabaleta aldera. Marianisten ikastetxean finkatu ziren. Tropa-mugimendu izugarri hura ikusita, argi zegoen ofentsiba handia hasteko zorian zegoela. Gure narratzaile berezia, José de Arteche, Oriamendiko erreketea zen, eta San Bernabe ermitan zegoen, Apotzaga inguruan, hori guztia gertatu zenean. Orain, izan ere, José de Artecheren *El abrazo de los muertos*¹⁵⁹ lanean oinarrituko gara, bere egunerokoan jasotako xehetasunen bidez, faxistek Murugain nola erasotu eta hartu zuten azaltzeko.

Hilaren 31n, goizeko ordu biak aldera, bitartekariaren ohar bat iritsi da, denak Apotzagaetxebarrira biltzeko aginduz. Han azken argibideak jasotzen dituzte, eta gero abian jartzen dira. Soldaduek, Salluentetik Aretxabaletara, Lausitako bide zaharretik jaitsi eta ezkerretara biratzen dute berehala, Untzilla aldera, Gellaotik behera datorren errekestoa inguratuz. Presaka dabilta, gutxi falta du eguna argitzeko eta inork ez ditu ikusi behar, etsaia ezustean harrapatuko badute. Konpainia bidegurutze batera iritsi da, eta sailetan banatu; eskuinaldetik, muino batean dagoen metrailadore batek egin die harrera. Tiro-jasak lehenengo

zaurituak eta hildakoak eragiten ditu. Metrailadorearen kokagunea dela eta – muinoaren goiko aldetik begipean duela inguru guztia –, San Antonio basilizaren atarian babesa hartu behar du sailak. Artilleria frankista tiroka hasi da. Komandanteak muinoari eraso egiteko agintzen du berehala, ezkerraldetik beste sail batek aurrera egitea lortu duela ikusteak adoreturik. Izan ere, ezkerreko sail horrek, ausardia handia erakutsiz, Untzillako lehenengo baserrietara hurbiltzea lortu du. Baina aurrera egiteko lehenengo saioak huts egiten du: metrailadoreak basilizaren barruan babestua egotera behartzen ditu. Bederatziak aldera, eskuinaldetik arrastaka, soldadu-sail bat iritsi da, metrailadore eta guzti, hiru metrailadore, haiek ermitan kokatzeko aginduarekin. Hala, imajina aldaretik kendu, eta hiru kuku-leiho egokitzen dituzte, metrailadoreak bertan kokatzeko: bat basilizaren hondoa eta beste bi alboetan. Tiroak hasten dira, edozein go-rra uzteko modukoa da zarata.

Goizak aurrera egiten du, laino dago, gudua oso gogorra izan da fronte-lerro osoan, Murutik hasi eta Asensiomendiraino. Artilleriak lubaki errepublikanoak zafrazten ditu eta hegazkinak joan-etorrika dabiltza, bonba pila jaurtita. Arratsalde erdian, Asensiomendin, borroka odoltsua da. Mendi gailurrak erupzioan dagoen sumendi bat ematen du eta hegazkinek atertu gabe husten dute beren karga tontor gainean.

Aurrera egin ezinik, basilizan geratzen dira soldaduak. Han aurrean, ohatilariak ikusten dituzte, Asensiomendiko maldetan joan-etorrika, laguntza beharrean dauden guztiengana heldu ezinik. Arratsaldean, bost aldiz ekin diote gailurrari, gure zenbaketaren arabera. Hura da kanoi guztien eta hegazkin guztien jomuga. Gailurreriak bere suzko gaia botaka ari den sumendi bat ematen du.

Arratsaldeak aurrera egin ahala, basiliza aldean baretzera egin du suak, Asensiomendi gainean daude bilduta begirada guztiak. Erasotzaileak malda erdiraino iritsi dira, defendatzaile errepublikanoek atzera egin dute suzko infernu horren erdian, baina beren posizioetara itzuli dira berehala. Azkenean, ilunabarrean, ez da garaipen oihurik entzun. Lehen euri tantak erortzen hasi dira. Basilizan dena prest dago gaua bertan igarotzeko, baina erne egon beharra dago, etsaien lubakiak handik gertu baitaude.

Apirilaren 1ean, goizeko laurak aldera, kapitainaren bitartekari bat iritsi da, basiliza bertan behera uzteko eta konpainiako gainerako kideekin bat egiteko agindua dakarrela. Euripean eta lokatz artean, errefortzuzko posizio berrietara abiatu dira. Konpainiako gainerako kideak Asensiomendiren ondoan dagoen muino baten oinean daude bilduta, maldaren tolestura bat aprobetxatuz egindako lubaki batean. Aurreko eguneko estrategia bera errepikatu da behin berriro: artilleria desarrak eta hegazkinen bonba-erasoak bata bestearen ondotik. Geroago, ezkerraldetik gerrillari-taldetan aurrera egiteko eta hedatzeko agindua eman dute. Halako batean, gailurrera iritsi diren lehenengo soldaduen oihuak entzuten dira.

Soldaduek eta erreketee, Asensiomendi hartu ondoren, Untzillako auzorantz jo dute, bidean inolako eragozpenik aurkitu gabe. Errepublikanoek, berriz, atzerantz egin eta Murugain aldera jo dute. Azkenik, Santa Agedara biltzen dira, faxisten erasoaldi gogorriari aurre egin ezinik.

Orain, Jose de Artecheren kontakizuna alde batera utzita, defendatzaileen ikuspegia ezagutuko dugu. Horretarako, Angel Gago, Clemente del Teso eta Lucio Oteiza *Dragones* batailoiko kideen lekukotasuna aldatu dugu hona:

Angel Gago, aurre-aurreko lerroko taldeetako batean zegoela zauritu zuten¹⁶⁰:

Untzilla aldean talde bat bagenuen aurreratua, muino batean lubaki batzuk eginak zituen. Artilleria jo eta su hasi zenean, zauritua erori nintzen, eta ni handik ateratzeko agindua eman zutenean, lagun bat etorri zen niri laguntzera, eta obus batek jota tripak agerian zetzan beste baten gainetik pasatu behar izan genuen.

Clemente del Tesok metrailadorearekin ezker-eskuin botatako tiro-jasak ditu gogoan¹⁶¹.

Untzillan geure postuan geundela, eraso egin ziguten. Metrailadorea neure esku zegoen, eta behar beste hurbildu zirenean, tiroka hasi ginen. Asko erori ziren, gorputz asko geratu ziren lurrian. Hori eta gero, bi aldiz pentsatzen zuten berriz eraso jo baino lehen.

Lucio Oteizak, berriz, bitartekari-lanak egin zituen, Mendez kapitainaren esanetara. Hona hemen haren lekukotasuna¹⁶²:

Haiek ustekabeen harrapatu nahi gintuzten, talde bat zegoen Etxabe baserrian, eta aurreko egunean guk taldetxo bat bidali genuen, haiek zaintzeko, eta han zelatan zeudenek esan ziguten: Bueno, gaur behingoz ez dituk etorriko! Laino itxia zegoen, eta halako batean, haietako bati zer eta tiro batek ihes egin. Hemen zeudek!, eta konpainia osorik bereizi zen, eta tiroketa hasi zen. Erretira egiteko itxurak egin zituzten, baina baita gero itzuli ere. Hiru bat eraso jo zituzten.

Pagogainetik sartu ziren, eskuinaldeko basotik. Ordurako sartzen ari ziren Eskoriatzatik, Isasmendi aldetik edo.

Erretiran gindoazela, gogoan dut Murutik jaitsi behar izan nuela, bi edo hiru aldiz, behetik zihoan jendea igoarazteko. Kapitainak ziotan: Hi, talde hori gorantz! Eta behin Murura iritsita, haiekin elkartu eta Santa Agedara jaitsi nintzen, eta besteak, faxistak, atzetik zetozkigun, orpoz orpo jarraitzen ziguten. Konpainiarekin joan izan banintz, lasaixeago joango nintzen, baina bitartekari-lana egiteko agindu zidatenez, behera joan behar izaten nuen, taldeei gora egiteko esanez.

Bi *Dragones* konpainiak honela zeuden kokatuta: Untzillan 2. konpainia zegoen, hainbat sailetan banatuta; 1. konpainia, berriz, Murugain aldera zegoen, Arrasate alderago.

Gu, 2. sailekook, Untzillan geunden, metrailadore ospetsuarekin; basotxoan (Pagogain) 3. saila zegoen, Gasteizkoekin. Sail bakoitza 30 bat gizonez osatua zegoen¹⁶³.

Frankistak guk baino askoz hobeto hornituta zeuden armez, baina faktore erabakigarria abiazioa izan zen. Condor legioko hegazkin askok bonbak jaurti zituzten Durango bonbardatzera zihoazela. Erasoa Nafarroako Brigadetako lurreko indarrekin koordinatuta zegoen. Errepublikaren defendatzaileek infernua bizi izan zuten Murugaineko gailurretan, batez ere Asensiomendin, berrogeita hamar kiloko bonben leherketekin eta etsaien artilleriaren etengabeko erasoekin.

La voz de España egunkari tradizionalistak honela zioen bere azaletako batean¹⁶⁴: “Murumendi gainean eroritako burdin eta su jakak sumendi baten itxura ematen dio mendiari”.

Egunkari bereko zutabeen, “*Arranoak Murumendi gainean*” titulupean, berriemaileak neurrigabe go-raipatzen du, irudimenari libre utzita, faxisten hegazkin-erasoen epika eta handitasuna¹⁶⁵:

[...] Bukatu da behingoz Arrasateren martiritza. Bertara iristean, hor ikusi ditugu gure hegazkintzako zilarrezko arranoak, mirarizko arabeskoak egiten Murumendi gainean. Une batean, tontor gainera eroritako burdin eta su jakak sumendi baten itxura ematen dio mendiari. Metrailadoreen zirta-zarta hilgarriak ere durundi dagi. Biplanoak alde batera makurtuta oldartzen dira, eta gorrien gotorlekuen parera iritsirik, bala-orrazietako batzuk husten dituzte bertan. Eta mendiaren kontra jo behar dutela ematen duen unean, goratu eta zerurantz igotzen dira bat-batean, lasterketa zalu eta bertikal batean.

Nafarroako III Brigadak – Zumalakarregi Tertzioa tartean zegoela, Oriamendi Tertzioari atxikia – izan zuen bere gain kokagune horiei erasotzeko ardura. Aurreko atalean esana dugun bezala, aretxabaletar franko aritu ziren tertzio horretan, 2. konpainian sartuta. Haietako askok lagunak eta ahaideak zituzten beste aldean. Gainerakoak Iruñeko 23. Amerika erregimentuko soldaduak ziren gehienak.

Martxoaren 31n, 28 soldadu eta erreketek lurperatu zituzten Aretxabaletako hilerrian. Guduak egun horretan izan zuen gogortasunaren adierazgarria da kopuru hori.

Larri zaurituetako bat Oriamendi Tertzioko komandante-burua izan zen, Luis Guijosa Leguia. Eliza ondoan zegoela, bala galdu batek jo zuen. Bergarako ospitale militarrean eraman zuten eta han hil zen.

Maximo Etxeberria Ugalde aretxabaletarra, Oriamendi Tertzioko 2. konpainiako, Untzillan erori zen zauritua, 31n bertan.

Indar errepublikanoek ez zituzten baja asko izan, gudaren gogortasunaz jabeturik. Datu gutxi izan arren, badakigu Jose Maria Etxebarrieta Urbistondo ere egun horretan hil zela, obus batek jota. Hurrengo kapituluan, biktimei buruzkoan, sakonago hitz egingo dugun gertatutakoaz. Hona hemen egun horretan hil ziren beste batzuk: Jose Becerra Aizpurua, Donostiakoa; Jose Carasa Gamecho, Castro Urdialeskoa; Francisco Holgado Mateos, Beasaingoa; Juan Mariño Pérez, Puerto de Son-ekoa (A Coruña), eta Raimundo Sanchez Mellido, Sestaakoa¹⁶⁶. Horiei guztiei Balmasedako Dimas Gutiérrezen heriotza gehitu behar zaie, Jose de Artechek bere egunkarian jasoa duen bezala¹⁶⁷.

1937ko martxoaren 31n Untzillako (Arabako) elizatea okupatzeko borroketan hil ziren soldaduak eta erreketak. Aretxabaletako hilerrian lurperatu zituzten

Zk.	Izena	Jaioterria	Unitatea
1	Aguado Baza, Lucio Justo	Beasain (Gipuzkoa)	Oriamendi tertzioa (alfereza)
2	Aguirre Mendia, Alberto	Ibarra (Gipuzkoa)	Zumalacárregui tertzioa
3	Álvarez Gómez, Pablo	Dueñas (Palentzia)	5. Marcial infanteria-erreg. 22. kon.
4	Andueza Aguirre, Miguel	Ergoiena (Nafarroa)	América infanteria-erreg. 23. kon.
5	Aparicio Aldanondo, Miguel	Zumarraga (Gipuzkoa)	Oriamendi tertzioa (kaboa)
6	Arrieta Echarri, Antonio	Etxarri Aranatz (Nafarroa)	América infanteria-erreg. 23. kon.
7	Arzuaga Zubeldia, Juan	Asteasu (Gipuzkoa)	Oriamendi tertzioa
8	Barcaiztegui Echeverria, Zoilo	Urrestilla (Gipuzkoa)	Oriamendi tertzioa
9	Berio San Martín, Nicanor	Iharnotz (Nafarroa)	
10	Cruz Vals, Toribio de la	Tordesillas (Valladolid)	América infanteria-erreg. 23. kon.
11	Cuaresma Valverde, Luciano	Valladolid	Artilleria astuneko 3. erreg.
12	Encina Garrán, Agustín de la	Villelga (Palentzia)	Zulatzale eta minatzaileen 6. bat.
13	Eugui Zubiri, Esteban	Usetxi-Esteribar (Nafarroa)	América infanteria-erreg. 23. kon.
14	Fábregas Jacas, Raimundo	Bartzelona	América infanteria-erreg. 23. kon. (alfereza)
15	Lacarra Calabia, Bernardino	Tutera (Nafarroa)	
16	Mendizabal Alustiza, José	Ordizia (Gipuzkoa)	Oriamendi tertzioa
17	Noain Paternain, Pedro	Arleta (Nafarroa)	América infanteria-erreg. 23. kon.
18	Obanos Elcarte, Avelino	Berriobeiti (Nafarroa)	
19	Otegui Recalde, José Miguel	Ordizia (Gipuzkoa)	Oriamendi tertzioa
20	Parla López, Francisco	Otero del Rey (Lugo)	
21	Pozo García, Lorenzo del	Abades (Segovia)	América infanteria-erreg. 23. kon.
22	Raposo Vázquez, Ramón	Sobrado (Coruña)	América infanteria-erreg. 23. kon.
23	Retegui Sagastibeltza, Domingo	Leitza (Nafarroa)	
24	Río Borobia, Victoriano del	Cortes (Nafarroa)	
25	Rubio Hernández, Victorino	Villaban (?) de Rioja (Logroño)	América infanteria-erreg. 23. kon.
26	Uribarren Altuna, León	Arrasate (Gipuzkoa)	Zumalacárregui tertzioa
27	Vargas Serrano, Lucilo	Pinillos de los Mazos (Burgos)	Artilleria arineko 12. erreg.
28	Zabaleta Cetán, Juan	Leitza (Nafarroa)	América infanteria-erreg. 23. kon.

3.6. Biktima guztien zerrenda

Proiektu honen helburu garrantzitsuenetako bat gerraren zentzugabekeria pairatu zuten biktima guzti-guztien zerrenda egitea da, dudarik gabe, inolako bereizketarik egin gabe. Zerrenda hori osatu ahal izateko, ikerketa eta bilketa lan handia egin da artxiboetan, hango eta hemengo argitalpenak kontsultatu dira eta, elkarrizketen bidez, zenbait pertsonaren lekukotasunak jaso dira. Hasieran ez genuen uste zifrak hain handiak izango zirenik, baina ikerketak aurrera egin ahala, zenbakiak era adierazgarrian gizentzen hasi ziren. Guztira 78 dira Aretxabaletarekin harreman zuzena duten biktimak, egiaztatu ahal izan dugunez.

Zerrenda osatzeko orduan, bi irizpide hartu ditugu kontuan: jatorria eta auzotasuna. Hau da, zerrenda horretan dauden pertsona guzti-guztiak Aretxabaletan jaio ziren –edo, bertan jaio ez baziren, bertan bizi izan ziren– eta gatazka horretan hil ziren. Gauzak argitze aldera, sailkapen hau egin dugu:

1. Frontean hildako erreketekak eta soldaduak, Francoren alde mobilizatuak (14).
2. Errepublikanoen bortizkeria iraultzailearen eraginez hildakoak (8).
 - 2.1. Gatibualdian hildako tradizionalistak -3-.
 - 2.2. Errepublikanoen atzeguardian hildakoak -1-.
 - 2.3. Apaizak eta Elizaren martiriak -4-.
3. Frontean hildako gudariak eta milizianoak (20).
4. Desagertutako gudariak eta milizianoak (4).
5. Espetxe frankistetatik igarota hildako gudariak eta milizianoak (5).
6. Indarkeria frankistak fusilatutakoak (12).
7. Bigarren Mundu Gerran hildakoak (2).
8. Biktima zibilak (13).

Biktima bakoitzaren biografia labur bat ere egin dugu. Familia-datuak eskuratzeko, hiru iturritara jo da: parroikiko artxibora, elizbarrutiko artxibora eta erregistro zibiletara; eta falta ziren datuak osatzeko, 1935eko abenduko 31ko udal erroldara. Hori dela eta, barkamena eskatu nahi dugu norbait ahaztu badugu, edo datetan okerriki egin badugu. Horrekin guztiarekin eta beste artxibo batzuen ekarpenarekin, gure helburu bakarra egia pixka bat gehiago hurbiltzea izan da. Biktimetako batzuk gerra zibila bukatu ostekoak dira, gerraondokoak alegia, baina komenigarria iruditzen zaigu haiek ere biktimen artean sartzea, gerra haren historiaren luzapenaren ondorioak jasan zituzten neurrian. Haien biografiak irakurtzean, hobeto ulertuko da zergatik sartu ditugun zerrendan.

Gerrak gogorrako kolpatu zituen familia batzuk, beste batzuk baino: Peña-Etxeberria, Alberdi-Zeberio, Arregi-Garai eta Garai-Elcorobarrutia familiek, adibidez, bina seme galdu zituzten, eta Sauquillo-Etxebarria familiak hiru. Eta udaletxeko idazkariak, Ignacio Usandizaga Loidi jaunak, alaba eta arreba galdu zituen.

Zenbakien azterketa hotzaren atzean, bidegabeki desagertutako izen bat dago beti, pertsona bat, bizitza bat, ahaide askori oraindik ere haren galeraren zauria erabat ixtea eragozten diena.

3.6.1. Frontean hildako erreketekak eta soldaduak, Francoren alde mobilizatuak

Guztira hamalau aretxabaletar hil ziren bando frankistaren frontean. Horietako batzuk beren borondatez joan ziren frontera, erreketek boluntario gisa, ideia karlistak defendatzera: Pablo Etxeberria Garai, adibidez, Zumalakarregi Tertzioko kide izan zen eta Ambrosio eta Andres Garai Elcorobarrutia anaiak eta Ricardo Zubizarreta Garai, berriz, Arabako Erreketekoak. Gainerako hamarrek gogoz kontra joan behar izan zuten, soldadu gisa mobilizatuta. Leandro Zubizarreta Oquina soldadutza egiten ari zen Francoren altxamendua izan zenean; bera izan zen Espainiako Gerra Zibilean hildako lehen aretxabaletarra. Gainerako bederatziak Aretxabaletan geratu ziren frankistek herria hartu zutenean; haietako lau soldadutzara deitu zituzten: Ciriaco Garciaetxabe Beitia, Jose Peña Etxeberria, Teodoro Uribe-Etxebarria Barrena eta Pedro Zugasti Erostarbe; gainerako bostak, Felix Altube Uribe-Etxebarria, Enrique Gastañaga Eriz, Teodoro Uribe-Etxebarria Isasi-Isasmendi, Julian Zalloña Zenitagoia eta Severiano Zubizarreta Berraondo, Leintz Ibarreko Euskal Milizietan (*Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitza* delakoan) izena emanda zeuden jeltzaleak, derrigortuta joan ziren frontera.

Honela kalifikatu zuen frankismoak haien heriotza: “Sacrificados gloriosamente por Dios y por la Patria” (hau da, Jainkoaren eta Aberriaren alde aintzaz beterik sakrifikatuak); erreketek honela: “Caidos por Dios, por la Patria y el Rey” (hau da, Jainkoaren, Aberriaren eta Erregearen alde eroriak); eta mobilizatutako soldaduena, honela: “Caidos por Dios y por España” (hau da, Jainkoaren eta Espainiaren alde eroriak).

• Altube Uribe-Etxebarria, Félix

1911ko martxoan jaioa. Goroeta auzoko (Aretxabaleta) Arane baserrikoa. Haren gurasoak: Cecilio Altube Errasti (1875) eta Maria Uribe-Etxebarria Bengoa (1878). Anaia-arrebak: Francisco (1903), Pilar (1913), Ramon (1916) eta Pedro (1919). Egoera zibila: ezkongabea. Lanbidez baserritarra.

Leintz Ibarreko Euskal Milizietan (*Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitza* delakoan) sartu zen 1936ko irailaren erdialdean. Aretxabale-tan gelditu zen frankistak sartu zirenean, eta mobilizaturik, frontera bidali zuten soldadu. Burgosko Artilleria Arineko 11. Erregimentuan sartu zuten. Pedro Obregon koronelak, 1939ko maiatzaren 11n, Aretxabale-tako alkateari igorritako jakinarazpen ofizialak honela dio¹⁶⁸:

Jakinarazten dizut ezen, Heliodoro de la Torre sarjentua galde-taturik Félix artillaria zenaren heriotza eragin zuten zer-nolakoen ingu-ruan, berau borrokan hil zela, tanke-granada batek jota, 1937ko uztaila-ren 10ean, Villanueva del Pardillo inguruan (Brunete aldean).

1932ko bigarren soldadualdiko artillaria. Hogeita sei urte zituen. Desagertutzat jo zuten.



Félix Altube Uribe-Etxebarria

• Etxeberria Garai, Pablo

1915eko abenduaren 31n jaioa. Galartza auzoko (Aretxabaleta) Perurena (Kukuzulo) baserrikoa. Ha-ren gurasoak: Timoteo Etxeberria Lasagabaster (1868) eta Faustina Garai Elespuru (Gellao, 1872). Anaia: Narciso (1894). Anaiaren etxean bizi zen, haren emazte Felisa Bengoa Ibabe (Aramaio, 1897) eta haien zor-tzi seme-alabekin: Anastasio (1922), Modesta (1924), Jose Maria (1927), Eugenia (1928), Jose Luis (1930), Juan (1931), Pedro (1933) eta Maria Angela (1935). Egoera zibila: ezkongabea. Lanbidez baserritarra.

1936ko soldadualdikoa. Zumalakarregi Tertzioko 2. konpainian sartu zen boluntario, erre-kete gisa. Aurrerago, Zumalakarregi Tertzioak, Montejuirra Tertzioarekin bat eginik, Nafarroako 1. Dibisioa osatu zuen. Asturiasko frontean zauritu zuten 1937ko irailaren 8an, Cuerako mendilerroaren inguruan.

1938ko ekainaren 30an hil zen, Castello-ko frontean, hogeita bi urte zituela. Haren erre-kete-taldeko kapitainak, Daniel Mugarza Mecolalde oñatiarrak, honela utzi zuen idatzita bere gudu-egunkarian¹⁶⁹:

[...] hilaren 29an aurrera jo genuen, Mijares ibaia gurutzatu eta bestaldeko mendiak okupatuta. Biharamunean, hilaren 30ean, gorrien kontraeraso batean, falangistek inguru-etako mendi bat galdu zu-ten eta gorriek berreskuratu gure oihuen artean. Gutako bat hil zen. Uztailaren lehenean, aurrera ja-rraitu genuen, Espadan mendietara bidean.

• Garai Elcorobarrutia, Ambrosio

1915eko martxoaren 20an jaioa. Galartza auzoko (Aretxabaleta) Basterralde baserrikoa. Haren gurasoak: Jose Garai Bergara (1875) eta Petra Elcorobarrutia Eraña (1876). Anai-arrebak: Andres (1906), Pio (1912), Marina (1913), Pru-dencio (1917) eta Antonia (1919). Egoera zibila: ezkongabea. Lanbidez baserritarra.

Boluntario sartu zen Arabako Errekete-an, 1936ko abuztuaren 26an. Legutioko guduan, zangoan eta bizkarrean zauritu zuten —aurre-raxeago ikusiko dugun bezala, haren anaia An-dresek bizia galdu zuen gudu horretan bertan—, eta Gasteizko Apaizgaitegiko Odol Ospitalean

Ambrosio Garai Elcorobarrutia (AAT)



sartu zuten. Egun batzuk geroago, Irungo ospitalera eraman zuten, metrailak ezkerreko izterrean eragindako zauriak sendatzera.

1938ko abuztuaren 11n, berriro zauritu zuten, larri zauritu ere, Pandols mendietan (Ebro aldean). Biharamunean hil zen Horta de San Juaneko (Tarragona) ospitale militarrean, bizkar eta gerri aldean zituena zauri larrien ondorioz. Haren gorpua Aretxabaletara eraman eta Galartzako hilerrian lurperatu zuten, 1938ko abuztuaren 19an.

Lehenago, 1938ko ekainaren 25ean, kabo mailara goititu zuten, gerran egindako merezimen-
duengatik.

• Garai Elcorobarrutia, Andrés

Ambrosioren anaia zaharra. Anaia bezala, boluntario sartu zen Arabako Erreketeen, egun berean. 1936ko abenduaren 2an hil zen, Legutioko frontean. Gasteizen lurperatu zuten.

Andrés eta Ambrosio hogeita hamar eta hogeita lau urterekin hil ziren hurrenez hurren.

• Garciaetxabe Beitia-Larringoitia, Ciriaco

1918ko martxoaren 16an jaioa. Etxebarri auzoko (Aretxabaleta) Antxustegi baserrikoa. Haren gurasoak: Pedro Garciaetxabe Beitia-Larringoitia (1881) eta Benita Beitia-Larringoitia Altube (Untzilla, 1884). Anaia-arrebak: Ventura (1908), Valentina (1910), Marcos (1912), José (1915) eta Tomasa (1920). Egoera zibila: ezkongabea. Lanbidez baserritarra.

1939ko soldadualdikoa. Logroñoeko 24. Bailen Infanteria Erregimentuko 4. batailoiko 4. konpainian sartu zuten. 1938ko apirilaren 12an hil zen, Castelloko frontean, hogeitaz gora zituela.

• Gastañaga Eriz, Enrique

1912ko martxoan 24an jaioa. Isurieta auzoko (Aretxabaleta) Ametsagagoikoa baserrikoa. Baserrian bertan bizi zen, aitona, guraso eta anaia-arrebekin. Enrique Gastañaga Ugalde (1856) zuen aitona; gurasoak, Juan Gastañaga Idigoras (1887) eta Lucia Eriz Leibar (1886); eta anaia-arrebak, Daniel (1915), Eusebio (1919), Francisco (1924) eta Isabel (1928). Egoera zibila: ezkongabea. Lanbidez baserritarra.

Leintz Ibarreko Euskal Milizietan (*Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitza* delakoan) sartu zen aurrea. Indar frankistak sartzean, Gasteizko 2. Mendiko Artilleria Erregimentura bidali zuten.

1936ko abenduaren 11n, zaurituta suertatu zen Legutioko frontean, eta bertako ospitale militarrean eraman zuten. Biharamunean hil zen, artilleria etsaiak eragindako metraila zaurien ondorioz. Gerra fronteko hilerrian lurperatu zuten. Hogeita lau urte zituen.

• Peña Etxeberria, José

1917ko martxoaren 29an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Otalora kaleko 7an. Haren gurasoak: Nicolas Peña Irizar (1888) eta Luisa Etxeberria Aldanondo (Legazpi, 1891). Anaia-arrebak: Juan (1912), Lucia (1914), Jesus (1914), Isabel (1916), Maria (1918), Lorenzo (1919), Maria Cristina (1921), Natividad (1923), Rufino (1925) eta Concepcion (1927). Familia Otalora kaleko 24an bizi zen, bi etxebizitzetan banatuta, Jose Etxeberria Aldanondorekin (Legazpi, 1879), amaren anaiarekin, batera. Egoera zibila: ezkongabea.



Andrés Garai Elcorobarrutia



Enrique Gastañaga Eriz

José Peña Etxeberria



Industrias Beroa lantegian lan egiten zuen, eskulangile gisa. Haren aita, Nicolas, langileburu zen lantegi horretan bertan, eta anaia Jesusek eta arreba Maria Cristinak bulegoetan egiten zuten lan.

Gudaroste frankistak Aretxabaleta hartu zuenean, 1936ko irailean, bera bertan gelditu zen. 1937ko udaberrian, bere soldadualdikoek (1938) soldadutzarako deia jaso zuten, eta bera Iruñeko 23. Amerika Infanteria Erregimentuan sartu zuten. Urte horretako bertako uztailaren 31n, A Coruña bidali zuten, 29. Zamora Infanteria Erregimentuko bederatzigarren batailoiko hirugarren konpainiara.

Asturiasko frontean hil zen, Mereko mendiak okupatzeko gudaldian, eta Llanesen bertan lurperatu zuten, 1937ko irailaren 22an. Hogei urte zituen.

• Uribe-Etxebarria Barrena, Teodoro

1916ko abenduaren 6an jaioa. Aozaratza auzoko (Aretxabaleta) Zuatzubizkar baserrikoa. Haren gurasoak: Jose Uribe-Etxebarria Zubizarreta (Aozaratza, 1871) eta Maria Blasa Barrena Zubia (Araotz, 1884). Arreba bat zeukan: Juana (1918). Egoera zibila: ezkongabea. Lanbidez baserritarra.

1936ko urriaren 14an soldadutzarako deia jaso ondoren, Zaragozako 5. Zulatzaile-Meatzarien Batailoian sartu zuten. Bere taldeko kapilauaren adierazpenaren arabera, 1938ko martxoaren 3an hil zen, goizeko zortzietan, Gea de Albarracineko (Teruel) ospitalean, Muleton (Teruel) izeneko muinoan lehertutako granada batek eragindako zaurien ondorioz. Hogeita bat urte zituen.

• Uribe-Etxebarria Isasi-Isasmendi, Teodoro

1912ko irailean jaioa. Goroeta auzoko (Aretxabaleta) Urkulu baserrikoa. Haren gurasoak: Jose Joaquin Uribe-Etxebarria Urzelai (1877) eta Catalina Isasi-Isasmendi Urrutia (1880). Anaia-arrebak: Mariano (1908), Angel (1910), Aniceta (1915), Juana (1918), Basilia (1920) eta Celestino (1925). Egoera zibila: ezkongabea. Lanbidez baserritarra.

Leintz Ibarreko Euskal Milizietan (*Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitza* delakoan) izena emana zuen, frankistak Aretxabaletan sartu baino lehen. Ez zuen herritik alde egin, eta soldadutzarako deia jaso ondoren, Gasteizko 2. Mendiko Artilleria Erregimentura bidali zuten.

Bere erregimentuko koronelak jakinarazpen honen bidez eman zuen haren heriotzaren berri¹⁷⁰:

Darocako Ospitale Militarren Zuzendariak jakinarazi didanez, joan den urtarrilaren 26an, TEODORO URIBEECHEVARRIA ISASMENDI soldadua bertako Ebakuntza Gelan hil zen, hegazkinen bonben metrailak eragindako zaurien ondorioz.

1938ko urtarrilaren 26an hil zen, Darocan (Zaragoza), eta bertan lurperatu zuten. Hogeita sei urte zituen.

• Zaloña Zenitagoia, Julian

1913ko otsailaren 17an jaioa. Galartza auzoko (Aretxabaleta) Zaloñagoikoa baserrikoa. Haren gurasoak: Martin Zaloña Zabala (1870) eta Lina Zenitagoia, hilda jada. Aita bigarren aldiz ezkondu zen, Bernarda Bolinaga Martinez de Ygiduearekin (1879). Anaia bat zuen: Leandro (1915). Egoera zibila: ezkongabea. Lanbidez baserritarra.

Inguruko beste gazte asko bezala, Leintz Ibarreko Euskal Milizietan sartu zen, *Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitza* delakoan. Ez baitzen Aretxabaletatik atera, soldadu deitu zuten Gasteizko Flandes 5. zenbakiko bigarren Mendi Batailoiko 4. Konpainiara.

1937ko urriaren 14an, Tolosako (Gipuzkoa) ospitale militarrean sartu zuten, metrailak zango-izterretan eragindako zauriak zirela eta (zauri ez hain larriak, diagnostikoaren arabera). 1938ko irailaren 8an hil zen, Ebroko frontean (Gandesa aldean), Vallabako herrian (Tarragona), gerra ekintzan, eta Bateako (Tarragona) hilerrian lurperatu zuten: 2. bis zanga-zuloan, 30. hilobian. Gero, gorpua handik atera eta Aretxabaletara eramanik, Galartzako hilerrian lurperatu zuten, 1938ko irailaren 17an. Hogeita bost urte zituen.

• Zubizarreta Berraondo, Severiano

1914ko azaroaren 8an jaioa. Isurieta auzoko (Aretxabaleta) Olabena baserrikoa. Haren gurasoak: Bernardo Zubizarreta Mugica (1889) eta Andresa Berraondo Garai (Angiozar, 1887). Anaia: Pedro (1916), Enrique (1919), Antonio (1921) eta Raimundo (1929). Baserrian bizi ziren, halaber, aitona Gregorio Zubizarreta Arana (1853), osaba Gregorio Zubizarreta Mugica (1906), izeba Benita Zubizarreta Mugica (1888), eta apaiza, Francisco Zaloña Zabala (1877). Egoera zibila: ezkongabea. Lanbidez baserritarra.

Inguruko beste gazte asko bezala, bera ere Leintz Ibarreko Euskal Milizietan sartu zen, *Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitza* delakoan, eta soldadutzarako deia jaso zuen gero. Logroñoko 24. Bailen Infanteria Erregimentuan sartu zuten lehendabizi, eta Iruñeko 23. Amerika Infanteria Erregimentuan gero.

Durangoko Odol Ospitalean hil zen, 1937ko ekainaren 18ko gaueko hamabietan, gerra zaurien ondorioz. Isurietako hilerrian lurperatu zuten, urte bereko ekainaren 21ean. Hogeita hiru urte zituen.

• Zubizarreta Garai, Ricardo

1909ko ekainean jaioa. Isurieta auzoko (Aretxabaleta) Isurietazpikoa baserrikoa. Haren gurasoak: Pedro Zubizarreta Mugica (1872) eta Vicenta Garai Bergara (1882). Anaia-arrebak: Jacinto (1913), Paula (1915), Jesusa (1917), Eugenio (1919), Jose Maria (1921) eta Alejandro (1923). Egoera zibila: ezkongabea.

Boluntario sartu zen Arabako Erreketeen. 1936ko abenduaren 22an hil zen, Eribeko posizioan areioarekin izandako tiroketa batean. Gasteizko hilerrian lurperatu zuten. Hogeita zazpi urte zituen.

• Zubizarreta Oquina, Leandro

1914ko martxoaren 13an jaioa. Areantza auzoko (Aretxabaleta) Bolinagazpikoa (Bolinaga) baserrikoa. Haren gurasoak: Eladio Zubizarreta Leibar (1881) eta Maria Oquina. Anaia-arrebak: Josefa (1909), Miguel (1911), Julia (1917), Mercedes (1919), Maria (1923) eta Francisco (1926). Egoera zibila: ezkongabea.

Gerra Zibileko lehen biktima izan zen Aretxabaletan. Militarrek matxinatu zirenean, soldaduska egiten ari zen. Logroñoko 24. Bailen Infanteria Erregimentuan sartu eta lehendabiziko fronteetako batera bidali zuten berehala. 1936ko uztailaren 24an hil zen, Somosierrako guduan (Madril). Hogeita bi urte zituen.

• Zugasti Erostarbe, Pedro

1913ko otsailaren 22an jaioa. Areantza (Aretxabaleta) auzoko Mitarteandikoa baserrikoa. Haren gurasoak: Francisco Zugasti Elcorobarrutia (1870) eta Micaela Erostarbe Uribe-Etxeberria (1874). Anaia-arrebak: Eugenio (1899), Faustina (1905), Juan (1910) eta Felix (1915). Egoera zibila: ezkongabea. Gidaria lanbidez.

Gasteizko 2. Mendi Artilleriako 2. Erregimentuko soldadua. Oiartzungo udal epailearen mezuaren arabera¹⁷¹:

Paguachiqui-ko [sic] lepoan hil zen, 1936ko abuztuaren 21ean, goizeko hamarrek eta zortzietan, granada baten leherketak eragindako zaurien ondorioz, mediku-agiriaren arabera, eta haren hilotza Oiartzungo hilerrian lurperatua izan da.



(1) Leandro Zubizarreta Oquina

3.6.2. Errepublikanoen bortizkeria iraultzailearen eraginez hildakoak

Ez Errepublikaren gobernua, ez legezkotasun politikoa nagusitu zen herrietan sortu ziren Tokiko Juntak edo Batzordeak, ez ziren gai izan han-hemenka piztu zen indarkeria menderatzeko. Indarkeria eta errepresio frankista ez bezala, gudarosteak aurkaria desagerrarazteko asmo garbiarekin antolatua eta armada-buruen aginduz gauzatua, indarkeria errepublikanoa beren kasa aritu ziren miliziano-taldeek kon-tua izan zeni. Esan liteke errepresio frankista aurrez pentsatua, nahita egina izan zela neurri handi batean, are buruzagiek aldeaz aurretik aztertua ere; aldiz, indarkeria errepublikanoa kontrolik gabeko taldeen iza- era iraultzaileago baten ondoriozkoa izan zen. Talde errepublikano erradikal horiek gatazka armatuaren lehen hilabeteetan gailendu ziren batez ere, beren ideologia politikoaren aurka zegoen gizartearen zati hori —apaizak, abokatuak, eskuineko politikariak, ugazabak, jauntxoak...— jopuntuan harturik. Gerraren le- hen egunetako botere-hutsuneak erraztu egin zuen indarkeria iraultzailea horren sorrera —*checa* eta *saca* delakoekin erdietsi zuen indarkeria horrek bere mailarik gorena—. Aurrerago, agintari errepublikanoek He- rri Auzitegiak sortu zituzten arazo horri konponbidea emateko.

3.6.2.1. Gatibualdian hildako tradizionalistak

Aretxabaletako Defentsa Batzordeak Errepublikaren kontra zeuden zenbait pertsona —karlistak eta tradizionalistak, gehienak— atxilotu eta Bilbora eraman zituen. Tradizionalista horietako hiru gatibualdian hil ziren: Fortunato Aguilar eta Domingo Zuazua gaixotasunez hil ziren, eta Emilio Saiz Barco, berriz, Bil- boko espetxeen kontrako erasoan.

• Aguilar Sologaistoa, Fortunato

1895eko urriaren 14an jaio zen, La Pola de Gordon (Leon) herrian. Nicasia Galdos Guruceta zuen emaztea, eta Aretxabaletako Durana kaleko 12an bizi zen. Postaria zen lanbidez.

Defentsa Batzordeak atxilo hartu eta Bilbora eraman zuen preso. 1936ko abenduaren 28an hil zen, Basurtoko ospitalean, gaixotasunak jota. Berrogeita bat urte zituen.

• Saiz Barco, Emilio

1871ko abenduaren 28an jaio zen, Mamolar (Burgos) herrian. Durana kaleko 15ean bizi zen. Emaz- tea Carmen Nuño Fernandez zuen (La Felguera, 1874). Seme bat: Jose. Lezamako ijeketa-lantegian lan egiten zuen tornulari gisa.

Defentsa Batzordeak atxilo hartu eta Bilbora eraman zuen preso. Aingeru Zaindarien espetxearen aurkako erasoan hil zen, 1937ko urtarrilaren 4an. Hirurogeita bost urte zituen.

• Zuazua Zanguitu, Domingo

1868 apirilaren 17an jaio zen, Aretxabaletan (Gipuzkoa). Haren gurasoak: Manuel Zuazua Elcoro- barrutia (Galartza, 1828) eta Joaquina Zanguitu Agirre (Oñati, 1845). Concepcion Arkauz Bengoarekin ez- kondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten: Teodoro, Natividad eta Joaquina. Alargundurik, bigarren al- diz ezkondu zen, Leona Arana Garairekin. Mitarte kalearen 8an bizi zen. Hargin maisua zen lanbidez.

Katoliko eta tradizionalista sutsua zen. Defentsa Batzordeak atxilo hartu eta Bilbora eraman zuen preso. Gaixotasunez hil zen, 1936ko urriaren 10ean, Aranguren Doktoarearen klinikan. 68 urte zituen. Vista Alegreko hilerrian lurperatu zuten. 1944ko azaroaren 12an, familiak sorterrian zuen hilobira eraman zituen haren gorpuzkinak.

3.6.2.2 Errepublikanoen atzeguardian hildakoak

Madriren, militarrek matxinatu eta egun gutxira, kontrolik gabeko miliziano-taldeak Errepublika- ren kontra jardundako epaile eta abokatuen bila ibili ziren, haiek atzeman nahian.

• Valentin Gamazo, Marcelino

Pertsona hau erabat oharkabeen igaro da Aretxabaletako historian eta guztiz ezezaguna da gehienentzat. Herriko beste pertsona ospetsu batzuk bezala, XIX. mendearen bukaeran bertako bainuetxeek erakarrira etorri ziren familietako bateko semea zen.

Aretxabaletan jaio zen, 1879ko abuztuaren 14an. Haren aitak, Hermógenes Valentín Gutiérrez, Zaratán (Valladolid) herrian jaioak, mediku eta zuzendari gisa lan egiten zuen Jardín de Otalora izeneko bainuetxean; ama, Emilia Gamazo Calvo, Boecillo herrikoa zen, Valladolideko probintziakoa hori ere¹⁷².

Valladolideko Institutuan batxiler ikasketak egin ondoren, Madrileko Unibertsitate Zentraleko Zuzenbide fakultatean sartu zen, eta 1900eko uztailaren 3an abokatu lizentzia lortu zuen, bikain kalifikazioarekin¹⁷³.

1935eko azaroaren 16an, Niceto Alcalá Zamorak Errepublikaren Fiskal Nagusi izendatu zuen. Hiru egun geroago hartu zuen kargua, azaroaren 19an, hain zuzen. Aretxabaletako udalbatzak, José María Amuriza buru zuela, lerro hauen bidez zoriondu zuen fiskal berria¹⁷⁴:

Azkenik, Udalbatza honek, jakinik Errepublikaren Fiskal Nagusi izendatu berri dutela Marcelino Valentin Gamazo jauna, sortzez Aretxabaletakoa, aho batez erabaki du zorionik bero eta zintzoenak helaraztea hari, eta idatziz jasota uztea poz handiz hartu duela bere semeetako bat, bere merezimen-
duengatik, Errepublikako kargurik gorenetakoa batekin ohoratua izana.

Auzitegi Gorenean aurrera eramanean jardun judizialak, Francisco Largo Caballero sozialistak 1934ko Urriko Iraultzan izandako jokabidea salatuz, dimisioa ematera behartu zuen. Urte horretako bertako abenduaren 24an onartu zioten dimisioa¹⁷⁵.

1936ko abuztuaren 5ean, Rubielos Altosen, Cuencako probintzian, zeukan landetxean zegoela, miliziano-talde bat sartu zitzaion etxean. Etxea miatu eta bertan aurkitu zituzten objektu erlijiosoak puskatu ondoren, kolpeka hasi zitzaizkion seme txikien aurrean. Gero, bere semeetako hirurekin batera handik eramanean eta, gaueko hamabietan, Tebar udalerrian, Cerrajon izeneko toki batean, denak fusilatu zituzten. Semeek, José Antonio, Javier eta Luis izenez, hogeita bat, hogeita eta hamazazpi urte zituzten hurrenez hurren¹⁷⁶.

Narcisa Fernandez y Navarro de los Pañosekin ezkondua zen, Rubielos Altosko elizan, 1912ko urriaren 5ean. Bederatzi seme-alaba izan zituzten.

3.6.2.3. Apaizak eta Elizaren martiriak

Indarkeria iraultzailearen beste ataletako bat apaizen aurkako jazarpenak izan ziren. Komentu, eliza eta eskoletako ondasunen konfiskazioari, erakundeetako kideen atxilotetek jarraitu zioten, antikerrikalez osatutako hordek bultzaturik.

Lau dira apaizen kontrako jazarraldietan hildako aretxabaletarrak. Horietako hiru, Sabino Aiaitui, Carlos Eraña eta Miguel Leibar, marianistak ziren, Aozaratzakoak hirurak; bestea, Rufino Antxia, Bedoñakoa jaiotzez, frantziskotarra. Laurak Euskal Herrikan kanpora igorri zituzten eta beren kabuz justizia egin zuten miliziano-taldearen eskuetan hil ziren laurak.

Eliza Katolikoak, martiritza-prozesuen inguruan egin beharreko azterketak egin ondoren, hiru marianistak dohatsu aitortu zituen. Carlos Eraña 1995eko urriaren 1ean egin zuten dohatsu, bera bezala marianistak ziren Fidel Fuidio eta Jesús Hitarekin batera. 2007ko urriaren 28an, dohatsu aitortu zituzten Espainiako Gerra Zibilean martiri hildako 498ko erlijioso, horien artean Miguel Leibar eta Sabino Aiaitui aretxabaletar marianistak.

Baina Eliza espainiarrak ez zien, ez tratu bera eskaini, ez aitorten bera egin frankismoaren biktime erlijiosoei. Faxistek joera nazionalistako 16 apaiz hil zituzten Euskal Herrian¹⁷⁷. Isiltasuna eta ahanztura izan zen Espainiako eliza hierarkiak horren inguruan emandako erantzuna bakarra.

Euskal Elizak hileta-elizkizun bat egin zuen 2009ko uztailaren 11n, Gasteizko Katedral Berrian. Gerra Zibilean hildakoen eta bereziki fusilatutako apaizen omenezko elizkizun bateratu hartan, justizia-ekin-tza baketzaile eta adiskidetzaile bat egiteko aukera izan zen behintzat, gizarteak eta Elizak 1936-1937 ur-

Fusilatutako
marianistak



teetan pairatu zituzten gertaera mingarri haien oroitzapena garbitzeko eta aldi berean egiari zerbitzu egiteko asmoz. Tenplua jendez lepo zegoela, Aretxabaletako elizako abesbatzak animatu zuen liturgia¹⁷⁸. Hirurogeita hamahiru urte igaro behar izan dira aitorten hori egiteko. Hala ere, Espainiako Gotzainen Batzarreko gotzainen artean badira oraindik ere ildo horrekin bat ez datozenak.

• Aiastui Errasti, Sabino

1911ko abenduaren 26an jaioa. Aozaratza (Aretxabaleta) auzoko Otarazelai baserrikoa. Haren gurasoak: Eulogio Aiastui Uribe-Etxebarria (Aozaratza, 1873) eta Matiasa Errasti Alzola (Aozaratza, 1875). Zortzi senide ziren: Pablo (1897), Gregorio (1899), Marcelina (1902), Martin (1904), Julian (1907), Antonio (1909), Sabino (1911) eta Seberiano (1914).

Haurretan, 10 urte besterik ez zituela, Eskoriatzako Marianisten ikastetxean sartu zuten. 1922ko irailaren 28a zen. Han, bost urte igaro zituen, ikastetxeko zuzendari Francisco Lasagabaster jaunaren ardurapean. Gero, 1927 eta 1928 artean, Elorriora joan zen, nobiziotzako ikasketak egitera. Behin nobiziotza bukatuta, marianisten kongregazioak Gasteizera bidali zuen, unibertsitate-ikasketak egitera, baina Gasteizen ikasle guztiak hartzeko nahiko tokirik ez nonbait eta, 1929ko irailaren 6an, Segoviara bidali zuten. Segoviako Institutuan eta Valladolideko Unibertsitatean egin zituen ikasketak, harik eta 1931ko ekainean batxiler titulua eskuratu zuen arte.

Haurren irakaskuntzan aritu zen lanean, aurrena Donostian (1932-1933), gero Eskoriatzan (1933-1935) eta geroago Madrilén (1935-1936). Irakaskuntzan jarduteaz gainera, Historiako lizentzia-ikasketak prestatzen aritu zen, Zaragozako eta Madriléko Unibertsitatean eskola libreak emanez¹⁷⁹.

1936ko uztailaren 18an, Madrilén zegoen, iraileko azterketak prestatzen. Miliziano-taldeak oldarka sartu ziren hiriburuko komentu, eliza eta ikastetxe erlijiosoetan. Uztailaren 20an, Florencio Arnaiz eta Joaquín Ochoa anaia marianistekin batera, bi ahizpa ezkongabe – Bazan Brig andereñoak – bizi ziren etxe batean hartu zuen babesa. Indarkeria errepublikanoaren zurrunbilotik ihesi zebiltzan bi domingotar gehitu zitzaizkien gero: aita Manuel Álvarez eta anaia Teófilo Montes. Irailaren 13an etxeko atezainak salatu zituen eta San Bernardo kaleko 72an zegoen Radio Comunista del Oeste izeneko *checara* eraman zituzten bostak. Bahitua izan baino lehen, bisitazioko mojen komentua izan zen etxe hura, eta Sabinok lehengusina erlijioso bat zeukan han. 1936ko irailaren 14an, goizeko ordu biak edo hirurak aldera, bost apaizak fusilatu eta El Pardora doan errepedeko bazter batean botata utzi zituzten haien gorpuak, San Fernando zubiaren ondoan.

Gerra amaitzean, haren anaia batek, Seberiano Aiastuik, ahalegin eta bost egin zituen anaiaren gorpuak berreskuratu eta identifikatu ahal izateko.

• Antxia Etxebarria, Rufino

1891ko azaroaren 16an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) San Martin auzoko bosgarrenean, hirugarren solairuan. Haren gurasoak: Andres Antxia Iñurrategi (1855) eta Gregoria Etxebarria Mendieta, Bedoñan jaioa berau.

Nobizio gisa, 1906ko irailaren 17an jantzi zuen frantziskotar abitua. Profesio txikia 1907ko azaroaren 16an egin zuen eta nagusia, berriz, 1910eko azaroaren 16an. Azkenik, 1914ko uztailaren 14an, apaiz ordenatu zen.

1924an, etxeko buru zen Hellinen (Albazete), 1930an goardiano Lorcan (Murtzia), eta 1936an bikario Hellinen.

1938an, Albaceteko goardiano zela, Cartagenako frantziskotar probintzian, atxilo hartu zuten ordenako buruarekin eta beste anaia frantziskotar batekin batera trenean zihoala. Minasen, une batetik bestera fusilatuko zituztelakoan, hiltzera prestatu ziren penitentziaren sakramentuarekin. Herriko alkatea agerturik, orde, honela esan zuen: "Ez dut gizon hauek hiltzeko arrazoirik ikusten, elizgizonak izateagatik bakarrik". Abuztuaren 15a zen. Hamar egun geroago, berriro atxiloturik, Tobarrako udalerrira eraman zituzten hiltzera, Hellingo udal epaileak esku-hartzerik izan ez zezan¹⁸⁰.



Rufino Antxia Etxebarria

• Eraña Guruceta, Carlos

1884ko azaroaren 2an jaioa. Aozaratza auzoko (Aretxabaleta) Otalora baserrikoa. Haren gurasoak: Nicolas Eraña Lizarralde (Aozaratza, 1844) eta Josefa Guruceta Arriola (Gellao, 1850). Zortzi senide izan ziren guztira. Haietako bi, Ceferino (1878) eta Justo (1880), goizegi hilak. Gainerako seiak, honako hauek: Saturnino (1876), Rosa (1882), Carlos (1884), Ramona (1887), Luisa (1892) eta Agustin (1894).

Aozaratzako auzo-eskolan egin zituen lehen mailako ikasketak. 1899ko urtarrilaren 32an, hamalau urte egin berritan, Eskoriatzako marianistetan nobiziotzaurrea egiteko baimena eskatu zuen. Hiru hilabete geroago aita hil zitzaion.

1902ko irailean, Gasteizko Mariaren Konpainian sartu zen nobizio gisa. Hurrengo urtean, 1903ko irailan, lehen botoak egin zituen marianista gisa. Eskolastiko gisa jada, lehen mailako hezkuntzako irakasle, Eskoriatzara itzuli zen. 1905an Ordiziako Santa Ana ikastetxera bidali zuten irakasle gisa. Azkenik, 1908ko abuztuaren 15ean, betiko botoak egin zituen Eskoriatzan¹⁸¹.

Hogeita lau urterekin postu berria eskuratu zuen Madrilen, sorterritik urrun, erbestealdi txiki bati hasiera emanez. Aurrerago, Ciudad Realeko ikastetxeko zuzendari izan zen (1916-1927), bai eta Tetuan-Marokoko ikastetxekoa (1927-1933) eta, Madrilen berriz ere, Pilarreko Andre Mariaren ikastetxekoa ere, 1933tik heriotzak eraman zuen arte¹⁸².

1936ko uztailaren 24an, miliziano-talde batzuek Madrileko Pilarreko ikastetxea hartu zuten. Carlos Eraña bitan atxilotu zuten, eta aske utzi, gero. Ciudad Realera joatea erabaki zuen, segurtasun bila, ikasle ohiren batek aterpe eman ahal izango ziolakoan. Bidaia gorabeheratsu baten ondoren – Alcazar de San Juan-en berriro atxilotu zuten –, onik iritsi zen Ciudad Realera, azkenik, uztailaren 29an. Han, gehien nabarmentzen ziren apaiz, erlijioso eta katolikoen kontrako jazarpen giro batekin egin zuen topo. Hilabete batez luzatu zen egoera eramanezin hura. Irailaren 6an, milizianoek atxilo hartu eta Herriko Etxera eraman zuten. Hamabi egunez erabat isolatuta egon zen¹⁸³. Irailaren 18ko goizaldean, bera eta beste zazpi preso, behi-behineko presondegi hartatik atera, kamioi batera igoarazi, eta Alarcos aldera eraman zituzten, Valverdeko errepidean aurrera. Gudianaren gaineko zubitik hogeita bat metrora fusilatu, Alarcosko Andre Mariaren basilatik gertu, eta hilobi komun batean lurperatu zituzten denak.

• Leibar Garai, Miguel

1884ko otsailaren 17an jaioa. Aozaratza auzoko (Aretxabaleta) Sargarai baserrikoa. Haren gurasoak, Francisco Leibar Elcorobarrutia (Aozaratza, 1848) eta Juana Garai Amiama (Bedoña, 1851). Lau senide ziren: Juan Cruz (1877), Juana (1879), Pedro (1882) eta Miguel (1885).

Hamahiru urterekin, Eskoriatzako Marianisten ikastetxean sartu zen, nobiziogai gisa. Lau urtez bertan ikasi ondoren, 1902an, Gasteizko nobiziotegira bidali zuten eta han beste urtebete igaro zuen. 1903ko martxoaren 24an, bere lehen ogibiderako ikasketak amaituta, Eskoriatzara itzuli zen, bere prestakuntzarekin aurrera jarraitzera¹⁸⁴.

Hezitzaile gisa, Gasteizko eta Madrileko Marianisten ikastetxeetan aritu zen irakasle (1905-1912). 1909an, Filosofia eta Letretako lizentzia eskuratu zuen Madrileko Unibertsitate Zentralean, eta 1912ko uztailean, Friburgera (Suitza) joan zen, ikasketekin jarraitzera. Han, 1915eko abuztuaren 1ean, apaiz ordenatu zen.

Handik hara, Cadizko Marianisten ikastetxeko kapilau (1915), Jerez de la Fronterako San Joan Bataiatzailea ikastetxearen zuzendari (1916-1922), Gasteizko kapilau (1923-1925), eta Donostiako ikastetxearen zuzendari izendatu zuten. Azkenik, 1930ean, Madrileko Pilareko Andre Mariaren ikastetxera itzuli zen, kapilau eta irakasle gisa aritzera.

1936ko uztailaren 18an, 14 erlijioso marianista zeuden Madrileko Pilareko Andre Mariaren ikastetxean. Uztailaren 24an, ikastetxea Fronte Popularreko miliziano-talde baten esku geratu zen. Polizia-etxera eraman zituzten apaizak. Han, haien datuak hartu eta aske utzi zituzten gero. Miguel Leibarrek Probintzia Administrazioaren egoitzan hartu zuen bizilekua – Velazquez kalearen 21ean, hirugarren solairuan –, beste erlijioso batekin, Silvino jaunarekin, batera. Uztailaren 28an, Silvino jaunaren anaia laiko bat eta ikastetxeko bi langile – Meliton Diaz de Guereñu eta Fabiana Rentero – agertu ziren egoitzan bazkaltzera. Arratsaldean, Silvino eta haren anaia kalera atera ziren. Handik gutxira, miliziano-talde batzuk agertu eta Miguel eta Meliton eraman zituzten etxetik, kotxe batean sartuta; baita Fabiana ere, beste kotxe batean, Vallecas aldera. Moratalazeko larrean, Fabiana fusilatu zuten, eta aurrerago, Valentziako errepidearen 7. kilometroan, Miguel Leibar eta Meliton Diaz de Guereñu¹⁸⁵.

3.6.3. Frontean hildako gudariak eta milizianoak

Hogei dira, beren idealak eta legezkotasun politikoa defendatuz, faxisten eskuetan bizia galdu zuten gazte aretxabaletarrak. Nazionalistek eta sozialistek, joera politiko desberdinak defendaturik, batai-loi banatan eman zuten izena. Hala, batzuek, Saseta eta Amaiur batailoietan sartu zituzten beren gudariak, eta besteek, Gaztedi Sozialista Batuak organizazioko kideek, *Dragones* batailoian beren milizianoak.

Bi gerra-fronte azpimarratu beharrean gauden, bi horietan galdu baitzuten bizia gudari eta miliziano horietako gehienek. Batetik, Reinosako frontea, Sasetako gudarien hilobi izan zena, 1937ko abuztuan¹⁸⁶: Bonifacio Alberdi, Facundo Alzola eta Cándido Arregi hil ziren bertan. Bestetik, Kanpazar-Intxorta lerroko fronte madarikatua, *Dragones* batailoiko kideen hiltokia, 1936ko urrian: Vicente Aranbarri, Jose Bengoa, Cirilo Erostarbe, Obdulio Rodríguez eta Ángel Sauquilo erori ziren han. Gainerako biktimak geografian sakabanatuta aurkituko ditugu, haien batailoiek eta unitateek gerran hartutako bidearen arabera.

• Alberdi Ceberio, Bonifacio

1916ko urtarrilaren 31n jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Durana kaleko 34an. Haren gurasoak: Juan Alberdi Axpe (Gellao, 1871) eta Maria Ceberio Letona (1875). Durana kaleko 46an bizi zen, amarekin (alargundua) eta Maximo (1909), Eugenia (1911), Matilde (1913) eta Jesus (1918) anaia-arrebekin. Atari berean bizi zen, halaber, haren arreba Juana (1907), bere senar Lucas Iturbe Lopez de Aretxagarekin (Leintz Gatzaga, 1903) eta Javier (1927) eta Miren Gaztelu (1930) seme-alabekin; bai eta haren anaia Felix ere, bere emazte Luisa Bengoetxea Aiastuirekin (1906) eta seme Imanolekin (1930). Egoera zibila: ezkongabea. *Industrias Beroa* lantegian lan egiten zuen.

Leintz Ibarreko Euskal Milizietan (*Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitz*a delakoan) sartu zen eta *Saseta* batailoian eman zuen izena, gudari gisa. Reinosako (Santander) frontean hil zen, 1937ko udan, hogeita bat urte zituela.

• Alzola Murua, Facundo

1911ko azaroaren 27an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Mitarteko kaleko 2an, 1. solairuan. Haren gurasoak: Eusebio Alzola Lasa (1883) eta Margarita Murua Zugasti (Oñati, 1882). Anaia-arrebak: Jesusa (1909), Vicente (1915), Dominga (1918), Visitacion (1920), Tomas (1923) eta Francisca (1926). Egoera zibila: ezkongabea. Lezamako ijeketa-lantegian lan egiten zuen.

Leintz Ibarreko Euskal Milizietako (*Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitz*a delakoaren) kide zen eta *Saseta* batailoian sartu zen gudari. Reinosako frontean hil zen, 1937ko abuztuan. Hogeita bost urte zituen.

Patuak hala nahi izanda edo, Santiago Lombide, Zumalakarregi Terzioko erreketea, kontrako alderdian zegoen egun hartan, eta hark eman zigun Facundo Alzolaren heriotzaren berri¹⁸⁷:

Palentzia aldean ginela, abuztuaren 15ean, eraso jo eta mendi bat hartu genuen gauean. Bihamunean, sakristauak [Angel Gabilondo] esaten dit: «Hi, aretxabaletar bat hilda zegok hor, gudari bat!». Bala zauri bat zeukan hemen [sabela seinatzen du], Alzola zen, hilda zegoen. Sarjentua zen eta Hotchkiss metrailadore bat zeukan; arma kendu eta geuretzat hartu genuen.

Mendia elurretan zegoen, nola zuen izena mendiak...?, Valdecebollas, eta preso hartutako gudariak zetozen handik behera, eta haien artean Toribioren anaia bat, Jose Mari Elcoro. Ni ikustean, oiherk: «Hara, Santi da eta!». Harrituta hura, ni erreketek ikusita. Gora igo nintzen bide batetik eta eskua estutu nion. Gero, joan egin ziren [...].

• Aperribay Oquina, Ramon

1906ko abuztuaren 31n jaioa. Oro (Aretxabaleta) auzoko Estebangoa baserrikoa. Haren gurasoak: Francisco Aperribay Ortueta (Arkarazo, 1864) eta Petra Oquina Madinabeitia (Areantza, 1871). Arrasateko *Unión Cerrajera* lantegian lan egiten zuen, Anastasio eta Jose anaiekin batera. Egoera zibila: ezkongabea.

1936ko irailaren 25ean hil zen, Durangoko frontoian zegoela, bonbardaketa baten ondorioz. Bonbetako batek frontoia ezker horma jo, zulatu eta miliziano eta errefuxiatu gipuzkoar batzuen artean lehertu zen. Hamabi hildako eta zauritu asko eragin zituen¹⁸⁸. Hogeita hamar urte zituen.

• Aranbarri Villa, Vicente

1903ko urtarrilaren 22an jaio zen, Bergaran (Gipuzkoa). Aretxabaletan bizi izan zen 1932. urteaz gerostik. Ezkonduta zegoen eta Cecilia Otero Santamaria (Monzón de Campos, 1901) andrea zuen emazte. Lau seme-alaba izan zituzten: Julia (1929), Hilario (1931), Esther (1932) eta Vicente¹⁸⁹ (Bilbo, 1937). Azken hori aita hil eta hiru hilabetera jaio zen. Durana kaleko 24an bizi ziren. *Eizaguirre* lantegian lan egiten zuen, metalurgialari gisa, eta UGT sindikatuko kide zen. 1936ko martxoan, sindikatuko zuzendaritzako batzordekide zen.

1936ko urriaren 4an, bala batek larri zauritu zuen Kanpanzarreko frontean. Urriaren 5ean hil zen, zauriaren larritasunaren ondorioz, Bilboko ospitale zibilean. Derioko hilerrian lurperatu zuten. *Dragones* batailoiko 2. konpainiako milizietan kaporala izan zen¹⁹⁰. Hogeita hamahiru urte zituen.

• Arregi Garai, Cándido

1914ko irailaren 4an jaioa. Etxebarri auzoko (Aretxabaleta) Markole baserrikoa. Haren gurasoak: Lorenzo Arregi Zubizarreta (1879) eta Maria Garai Elezpuru (Gellao, 1882). Anaia-arrebak: Gregorio (1903), Alejandro (1905), Juan (1907), Antonia (1909), Matilde (1910), Bonifacia (1912), Juan Maria (1916), Luis (1918), Donato (1920), Bernardino (1922), Maria (1925) eta Asuncion (1928). Egoera zibila: ezkongabea.



Bonifacio Alberdi
Ceberio

Leintz Ibarreko Euskal Milizietan (Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitza delakoan) boluntario sartu zen gerra hasieran, eta *Saseta* batailoian gudari aritu zen gero. Reinosako frontean hil zen, hogeita hiru urte zituela.

• Bengoa Gondra, José

1913ko martxoaren 17an jaioa. Larrino (Aretxabaleta) auzoko Txareta baserrikoa. Haren gurasoak: Valentin Bengoa Velez de Mendizabal (Larrino, 1882) eta Andresa Gondra Hormaechea (Fruiz, 1884). 1924an, aita ordurako hila zela, Arrasatera bizitzera joan zen familia¹⁹¹. Bi anaia zituen: Saturnino (1909) eta Cipriano (1919).

Arrasaten, 1934ko urriko irailaren inguruko gertaeran parte hartu zuen eta auzipetua izan zen horregatik. *Dragones* batailoiko 1. konpainiako soldadu, Kanpanzarreko frontean hil zen, 1936ko urriaren hasieran. Hogeita hiru urte zituen.

• Bravo Santamaría, Saturnino



Saturnino Bravo Santamaría
eta emaztea

1904ko apirilaren 7an jaio zen, Monzón de Campos herrian (Palentzia). Haren gurasoak: Benito Bravo Porras eta Fidela Santamaría Salcedo. Erroldaren arabera, 1929an iritsi zen Aretxabaletara. Ezkonduta zegoen eta Gregoria Santos Simón zuen emaztea, Palentziako Villamuriel de Cerrato herrian jaioa. Hiru seme-alaba izan zituzten: Paula Angeles (Monzón, 1930), Eladio (1931) eta Juan Gilberto (1934). Azken biak Aretxabaletan bertan jaioak. Familia Otalora kaleko 4an bizi zen, bigarren solairuan.

Eizaguirre ("Vasco Cerrajera") lantegian lan egiten zuen, urtzaile gisa. Enpresa horrek, gero, Aretxabaletako lantegia itxi eta Lakuntzara aldatu zuen.

Saturnino Bravo, liburu honetan zehar aletuz joan den bezala, gertaera historiko honetan garrantzi eta eragin handienetakoa izan zuen pertsonaietako bat izan zen. Aretxabaletako UGTko kide zen eta sindikatuko presidente izatera iritsi zen; eta 1934ko urriko iraultza lehertu zelarik, bera izan zen iraultzaren buru nagusia Aretxabaletan. Hori dela eta, atxilo hartu eta hogeitazero kartzela-zigorra ezarri zioten. San Kristobaleko gotorlekuan egon zen preso, harik eta, 1936ko hauteskundeetan Fronte Po-

pularra garaile atera ondoren, gobernuak amnistia eman zion arte.

Defentsa Batzordeko kide nabarmenetako bat izan zen eta *Dragones* batailoiko 2. konpainian sartu zen.

1937ko apirilaren 7an, 33 urte bete zituen egunean, Zornotzako Ospitalera eraman zuten, Barazarreko frontean, gerra ekintzan jasotako bala eta metraila zaurien ondorioz. Apirilaren 9an hil zen. Zornotzako hilerrian lurperatu zuten¹⁹².

• Carmona Rodríguez, Constantino

1914ko martxoaren 23an jaio zen, Zamora probintziako Morales de Toro herrian. Haren gurasoak: Rufino Carmona Conejo eta Felisa Rodríguez Carmona. 1928an iritsi zen Aretxabaletara, anaia-arrebekin batera. Mitarteko kaleko 7an bizi izan zen, Pedro (1905), Aurelio (1912) eta Vicenta (1918) anaia-arrebekin. Etxe bereko beste etxebizitza batean, arreba bizi zen, Abilia (1909), Avelino García García *Zamoricarekin* ezkondua.

UGT sindikatuko kide gisa zuzendaritzako kide – idazkariorde, hain zuen – izatera iritsi zen. *Industrias Beroa* lantegian lan egiten zuen.

1934ko urriko iraultzako gertaeretan parte hartu zuen. Hori dela eta, atxilotu egin zuten, eta gero aske utzi zuten.



Constantino Carmona Rodríguez

Defentsa Batzordeko kide zen, miliziano gisa, eta *Dragones* batailoiko 2. konpainian eman zuen izena. 1937ko ekainean hil zen, Lemoako Haitzaren inguruko bataila odoltsuan. Egoera zibila: ezkongabea. Hogeita hiru urte zituen.

• Etxebarrieta Urbistondo, Jose Maria

1893ko urtarrilaren 24an jaio zen, Aizarnako (Zestoa) Olaondo baserrian. Haren gurasoak: Juan Jose Etxebarrieta Bideganeta (Munitibar, Arbatzegi-Gerrikaitz, 1855) eta Josefa Urbistondo Bericiartua (Zestoa, 1865). Ezkonduta zegoen eta Eustasia Oteiza Cortazar (1906) andrea zuen emaztea. Seme-alabak: Juana Beatriz (1930), Fernando (1932) eta Manuel (1934). Familia Durana kaleko 20an bizi zen, *Xoxuena* izenez ezagutzen zen etxean, Jose Mariaren ama alargunarekin, Beatriz (1910) ezkonarrebarekin eta Lucio Oteiza Cortazar (1915) ezkonanaiarekin.

Industrias Beroa lantegian lan egiten zuen, metal-leuntzaile gisa. Aretxabaletako UGT sindikatuko lehen kidea izan zen.

Dragones batailoiko 2. konpainian sartu zen. Haren ezkonanaiak, Lucio Oteizak, esan digunez, Jose Mariak heriozko zauria jaso zuen martxoaren 31ko erasoaldi frankistan, Untzillako posizioa defendatzen ari zela¹⁹³: "Nire koinatuak ez zuen han egon behar, bajan zegoen Aramaion, eta Barajuenen eta Azkoagan barrena etorri beharrean, lasterbidea hartu zuen, eta obus batek bete-betean jo zuen...". Jose Mariaren hil ondoko alabak, Begoña Etxebarrietak, heltzen dio orain kontakizunaren hariari (hura ere historia garrantz baten protagonista izatea nahi izan zuen patuak)¹⁹⁴:

Hantxe erori zen, larri zaurituta: obus bat gainean lehertu eta hankak txikitu zizkion. Santa Agatara jaitsi zuten, sorospen-postura, eta handik, anbulantzia, Basurtora eraman zuten, Bilboko ospitalera. Durangotik pasatzerakoan, bonba-eraso bat izan zela ikusi zuten; aldi berean, anbulantziei ere bonbez eraso zieten. Sorosleak anbulantzietatik atera ziren aterpe bila, baina nire aitak ezin zuen atera, hankak txikituta zituelako. Orduan, txoferra eta gainerakoak anbulantzietara itzuli zirenerako, Basurto aldera jarraitzeko, nire aita hila zen.

Basurtoko ospitalera eraman zuten gure aita, hila ordurako, eta nire ama ere, haurdun, hantxe zegoen, erditzeko prest. Hurrengo egunean ni jaio nintzen.

Jose Maria Etxebarrieta, esan bezala, 1937ko martxoaren 31n hil zen. *Vista Alegre*ko hilerrian lurperatu zuten, 21. hilobi-multzoko 100. hobian. Berrogeita lau urte zituen.

• Erostarbe Fernandez de Mendiola, Cirilo

Haren gurasoak: Rufino Erostarbe Uribe-Etxeberria (Urrexola, 1877) eta Marcelina Fernandez de Mendiola Lopez de Egileta (Uribarri Nagusia, 1881). Anaia bat zuen, Eugenio. Egoera zibila: ezkongabea.

Gerra lehertu zenean, familia Legution bizi zen, egun urtegiko uren azpian dagoen etxe batean, Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean. Bi semeak Aretxabaletara eta Arrasatera joan ohi ziren lan bila. Jose Maria Horcajada *Josetxikik*, bere memoria apartari esker, Cirilo Erostarbe, Aretxabaletan lan egiten zuen garaian, bizi zen etxeaz hitz egin digu¹⁹⁵:

Modesto del Teso eta Basilisa Sandoval senar-emazteen etxean bizi zen, haien bost seme-alabekin batera (Francisco, Ladis, Clemente, Anastasia eta Felipe), apopilo egoten zen haien etxean. Oso harreman ona zuten, beste seme bat balitz bezala tratatzen zuten. Durana kaleko 31n zegoen etxea, Kuku Lasagabasterren dendaren ondoan, eta Cirilo Erostarbek teilatupean zeukan gela.



José María Etxebarrieta
Urbistondo



Eugenio Erostarbe Fdez. de Mendiola, Ciriloren anaia

Eizaguirre lantegian lan egiten zuen, lantegiak ateak itxi zuten arte. Aretxabaletako UGTko kide zen eta sindikatuko idazkaria izatera iritsi zen 1934an.

Aretxabaletako Defentsa Batzordeko kide zen eta *Dragones* batailoiko 1. konpainian sartu zuten, ongi trebatutako arrasatear batzuekin batera.

Cirilo Erostarbe Elgetan hil zen eta haren anaia, Eugenio, Elosun¹⁹⁶.



(1) Máximo Gil Múgica

• Gil Múgica, Maximino

1911ko ekainaren 7an jaio zen, Lasarten, Gasteizko udalerrian. Haren gurasoak: Esteban eta Fidela. Egoera zibila: ezkongabea.

UGTko kide zen eta *Industrias Beroa* lantegian lan egiten zuen, hozkatzaile gisa. 1934ko urriko iraultzan parte hartu zuela eta, atxilo hartu eta hamabi urte eta egun bateko zigorra ezarri zioten. San Kristobaleko gotorlekuan egon zen preso, harik eta, 1936ko hauteskundeetan Fronte Popularra garaile atera ondoren, gobernuak amnistia eman zion arte.

Gaztedi Sozialista Batuak organizazioko kide zen, eta Defentsa Batzordean eman zuen izena, miliziano boluntario gisa. Gero, *Dragones* batailoiko 2. konpainian sartu zuten. Zornotzako frontean larri zauriturik, 1937ko maiatzaren 17an hil zen, Basurtoko ospitalean, metrailak eragindako zaurien ondorioz. *Vista Alegre*ko hilerrian lurperatu zuten. Hogeita bost urte zituen eta kaporal maila zuen.

• Lizarralde Izurrategi, Vicente

1899ko urtarrilaren 20an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Durana kaleko 3an. Haren gurasoak: Jose Lizarralde Aeta (Mendiola, 1851) eta Petra Izurrategi Azkarretazabal (Arkarazo, 1856). 1936an, Santiago Urquia Zabaleta *Urkia Txikiren* familiarekin bizi zen, apopilo gisa, Durana kaleko 35ean.

Lezamako lantegian lan egiten zuen eta Aretxabaletako UGTko kide zen; sindikatuko zuzendaritzaren bigarren batzordekide izatera iritsi zen.

Defentsa Batzordeko miliziano izan zen eta *Dragones* batailoiko 2. konpainian sartu zuten. Bizkaiko frontean hil zen, baina ez dakigu zehazki ez non, ez noiz.

• Martinez de Alegria Inurria, Jacinto

1899ko uztailaren 10an jaio zen, Gasteizen. Haren gurasoak: Millan Martinez de Alegria Garcia de Cortazar eta Deogracias Inurria Barrena. 1926ko maiatzaren 15ean, Mercedes Arberas Olazagoitia andrearekin ezkondu zen Ullibarri-Ganboan. 1936rako Ensanche auzoko 6an, Etxe Berriak deituetan, bizi zen jada, ordurako alargun, Manuel (1912) eta Pilar Martinez Quincoces (1913) eta haien ama Gabriela Quincoces Olazagoitiarekin (Gasteiz, 1884). Bi alaba zituen.

1933ko ekainean, liskar batean parte hartu zuen, Aretxabaletako udalaren osoko bilkura batean. Desordena publikoa egotzita —Pedro Jose Axpe Sagasta, Jose Sauquillo Echevarria eta Miguel Martinez Muñozekin batera—, 4 hilabete eta egun bateko atzipenaldi handiko zigorra eta 300 pezetako isuna ezarri zioten. 1934ko urriko iraultzako gertaeretan parte hartu zuen. Hori dela eta, atxilotu egin zuten, eta gero aske utzi.

Lezamako lantegian lan egiten zuen, metalurgiari gisa, UGTn afiliatua zegoen, eta idazkari izan zen 1935eko ekaineko 23an sindikatuak egindako administrazio-batzarrean.

Boluntario sartu zen, miliziano gisa, Defentsa Batzordean. 1936ko irailaren 24an, Aozaratzan, zauritu egin zuten, faxistek Aretxabaleta hartu zuten egun berean. Urriaren 10ean hil zen, Durangoko ospitalean, eta bertako hilerrian lurperatu zuten. Hogeita hamazazpi urte zituen.

• Rodriguez Lentijo, Obdulio

1914ko otsailaren 13an jaio zen, Zamora probintziako Morales de Toro herrian. Haren gurasoak: Baltasar Rodriguez Carreño (Pedrosa del Rey, 1878) eta Candelas Lentijo Garcia (Morales de Toro, 1881). Gurasoekin bizi zen Ensanche auzoko 4an, *Etxe Berriak* deituetan. Haren anaia Dionisio (1909) eta beronen emaztea, Manuela del Pozo Hernandez (1909), Morales de Torokoak biak, ondoko etxebizitzan bizi ziren. Familia osoa Aretxabaletan bizi zen 1930. urteaz geroztik. Egoera zibila: ezkongabea.

Industrias Beroa lantegian lan egiten zuen, leuntzaile gisa. UGT sindikatuko kide zen. 1934ko urriko iraultzan parte zuela eta, atxilo hartu eta hamabi urte eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zioten. San Kristobaleko gotorlekuan egon zen preso, harik eta, 1936ko hauteskundeetan Fronte Popularra garaile atera ondoren, gobernuak amnistia eman zion arte.

Gaztedi Sozialista Batuak organizazioko kide zen eta Defentsa Batzordean parte hartu zuen, miliziano boluntario gisa. Gero, *Dragones* batailoiko 2. konpainian sartu zuten. 1936ko irailaren 25ean zauritu zuten, Kanpanzarren, eta Durangoko ospitalean hil zen¹⁹⁷. Hogeita bi urte zituen.



Obdulio Rodríguez Lentijo



Ángel Sauquillo
Etxebarria

• Sauquillo Etxebarria, Ángel

1916ko otsailaren 23an jaio zen, Gasteizen. Haren gurasoak: Luis Sauquillo Ereñaga (Bilbo, 1884) eta Gabriela Etxebarria Ocio (Berganzo, 1887). Anaiak: Jose (Gasteiz, 1912), Saturnino (Gasteiz, 1914), Lucio (1923) eta Gabriel (1925). Durana kaleko 29an bizi zen familia, bi etxebizitzetan banatuta. Batean anaia zaharra bizi zen, Jose, bere emazte Rosario Samaniego Ruiz de Azuarekin (Briviesca, 1908); bestean, familiako beste kideak, Angelen amaren aldeko amona Maria Ocio Puellesekin (Berganzo, 1861). Egoera zibila: ezkongabea.

Eizaguirre ("Vasco Cerrajera") lantegian lan egiten zuen eta UGT sindikatuko kide zen. Sindikatuko batzordekideetako bat izan zen 1935eko ekainaren 23an eratu zen zuzendaritzan. 1934ko urriko iraultzako gertaeretan parte hartu zuen. Auzipeturik, hamabi urte eta egun bateko kartzela-zigorra jaso zuen. San Kristobaleko gotorlekuan egon zen preso, harik eta, 1936ko hauteskundeetan Fronte Popularra garaile atera ondoren, gobernuak amnistia eman zion arte.

Defentsa Batzordeko eta Gaztedi Sozialista Batuak organizazioko kide zen. Gero, *Dragones* batailoiko 2. konpainian eman zuen izena. 1936ko urriaren 4an, Intxorta aldean, larri zauritu zuten. Lucio Oteizak hunkiturik kontatzen digu adiskide eta borroka-lagunaren heriotza¹⁹⁸:

Intxortara iritsi ahala, Angiotzarretik gora, hasi zitzaizkigun tiroka. Gure lehenengo hil-zaurituak hantxe izan genituen, eta Angel Sauquillo izango zen, segur aski, batailoiko lehen hildakoa. Angel nire ondoan hil zen [...].

Durangoko ospitalean hil zen eta han bertako hilerrian lurperatu zuten. Hogei urte zituen.

• Soria Gauna, Tomas

1909ko irailaren 18an jaio zen, Arabako Elburgo herrian. 1932. urteaz geroztik Aretxabaletan bizi zen. Otalora kaleko 4an bizi zen, apopilo gisa, Sabino Ugarte Lopez de la Callerekin eta Saturnino Bravoren familiarekin batera. Egoera zibila: ezkongabea.

Industrias Beroa lantegian lan egiten zuen eta Aretxabaletako UGT sindikatuko kide zen; 1935eko urriko 26an eratu zen zuzendaritzako batzordekide bigarrena izan zen. *Unión Republicana* alderdi politikoaren zuzendaritzaren eraketan ere parte hartu zuen, batzordekide gisa, 1935eko ekainaren 23an.

Defentsa Batzordeko kide zen, miliziano gisa, eta *Dragones* batailoiko 2. konpainian eman zuen izena. Frontean hil zen baina ez dakigu zehazki ez non, ez noiz.

• Urtubi Ercilla, Felix

1904ko otsailaren 25ean jaio zen, Elorrion (Bizkaia). Haren gurasoak: Pablo Urtubi Errazquin (Aretxabaleta, 1869) eta Matilde Ercilla Aretxaga (Arrasate, 1872). Anaia-arrebak: Maria Josefa (Arrasate, 1900), Maria Luisa (Arrasate, 1903), Carmen (Araia, 1907) eta Jose (Araia, 1908). Familiarekin bizi zen, Otalora kaleko 14an —Otazu jauregiaren aurreko eraikinean, aitak, Pablo Urtubik, irabazpide eta lanbide zuen botikaren aurrean alegia—, Severiano Olaran mediku *zahar*ren eta honen emazte Clotilde Jauregiaren ondoan.

Gazterik joan zen Aretxabaletara, bere barne ezinegona baretu nahian. Hegan egitea zen haren nahia. Beraz, Aire Armadan sartu eta hegazkin-pilotu egin zen. Maria Cruz Robla Romanekin ezkondu zen, Leongo La Virgen del Camino aireportura igorri zutelarik. Ezkontza horretatik jaio zen haren alaba bakarra, Matilde (Valdevimbre, 1933).

Militarren matxinadak Marokoko iparraldeko hegazkin-base batean harrapatu zuen. Felix Urtubik, errepublikano amorratua izanik, zerbitzu bat aprobetxatu zuen basetik ihes egin eta, bere eskolta falangista hilik, Getafeko aerodromoan lurreratzeko, errepublikanoen aldean.

Gerran, Madrileko inguruak defendatzen erakutsitako ausardiagatik nabarmendu zen. Azkenik, 1936ko irailaren 13an, heroi baten gisa hil zen, bere hegazkina bere etsaietako baten kontra oldartuta, Santa Olallako frontean, Toledon. Hogeita hamabi urte zituen.

Lan honen 3.8. atala Juan Antonio Ansaldok eta Felix Urtubi aretxabaletar hegazkin-pilotu apartekoiei eskainita dago eta haien bien biografia zabalago aztertuko da han.

• Zabaleta Guerrico, Francisco

1911ko ekainaren 4an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Otalora kaleko 3an¹⁹⁹. Haren gurasoak: Luis Zabaleta Berasategi (Segura, 1878) eta Dionisia Guerrico Berasategi (Segura, 1879). Aurrerago, Beasainera joan zen bizitzera.

1936ko abenduaren 17an hil zen, Urduñako frontean. *Amayur* batailoiko kide zen²⁰⁰. Hogeita bost urte zituen.



• Zaldibia Fernandez de la Peña, Eugenio

1909ko urriaren 9an jaio zen, Ubidean (Bizkaia). Haren gurasoak: Alejo Zaldibia Ipiñazar eta Teodora Fernandez de la Peña Martinez de Cestafe. Aretxabaletara ezkondu zen 1927ko otsailaren 26an, Cristobal Altube tenore ospetsuaren arreba Teofila Altube Bergararekin. Bi seme-alaba izan zituzten: Jose (1928) eta Milagros (Donostia, 1929). Azken hori jaio eta gutxira alargun geratu zen. Durana kaleko 6an bizi ziren. Haren anaia Juan (1903) ere ezkondata zegoen. Julia Galdos Gorosarri zuen emaztea eta bi seme-alaba izan zituzten: Eduardo (1926) eta Ane Miren (1932); Mitarte kaleko 14an bizi ziren.

Lezamako ijeketa-lantegian lan egiten zuen; Aretxabaletako UGT sindikatuko kide zen. 1935eko ekainaren 23an *Unión Republicana* alderdiaren tokiko zuzendaritzan sartu zen, diruzain gisa. Haren anaia Juan, berriz, nazionalistagoa joera politikoz, ELA sindikatuko presidente izatera iritsi zen.

Defentsa Batzordean sartu zen guda zibila hasi bezain laster eta *Dragones* batailoiko 2. konpainian gero. 1936ko urriaren 4an zauritu zuten Kanpanzarreko frontean eta Basurtoko ospitalera eraman zuten. Barazarko gainean hil zen, sorterritik gertu, 1937ko apirilaren 9an, gerra-ekintzan²⁰¹. Hogeita zazpi urte zituen.

Eugenio Zaldibia Fdez. de la Peña

• Zarrola Aizlodi, Federico

1911ko abuztuaren 26an jaio zen, Tolosan (Gipuzkoa). Kaxako umea zen²⁰². Durana kaleko 2an bizi zen, apopilo gisa, Vicente Aranbarri Villa eta Cecilia Oteroren familiarekin batera.

Dragones batailoiko 1. konpainian eman zuen izena. Eibarren hil zen, 1937ko apirilaren 24an²⁰³. Hogeita sei urte zituen.

Jesús Gutiérrez Arosa historialariak, gerra zibilean adituak – inork bezala ezagutzen du hark nola joan zen gerra Eibar eta Elgeta aldean –, ondoko ekarpena egin zigun²⁰⁴:

Gizon hori Italiako hegazkinek 1937ko 24 eta 25ean Eibar gainean jaurti zituzten bonben ondorioz hil zen. Matxinatuak 26an sartu ziren Eibarren eta aurreko egunetako bonbardaketetan 97 hildako izan ziren. Horietatik hirurogei bat Ego-Gain kaleko babeslekuan hil ziren, "Labaderokua" deritzon toki batean, Udaletxearen ondoan. Gaur egun, toki horretan, Arrate hotela dago.

Eibarren zeuden *Dragones* batailoiko kide batzuk hantxe erori ziren. Amuategui batailoiko komisarioak, Cándido Eguren "Oka Txiki"-k, gorpuak jaso eta Eibarko Urkiko hilerrira eraman zituen, bertan lurperatzeko. Matxinatuak oso hurbil zeudela eta, gorpuak gurdietan eraman eta hilerrian hantxe utzi zituzten, lurperatu gabe. Iñaki Egaña historialariaren zerrenda Bilboko erregistro zibiletik hartua dago. Izan ere, Eibar eta Elgetako udal zerbitzuak Bilbora eraman zituzten eta han inskribatzen ziren heriotzak. Cándido Egurenek, Eibartik atera baino lehen, Bilbora helarazi zuen zerrenda, hori berak esan dit berarekin izan ditudan hainbat elkarriketatan.

3.6.4. Desagertutako gudariak eta milizianoak

Biktima guztien artean desagertutakoek osatzen dute familiarentzat mingarriena den taldea. Gainerako biktimak gutxietsi nahi izan gabe, desagertutakoek sekula ixten ez den zauri sakona uzten dute familiaren oroitzapenean. Gogorra da maite duzun norbait galtzea, guda-zelaian borrokan hil dela edota errepresioaren biktima izan dela eta fusilatu egin dutela jakitea, baina gaitz erdi baldin eta familiak hura non dagoen lurperatuta, noiz eta nola hil zen badaki. Desagertutakoen familiakoek, berriz, ez dakite ez nola, ez non eta ez noiz hil zen beren senitartekoa, horrek izugarritzko ezinegona sortzen die, eta hor ibiltzen dira jo batera eta jo bestera, ikerketa historikoetan azalera atera daitekeen edozein datu, denik eta txikiena ere, eskuratzearen. Gogorra da, bai, zer gertatu den jakitea, baina are gogorragoa jakin gabe geratzea.

• Alberdi Gorostiza, Felix "Cuartillo"

1903ko azaroaren 30ean jaio zen, Luko herrian (Araba). Haren gurasoak: Gregorio Alberdi Uribe eta Francisca Gorostiza Beitia. Ezkondua zegoen eta Feliciano Gomez Rebollar (1907, Villada del Campo, Palentzia) zuen emaztea. Hiru seme zituzten²⁰⁵, Aretxabaletan jaioak hirurak: Jose Antonio (1928), Juan (1929) eta Felix (1932). Senar-emazteak 1927. urteaz geroztik bizi ziren Aretxabaletan, Durana kaleko 24an.

Lezamako ijeketa-lantegian lan egiten zuen, metalurgiari gisa, eta UGT sindikatuko kide zen. 1934ko urriko iraultzako gertaeretan parte hartze nabarmena izan zuen. Hori dela eta, atxilo hartu eta auzipeturik, 12 urte eta egun bateko kartzelazigorra ezarri zioten.



(1) Félix Alberdi Gorostiza "Cuartillo"

Aretxabaletako Defentsa Batzordean parte hartu zuen, miliziano gisa. Leintz Ibarrenaren defentsaren lehen egunetan, Benito Reola erasoko guardia sarjentuaren laguntzaile gisa agertzen da, eta hala jarraituko du gerra denbora guztian. 1937ko irailaren 16an, Meabe batailoia, Benito Reola buru zela, Asturiasko frontera bidali zuten. Batzuen arabera, Portugal aldera igarotzen saiatzen ari zela desagertu zen, frankistek jazarrita.



José M^a Antxia Ugarte

• Antxia Ugarte, Jose Maria

1889ko maiatzaren 7an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Oalora kaleko 26an. Haren gurasoak: Jose Maria Antxia Gallastegi (1859) eta Maria Ugarte Oquina (Aozaratza, 1857).

Ana Galdos Gorosarri (1898) andrearekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten: Asuncion (1922), Ramon (1923), Maria Teresa (1925), Jesus Maria (1928), Juan Luis (1929) eta Arantzazu (1932). Familia Mitarte kaleko 6an bizi zen.

Hiria frankisten mendean geratzera zihoala ikusita, familia Aretxabaletatik atera zen. Jose Maria Antxia Fortifikazio Brigadetan sartu zen boluntario, Goikoetxea kapitainaren esanetara. Bilboko ospitaletik desagertu zela uste da. Orduz geroztik, ez da haren berririk izan.

• Monge Alonso, Isidro

1897ko maiatzaren 15ean jaio zen, Valladolideko probintziako San Roman de Hornija herrian. Haren gurasoak: Federico Monge Garcia eta Justa Hernandez Alonso. Fuencisla Andres Carmona (1891, Morales de Toro, Zamora) andrearekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten: Federico (Gasteiz, 1929), Natividad (Gasteiz, 1931) eta Francisca (1933), azken hori Aretxabaletan jaioa. Familia Durana kaleko 35ean bizi izan zen 1932. urteaz geroztik.

1934ko urriko iraultzako gertaeretan parte hartu zuen. Hori dela eta, atxilotu egin zuten, eta gero aske utzi.

Eizaguirre lantegian lan egin zuen, sarrailagile gisa, lantegia itxi zuten arte. UGT sindikatuko kide zen eta idazkari kargua izan zuen 1935eko urriaren 26an eratu zen zuzendaritza-batzordean.

Uste da Madrilera joan zela, senitartekoren baten etxera. Orduz geroztik, ez da haren berririk izan.

• Olabe Uriarte, Francisco

1902ko otsailaren 16an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Mitarte kaleko 8an. Haren gurasoak: Juan Jose Olabe Aiastui (Mendiola, 1862) eta Eugenia Uriarte Altuna (Elgea, 1869).



Patxiko Olabe Uriarte

Haren iloba Felisa Antonia Elcoro Olabek osaba Patxikoren patuaz familian entzundakoak —bera orduan oso txikia zela kontuan izan behar da— gogorazten dizkigu²⁰⁶:

Biarritzen egiten zuen lan, Baciocci²⁰⁷ kondeen etxean, Villa Aramis delako batean, zerbitzari. Ez dakit honantz etorri ote zen edo Katalunia aldera joan zen. Gerra atera zenean, fronte batera edo bestera jo zuen, ez dakit nora. Izebek beti esaten zuten Kataluniako lagun anarkista batzuekin elkartu zela.

Amak haren alde otoitz egin zuen ez dakit noiz arte, beti esaten zigun: Agertuko dun, agertuko dun [...].

Orduz geroztik, ez da haren berririk izan.



Isidro Monge Alonso
eta emaztea

3.6.5. Espetxe frankistetatik igarota hildako gudariak eta milizianoak

Frankismoko espetxeetako bizi-baldintza gogor eta gizagabeak zirela eta, preso asko eta asko gaitibualdian pairatutako eritasun larrien ondorioz hil ziren. Espetxe-erregimen hartako zabarkeriak, garbitasunik ezak, eta masifikazioak baldintza haietan hilgarriak ziren eritasunak agertzea erraztu zuen: tifusa, tuberkulosia eta abar. Indartsuenak bakarrik atera ziren aurrera, gainerakoak, berriz...

• Alonso Andres, Vicente

1907ko azaroaren 9an jaio zen, Zamora probintziako Morales de Toro herrian. Haren gurasoak: Eleuterio eta Josefa. Egoera zibila: ezkongabea. San Martin auzoan bizi zen, Aniceto (1900) anaiarekin eta beronen familiarekin batera: hau da, Anicetoren emazte Maria Dominguez Fradejasekin (1901) eta haien bi alabekin, Eleuteria (1927) eta Elvira (1929). Morales de Toro herrian jaioak ziren denak, baina 1931. urtean Aretxabaletara bizitzera etorriak.

Industrias Beroa lantegian lan egiten zuen eta UGT sindikatuko kide zen. 1935eko urriaren 26an, sindikatuko zuzendaritza-batzordeko lehendakariorde izan zen.

Gerrako lehen egunetan, Defentsa Batzordean parte hartu zuen, miliziano gisa. Faxistak Aretxabaletan sartzean, anaia Anicetorekin batera atxilotu zuten. Deustuko Unibertsitatean (Bilbo) prestatu zuten espetxean hil zen, gaitibualdian hartutako gaitz baten ondorioz²⁰⁸.

• Altuna Ugarte, Francisco

1919ko abenduaren 3an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Pedro Victor-enean (sic)²⁰⁹. Haren gurasoak: Benito Altuna Iranzuaga (Elgeta, 1892) eta Maria Ugarte Aiaitui (1886). Egoera zibila: ezkongabea. Amarekin – ordurako alargundua – bizi zen, Durana kaleko 23an.

Lezamako ijeketa-lantegiko bulegoan lan egiten zuen. Abertzalea zen ideologiaz eta ELA sindikatuko kide zen.

Boluntario miliziano gisa eman zuen izena Arrasaten, eta bitartekari gisa edo ordenantza gisa jardun zen. Aurrerago, Lubakitzaileen 2. batailoian sartu zen, eta 1937ko abuztuaren 26an preso hartu zuten, Santoñan. 1937ko azaroan, 3. Preso eta lleslarien Batzorde Sailkatzaileak Valladolideko Medina de Rioseco herrian sailkatu zuen. Zapatariko (Añorga) espetxera eraman zuten, eta, biriketako tuberkulosiak jota, Donostiako ospitalean hil zen, 1938ko uztailaren 10ean²¹⁰. Hemezortzi urte zituen.

• Galdos Gorosarri, Joaquin

1908ko apirilaren 21ean jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Durana kaleko 8an. Haren gurasoak: Francisco Galdos Bolinaga (1868) eta Mariana Gorosarri Urrutia (1871), Aretxabaletan jaioak biak. 1935eko otsailaren 2an, Valeriana Barrutia Ruiz de Gauna (Erdoñana, 1909) andrearekin ezkondu zen, Aretxabaletan. Ez zuten seme-alabarik. Durana kaleko 14an bizi ziren.

Lakuntzako (Nafarroa) *Cerrajera San Antonio* lantegian lan egiten zuen. EAJko kide zen eta Aretxabaletako batzokiko idazkari. Hori dela eta, Lakuntzan, altxamendu militarren lehen egunetan, atxilo eduki zuten bi egunez. Aurrerago, Gasteizen, boluntario sartu zen Komandantetza Militarrean, sarjentu gisa, eta Arabako Erreketeen 9. konpainian sartu zuten. Bere taldekideekin, Aretxabaletako okupazioan parte hartu zuen, 1936ko irailaren 24an. Arma lagunek gogor hartu zuten, eta EAJko kide zela jakinik, hiritik atera ez ziren jeltzale gazteak biltzeko erabili zuten, gero Erreketeen sartzera behartzeko. Haren familia Elorrioren errefuxiatua zegoen, eta okupazio-gudaroste frankisten oharkabea, errepublikanoen aldera igaro zen, Aramaio aldetik. Indar errepublikanoek Otxandiora eraman zuten eta aske utzi. Handik Elorriora joan zen, familiarekin elkartzera. Frankisten erasoaldiaren ondoren, Bilbora jo eta gudari sartu zen Eusko Gudarostean, 1937ko apirilaren 18an. Gerrarako mobilizatu zutenean, Abandoko koartelera bidali eta Eusko Milizien erakusle izendatu zuten; brigada soldata kobratzen zuen eta uniformeaz jantzita ibiltzen zen, baina galoirik gabe. Ez zen frontera joatera iritsi, eta 1937ko abuztuko 11n atxilotu zuten, Merueloko erizaindegian zegoela, biriketako gaitz batek jota, itsasontziz Frantziara ebakuatua izateko zorian zegoela.

Duesoko espetxean hartu zioten deklarazioa, eta 1937ko irailaren 5ean, Santoñan egin zioten Gerra Kontseilua eta heriotza-zigorra ezarri. Larrinagako (Bilbo) espetxean zegoela, haren lagun bat, Felix Alberdi Ceberio, fusilatu zuten. Handik Burgosko Probintzia Espetxera eraman zuten, eta 1939ko otsailaren 20an, 30 urteko espetxe-zigorra ezarri zioten heriotza-zigorraren ordean. Azkenik, 1943ko otsailaren 22an, 14 urteko espetxealdira laburtu zioten, behin betiko, zigorra²¹¹.

Espetxetik aterata, Aretxabaletara itzuli zen, baina iraganean bizitako esperientziek eta espetxean igarotako denborak arrasto sakona utzia zuten berarengan. Ez zen ongi egokitu gizarte berrian, lekuz kanpo balego bezala sentitzen zen, eta herritik kanpora joan behar izan zuen, etorkizun baten bila. 1947ko udan hil zen, Aragoiko herri batean, uste denez.

• Leibar Arenaza, Angel

1903ko irailaren 30ean jaioa. Goroeta auzoko (Aretxabaleta) Iraeban baserrikoa. Haren gurasoak: Pedro Jose Leibar Aranzabal (Aozaratza, 1877) eta Petra Arenaza Urrutia (1876). Egoera zibila: ezkongabea. Nekazaria lanbidez.

Bere ideia abertzaleengatik atxilotu eta Eusko Jaurlaritzarentzat igeltsero gisa lan egin izanaz akusatuta zuten. Hamabi urte eta egun bateko espetxe-zigorra ezarri zioten. Oso gaixorik atera zen espetxetik, tifusak jota. Handik gutxira hil zen. Ezkonduta zegoen eta adin txikiko alaba bat zuen²¹².

• Urrutia Anduaga, Jose

1918ko apirilaren 27an jaioa. Goroeta auzoko (Aretxabaleta) Deisaotz baserrikoa. Haren gurasoak: Cristobal Urrutia Urrutia (Goroeta, 1879) eta Martina Anduaga Txintxurreta (Oñati, 1889).

Atxilotu eta San Kristobaleko espetxean (Iruñerriako Ezkaba mendian) sartu zuten preso. Biriketako tuberkulosiak jota hil zen, 1944ko azaroaren 10ean²¹³. Hogeita sei urte zituen.

3.6.6. Indarkeria frankistak fusilatutakoak

Frankismoak bere etsaiak desagerrarazteko erabili zuen metodo nagusietako bat haiek fusilatzea izan zen. Armadako buruen aginduz, arerioa suntsitzeko egiten ari ziren ahalegina agerian utziz, izua zabaldu zuten han eta hemen, estrategia gisa.

Hamabi lagun hil ziren indarkeria frankistaren aginduz fusilatuta. Horietako bi, Jose Vicente Garai Arenaza eta Victor Uribe-Etxeberria Bengoa, gudaroste frankistak haiek bizi ziren herrietan sartzean hil zituzten. Beste zazpi, Victoriano Akizu Izurrategi, Agustin Aranburu Zabaleta, Juan Bengoa Agiriano, Sabino Etxabe Guruzeta, Raimundo Galdos Azkarretazabal, Isidoro Garciaetxabe Etxeberria eta Dionisio Uribealgo Otadui, errepresioaren ondorioz hil ziren, indar frankistek lurraldea okupatu ondoren. Gainerako hirurak gerra frontearen hil zituzten: bi, Felix Alberdi Ceberio eta Saturnino Sauquillo Etxeberria, fusilamendu pelotoiaren aurrean, Gerra Kontseilua egin ondoren; eta azkena, zaurituta zegoen erietxetik desagertzean.



• Alberdi Ceberio, Félix

1904ko urtarrilaren 5ean jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Durana kaleko 16an. Haren gurasoak: Juan Alberdi Axpe (Gellao, 1871) eta Maria Ceberio Letona (1875). Anaia-arrebak: Juana (1907), Maximo (1909), Eugenia (1911), Matilde (1913), Bonifacio (1916) eta Jesus (1918). 1930eko otsailaren 12an ezkondu zen, Luisa Bengoetxea Aiaitui andrearekin (1906). Bi seme-alaba izan zituzten: Imanol (1930) eta Amaia (1937). Azken hori Bilbon jaio zen, aita fusilatuta hil baino bederatzi hilabete lehenago. Familia Durana kaleko 46an bizi zen.

Lezamako ijazketa-lantegian lan egiten zuen. EAJ alderdiko eta ELA sindikatuko kide zen. Sindikatuko zuzendaritza-batzordeko idazkariorde izan zen.

Félix Alberdi Ceberio eta emaztea

Izaera handiko ekintza-gizona zen. Aretxabaletako Defentsa Batzordean parte hartu zuen. Boluntario sartu zen Leintz Ibarreko Euskal Milizietan (Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitza delakoan) eta *Sa-seta* batailoian eman zuen izena, gudari gisa. Soldaduska egina izateagatik, kaporala maila eman zioten hasieratik, eta sarjentu maila izatera iritsi zen gerra bukaeran. Bere batailoiarekin Bizkaiko eta Santanderreko frontean izan zen. Santanderren, bere batailoia deseginik, *Mungia* batailoiarekin bat egin eta Reinosako frontera joan zen. 1937ko abuztuaren 26an, euskal batailoiek amore ematean, preso hartu zuten Santoñan.

Larrinagako espetxean (Bilbo) eduki zuten preso, Gerra Kontseilua egin arte. 1937ko azaroaren 2an eman zen epaia; auzitegi militarrek heriotza-zigorra ezarri zion²¹⁴. Larrinagan, espetxealdiko azken egunetan, Joaquín Galdos Gorosarri aretxabaletar jeltzalearekin egin zuen topo. Hari zuzendu zizkon bere azken hitzak, fusilatua izan baino lehen²¹⁵:

6. GELA: Felix Alberdik Joaquín Galdos (2. galeria, 3. solairu, 5. areto) emateko uzten du: motxila bat eta barruan galtza pare bat, aldagarri bat, elastiko bat eta eskuoihal bat, behar duena har dezan, eta manta militar bat eta bota pare bat. Agur Joaquín, nire idealak adoretuta hiltzen naiz. Donokirarte [sic], besarkada adiskideei, Jaungoikoa eta Lege Zaharraren alde hiltzera doan zure lagun leiala.

FELIX ALBERDI (sinatua)

Anaia etortzen bada, harrera egiozu eta jakinaren gainean jarri.

Bilbo 37-XII-14

Jaso eta gorde ostegunean ekarriko duten aldagarria eta jakinaren gainean jarri Gorroño.
Agur Joaquín.

1937ko abenduaren 14ko goizaldean, aipatutako epaia betez, fusilatua izan zen. Hogeita hamahiru urte zituen.

• Akizu Izurrategi, Victoriano

1895eko azaroaren 8an jaio zen, Eskoriatzako Bolibar auzoan. Haren gurasoak: Romualdo Akizu Lasa (Mazmela, 1871) eta Crescencia Izurrategi Lizarralde (Bolibar, 1872). Emaztea: Magdalena Errasti Olabe (Mendiola, 1899). Bi seme zituzten: Romualdo (1923) eta Jose Benito (1927). Durana kaleko 6an bizi ziren eta, etxean apopilo hartuta, Gregorio Idigoras Azkarraga (Leintz Gatzaga, 1895) eta Pablo Herrasti Arriola (1908) zituzten. Eraikin berean, anaiak bizi ziren. Etxebizitza batean, Benito (1911), gurasoekin batera; beste batean, anaia Bonifacio (1909) eta haren emazte Rufina Gastañaga Eriz (1913); eta, azkenik, beste etxebizitza batean, arreba Benita (1906), haren senar Pedro Jose Gastañaga Idigoras (1903) eta haien lau seme-alabak: Elisabet (1932), Casilda (1933), Soriontzu (1934) eta Miren Garbiñe (1935).



Victoriano Akizu Izurrategi

Arrasateko *Unión Cerrajera* lantegian lan egiten zuen. Burdinbi-deetako langilea ere bazen. Abertzalea zen ideologiaz eta bertako EAJko batzokiko presidente izan zen. Horregatik atxilotu zuten faxistek Aretxabaletan sartzean. Isidoro Garciaetxabe ELAko buruarekin batera, kamioi batera igoarazi eta Ondarretako espetxera eraman zuten, inguruko beste preso asko bezala.

Epaiketarik gabe, espetxetik atera eta Hernaniko hilerrian fusilatu zuten, 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean. Berrogeita bat urte zituen.

• Aranburu Zabaleta, Agustin

1882ko abuztuaren 28an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Durana kalean. Haren gurasoak: Domingo Aranburu Etxaniz (Arrasate, 1859) eta Isabel Zabaleta Txintxurreta (1861). 1917ko uztailaren 16an ezkondu zen, Aretxabaletan, Encarnacion Basurto Leibar andrearekin (Donostia, 1891). Arrasaten bizi izan ziren eta sei seme-alaba izan zituzten. Haietako bat, Victoriano Aranburu, Aretxabaletako erretore izan zen urtetan.



Jostuna zen lanbidez eta gordailuzain gisa ere lan egiten zuen Arrasateko udalean²¹⁶. Abertzalea zen. Atxilo hartu eta Ondarretako espetxera eraman zuten. 1936ko azaroaren setik 6rako gauean fusilatu zuten, Oiartzunen. Berrogeita hamalau urte zituen.

• **Bengoa Agiriano, Juan**

1898ko uztailaren 12an jaioa. Bedoña auzoko (Aretxabaleta) Zabale baserrikoa. Haren gurasoak: Miguel Bengoa Murgiondo (Marin, 1865) eta Juana Agiriano Elorza (Bolibar, 1867). Arrasaten bizi zen. Ezkonduta zegoen eta sei seme-alaba zituen.



Juan Bengoa
Agiriano

Unión Cerrajera lantegian lan egiten zuen eta ELA sindikatuko batzordekide izan zen. Abertzalea zen. Herriko karlista batek salatutik, Ondarretako espetxera eraman zuten. Hernaniko hilerrian fusilatu zuten, 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean. Hogeita hemezortzi urte zituen.

• **Etxabe Guruzeta, Sabino**

1902ko abenduaren 11n jaioa. Bedoña auzoko (Aretxabaleta) Urin baserrikoa. Haren gurasoak: Feliciano Etxabe Iribecampas (Bedoña, 1866) eta Petra Guruzeta Azurmendi (Bedoña, 1867). Arrasaten bizi zen, Resusta kalean. Ezkonduta zegoen eta bi alaba eta seme bat zituen.



Sabino Etxabe Guruzeta

EAJko kide zen. Herriko karlistek salatu eta Ondarretako espetxera eraman zuten. Epaietarik gabe, azaroaren setik 6rako gauean fusilatu zuten, Oiartzunen. Hogeita hamahiru urte zituen.

• **Galdos Azkarretazabal, Raimundo**

1899ko martxoan jaioa. Goroeta auzoko (Aretxabaleta) Singondobekoa baserrikoa. Haren gurasoak: Jose Andres Galdos Urrutia (Goroeta, 1862) eta Matiasa Azkarretazabal Urrutia

(Arkarazo, 1867). 1931ko azaroaren 26an, Oñatin, Guadalupe Okaranza Lizarralde (Aozaratza, 1899) andrearekin ezkondu zen. Arrasaten bizi izan ziren eta bi seme-alaba izan zituzten.

Unión Cerrajera lantegiko langilea zen. Abertzalea zen eta ELA sindikatuko buru izan zen. Hori dela eta, atxilo hartu eta Ondarretako espetxera eraman zuten. Hernaniko hilerrian fusilatu zuten, 1936ko urriaren 21etik 22rako gauean. Hogeita hamazazpi urte zituen.



Raimundo Galdos Azkarretazabal

• **Garai Arenaza, Jose Vicente**

1887ko urriaren 19an jaioa. Oro (Aretxabaleta) auzoko Estebangoa baserrikoa. Haren gurasoak: Antonio Garai Amiama (Bedoña, 1859) eta Juana Maria Arenaza Cortazar (Oro, 1857). Gurasoak Oro auzoan bizi ziren, baina gero Oñatira joan ziren. Nekazaria lanbidez.

1923ko apirilaren 26an ezkondu zen, Braulia Aranzeta Etxezarreta (Elgeta, 1895) andrearekin. Ezkonberritan, senar-emazteak Elgetako (Gipuzkoa) Antzuategi Bastarrekoa baserrira joan ziren bizitzera. Lau seme-alaba izan zituzten: Felisa, Jose Domingo, Bittor eta Alberto.



José Vicente Garai Arenaza

Intxorta eta Asensiomendi aldean gogor borrokatu ondoren, indar errepublikanoek amore eman zuten frankisten bultzadaren aurrean. Frontea hautsiririk, faxistak amorru ankerrez sartu ziren hainbeste hildako eragin zizkien herri honetan. Bittor Garai Aranzetak, Jose Vicenteren semeak, honela kontatzen digu bere anaia Jose Domingok ikusitakoa²¹⁷:

Frankistok 1937ko apirilaren 24an Zapatuan arratsaldeko 4etan Antzuategi Bastarrekoa base-rrira heldu zirenean gure aita eta beste 7 euskaldun zeuden etxe ondoko zulo baten gordeta, bonbardeo itzelak zirelako. Españolez esan zieten "salir todos para matar". Aita Jose Bizente Garai irten zuen esanez etxeko ugazaba zela zer nahi zuten, "manos arriba" eta tiroak bota eta bertan hil zituen. Beste hiru ate baten ondoan eta beste lauak beste ate baten ondoan bota zituzten. Azpeitiarrak eta mondragoetarrak ere baziren, gure anaiak 11 urtekoa dena bizi izan zuen. Etxe ostean bonba zuloetan sartu zituzten.

1937ko apirilaren 24an hil zuten, 49 urte zituela.



Isidoro Garciaetxabe Etxeberria
eta emaztea

• Garciaetxabe Etxeberria, Isidoro

1902ko apirilaren 4an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Mitarte kaleko 10ean. Haren gurasoak: Rufino Garciaetxabe Arriola (1858) eta Maria Etxeberria Mendieta, Bedoñakoa. 1930eko martxoaren lehenean ezkondu zen, Isurieta San Pedro elizan, Francisca Etxeberria Ugalde (Isurieta, 1907) andrearekin. Hiru seme-alaba izan zituzten: Pablo (1931), Miren Arantzazu (1932) eta Kistiñe (1934). Ensanche auzoko 2an bizi ziren, Etxe Berriak deituetan.

Eizaguirre ("Vasco Cerrajera") lantegian lan egin zuen, enpresak ateak itxi zituen arte. *Cerrajería Valle de Leniz* izeneko enpresa sortu zuten langileetako bat izan zen. ELA sindikatuko buru izan zen.

Faxistek, Aretxabaletara sartuta, Victoriano Akizurekin batera atxilo hartu, kamioi batera igoarazi eta Ondarretako espetxera eraman zuten. Epaiketak gabe, 1936ko azaroaren setik 6rako gauean fusilatu zuten, Oiartzunen. Hogeita hamalau urte zituen.

Emaztea, Pantxika Etxeberria, haurdun zegoen, senarra atxilo eraman zutenean. Semeari Isidoro jarri zioten izena, aita hilaren omenez, baina jaio eta 10 hilabetera hil zen hura ere²¹⁸.

• Peña Etxeberria, Jesús

1914ko abenduaren 25ean jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Otalora kaleko 7an. Haren gurasoak, Nicolas Peña Irizar (1888) eta Luisa Etxeberria Aldaondo (Legazpi, 1891). Anaia-arrebak: Juan (1912), Lucia (1914), Isabel (1916), Jose (1917), Maria (1918), Lorenzo (1919), Maria Cristina (1921), Natividad (1923), Rufino (1925) eta Concepcion (1927). Familia Otalora kaleko 24an bizi zen. Egoera zibila: ezkongabea.

Industrias Beroa lantegian lan egiten zuen, bulegari gisa. Abertzalea zen, eta *Argia*, *Eguna* eta *Euzkadi* argitalpenentzat lan egiten zuen berriemaile gisa.

Boluntario sartu zen Leintz Ibarreko Euskal Milizietan (*Euzko Gudarostea Leniz-Buruzagitza* delakoan) eta *Saseta* batailoian eman zuen izena gero, gudari gisa.

1937ko abuztuaren 1ean, Reinosako frontean zauritua, Santanderreko ospitalera eraman zuten. Bere batailoiak Santoñan, italiarren aurrean amore eman zuenean, atxilo hartu eta espetxe frankistetara eraman zituzten gudariak, gerra-kontsei-



Jesús Peña
Etxeberria

lua egin arte. Jesus Peñak ez zuen aukera hori izan, ospitaletik atera eta hil egin zuten, epaiketak gabe, 1937ko abuztuaren 30ean. Hogeita bi urte zituen.

• Sauquillo Etxebarría, Saturnino

1914ko martxoaren 28an jaio zen, Gasteizen. Haren gurasoak: Luis Sauquillo Ereñaga (Bilbo, 1884) eta Gabriela Etxebarría Ocio (Berganzo, 1887). Anaiak: Jose (Gasteiz, 1912), Angel (1916), Lucio (1923) eta Gabriel (1925). Egoera zibila: ezkongabea. Familia Durana kaleko 29an bizi zen.

Eizaguirre ("Vasco Cerrajera") lantegian lan egiten zuen. Enpresa horrek, gero, Aretxabaletako lantegia itxi eta Lakuntzara aldatu zuen. UGT sindikatuko kide zen.

1934ko urriko iraultzan parte hartu zuen. Hori dela eta, atxilotu eta hamasei urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. San Kristobaleko gotorlekuan egon zen preso, harik eta, 1936ko hauteskundeetan Fronte Popularra garaile atera ondoren, gobernuak amnistia eman zion arte.

Gaztedi Sozialista Batuak organizazioko kide zen eta boluntario sartu zen Defentsa Batzordean, miliziano gisa. Gero, *Dragones* batailoiko 2. konpainian eman zuen izena. 1936ko urriaren 4an, Kanpazarreko gainean zauriturik, Bilboko ospitale militarrean eraman zuten. Handik sei hilabetera, ospitaletik aterata, bere batailoira itzuli eta Untzillako eta Murugaineko posizioak defendatu zituen, harik eta 1937ko apirilaren 1ean, bertan behera utzi behar izan zituzten arte. Erretiran zihoazela, Barazarreko gainean zauriturik, Bilboko ospitalera eraman zuten berriro. Apirilaren 7tik ekainera arte egon zen ospitalean. Handik ateratzean, Lemoako Haitzeko gudu gogorretan hartu zuen parte. Bere saileko sarjentua hil zenean, bera izendatu zuten ordezkari. Egun bat baino ez zuen iraun, oso ahul baitzegoen oraindik, aurreko zaurien ondorioz. Hori dela eta, baja harturik, handik aurrera laguntza-zerbitzuetan aritu zen, kuartelaren barruan.

Bilbo faxisten esku erori ondoren, eta Ipar frontea deseginik, benetako odisea bat hasi zen errepublikari leial iraun zuten batailoietako soldadu eta gudarientzat. Saturnino Sauquillok, bere batailoia erretratan, zorigaitzoko ibilbide hau egin behar izan zuen: Badamesko herria, Votoko udalerria (Kantabria) eta, behin Asturiasen sartuta, Ribadesella, Sebares eta Nava. Azkenik, Condadoko herrian (Lavianako Kontzejuan), lagun batzuekin batera, etxola batean ezkutatuta egon zen 1937ko urriaren 13tik 23ra arte. Ipar Frontea erabat deseginik, beste norabait joan beharra zegoen.

Azkenik, 1937ko azaroaren 4an, guardia zibilak atxilo hartu zuten, Sabino Ugarte Lopez de la Calle²¹⁹ lagunarekin batera, Burceña (Burgos) herriko inguruetan, Menako ibarrean. Herriko alkateak salatu zituen.

Gerra-kontseilua Bilboko Plazan egin zen, eta 1938ko martxoaren 9an eman zuten epaia: heriotza zigorra. Handik Burgosko espetxera eraman zuten eta hantxe eduki zuten epaia betearazi arte. 1938ko urriaren 26an fusilatu zuten, goizeko sei eta erdietan. San Jose hilerrian lurperatu zuten²²⁰. Hogeita lau urte zituen.

• Uribe-Etxeberria Bengoa, Victor

1871ko martxoaren 6an jaio zen, Aozaratza (Aretxabaleta) auzoan. Haren gurasoak: Jose Uribe-Etxeberria Ezpeleta (Larrino, 1828) eta Catalina Bengoa Bengoa (Goroeta, 1833).

Beasainera joan zen bizitzera. Nafarroatik zetozen faxisten okupazio basatia pairatu zuen lehen-dabizikoetakoa izan zen Gipuzkoako herri hori. 1936ko uztailaren 27an, Nafarroako erreketeei Beasain okupatu zuten, atzean odol ibaiak eta izua besterik uzten ez zutela. Indarkeria eta gorrotozko orgia horren ondorioz hil zen Victor Uribe-Etxeberria, 65 urte zituela. EAJko kide zen.

• Uribesalgo Otadui, Dionisio

1894ko urriaren 9an jaioa. Bedoña auzoko (Aretxabaleta) Elorrixa baserrikoa. Haren gurasoak: Cándido Uribesalgo Idigoras (1864) eta Leona Otadui Ibarguren (Arrasate, 1874). Anaia-arrebak: Eusebia (1896), Gregoria, Elias (1898), Esteban (1900) eta Jose. Emaztea: Serapia Irazola Ibarbarriaga (Apatamonasterio, 1902). Zortzi seme-alaba izan zituzten²²¹: Candida (1924), Aurelia (1925), Maria Soledad (1926), Maria Teresa (1928), Maria Luisa (1929), Jose Luis (1932), Jesus (1933), Luis (1935) eta Dionisio Florentino (1937).

Baserritarra zen lanbidez, eta egun osoa ematen zuen baserriko lanetan, seme-alaba guztiak mantendu ahal izateko. ELA sindikatuko kide zen.

1936ko udazkenean, frankistak lehen atxilotetak egiten hasi ziren. Elorrixa baserrian agertu eta Dionisio Uribesalgo galdekatu zuten, emaztearen aurrean bertan. Armak ote zituen galdetuta, baratzean gordeta zeukan pistola bat, anaia Joserena, eman behar izan zien. Berehala atxilotu zuten. Gero, *ELMA* lantegira joan ziren, Jose atxilotzeko asmoz, han lan egiten baitzuen. Atzemaileak lantegira iritsi zirenerako, ordea, Jose jada ez zegoen bere tokian. Hura atxilotu ezinaren amorruz, Dionisio atxikitzea erabaki zuten. Hala, Arrasateko udal kartzelara eraman eta, geroxeago, beste atxilotu askorekin batera, Ondarretako espetxera eraman zuten. Epaike-tarik egin gabe, 1936ko azaroaren 5etik 6rako gauean fusilatu zuten, Oiar-tzunen. Berrogeita bi urte zituen.



Dionisio Uribesalgo Otadui

Hil zutenean, emaztea haurdun zegoen, eta lau hilabete geroago, 1937ko apirilaren 22an, jaio zen haurra. Dionisio Florentino jarri zioten grazia, aitaren oroimenez.

3.6.7. Bigarren Mundu Gerran hildakoak

Paradoxikoa irudi dezake biktimen atal honek, gerra zibila 1939ko apirilaren 1ean bukatu baitzen, baina ondoko bi biografiak irakurtzean, argi geratuko da bi gatazken arteko harreman zuzena. Izan ere, historialari askoren ustean, XX. mendeko gatazkarik odoltsuena – European, aurrena; mundu osoan, gero – izango zenaren hasiera eta probalekua baino ez zen izan Espainiako Gerra Zibila.

• Axpe Sagasta, Pedro Jose

1906ko irailaren 20 jaio zen, Bergaran (Gipuzkoa). Haren gurasoak: Tomas Axpe Altuna (Arrasate, 1873) eta Laureana Sagasta Bolinaga (Arrasate, 1875). Anai-arrebak: Damiana (Arrasate, 1900), Emilia (Bergara, 1912), Juana (Bergara, 1914) eta Esteban (1932). 1918an hartu zuten bizilekua Aretxabaletan, San Martin auzoan, hain zuzen. Egoera zibila: ezkongabea.

Eizaguirre ("Vasco Cerrajera") lantegian lan egin zuen, doitzaille eta tornulari gisa, harik eta lantegiak atekak itxi eta produkzioa Lakuntzara eraman zuten arte. 1933ko ekainaren 3an, liskar batean parte hartu zuen: Aretxabaletako udalaren osoko bilkura batean UGTko beste kide batzuekin batera, pankarta batekin agertu ziren bilkuran – garai gogorrak ziren, jende asko lanik gabe zegoen –, giroa berotzen joan zen eta, azkenean, harrika egin zioten alkateari eta zinegotzirei bati, eta irainka hartu zuten idazkaria; aulkiren bat ere hautsi zioten bizkarrean. Istiluen ondorioz, auzipetua izan zen 1933ko azaroaren 15ean, desordena publikoa, atentatuta, eta begirunerik eza egotzita. Harekin batera, Jose Sauquillo, Jacinto Martinez de Alegria eta Miguel Ignacio Martinez ere auzipetu zituzten.

Unión Republicana alderdiko eta Gaztedi Sozialista Batuak organizazioko kide zen, bai eta UGT sindikatukoa eta Nazioarteko Sorospen Gorriko Tokiko Batzordekoa ere.

1934ko urriko iraultzan parte hartu zuen. Hori dela eta, atxilotu eta hamasei urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. San Kristobaleko gotorlekuan egon zen preso, harik eta, 1936ko hauteskundeetan Fronte Popularra garaile atera ondoren, gobernuak amnistia eman zion arte.

Guda hasi bezain laster, Aretxabaletako Errepublikaren Defentsa Batzordean eman zuen izena, miliziano gisa. Aurrerago, *Dragones* batailoiko 2. konpainian sartu zen, eta eskuin eskuko erpurua falta zenez, osasun-langile gisa jardun zuen. Ipar Frontean, *Dragones* batailoian jarraitu zuen gerra, kaporal mailarekin, Asturiasen amoreka eman behar izan zuen arte. Frantzia aldera ontziratuta eta Kataluniara sartu zen Perpignanetik barrena. 1939ko hasieran, Franco hesia estutuz zihoan errepublikanoen inguruan, Katalunia erortzeaz zegoen, soldaduak eta errefuxiatuak trumilka ziren mugarantz bultzatuak.

Pedro Axpe errefuxiatu-eremu batetik bestera ibili zen Frantzian: Saint Cyprien (Dordogne), Le Barcares (Pyrenees-Orientales) eta Campo de Gurs (Pyrenees-Atlantiques)²²². Azken errefuxiatu-eremu ho-

rretan euskaldun asko topatu zituen. Horien artean, hiru aretxabaletar: Santiago Urkia Zabaleta, haren seme Julio Urkia Orense eta Roman Olabe Zubillaga.

1940ko ekainean, alemaniarrek Frantzia okupatu zuten. Han errefuxiatuta zeuden milaka errepublikanoen etorkizuna badaezpadakoa zen. Errefuxiatu-eremuetatik kontzentrazio-eremuetara igaro ziren. Pedro Axpe honako hauetan izan zen: Idron (Pyrenees-Atlantiques), Agde (Hérault) eta Noe (Haute-Garonne)²²³.

1944ko abuztuaren 9an, Bordeleko *stalag*-era eraman zuten, eta, azkenean, abuztuaren 28an, Dachauko kontzentrazio-eremu alemaniarra deportatu. Han, sei hilabete iraun zuen. Gatibu-lanak egiten zihardutela, errepide-bazter batean utzi behar izan zuten, konpainiari jarraitzeko gauza ez zela²²⁴. 1944ko abenduaren 18an hil zen, holokausto naziaren biktima.



(1) Román Olabe Zubillaga, (2) Julio Urkia Orense eta (3) Pedro José Axpe Sagasta, Gurs-eko zelaietan.

• Sauquillo Etxebarria, Lucio

1923ko martxoaren 2an jaio zen, Aretxabaletako (Gipuzkoa) Durana kaleko 29an. Haren gurasoak: Luis Sauquillo Ereñaga (Bilbo, 1884) eta Gabriela Etxebarria Ocio (Berganzo, 1887). Anaiak: Jose (Gasteiz, 1912), Angel (1914), Lucio (1916) eta Gabriel (1925).



Lucio Sauquillo Etxebarriaren oroitarria. Hermanville udalerriko hilerrian dago, Calvados-en (Frantzian).

Lucio Sauquillo gerrako haur bat zen. Gurasoek ebakatu behar izan zuten, gerratik babestearren. Haren azken helburua Ingalaterra izan zen. Bien bitartean, bi anaia galdu zituen gatazkan: Angel, Intxortan, eta Saturnino, Burgoen, fusilatuta. Behin gerra zibila bukatuta, 16 urteak bete berriak zituela, haren egoera zalantzazkoa zen oso, ez zegoen argi etxera itzuliko zen edo ez. Europako gerraren hasiera ez zen urruti, eta, Ingalaterrako gudarostean sartuta, faxismoari aurre egitea erabaki zuen. Britainiar Armadako CC Paraxutisten Erregimentuko 12. batailoian, lehenago 10. Green Howards batailoia (Yorkshireko erregimentua) izandakoan, sartu zen²²⁵.

1944ko ekainaren 13an hil zen, Normandiako lehorreratzean. Hogeita bat urte zituen.

Hermanvilleko (Calvados, Frantzia) gerra hilerrian, Lucio Sauquilloren omenezko hilarri bat dago.

3.6.8. Biktima zibilak

Gatazka armatuetan ahaztuetan ahaztuenak dira biktima zibilak. Biktima gehienak ekintza zuzenaren ondoriozkoak izan ziren, batez ere bonbardaketen eta atzeguardiako lantegi militarizatuetako jarduerarekin lotutako ezbeharren ondoriozkoak. Biztanleria zibilarren artean, emakumezkoak, haurrak, zaharrak eta gerrara joateko adinetik kanpo zeuden gizonak izan ziren gerraren ondorio latzak gehien pairatu zituztenak.

• Arqueros Contreras, Enrique

Jaenen (Andaluzia) jaio zen, 1895eko uztailaren 15ean. Ezkonduta zegoen. Dolores López López (Linares, 1897) andrea zuen emaztea eta bi seme-alaba izan zituzten: Dionisia (Linares, 1923) eta Enrique (Aretxabaleta, 1931). 1930ean etorri ziren Aretxabaletara, *Industrias Beroa* lantegian lan egitera. Izan ere, Enrique Arqueros ijeketan aditua zen²²⁶. Familia Etxe Berrietan bizi zen.

Ideologiaz sozialista izaki, Aretxabaletatik atera behar izan zuen, familiarekin batera, gudaroste frankistak hiria hartzera zihoazela ikustean. Elorriora bidean, Kanpanzarretik igarotzean, bomba batek jo eta

bertan hil zuen Enrique. Ez dakigu zehatz-mehatz noiz gertatu zen ezbeharra, baina 1936ko irailaren bukaeraren eta urriaren hasieraren artean izango zen. Berrogeita bat urte zituen.

• Arregi Garai, Juan Maria

1916ko uztailaren 16an jaioa, Etxebarri auzoko (Aretxabaleta) Malkorre baserrikoa²²⁷. Haren gurasoak: Lorenzo Arregi Zubizarreta (1879) eta Maria Garai Elezpuru (Gellao, 1882). Anaia-arrebak: Gregorio (1903), Alejandro (1905), Juan (1907), Antonia (1909), Matilde (1910), Bonifacia (1912), Cándido (1914), Luis (1918), Donato (1920), Bernardino (1922), Maria (1925) eta Asuncion (1928). Egoera zibila: ezkongabea.

1937ko abuztuaren 2an hil zen, bizikletan zihoala, Alemaniako armadaren Land-Rover batek harapatuta. Hogeita bat urte zituen.

• Azua Azkarretazabal, Victor

1885eko uztailaren 28an jaio zen, Aretxabaletan (Gipuzkoa). Haren gurasoak: Juan Azua Izurrategui (Bolibar, 1855) eta Juliana Azkarretazabal Etxebarriarteun (Mendiola, 1856). Otalora kaleko 10ean bizi ziren. Anaia-arrebak: Alberto Vicente (1882), Casimira Maria (1888) eta Juana Maria (1889).

1908ko irailaren 12an ezkondu zen, Sestaoko elizan, R. Sanchez Cañada andrearekin.

Zorrotzan hil zen, 1937ko ekainaren 30ean, bonbardaketa baten ondorioz²²⁸. Berrogeita hamabi urte zituen.

• Cortazar Gaztañaga, Lorenzo

1905eko azaroaren 14an jaioa, Oro auzoko (Aretxabaleta) Bengoetxe baserrikoa. Haren gurasoak: Francisco Cortazar Aiastui (Aretxabaleta, 1868) eta Maria Gaztañaga Guruceta (Galartza, 1879).

Legazpira joan zen lan egitera, eta hantxe ezkondu zen, Dolores Irazola Elizburu andrearekin. Lau seme-alaba izan zituzten: Vicente, Maria, Paula eta Blas. Lakiola baserrian bizi zen eta Patricio Echeverria lantegian lan egiten zuen.

Galdategian lanean ari zela hil zen, labea txatarrez kargatzen ari zela, esku-bonba bat lehertzean. Legazpiko ospitale militarrean hil zen, 1940ko azaroaren 22an, leherketak eragindako zaurien ondorioz²²⁹. Hogeita hamalau urte zituen.

• Dorronsoro Mugica, Martin

1862ko martxoaren 4an jaio zen, Aretxabaletan (Gipuzkoa). Haren gurasoak: Lorenzo Dorronsoro Peña (1823) eta Joaquina Mugica Otaegi, Ordizian (Gipuzkoa) jaioak biak. Otalora kaleko 8an bizi zen, Gorroño familiarekin. Egoera zibila: ezkongabea.

1936ko irailaren 26an hil zen, Lausita izeneko tokian, gatazka armatuaren erdi-erdian. Izan ere, egun horretan armada frankista Arrasate hartzen ari zen eta frontea "bero-bero" zegoen. Baratzera zihoala, bala batek buruan jo eta bertan hil zen. Hirurogeita hamalau urte zituen.

• Gago Raposo, Concepcion

1917ko abenduan jaio zen, Belver de los Montes (Zamora) herrian. Haren gurasoak: Francisco Gago Vara (Alcorcillo-Zamora, 1883) eta Rosaura Raposo Fernandez (Belver de los Montes, 1883). Anaia-arrebak: Angel (1909), Octavio (1912), Maria (1914) eta Antonio (1920). Mitarte kaleko 7an bizi ziren familiako kide guztiak, anaia zaharrena izan ezik, ezkondu baitzegoen. Egoera zibila: ezkongabea. *Industrias Beroa* lantegian lan egiten zuen eta UGT sindikatuko kide zen.



(1) Concha Gago, (2) Luisa Gutiérrez eta (3) Segunda Gutiérrez.

1936ko martxoaren 31n hasi zen Mola jeneralaren erasoak Ipar Frontean. Concha Gago Durango erre-fuxiatuta zegoen, hiriak, inolako arrazoirik gabe, biztanleria zibilaren kontrako bonbardaketa izugarria pairatu zuen egunean. Aterpe hartu zuen komentuko hormetako bat gainera erorita hil zen.

• Ingidua Bolinaga, Luis

1920ko uztailaren 24an jaioa, Aozaratza auzoko (Aretxabaleta) Okina baserrikoa. Haren gurasoak: Jose Maria Ingidua Herrasti (Areantza, 1877) eta Juliana Bolinaga Ezpeleta (Arrasate, 1882). Anaia-arrebak: Gregorio (1906), Felix (1910), Pedro (1912), Eulalia (1914), Maria (1916), Josefa (1918) eta Jose (1923). Egoera zibila: ezkongabea.

1936ko abenduaren 3an hil zen, *Aguirregaviria y Zubia* sarrailagintza lantegian ari zela, bala bat leihotik sartu eta bihotzean jo zuenean. Hamasei urte zituen.

• Larragan Artiz, Alfonso

1925eko urtarrilaren 26an jaio zen, Fraisoroko Ama Etxean (Zizurkil, Gipuzkoa). Galartza (Aretxabaleta) auzoko Errartena baserrian bizi zen.

1937ko apirilaren 5ean hil zen, Galartza auzoan, arratsaldeko hiru eta erdietan, bonba baten leherketaren ondorioz. Hamabi urte zituen.

• Lopez de Uralde Otxoa-Aizpurua, Jeronimo

1932ko apirilaren 16an jaioa, Galartza (Aretxabaleta) auzoko Errartena baserrikoa. Haren gurasoak: Julian Lopez de Uralde Aldoain (San Millan-Munain, 1895) eta Florentina Otxoa-Aizpurua Uribe-Etxebarria (Galartza, 1893).

Galartzan hil zen, gorago aipatu dugun ezbehar horretan bertan, Alfonso Larraganekin batera, bonba baten leherketaren ondorioz. Lau urte besterik ez zituen.

• Urzelai Mardaras, Juana

1891ko ekainaren 23an jaio zen, Bergaran (Gipuzkoa). Haren gurasoak: Esteban Urzelai Gabilondo (Bergara, 1847) eta Segunda Mardaras Agirre (Mallabia, 1865). Florencio Jauregi-Arraburu Ugalde (Larrino, 1877) jaunarekin ezkondu zegoen. Zazpi seme-alaba zituzten: Ciriaco (1916), Francisca (1920), Carmen (1921), Natividad (1922), Pilar (1924), Roman (1927) eta Justina (1929). Larrino (Aretxabaleta) auzoko Bernabena baserrian bizi ziren.

1937ko apirilaren 1ean, armada frankistaren erasoaren erdian gertatu zen zoritxarreko gertaera hau. Armada frankistak kanoiak jarriak zituen Otalorazelai izeneko leku batean, Murugain aldera begira. Armadako buruek eta soldaduek Bernabena baserria okupatua zuten, eta polizia-etxe gisa erabiltzen zuten. Baserrian, soldaduek sukalde ondoan jarri zuten sutautsa lehortzen. Arduragabekeria handia izan zen. Izan ere, handik gutxira sutautsak su hartu eta izugarrizko sutea piztu zen. Goizeko hamaikak ziren eta baserria erabat kiskalita geratu zen. Juana Urcelay Mardarasen gorpua hondakinen artean azaldu zen. Ezbeharrak ez ziren ordea han bukatu. Handik gutxira, Florencio bera hil zen, etxeko burua eta Juanaren senarra zena, familia erabat zurtz utzita.

• Usandizaga Azcunaga, Felicia

1911ko maiatzaren 25ean jaio zen, Legution. Durana kaleko 34an bizi zen, aita alargun Ignacio Usandizaga Loidirekin (Donostia, 1879), anaia Jose Antoniorekin (Aretxabaleta, 1914), izeba Dolores Usandizaga Loidirekin (Aduna, 1871) eta izeba Juana Usandizaga Loidirekin (Donostia, 1874). Aita Aretxabaletako udaleko idazkaria zen. Ikaslea zen. Egoera zibila: ezkongabea.

1937ko urtarrilaren 9an Aretxabaletak pairatu zuen bonbardaketa errepublikanoaren biktima izan zen. Bonbardaketaren helburua Lezamako tximinia suntsitzea zen, ijezte ekoizpena geldiaraztearren. Jaurtigaietako batzuk motz gelditu ziren eta haietako batek bete-betean jo zuen familia bizi zen etxea. Etxea erabat kiskalita geratu zen. Felicia Usandizaga, 26 urtekoa, eta haren izeba Dolores, hondakinen artean hilda agertu ziren. Izebaren biografia labur bat eskaintzen dizuegu ondoren.

• Usandizaga Loidi, Dolores

1871ko martxoaren 31n jaio zen, Adunan (Gipuzkoa). Haren gurasoak: Jose Antonio Usandizaga Usandizaga (Asteasu, 1842) eta Micaela Antonia Loidi Urkiola (Berastegi, 1842). Aretxabaletako udaleko idazkariaren arreba zen. Egoera zibila: ezkongabea.

Goraxeago azaldu den bezala, 1937ko urtarrilaren 9ko bonbardaketan hil zen, bere iloba Feliciarekin batera, metrailak eragindako zaurien ondorioz. Hirurogeita lau urte zituen.

• Zubia Egizabal, Severiano

1896ko azaroaren 7an jaioa, Goroeta auzoko (Aretxabaleta) Mendiaretx baserrikoa. Haren gurasoak: Sotero Zubia Enparanza (Goroeta, 1860) eta Celedonia Egizabal Olalde (Araotz, 1863). Egoera zibila: ezkongabea. Goroetan bizi zen, anaia Simeonen (1894) familiarekin. Ezkonduta zegoen. Anaiak Margarita Gorrotxategi Egizabal (Oñati, 1905) andrea zuen emaztea. Lau seme-alaba izan zituzten: Martina (1928), Vicente (1930), Luis (1931) eta Rosario (1933).

Arrasateko *Unión Cerrajera* lantegian lan egiten zuen. 1937ko uztailaren 8an hil zen, gaueko hamabietan, Legazpiko ospitale militarrean, lan ezbehar batean izandako zaurien ondorioz²³⁰. Berrogei urte zituen.

3.7. Errepresio frankista

Aretxabaletak pairatutako errepresio-prozesuak bi aldi izan zituen, ondo zehaztuak biak. Lehenengo, militarrek indarrez eragindakoa, irailaren bukaeratik azaroaren hasiera arte luzatu zena, hau da, hirian sartu zirenetik okupazioa, Oiartzungo eta Hernaniko fusilamenduekin, burutu zuten artekoa. Okupazio-indarrek hasieratik bertatik eragin zuten indarkeriarengatik nabarmendu zen batez ere garai hori. Hirian sartu ziren egunean bertan, zortzi pertsona fusilatu zituzten: lau Apotzagan, eta beste lau Marianistak ikastetxean. Lehenengo lauak, ihesean zihoazela, ustekabeen harrapatu eta atzemandako milizianoak ziren. Beste lauak, berriz, zauritu bat zeramaten ohatilariak. Borrokaren erdian bestela bezala eta inolako beharrik gabe egindako fusilamenduak izan ziren. Izan ere, nahikoa izango zen haiek atxilo hartzea. Laster etorriko ziren, gero, etxex etxeko miaketak eta harrapaketak ere, armadako buruen onespenearekin. Horri buruz esan beharra dago "lapurreta" ekintza horien benetako egileak falangistak eta nafar erreke-teak izan zirela. Soldaduak diziplinatuagoak ziren. Julia Makazagari, *Industrias Beroa* lantegiko bulegariari, adibidez, idazmakina lapurtu zioten, baina *in extremis* berreskuratu ahal izan zuen, idazmakina ordurako kamioi batean sartuta bazegoen ere²³¹.

Honela gertatu zen dena: idazmakina Komandantetzara eramateko agindu zidaten, baina erreketee, gero, hartu eta Ariñoren txaletera eraman zuten. Han zeuden Nafarroako erreketee, gaizto baino gaiztoagoak; gipuzkoarrak ere baziren, baina haiekin gustura hitz egin zitekeen, ihes egin ez zuten mutilak ziren, abertzaleak gehien-gehienak, Tolosa aldekoak, Elosegitarrek eta, ..., oso mutil jatorrak denak.

Behin, zaindari zegoena niregana hurbildu eta esan zidan:

- Zure idazmakina hori gaur gauean eramango dute, kamioian sartuta dago dagoeneko, Nafarroa aldera abiatzeko prest.

Biharamunean, hara joan eta honela esan nion zaindari hari:

- Aizu, esan horiei jaisteko!

Eta esan zidan.

- Ez, ez daude.

- Benetan?

- Ez, barruan daude, baina ikusi egin zaituzte eta ez dute jaitsi nahi.

Orduan, Komandantetza Militarrea joan nintzen, Arroyo komandantea zegoen han, eta gertutakoa kontatu nion. Teniente Burlatakoa zen eta kapitaina Iruñekoa, kontua da ez zidatela idazmakina itzuli nahi. Orduan, Arroyo komandanteak itzultzeko eskatu zien mesedez. Azkenean (zigortzeko mehatxua egin eta gero), eman egin zidaten, baina tekla bat erreta zeukala. Oraindik ere neurekin daukat makina hori.

Juliak antzeko beste kasu bat kontatu zigun gero²³²:

Hainbat eta hainbat gauza eraman zituzten: Ariñotarren pianoa, piano zoragarria, etxean zeuden margolan guztiak, dena, dena hustu eta Nafarroa aldera.

[...] halako batean bonba bat bota zieten eta, Salinasen, kamioia bi zati eginda geratu zen; gauza pila zeramatzen, pianoa, besteak beste. Orduan agerian geratu zen Nafarroa aldera zeramatela guztia.

Antonio Sogorb Lópezen, tren-geltokiko buruaren, langile-txartela.



Tren-geltokia Antonio Sogorb Lópezen ardurapean zegoen. Hark, estatuko funtzionario gisa, kon-tuak xuxen eraman behar zituen, eta, behar izanez gero, ofizial bati eskuratu. Familiarekin bizi zen, gel-tokian bertan, bigarren solairuan, egokitutako etxebizitza batean. Haren alabak, Natividad Sogorb Ima-zek, beste zenbait xehetasun gehiago eman zizkigun²³³:

Soldaduak sartzean, aitak likidazioa eginda utzi zuen, baina han dena desagertu zen, dirua, dena... Handik urte batzuetara, Gasteizen ordurako, amak esan zidan denda batera joan eta bere irra-tia ikusi zuela han, konpontzeko norbaitek eramanda, eta esan ziola saltzaileari: «Begiratu ea hau eta hau daukan atzean!», eta halaxe omen zeukan. Orduan, saltzaileak aitortu zion erasoko guardia batek ekarri ziola.

Gero, aita Santoñan preso hartu zutenean, horra non agertzen den hemen, trenean; kalte-ga-lerak eskatu zizkieten, geltokia zela eta, baina nire aitak bertan utzia zuen diru guztia. Bere burua de-fendatzeko, aitak esan zuen dirua ofizialen batek hartu behar izan zuela bere gain, eta han eraman zu-tela dena.

Ia urtebete geroago, 1937ko abuztuaren 27an, tokiko agintaritzaren aginduz, haren altzari eta puska guztiak Pedro Jauregiren etxera eraman zituzten, Durana kaleko 38ko bigarren solairura, eta gor-dailu gisa utzi bertan²³⁴. Baina ez zen hura kasu bakarra izango; gauza bera gertatu zen Juan Zaldibiaren altzari eta puskekin edota Mariana Gorosarrirenekin —bere gela utzi behar izan zien San Bizente Paulen ahizpei—, edota Anastasio Marzana eta Romualdo Akizuren higiezinekin, besteak beste. Etxeak bertan be-hera utzita alde egin ondoren, bizitza berregiteko asmoz pixkanaka itzultzen hasi zen jende eta familia as-kori puska guztiak kendu zizkieten, Ondasunak Bahitzeari buruzko Legea izango zenaren aurrerapen gisa. Benetako errepresio ekonomiko bat izan zen.

Behin soldadu frankistak herrian finkatuta, “sorgin-ehiza” hasi zen. Mola jeneralak bidalitako ohar sekretuak argi eta garbi uzten zituen gauzak²³⁵:

Ekintzak ezinago bortitza izan behar du, lehenbailehen menderatu nahi dugu etsai indartsu eta ondo antolatutako hau. Mugimenduaren aurka agertu diren alderdi politiko, elkarte edo sindikatuak bu-ruzagi guztiak espertxeratu egingo dituzue eta zigor eredu-garriak ezarriko, matxinada edo greba deiak itotzearen.

Estatuko gainerako lurraldeetan bezala, agindua hitzez hitz betearazi zen. Izualdia —bortizkeria hu-tsa— hasia zen.

1936ko urrian hasi ziren buruzagi politiko eta sindikalisten kontrako lehen atxilotetak. Ondarretako espertxera eraman ondoren, urria bukaera eta azaro hasiera bitartean fusilatu zituzten denak.

Errepresioaren bigarren aldiak hiru oinarri nagusi izan zituen: lege eta organo berrien sorrera (Erantzukizun Politikoen Legea), Ondasunen Bahiketak, eta gerra kontseiluen bidez atxilotuei ezarritako zigorrak. Horra Mugimenduaren aurka zeudenak zigortzeko bi modu desberdin, ekonomikoki zein penalki.

3.7.1. Lehen atxiloketa eta fusilamenduak

Aretxabaletako kaleetan bi lagun atxilotu zituzten, Isidoro Garciaetxabe eta Victoriano Akizu, STV sindikatuko eta Batzokiko presidenteak, hurrenez hurren. Eskuak odolez zikindu gabeak zituztela eta ezer egin ez zutela jakinda, herrian gelditzea erabaki zuten bi abertzale. Baina Mola jeneralaren aginduek ez zuen zalantzarako tarterik uzten: buruzagi politiko eta lider sindikal guztiak deuseztatu behar ziren.

Aparteko lekuko baten adierazpena lortu dugu, Isidoro Garciaetxabe Zuazuarena, hamasei urte betetzear zegoela, bere osaba Isidororen atxiloketa —soldaduek eragina— ikusi baitzuen. Isidoro Pablo Urtubiren botikara joan ohi zen sos batzuk irabaztera. Botika Komandantziaren ondoan zegoen —Otalora kaleko 14an, Otazu Jauregiaren aurrean—, soldaduen joan-etorria etengabea zen beraz, eta botikan harreman handia zuten haiekin, sendagaiak erostera joaten baitziren. Soldaduek gazte xalo hari informazio ateratzeko aukera ikusi zuten berehala, eta guraso eta ahaideak non zeuzkan galdetu zioten. Isidorak Egillior (Galar-tza) baserrian zeuzkan gurasoak, eta Isidoro eta haren emaztea, Pantxika, Usitxan (Isurietan) zeuden²³⁶:

Militarrek esan zidaten:

- Zoaz, zoaz, esaiezu etortzeko, beren burua hemen aurkeztu beharra daukatela!

Eta nik, ezjakin honek, ez bainekien gerra zer zen ere, Isurietara joan nintzen, eta bidean hor non hasten zaizkidan tiroka. Iritsi naiz halako batean eta etxeokok esaten didate:

- Baina nolatan etorri zara hona?

Eta ja han gelditu nintzen, Porrukoan. Mariano Zubizarreta zegoen haiekin.

- Orain nola joango gara kalera, neure burua aurkeztu beharra daukat?

Tiroak zirela eta, artilezko zakuak zeuzkaten leihoetan jarrita, balak artilean geldi zitezen, barrura sartu gabe.

- Eta nolatan etorri zara, Apotzagatik eta beste aldetik tiroka ari badira?

- Niri etorri beharra naukala esan didate eta etorri egin naiz. Idi bidetik etorri naiz burua makurturik. Ausartzea ere.

- Bueno, orain zapi zuri batekin joango gara hirurok —Pantxika baserrian gelditu zen—, bakean goazela adierazteko.

Zubira ailegatzean —Lausitatik elizara igarotzeko horretara—, halako batean, horra non entzuten dugun:

- Geldi, gora esku horiek!

Soldaduek gelditzeko esan ziguten kanpandorretik. Arakatu egin zituzten eta esan zieten beren kabuz agertu zirenez ez zitzaieela ezer gertatuko. Ni ez ninduten arakatu eta besoak jaisteko esan zidaten.

Handik egun gutxira bi soldadu agertu eta atxilo hartu zuten Isidoro, baita beste norbait ere (Victoriano Akizu segur aski), nire etxe aurrean, Durana kaleko 10ean.

Orduan, Pantxikaren aita joan zen segur aski Donostiara. Guk lehengusu bat genuen Donostian, eta Isidoro ikustera joan ziren (Ondarretara), baina han ez zegoela esan zioten, irtena zela handik. Orduan lehengusuak esan zigun:

- Ba, bereak egin du.

Horiei Arrasaten bizi ziren bi aretxabaletar gehitu behar zaizkie: Agustin Aranburu Zabaleta eta Raimundo Galdos Azkarretazabal; bai eta hiru bedoñatar ere: Juan Bengoa Agiriano, Sabino Etxabe Gurutzeta eta Dionisio Uribesalgo Otadui. Arrasateko udal espetxean atxilo harturik, inguruko beste gizon eta emakume batzuekin, kamioi batera igo eta Ondarretara eraman zituzten. Hori dena bi egunetan gertatu zen: 1936ko urriaren 20an eta azaroaren 2an. Urriaren 21etik 22rako gauean, Ondarretatik atera eta Hernanira eraman zituzten, fusilatzerara, Victoriano Akizu, Juan Bengoa eta Raimundo Galdos. Azaroaren 2etik 3rako gauean, Oiartzungo hilerriaren inguruetan, Isidoro Garciaetxabe, Agustin Aranburu, Sabino Etxabe

eta Dionisio Uribesalgo fusilatu zituzten. Zazpiak abertzaleak eta epaiketarik gabe hilaraziak. Horrela be-tearazten ziren Mola jeneralaren aginduak.

Atal honetan, errepresioaren lehen aldiko fusilamenduak baino ez ditugu jaso nahi izan. Ez ditugu gainerako fusilatuak ahaztu nahi (aipatuak ditugu jadanik aurreko kapituluan, biktimei buruzkoan), faxistek nola jokatzten zuten eta zer-nolako metodoak erabiltzen zituzten azaldu baino ez dugu nahi izan. EZIN AHAZTU!

3.7.2. Zarraoa presondegi-etxea

1936ko urriaren 2an eratu zen lehen udal frankista. Gipuzkoako Gerra Batzorde Karlistaren ordezkariak izan zuen kargu berriak izendatzeko ardura. Hona emaitza:

- Alkatea: Eustaquio Alkorta Mitxelena (aho batez).
- Lehenengo alkateordea: Toribio Elcoro Gorosarri
- Bigarren alkateordea: Roque Agirre Iza.
- Lehenengo sindikua: Teodoro Unanue Garciaetxabe.
- Bigarren sindikoa: Timoteo Ezpeleta Viteri.
- Zinegotziak: Jose Garai Bergara, Faustino Lasagabaster Herrasti, Francisco Uribe-Etxebarria Zubizarreta eta Esteban Arriola Murua.

Horra nola hasi zen lehen tokiko boterea. Baina gerra egoerak ez zuen laguntzen udalaren kudeaketa aurrera eramaten. Azken batean, militarrek ziren legearen eta justiziaren benetako zaintzaileak. Baina pixkana-pixkana makineria frankista hobetzen joan zen eta organizazio eta lege berriak egituratzen hasi ziren.

1938ko martxoaren 8an, martxan jarri zen Falange Espainiar Tradizionalistaren (FET) eta Ofentsiba Batzorde Nazional Sindikalisten (JONS) buruzagitza. Egia esan, Aretxabaletan ez zegoen Falangerik, goikoen aginduz sortutako zerbait izan zen, herriko elementu karlistekin bateratu zutena. Aretxabaletako buruzagitza lau kidez osatua zegoen:

- Eustaquio Alkorta, alkatea.
- Toribio Elcoro, alkateordea.
- Ramón Arrue, udal-epailea.
- Benito Alonso, maisua.

Arazo zailenetako bat haien ideialen kontra zegoen jendea – borborka agertzen ari zena – kontrolatzea izan zen. Preso eta pertsona susmagarrien inguruan egindako txosten eta salaketa asko ebatzi behar izan zituzten. Presoei egindako gerra-kontseilu bakoitzak txosten bat zekarren berekin, auzitegi horren bermea eta lekukoen konplizitatea izan ohi zituena. Ez ziren falta izan ez alkatearen txostenak – zuzendaritzako kidea zen hura ere –, ez Guardia Zibilarenak – aurrekari politikoei buruzko fitxak eginez – ez eta Emilio Larrañaga herriko erretorearenak berarenak ere. Horrek guztiak eratuko zuen gerra-kontseiluaren epaiaren oinarria. Esan beharrik ere ez dago herritarren arteko gorroto, ika-mika, errepresalia, inbidia eta abarrek ez zutela inondik ere txostenaren neutraltasuna bermatzen.

Gainera, gerrak lekuz aldarazitako jendea herrira iristen ari zen: batetik, gerratik ihesi joan eta etxeratutakoak; bestetik “sorterriratutakoak”. Falange Espainiar Tradizionalistaren (FET) eta Ofentsiba Batzorde Nazional Sindikalisten (JONS) zuzendaritzak egoitza bat egokitu behar izan zuen jende horrentzat guztiarentzat. Marcial Zarraoaren etxea – Otalora kaleko 18a – erabili zen horretarako. UGT sindikatuko egoitza zegoen han, eta, 1937ko ekainaren 2az geroztik, baita gizarte laguntzako jantoki bat ere, ongintzako udal batzorde baten ardurapean. Bada, etxe horretan egondako pertsona batzuk, zenbait hilabetez han itxita eduki eta FET eta JONSen auzitegitik pasatu ondoren, beste toki batzuetara eraman zituzten. Gizonezkoak – Antonio Gago, Francisco Gago, Hermenegildo Horcajada, José Horcajada, Modesto del Teso eta Manuel Andrés – Zapatariko espetxera eraman zizuten. Egun batzuk lehenago, Baltasar Rodríguez Do-

nostriako ospitalera eramana zuten, gaixorik. Emakumezkoak –Asuncion Martínez, Consuelo Sandoval eta Candelas Lentijo–, Ondarretara.

Denborak aurrera egin ahala, herriko boterea finkatuz joan zen. Elementu arrotz guztiak kontrolpean geratuko ziren eta garaituen gaineko presio soziala harlauza astun bat bihurtuko zen.

3.7.3. Errepresioaren legeak. Erantzukizun Politikoen Legea eta Ondasunen Konfiskazio Legea

Erantzukizun Politikoen Legea izan zen frankismoak asmatutako errepresio armarik handiena. 1939ko otsaileko lege bat da, pertsona fisiko zein juridikoen kontrako errepresio politikoari baliozkotasuna emateko asmatua. Gainera, atzerako eragina zuen, 1934ko urritik aurrerako guztia hartzen baitzuen barruan.

Beraz, organizazio politiko eta sindikal guztiak lege hori urratzen zuen delituaren barruan kokatuta geratu ziren. Legea 1945. urtea arte egon zen indarrean.

Ondasunen Konfiskazio Legea 1937ko urtarrilaren 10ean dekretatu zuten. Errepresio ekonomikoa zen haren helburua. Aipatuak ditugu honezkero ondasun higiezinaren konfiskazio eta desjabetze kasu batzuk, baina lehen hilabeteak ziren eta legea erabat garatu gabe zegoen artean. Denborarekin, isunak, konfiskazioak eta bahimenduak etorriko ziren. Lege hori fusilatuei beraiei ere aplikatu zitzaizkien: Victoriano Aki-zuri eta Saturnino Sauquillori, adibidez, bi mila pezetako isuna ezarri zitzaizkien haietako bakoitzari.

Estatu frankista berriak ez zuen aski etsaia deuseztatzea, batere ondasunik gabe utzi behar zuen, gainera.

Aurrerago, enbargatze-espedienteren bat ireki zitzaizkien aretxabaletar guztien zerrenda aurkeztu dugu (ikus 5., 6. eta 7. eranskinak, 309-311. or.):

3.8. Juan Antonio Ansaldo eta Felix Urtubi, aparteko hegazkin pilotuak

Hegazkintzaren hasieran, gure herriarekin estuki lotutako bi pertsonaia izan ziren: Juan Antonio Ansaldo eta Felix Urtubi. Hala bataren nola bestearen ekintzek arrasto nabarmena utzi zuten Espainiako Gerra Zibilean. Harrigarria egiten zaigu historiaren aldi horretan Aretxabaletaren eta hegazkintza militarren artean dagoen harreman bitxia. Lehen urte haietan, hegan egitea abenturaz beteriko mundu erakargarri bat aurrean zabaltzea bezala zen garaiko edozein gazterentzat. Aipatu bi gazte horiek heziketa ona jasotzeko aukera izan zuten, familiaren ahalbide ekonomikoei esker, eta hori zela eta, Aire Armadan egin ahal izan zuten karrera militarra.

Juan Antonio Ansaldo Aretxabaletan jaio zen, familia aristokratiko baten altzoan. Amonaren aldetik Otalora zuen abizena, herri honetako leinu ospetsua. Felix Urtubi halaberrez jaio zen Elorrion (Bizkaia). Aretxabaletako botikan lanean urte asko eman zituzten botikarien semea eta biloba zen. Haren aitonak, Felix Urtubi Martinezek, aldarrikatu zuen Lehen Errepublika gure herrian.

1927an, Juan Antonio Ansaldo, herriko seme kuttun izendatu zuten, Marokoko gerran egindako ekintza heroiko baten-
gatik. Hori zela eta, Aretxabaletako udalbatzak haren izena jarri zion herriko plaza bati –*J.A. Ansaldoaren plaza*–: elizak, Otalora etxeak eta herriko plazak eratzen zuten espazioari, alegia. Urte



J. A. Ansaldo plazan dagoen elizako plaka.

batzuk aurrerago, 1933an, Errepublika aldarrikatuta ordurako, plazaren izena jartzen zuen xafla kendu zuen gau batez norbaitek, eta udalak ez zuen berritu. Frankistek Aretxabaleta okupatu zutenean, gerra betean ordurako, berriro jarri zuten xafla, ordena berriaren adierazgarri.

Gerra Zibilean, aretxabaletar biek bando banatan defendatu zituzten beren ideia politikoak: Ansaldo, monarkiazale amorratuak, matxinatuen alde egin zuen; Urtubi, berriz, heroi baten gisa hil zen, Errepublikaren alde borrokan.

Paradoxikoa bada ere, bizitzaren une batean, etsai bera izan zuten biek: FRANCO. Urtubirena begien bistakoa da bere errepublikazaletasuna dela eta. Ansaldo, berriz, Francoren alde borrokatu bazen ere, Errepublika erorarazteko asmoz, gero engainatua sentitu zen, behin gerra bukatuta, Monarkiari itzultzeko aukera eman ez zitzaiolako. Hala, monarkiazale integrala eta porrokatua izaki, Francoren etsai setatsua bihurtuko zen, hainbestearino non, diktadorearen aurrean lotsagabe jokaturik, bere burua erbesteratu behar izan zuen bere bizitzako azken egunera arte.

Hala batak nola besteak balentria handiak egin zituzten airean. Ansaldo eta Urtubi, bi ehiza-pilotu, gerran bando banatan aritu ziren hegazkinlari apartak biak.

3.8.1. Juan Antonio Ansaldo Vejarano (1901-1958)

Aretxabaletan jaio zen, 1901eko ekainaren 24an. Haren gurasoak: Francisco Ansaldo Otalora – legegizona, eta diputatua Bergarako barrutitik – eta Maria de la Misericordia Vejarano Cabarrus. Gurasoak Madrilen bizi ziren eta Aretxabaletako bainu-etxeetara etorri ohi ziren udan. Francisco Ansaldoen ama Maria Ignacia Otalora Irizar zen, aretxabaletarra sortzez. Felisa Antonia Elcoro Olaberen lekukotasunak agerian uzten du familiarekiko zuten interes sakona²³⁷: “Hasieran kosta egin zitzaien familia izatea, baina gero seme asko izan zituzten. Aretxabaletako seme bat nahi zuten kosta ala kosta eta hona etorri ziren erditzera. San Martin auzoan jaio zen, Azkoitiarrak bezala, Eltzetegian (Ibarra Ostatua)”.

Juan Antonio Ansaldo Vejarano laugarrena zen sei anaien artean — Francisco, Enrique, Jose Maria, Juan Antonio, Ignacio eta Joaquín —, pilotuak denak. Familia aristokratiko baten altzoan jaioa, aitak San Enrikeko bizkonde titulua zuen. Monarkia sutsuki defendatzen zuen familia bateko kide izanik, halakoei zegokien ohoreekin bataiatu zuten. Honela zuen izen osoa²³⁸: “Juan Bautista Antonio María de la Asunción Francisco de Asís José Ramón”.

1923ko urtarrilaren 8an sartu zen Aire Armadan, hirugarren mailako teniente audite gisa²³⁹. Melillako Komandantetza Nagusiko Gerra Auditoriara bidali zuten, Rifeko gerra piztu zen garaian. Han, Marokon, hartu zuen gerra eta odolezko bataioa.

Annualetako hondamendiaz geroztik (1921eko uztaila), Afrikako armada espainiarrak zenbait errepresalia-eraso jo zituen Rifeko tribuen kontra. Tribu horien buruzagiak, Abd-el-Krimek, espainiar nagusitasun kolonialaren aurrean erakusten zuen erresistentziak urduri zeuzkan oso okupazio-gudarosteak. Hala, 1924ko martxoaren 23an, Tizzi Moren-en gaineko operazioetako batean, Juan Antonio Ansaldo, 51. Havilland hegazkina pilotatuz zihoala, hegazkin etsai bat antzeman zuen etxe bateko hormen artean gordeta. Abd-el-Krimenen hegazkinetako bat zen, Espainiako aire armadaren nagusitasunari aurre egiteko eta Malaga, Melilla, Tetuan edota Alhucemaseko Haitza bonbez eraso zitzakeela mehatxatzeko erosiak. Bala-jasa bat jaso zuen erantzun gisa, eta haietako batek zangoan zauritu zuen. Odola borborka zeriola, eta bere behatzailearen aginduei entzungor eginez, uko egin zion ere hegazkinaren agingailuak uzteari. Bat-batean bira egin, eta hegaldi suizida batean, 50 metro baino gutxiagoko altueratik bonba-sorta bat jaurti zuen. Berriz ere bira egin eta beste pasaldi bat egin zuen munizioa bukatu arte. Etsaien metrailadorearen bi tiro-jasek fuselajea bete-bete harrapatu eta larri zauritu zuten behatzailea. Horrek Tafersiteko kanpamentuan lehenbailehen lurreratzeraz behartu zuen²⁴⁰.

Balentria hori saritzeko, San Fernandoko Gurutze Handia eman zioten, 1926ko abenduaren 7ko Errege Agindu bidez. Alfontso XIII.a erregearen eskuetatik jaso zuen ohore-domina, Primo de Rivera eta errege-familia bertan zirela, 1927ko maiatzaren 15ean Madrilen egindako desfile militarrean. Ekitaldi ho-



1927ko Andramaixak. Herri-omenaldia seme kutun izendatu eta gero. (1) Ansaldo oroitzapenezko oparia-
rekin, (2) Luis Arrue, (3) Luisa Olabe, (4) Cecilia Olabe, (5) Emilia Lasagabaster, (6) M^a Luisa Urtubi, (7)
Benita Elcoro, (8) Román Galdos eta (9) Pedro Lasagabaster.



1930-05-27.
Ansaldoren eta
Pilar San Miguel
Martínez de
Camposen
ezkontza San
Fermin elizan
(Madrilen).

rretan, ohore-domina jaso zuten, halaber, Joaquin Planell artilleriako komandanteak eta Ordiales kapitain hegazkinlariak²⁴¹. Armadako jeneral gazteena, Francisco Franco, izan zen soldaduei armak aurkezteko agintzeko arduraduna.

Ekitaldi xumeago batean, Aretxabaletako udalak herriko seme kutun izendatu zuen. 1927ko abuztuan, herriko jaietako hirugarren egunean, Garciaetxabe Ostatuan egin zen bazkari batean, herriaren omenaldia jaso zuen. Gainera, oroitzapenezko pergamino bat jaso zuen opari, eta bere izena eman zioten herriko plaza bati²⁴². Madrileko prentsak ere bere egunkarietan jaso zuten albistea²⁴³:

Gaur, Ansaldo hegazkinlaria Aretxabaletan izatekoa da, bere jaioterrian, prestatua dioten omenaldia jasotzeko.

Ansaldo hegazkinez abiatu da Gasteiztik; baina lainoa dela eta, ezin izan du Aretxabaletan lurrreratu, eta Gasteiza itzuli da. Gero, automobilerik abiatu da bere herrirantz.

Eguerdiko hamabietan iritsi da eta herri osoa atera da kalera hari harrera egitera. Udaletxerantz abiatu da herritarren oihuen artean eta balkoira atera behar izan du herrikideei agur egitera. Alkateak, Arrue jaunak, ongi etorria emateaz gainera, hegazkin-pilotua herriaren izenean besarkatu ahal izate-gatik sentitzen zuen poza adierazi du bere hitzaldian. Gero, Aretxabaletako seme kutun izendatzen duen pergaminoa eman dio opari.

Hegazkinlaria, herri osoaren txaloak jasorik, bihar bertan itzuliko da Gasteiza.

Komandante gradua jasorik, 1930eko maiatzaren 27an, Pilar San Miguel Martinez de Campos andrearekin ezkondu zen Madrileko San Fermin elizan. Andrea aristokraziako familiarik agurgarrietako batetako kidea zen, Martinez de Campos jeneralaren biloba eta Cayo del Reyko markesen alaba. Juan Antonio Ansaldo hegazkinekiko zaletasuna txertatu zion emazteari, eta irakasle lana eginez, emazteak hegazkinak gidatzeko baimena ateratzea lortu zuen. Haren anaiak ere, Francisco eta José María, María Bernaldo de Quirós Bustillo eta Margot Soriano Sanchez-Eznarriaga andreekin ezkondu ziren, Espainiako lehen eta bigarren emakume hegazkinlariekin, hurrenez hurren. Familia barruan geratzen zen dena.

Errepublikaren etorrerarekin, 1931n, Juan Antonio Ansaldo, erregeazale amorratua eta militarra, zirt edo zart egin beharrean dago: karrera militarra bertan behera utzi edo bere ideialei leial iraun. Hala, Armadan baja eman eta Errepublikaren kontra konspiratzen hasten da. Ez du Monarkia ez den beste gobernu motarik onartzen. Hurrengo urteetan, haren bizitzak garai zurrunbilotsuak biziko ditu, are bortitzak ere. "Acción Española" organizazioko kide egin zen eta Sanjurjo jeneralaren kontrako estatu kolpean parte hartu zuen, 1932ko abuztuan. Gero, 1934an, "Falange Española" organizazioan sartu zen, "Objektiboen buruzagi" gisa²⁴⁴. Ekintzaile-taldeak, benetako gaizkile pistoladunak, prestatzeaz arduratu zen, eta sabotaje, atentatu eta errepresalietan parte hartu zuten, talde paramilitar gisa. Ideologia falangistatik urrundu ahala, haien buruzagi Jose Antonio Primo de Riveraren kontra konspiratzen saiatu zen. Azkenean, Falangetik bota zuten, organizazioa monarkiazaleen aldeko zerbitzuetarako erabiltzen saiatzean. "Bloque Nacional" delakoan sartu zen, eta "Guerrillas de España" izeneko taldea sortu zuen, aurrekoetan bezalako lanak eginez. Hauteskunde lehiak, baina, taldea desagitea eragin zuen²⁴⁵. Errepublikaren kontra azpijokoan murgilduta, ahaleginak eta bost egin zituen altxamendu militarri bidea errazteko.

Protagonismo berezia izan zuen altxamenduaren lehen egunetan, 1936ko uztailaren 19an, Pauetik Iruñera joan zen hegazkinez, bidaiarien artean alderdi tradizionalistako buru Fal Conde zeramala. Mola jeneralak egin zien harrera, Komandantetza Militarren bulegoan bertan. Jeneralak Ansaldori agindu zion joateko berehala Estorilera (Portugal) Sanjurjo jenerala jasotzera —hara erbesteratua baitzen Lerrouxen gobernuak amnistia eman zionean, huts egindako estatu kolpean atxilo hartua izan ondoren—, Movimiento Nacional delakoaren zuzendaritza har zezan. Ansaldo Santa Cruzeko (Portugal) hondartzako aerodromoan lurreratu eta Estorilera joan zen berehala, jeneralaren bila. Burgosera eraman behar zuen biharamunean, Movimientoren zuzendaritza bere gain hartzera. Hurrengo egunean, uztailaren 20an, ainerako prest zeudela, lainoak irteera atzerarazi zuen, eta, azkenean, Marinha de Cascaes izeneko eremutik abiatzera behartu zituen. Baina halabeharrek hala nahi eta, aireratzeko unean, hegazkinak albo batera egin eta lur jo zuen²⁴⁶. Sanjurjo bertan hil zen eta Ansaldo larri zauritu zen. Historiak beste norabide bat hartu zuen.

Gerra hasi zen eta, istripuko zauriak artean sendatu gabe, 1936ko abuztuan, Iparraldeko Aire Indarretara batu zen, Burgosko aerodromoan, Saenz de Buruaga teniente koronelaren aginduetara. Penintsularen erditik iparralderako ia fronte guztietan hartu zuen parte, ehunka zerbitzu egin zituen eta 650 hegaldi-ordu baino gehiago, miaketa, bonbardaketa eta metrailaketen artean. Gure lurralde hurbilenara mugatuz, haren zerbitzu-orrian honako hauek daude jasota²⁴⁷: Donostiako eta Pasaiaiko bonbardaketa, irailaren 13an; Legutioko gudua, basea Gasteizen zuen hegazkin-unitate baten buru gisa: hiru "Fokker"-ek, "Dragoi" batek, "Breguet XIX" eskuadrila batek eta "Heinkel" alemaniar ehiza-hegazkinen eskuadrila batek osatzen zuten unitatea; abenduaren 24an, Arrasateko kota nagusiak miatu eta bonbardatu zituen, eta indar etsaiei metrailadorez eraso; abenduaren 27an, Udala mendia eta Markinako herria bonbardatu eta metrailatu zituen; 1937ko otsailaren 2an, Udala eta Elgetako posizioak bonbardatu eta metrailatu zituen. Hurrengo egunean su-bonbak deskargatu zituen Elgeta gainean.

Kanpaina bitartean, Aberriarengatiko sufrimenduen domina eman zitzaion, 1937ko urriaren 31n argitaratutako agindu baten bidez. 1938ko irailaren 21ean, teniente koronel kargurako gaitu zuten, eta 1939an, atzeraeraginezko izaeraz, beste zenbait ohore jaso zituen: Kanpainia Domina bat, Meritu Militarren bi Gurutze gorri, eta Gerra Gurutze bat; Francok berak ezarritako Domina Militarraz gainera.

Baina ez zen dena sari eta garaipen izan, 1938ko urrian atxilo eduki zenbait hilabetez Santa Katalinako gazteluan (Cadiz), "aberriari kalte egiten dioten esamesak zabaltzeaz" akusatuta²⁴⁸. Ansaldok adierazia zuen prest zegoela Italiara printzearen bila joan eta, behin Iruñera ekarri ondoren, bertan errege izendatzeko. Hitz horiek Francoren belarrietara iritsi nonbait eta honek, sutan, berehala atxilotzeko agindua eman zuen²⁴⁹.

Behin gerra amaituta, Franco jenerala kargu militarrek antolatzen eta banatzen hasi eta Itsasarteko Aire Esparruaren buruzagitza eta Sevillako Bigarren Aire Brigadaren zuzendaritza eman zizkion Ansaldori. Sei hilabetez baino ez zuen iraun karguan. Izan ere, Monarkia berrezartzeko asmo sendoa hartuta, ez zuen amore emango bere nahia bete ahal izan arte. Hala ere, diktadoreak beste asmo batzuk zituen, boterean betikotzeko. Ansaldo nekaezin eta egoskor hura deuseztatu beharreko etsai politiko gisa ikusten zuen Francok, baina gerran hainbeste nabarmendutako pertsona baten kontra ezin zuenez ezer egin, Paris eta Londreseko enbaxadetara bidali zuen aireko agregatu gisa. Espainiatik urrun, gorputz diplomatikoko kide gisa, arazo gutxiago emango zituen. 1940ko otsailaren 26an, teniente koronel mailara goititu zuten²⁵⁰, berak bere "erbestealdi politikoa" betetzen zuen bitartean. Atzerrialdiak bi urte iraun zituen, Bigarren Mundu Gerran Vichy alemaniarren mendean egon zen garaiarekin bat. Denboraldi horretan ez zion behin ere utzi konspiratzeari, Francoren kontra oraingoan, Erregea berriro tronuan ikusteko obsesioak jota. 1941eko otsailan, Alfontso XIII.a hilik, Juan Borbonek, Juan III.ak, jaso zuen erbestealdiko koroa oinordekotzan, baina ezinezkoa izan zitzaion Espainiara itzultzea, Francisco Franco diktadoreak faxismo alemaniarren babesa zuenez gero.

Aireko agregatu kargua uztera behartuta, "nahitaez prest" egoeran geratu zen Erdiko Aire Esparruan. Aireko Armadan goi kargu bat izatera iristeko bide guztiak moztu zizkioten. 1943an Levanteko Aireko Esparruko Estatu Nagusira bidali zuten. Izan ere, Madriletik urrun nahi zuten, konspirazio gehiago egin ez zezan. Ansaldok, egitura frankistari aurre egin nahirik, baja eman zuen, aspaldiko gerra-zuriek eragindako oinazeak aitzakiatuta. Egoera azken muturreraino eramanez, Santa Katalinako gazteluan sei hilabetez itxita egotera zigortu zuten, postu berrian lanean hasteko agindua ez betetzeagatik. Ansaldok, ordea, azken efektu-kolpea emanez, Portugalera erbesteratu zen, Espainiatik ihes eginda, eta horrek haserre handia eragin zuen erregimen frankistan, barregarri utzi zituela iritzita. Handik berehala, 1943ko azaroaren 12an, Armadatik bota zuten²⁵¹.

Azkenean, Donibane Lohizunen emango zituen bere azken urteak, toki hori aukeratu zuen bere erbestealdia igarotzeko eta oroitzapenak paperean jasotzeko. Liburu suntsitzaile eta eztenkari bat idatzi zuen, *¿Para qué...? (De Alfonso XIII a Juan III)* (euskaraz, *Zertarako...? Alfontso XIII.etik Juan III.era*), frankismoa gogor kritikatu. 1950eko irailean bukatu zuen idazten, baina argitalpena oso neketsua izan zen, oztopo eta eragozpen asko aurkitu zituen bidean. Espainian, adibidez, debekatuta egon zen. Azkenean, Ma-



Juan Antonio Ansaldo, bere bizitzako azken urteetan, kondekorazio guztiekin.

tzarik gabe.

Aldi berean, Victor G. Salmadorrek, Ansaldoren biografoak, *Juan Antonio Ansaldo. Caballero de la lealtad* izeneko obran, hitz-joko honen bidez ematen dio hasiera liburuari²⁵³:

Monarkiaren frankotiratzaile bihurturik, Donibane Lohitzunen zegoen Ansaldo, ez tentatzen ez menderatzen utzi gabe. Juan Borboni leial iraun zuen, gehiegikeriaraino eta mistizismoraino leial iraun ere, eta erbestean hil zen, inoiz "francozale" bihurtzeko asmorik erakutsi gabe.

1958ko apirilaren 20an hil zen, Donibane Lohitzunen, eta familiaren hobian lurperatu zuten, Baionan.

3.8.2. Felix Urtubi Ercilla (1904-1936)

Felix Alejandro Urtubi Ercilla 1904ko otsailaren 25ean jaio zen, Elorrión (Bizkaia)²⁵⁴. Haren gurasoak: Pablo Urtubi Errazquin, Aretxabaletakoa, eta Matilde Ercilla Arechaga, Arrasateko Udala auzokoa. Gurasoak 1899ko maiatzaren 20an ezkondu ziren, Arrasaten, bertan bizi baitziren, Iturriotz kalean, hain zuzen. Han jaio ziren Maria Josefa (1900) eta Maria Luisa (1903) alabak; Felix geroago jaio zen, Elorrión, eta, azkenik, Carmen (1907) eta Jose (1908), Arabako Araian.

Aitonak, Felix Urtubi Martinezek, aretxabaletarra hura ere, filosofia ikasketak egin zituen Bergarako institutuan eta farmaziakoak Unibertsitate Zentralean (1849-1860). Ikasketak bukatuta, jaioterrira itzuli eta 1862an botikari lanpostua atera zuen. Herriko alkate izan zen 1868tik aurrera, Lehen Errepublika aldarrikatu zen garaian. Pablo haren semea, Felix Urtubi Ercillaren aita izango zena alegia, aitaren urratsei jarraitu eta farmazia ikasketak egin zituen hark ere Madrilgo Unibertsitate Zentralean. 1912an lortu zuen lizentzia eta 1925ean botika berria zabaldu zuen Aretxabaletan, botikagintzan aritu ahal izateko.

Felix Urtubi Aire Armadan sartu zen. Hasieratik bertatik nabarmendu zen bere ausardia eta erabakitasunagatik. Ikasle garaian ere, kaporal pilotua zela, garbi erakutsi zuen espiritu borrokalaria zuela. Patruila lehiaketa batean, Burgosko 33. Taldean sartuta zegoela, lurreratzera behartua egon zen, erradiadore matxuratuta. Bi aldiz pentsatu gabe, erradiadore bizkarrean hartu eta oinez egin zituen hurrengo herri arterainoko zazpi kilometroak. Han, erradiadore soldatu eta egindako bidea desegin zuen, gero muntatu eta berriz hegan ateratzeko. Patruila kanporatua izan bazen ere, buruzagiek eguneko gai-zerrendan jaso zuten gertaera, 1930eko uztailaren 29an²⁵⁵: "(...) goraipatzeko modukoa da pilotu honek erakutsi duen es-

nuel Irujok eta Telesforo Monzonek lagunduta, *Ekin* euskal argitaletxeak argitaratu zion Buenos Airesen.

Jose Angel Ascunce Arrietak, Deustuko Unibertsitatekoak, honela laburtu zuen obra horren esanahia, 1939ko erbesteko idazle, argitaletxe eta aldizkariei buruzko Hirugarren Nazioarteko Kongresuaren kariaz argitaratu zuen *El exilio del desencanto vencedor* (euskaraz, *Desilusio garailearen erbestealdia*) lanean²⁵²,

¿Para qué? Desde Alfonso XIII a Juan III izeneko liburua Espainiaren erbesteko obra nagusietako bat da, guztiz ezezaguna, ez obraren berezko balioa handiagoa edo txikiagoa izateagatik, arrazoi zirkuntantzial hutsengatik baizik: obra argitaletxe abertzale batean argitaratua izateagatik eta egilea erbesteko munduaren idealekin, ez errepublikanoekin ez abertzaleenekin, bat egiten ez zuen erregezale amorratua izateagatik. Nahikoa denbora igaro da ordea bakoitzari berea aitortzeko eta dagokion tokian jartzeko. Juan Antonio Ansaldo ez da erbesteratutako errepublikano bat, baina galtzaile espiritual bat da, deserrotze fisikoaren hautua egiten duena, erbestera jotzen duena ideologia frankistarekin bat ez etortzeagatik. Gera Zibilaren inguruko espainiar errealtateari buruzko obrarik interesgarrienetako baten egilea, Espainia erromesaren sentimenduarekin eta zaporearekin idatzia, Juan Antonio Ansaldo «desilusio garailearen erbestealdiaren» ordezkari garbia dugu, inolako zalan-



Félix Urtubi
gaztetan.



Joven Urtubi Aretxabaletan, bisita-uniformea soinean. Argazkia
botikatik atera zioten.

piritua, eta hori dela eta, hemen jasota geratzen da, interesdunaren pozerako eta pertsonal guztiaren ezaguera-rako”.

1932ko uztailaren 1ean, *Revista de Aeronáutica* al-dizkariak hegazkin-eskuadrilentzat antolatutako lehiaketan hartu zuen parte²⁵⁶. Lehiaketa Espainiari itzulia ematean zetzan eta bi etapatan banatua zegoen:

1. etapa: (uztailaren 1ta)

IRTEERA (Getafe)-Sevilla; Sevilla-Albazete; Al-bazete-Bartzelona (HELMUGA)

2. etapa: (uztailaren 2a)

IRTEERA (Bartzelona)-Logroño; Logroño-Leon; Leon-Getafe (HELMUGA)

2.274 kilometroko ibilbide zirkular bat guztira. Pro-ban zehar, eskuadrillek zenbait ariketa militar egin behar zi-tuzten, hala nola irrati-telegrafia bidezko konexioa, berti-kaletik igarotzea (bonbardaketa simulatua) eta argazkiak egitea. Hiruna hegazkineko bederatzi patruilek hartu zuten parte. Felix Urtubi zortzigarren patruilan zegoen, Leongo 1. Eskuadrako 21. Taldean. Bere patruilako hiru hegazkine-tako eskifaia honela zegoen osatuta:

1. Breguet XIX-200: pilotua, León Triguero tenien-tea, eta behatzailea, Visiedo tenientea.

2. Breguet XIX-38: pilotua, Cuartero kaporal, eta mekanikaria, Velasco.

3. Breguet XIX-45: pilotua, Felix Urtubi kaporal, eta mekanikaria, Basilio Pérez.

Urtebete geroago, 1933ko irailean, “21-10” hegazkina pilotatzen ari zela, Agustín del Río mekanika-riarekin batera, istripua izan zuen Chantada (Lugo) herrian.



Félix Urtubi, erdian zutik,
eskuadrako kideekin.

Ezinbesteko lurreratze bat egin behar izan zuten eta, mirariz bezala, hegazkina haritz batetik zintzilik geratu zen. Urtubi larri zaurituta geratu zen eta haren laguna berriz onik atera zen²⁵⁷.

1934ko uztailaren lehen egunetan, Hegazkin Militarren Patruilen III. Lehiaketan hartu zuen parte²⁵⁸, ehiza-patruilen sailean. Sarjentu mailara goititua ordurako, Getafeko 11. Taldeko eskuadrilan hartu zuen parte. Hauek izan ziren bere patruila-kideak: Ramiro Pascual teniente pilotua eta Gonzalo Garcia Sanjuan sarjentu pilotua.

1935ean espediente ireki zioten, agindutako zerbitzu bat behar bezala bete ez zuelakoan. Irailaren 7an izan zen, Getafeko aerodromoan zegoela, Cabanellas jenerala Marokora eramateko zerbitzua sortu zen. Hona hemen, hitzez hitz aldatuta, Juan Ortiz Muñoz instrukzio-eskuadraren Ehiza Taldeko buruaren idazki errugabetzailea²⁵⁹:

Behin egin beharreko egiteko guztiak eginda, berorren atzoko telegramaren edukiaren berri emateko, adierazten diot ezen Miguel Cabanella Jeneral Txit Gorena Marokora hegazkinez eramateko agindutako zerbitzua presaren presaz eskatu zela, hainbestearaino ere, ezen ez baitzen astirik izan ezin pilotu deitzeko, eta, hala, Ehiza Taldeko Felix Urtubi sarjentu jaunari gomendatu zitzaion zerbitzua, une hartan Aerodromoan zerbitzurik gabe zegoen bakarra bera zelako.

Sevillara ilundu aurretik iristeko ia astirik gabe (15 ordu eta 40 minututan abiatu zen hegazkina), haizea kontra izan zuen bidean, eta iparrorratzaren akatsez, pilotua ibilbidetik desbideratu zen, orientazioa galduta. Desbideratze hori pilotuak bidaia luzeetan duen praktika eskasari egotz dakioke; izan ere oso bidaia gutxi egina da, eta Madril-Leon-Burgos ibilbidean bakarrik. Behin ilunduta, hegazkina Palma del Condado herrian lurreratu zen, eta Cabanellas jeneral Txit Gorenak automobilez egin ahal izan zuen handik Sevillara bidea. Abiatu baino lehen, hegazkina Sevillara eramateko agindu zuen, bidaiari hurrengo goizean ekin ahal izateko. Pilotuak ordean lanak izan zituen hegazkina martxan jartzeko. Goizeko bostak eta laurdenetan hasi zen horretarako maniobrak egiten, baina operazioak luze iraun zuen; batetik, pertsonal teknikorik ez zegoelako, eta, bestetik, bakarrik zegoelako. Hori dela eta, zeregin horietan esperientziarik ez zuten pertsonengana jo behar izan zuen, azkenean.

Gero, eta Sevilla estaltzen zuen laino trinkoa zela eta, atzerapenez iritsi zen berriro Aerodromora. Gainera, motorra konpondu behar izan zuen han, Getafez geroztik ez baitzebilan behar bezala.

Behin egin beharreko konponketak eginda, eta Jeneral Txit Gorena hegazkinean sartuta, Tetuan aldera abiatu ziren, baina laino trinkoa topatu zuten berriro Itsasartean, eta hori eta Tetuaneko eguraldiaren berriak – estalia eta txarra – kontuan hartuta, Sevillara itzultzeko erabakia hartu zuen pilotuak. Geroago, base hartako hegazkin batean, eta bertako ofizial bat gidari zela, handik Tetuan aldera abiatu zen, azkenik, Jeneral Txit Gorena.

Sarjentuaren adierazpenak egiazkoak direla frogatzen duten mezu meteorologikoak doazkio honenkin batera.

Hauek dira lortu ahal izan ditudan txostenak eta, berorrek agindutakoa betez, halaxe ezagutarazten dizkiot berorri.

Getafen, 1935eko irailaren 11n
ESKUADRAREN EGUNGO BURUA
Juan Ortiz

Bi egun geroago iritsi zen erantzuna Goi Buruzagien bulegotik. Aire Armadako buruzagiak, Apolinar Saenz de Buruagak, bere nahigabea adierazi zion eskuadrako buruari bidaia luzeak egiteko entrenamendu falta horregatik, prestakuntza eza horrek toki txarrean utzia zuelako Aire Armada Cabanellas jeneralaren aurrean. Beraz, Aire Armadako buruak, Felix Urtubi sarjentuari bere kexua helarazteko agintzeaz gainera, eskuadrako buruaren aginduetara zegoen pertsonal guztia behar bezala prestatzeko beharraz ohartarazi zuen, gertaera horiek instrukzio-planaren porrota agerian utzi zuten heinean. Txostenari Urtubiren jokabidea zurretzen zuten meteorologia-mezuak erantsi zizkioten arren, Armadaren irudia zaintzea zen buruzagiei gehien axola zitzaiena. Diziiplina militarren gauzak.

1936ko uztailaren 18an, Felix Urtubi Marokoko iparraldeko base batean ari zen lanean. Altxamendu militarrek berak nahi ez zuen tokian harrapatu zuen, matxinatuen aldean, alegia. Handik gutxira,

Tetuan-Sevilla arteko zerbitzuak egin behar izan zituen, Breguet XIX hegazkin batean. Aerodromoak kontrolatzen zituzten ofizial matxinatuak ez ziren soldadu pilotuez fio, eta hori zela eta, eskolta bat jar-tzen zuten behatzailearen tokian, zerbitzua behar bezala beteko zela ziurtatzeko. Azkenean, oso gertutik zaintzen bazuten ere, Urtubik pistola bat eskuratzea lortu zuen. Hurrengo egunean, Urtubi eta haren zain-tzailea, Tertioko ofizial bat, Penintsula aldera abiatu ziren²⁶⁰. Urtubik gordeta zeraman pistola eta Gi-braltarreko itsasartetik pasatzean, bere zaintzaileari tiro egin eta bertan hil zuen. Denborarik galdu gabe, eta odol hotz handia erakutsiz, errepublikaren aldekoak zeuden aldera jo zuen. Lau ordu geroago, Geta-feko aerodromoan lurreratu zen, Gobernuaren aldeko indarretara batzeko²⁶¹.

Laster gudura joango zen. Getafeko aerodromoan, "Nieuport 52" 11. Ehiza Taldea zegoen, bai eta 2. Lafayette Eskuadrila ere, pilotu atzerritarrez osatua, Antonio Martín-Luna Lersundi kapitainaren agin-duetara.

Abuztuaren 18an, Extremadura aldean, Heinkel He 51 alemaniar batek Urtubi sarjentuaren "Haw-ker Fury" hegazkina, 4-2 matrikuladuna, eraitsi zuen²⁶². Urtubik jausgailuaz salto egin eta mendira jo zuen.

Gobernuaren aldeko Aire Armadako buruak, Hidalgo de Cisneros jeneralak, Urtubi pilotuaren ka-sua kontatzen digu, bere aldeko aire indarren heroitasunaren sinbolo eta eredu gisa jarritz. Honela azaltzen dizkigu Urtubik bizitako abenturak²⁶³:

Talaverako erretira hasi zenean, herri inguruan zegoen aerodromo batera bidali zuten Urtubi, bere eskuadrilarekin batera. Etsaien lurraldean egindako zerbitzu batean, oso barrura sartu ziren batean, Urtubiren eskuadrilak, hiru hegazkinez osatuak, faxisten hegazkin-sail batekin egin zuen topo, bai eta gudari berehala ekin ere. Urtubiren hegazkina eraitsia izan zen.

Denek hiltzat eman zuten Urtubi, eta Aire Armadarentzat benetako dolu eguna izan zen hura.

Astebete geroago, gure lerroetan, astoan zihoan baserritar bat atzeman zutela jakinarazi zigu-ten, "hegazkin pilotua dela dio, baina espioia izango da segur aski". Urtubi zen.

Hegazkinak su hartu zionean, jausgailuaz salto egin omen zuen, inor bizi ez zen toki batean. Hur-bilen zituen mendietara jo omen zuen, bai eta iritsi ere, iluntzean, inork ikusi gabe.

Zenbait egun eman zituen egunez ezkutatu eta gauez ibiliz, artzainek ematen ziotena janean. Behin, herri baten inguruan zegoela, arropa zabaldua ikusi eta baserritar baten galtzak eta zamarra hartu zituen; eta arropa horiek jantzita, eta beste herri baten inguruetan asto bat eta lasto fardel bat hartuta, matxinatuek okupatutako lurretan zehar ibili zen hiru egunez, gure lerroetara iritsi arte. Frontea gauez gurutzatzean, gutxiatik ez zuten bertan fusilatu, espioitzat hartu baitzuten.

Bere balentrien, ausartasunaren eta erabakitasunaren amaiera gisa, beste ausardi eta heroitasun adi-bide bat utzi zigun. 1936ko irailaren 13an, Yague jeneral faxistak Madril konkistatzeko asmoz egindako au-rrerabidea ikusita, miaketa-hegaldi bat egin zuen Urtubik, Nieuport 52 hegazkin batekin, Santa Olallako (Toledo) frontearen gainean. "Aviación de El Tercio" (Aviazione Legionaria) izeneko taldeko hegazkin-pa-truila bat (hiru Fiat CR.32 hegazkin italiarrez osatua) atera zitzaizkion bidera, eta elkarrekin borrokan hasi ziren. Etsaien nagusitasun nabarmenak – hegazkin gehiago ziren eta hobeak – ez zuten inondik ere kikildu Urtubi, borroka desorekatu hartan. Arerioetako bat eraistea lortu zuen, baina, azkenik, munizioa agortuta, eta zer eginik ez zuela ikusita, italiar hegazkinetako baten kontra oldartu zen. Hegazkin biak sugar artean erori ziren lurrera. Italiar pilotuak jausgailuz salto egitea lortu zuen azken unean, eta dena ikusi zuen mi-liziano talde batek atzeman zuen. Estatu Batuetako pasaporteak izateak salbatu zuen, zalantzarik gabe, mi-lizianoek lintxatuta hiltzetik. Vincenzo Patriarca (Boccolari) sarjentua zen, New Yorken jaiotako italiar-amerikar bat. Egun batzuk geroago, Hidalgo de Cisneros preso hartutako pilotua bisitatzerara joan zen. Pilotuak ez zuen, nonbait, Urtubiren balentria azaltzeko behar besteko mirespenezko hitzik aurkitu.

Haren amaiera idatzia zegoen, esana zien lehenago ere lagunei: "Beste aukerarik geratzen ez zai-danean, bizia galduko dut; baina hori bai, etsaien hegazkinak ez dit ihes egingo". Hala hil zen Urtubi, "ez-proikada" delakoa praktikatu zuen munduko lehen pilotua²⁶⁴. Kamikazeen aitzindaria.

Balentria hura ez zen oharkabean pasatu Madrileko prentsa errepublikanoko berriemaileen artean, eta honelako esaldiak idatzi zituzten beren artikuluen idazpuruetan:



Urtubi emaztearekin.



Félix Urtubi anai-arrebekin.



Eskuadrilako buruak eta soldaduak.



Urtubi patruilako kideekin.

Aireko zaldun baten heriotza aintzatsua. Urtubi teniente heroikoak bizia sakrifikatu zuen atzerriko hegazkin bat atzemateagatik. Bere hegazkina jaurti zuen etsaiaren hiru-motorraren kontra. (La Libertad)

Hegazkin-pilotu errepublikano baten ekintza miresgarria. Urtubik, bere hegazkinean pilotu, hiru-motor baten kontra oldartu eta eraitsi egin du, bizitza bertan utzita. (La Voz)

Heroi bat hil da. Urtubi teniente hegazkinlaria. (El Sol)


Heroiak nola hiltzen diren. Urtubi tenientea, herri hegazkintzaren loria.

Felix Urtubi teniente hegazkinlariaren balentria aintzatsua eta tragikoa. Heriotzara zihoala jakinik, etsaiaren hegazkin baten kontra oldartu zuen berea, eta su hartu zuen. Melillatik Madrilerako bi-dea Tertioko ofizial baten zaintzapean egin zuen sarjentua da Urtubi.

Hogeita hamabi urterekin hil zen, beraz, Urtubi, teniente maila zuela; hil ondoren, kapitain mailara goititu zuten, 1936ko urriaren 11ko agindu baten bidez²⁶⁵. María Cruz Robal Román andrearekin ezkondata zegoen eta alaba bat zeukan, Matilde. Alaba 1933ko maiatzaren 5ean jaioa zen, Valdemimbre herrian (Leon), ama bezala, Urtubik lanpostua Leongo hiriburuko Virgen del Camino aireportuan izan zuen garaian.

4. ARETXABALETA 1930-39 HAMARKADAN, EUSKAL PRENTSAN

Antxia Leturia, Kepa



Jarraian datozen orrialdeetan garai hartako herri gertaera desberdinak agertuko dira. Orduko Aretxabaleta ezagutzeko edo, besterik ez bada, gutxi gora beherako irudia izateko balio ditzakete.

Alde batetik, gai "potolak": borroka politiko edo ideologikoak, hauetan oinarritutako pentsaera eta orduko ohituretan izan zuten eragina, kulturalak ("Loramendi"), udal eta lan kontuak eta azken honen gabezia.



Euskal egunkariekin egindako fotomuntaketak.

Eta bestetik, arintxuagoak izan daitezkeenak: "Ecos de sociedad" deitu daitezkeen atalak (ezkontzak, jaiotzak, ...) eta kirolak (ez gaur besteko garrantziaz): txirrindularitza, pilota, "Gorriña"ren apustua, ...

Berri emaileei dagokienez asko dira agertzen direnak, batzuk kronika ugari idatzitakoak eta beste batzuk bakanen bat, batzuk atxabaltar ezagunak eta beste batzuk ezezagunak gaitzizen baten ostean ezkutatuta edo hori ere ez zutelako idatzi; batzuk erdaraz idazten zutenak eta beste batzuk euskaraz. Atxabaltarrak ez ziren ere idatzi zuten gure herriko gora behera bati buruz. Euren artean oso ezagunak eta garrantzi handikoak: "Aitzol", "J.M. Arizmendiarreta" eta "Lauaxeta" esate baterako 1935.eko ekainaren 2an Bedoñan "Loramendi"ri egin zitzaion omenaldia zela eta.

1936ean, gerra hasi ostean, herrikoak, edo bertakoen berri, frentean zeuden gudari-berri emaleengandik jaso dugu.

Azpimarratzekoa da, garai hartan, berri emaile hauek egindako ahalegina euskaraz idazterakoan.

Testuak, edo berriak, transkibitzerakoan ia guztia zegoenetan utzi dugu, ez dugu zuzenketa handirik egin, oso nabarmena ezean. Beraz, irakurtzerakoan, hitz edo esapide ulertezinak edo zentzurik ez dutela ikustea gerta daiteke.



Jesús Peña Etxeberria
kronikaria.

Honez gai, euskaraz idatzitakoei erreparatuz, nabarituko da akats ugari dituztela; euskalkiak nahasten dituztela; grafia aldetik orduko arauak betetzen dituztela, baina ez beti; tipografikoak; garbizaleak direla; ... Baina, gorago aipatu dugun bezala, kontuan hartu behar dugu, eta horri behar duen garrantzia eman, euskaraz eskolatu gabekoak zirela alde batetik, eta orduko (orain dela 75-80 urteko) Atxabaltaren berri ematen dигutela, bestetik. Eta ez da gutxi.



Máximo Alberdi Ceberio kronikaria.

Data	Idazlea	Argitalpena
1931		
1931-IV-24	ALDANONDO	EUZKADI
1931-VI-17	MURUANO BAT	"
1931-VI-24	MURUTAR BAT	"
1931-VII-25	NEU	"
1931-X-15	MAXIMO ALBERDI	"
1931-XI-21	BESTE BAT	"
1931-XII-01	ALBERDI	EL DÍA
1931-XII-24	ALBERDI	EUZKADI
1932		
1932-I-24	ZUBI-AURRE	EUZKADI
1932-II-21	BOLINAGA	ARGIA
1932-III-06	"	"
1932-III-20	"	"
1932-IV-03	"	"
1932-IV-19	ALBERDI	EL DÍA
1932-IV-27	"	"
1932-V-01	BOLINAGA	ARGIA
1932-V-15	BOLINAGA	ARGIA
1932-V-17	ALBERDI	EL DÍA
1932-V-18	ALBERDI	EL DÍA
1932-V-29	BOLINAGA	ARGIA
1932-VI-05	ZUBI-AURRE	EUZKADI
1932-VI-07	ALBERDI	EL DÍA
1932-VI-15	ALBERDI	EL DÍA
1932-VI-21	ALBERDI	EL DÍA
1932-VI-26	BOLINAGA	ARGIA
1932-VII-06	ALBERDI	EL DÍA
1932-VIII-02	ALBERDI	EL DÍA
1932-VIII-10	ALBERDI	EL DÍA
1932-VIII-17	ALBERDI	EL DÍA
1932-VIII-20	ALBERDI	EL DÍA
1932-VIII-23	ALBERDI	EL DÍA
1932-IX-10	ALBERDI	EL DÍA
1932-IX-16	ALBERDI	EL DÍA
1932-IX-18	XX	ARGIA
1932-IX-24	ALBERDI	EL DÍA
1932-IX-29	ALBERDI	EL DÍA
1932-X-01	ALBERDI	EL DÍA
1932-X-05	ALBERDI	EL DÍA
1932-X-15	ALBERDI	EUZKADI
1932-X-22	ALBERDI	EUZKADI
1932-X-25	ALBERDI (eusk.)	EUZKADI
1932-X-25	ALBERDI (erd.)	EUZKADI
1932-X-26	ALBERDI	EUZKADI
1932-X-28	ALBERDI	EUZKADI
1932-XI-04	ALBERDI (eusk..)	EUZKADI
1932-XI-04	ALBERDI (erd.)	EUZKADI

Data	Idazlea	Argitalpena
1932-XI-09	ALBERDI	EUZKADI
1932-XII-24	ALBERDI	EUZKADI
1933		
1933-I-03	ALBERDI	EUZKADI
1933-I-22	BOLINAGA	ARGIA
1933-I-29	BOLINAGA-ANDARTO	ARGIA
1933-II-04	ALBERDI	EUZKADI
1933-II-12	AZKOAGA	ARGIA
1933-II-26	AZKOAGA	ARGIA
1933-III-03	EL CORRESPONSAL	EUZKADI
1933-III-07	ARKARATZO	EL DÍA
1933-III-12	AZKOAGA	ARGIA
1933-III-15	ALBERDI	EUZKADI
1933-III-16	ALBERDI	EUZKADI
1933-III-29	ZUBI-AURRE	EUZKADI
1933-III-31	ONINTZA	EUZKADI
1933-III-31	EL CORRESPONSAL	EUZKADI
1933-IV-27	ALBERDI	EUZKADI
1933-V-21	ANTONTXO	ARGIA
1933-VI-03	EL CORRESPONSAL	EUZKADI
1933-VI-04	BOLINAGA	ARGIA
1933-VI-07	ERRENA	EUZKADI
1933-VI-08	MURU-MENDI	EUZKADI
1933-VI-15	MURU-MENDI	EUZKADI
1933-VI-16	C.	EUZKADI
1933-VI-18	ANTONTXO	ARGIA
1933-VI-23	MURU-MENDI	EUZKADI
1933-VII-02	EZ EZAGUNA	ARGIA
1933-VII-05	ALBERDI	EUZKADI
1933-VII-16	AZKOA	ARGIA
1933-VII-18	MURU-MENDI	EUZKADI
1933-VIII-03	AITZA	EUZKADI
1933-IX-03	AITZA	EL DÍA
1933-IX-09	ALBERDI	EL DÍA
1933-IX-10	GAZTETXU	ARGIA
1933-IX-17	UN MARIANO	EUZKADI
1933-IX-24	UN MARIANO	EUZKADI
1933-IX-24	AITZA	EUZKADI
1933-IX-26	AITZA	EL DÍA
1933-IX-30	UN MARIANO	EUZKADI
1933-X-01	ALBERDI	EL DÍA
1933-X-08	UN MARIANO	EUZKADI
1933-X-24	AITZA	EUZKADI
1933-X-25	ALBERDI	EUZKADI
1933-XI-02	AITZA	EUZKADI
1933-XI-02	AITZA	EL DÍA
1933-XI-25 (I)	AITZA	EUZKADI
1933-XI-25 (II)	AITZA	EUZKADI
1933-AZILLA	AITZA	GURE MUTILLAK

Data	Idazlea	Argitalpena
1934		
1934-III-24	ALBERDI	EUZKADI
1934-IV-11	OTAMENDI	EUZKADI
1934-V-04	AITZA	EUZKADI
1934-V-10	J.M. ARIZMENDIARRIETA	EUZKADI
1934-V-13	EZETZ	ARGIA
1934-VI-08	AITZA	EUZKADI
1934-VI-13	ALBERDI	EUZKADI
1934-VI-24	ATXABALT	ARGIA
1934-VII-08	ATXABALT	ARGIA
1934-VII-26	I'TAR J.K.	EUZKADI
1934-VIII-05	AITZA	ARGIA
1934-VIII-16	AITZA	EUZKADI
1934-VIII-19	EZETZ	ARGIA
1934- X-24	EL CORRESPONSAL	EL DÍA
1935		
1935-I-25	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-I-26	AITZA	EL DÍA
1935-II-02	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-II-17	AITZA	ARGIA
1935-II-19	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-II 21	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-II-22	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-II-24	AITZA	ARGIA
1935-II-24	ERRENA	EUZKADI
1935-III-02	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-III-03	AITZA	ARGIA
1935-III-04	GALARTZA	EL DÍA
1935-III-05	ERRENA	EUZKADI
1935-III-06	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-III-10	AITZA	ARGIA
1935-III-12	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-III-23	AITZA	EUZKADI
1935-III-24	GALARTZA	EL DÍA
1935-III-24	AITZA	ARGIA
1935-III-27	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-III-30	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-III-31	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-IV-06	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-IV-09	EGIBILLA	EUZKADI
1935-IV-20	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-IV-24	AITZA	EUZKADI
1935-IV-25	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-V-09	?	EUZKADI
1935-V-09	AITZA	EL DÍA
1935-V-18	EUSKALTZALEAK	ARGIA
1935-V-19	EUSKALTZALEAK	EUZKADI
1935-V-19	AITZA	ARGIA

Data	Idazlea	Argitalpena
1935-V-26	ALBERDI	EUZKADI
1935-V-29	LAUAXETA	EUZKADI
1935-VI-1	AITZOL	EUZKADI
1935-VI-2	AITZA	EUZKADI
1935-VI-2	?	EUZKADI
1935-VI-2	ARGIA	ARGIA
1935-VI-30	EZETZ	ARGIA
1935-VII-7	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-VII-14	TXARETA/ATXABALT	ARGIA
1935-VII-18	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-VII-21	TXARETA	ARGIA
1935-VII-26	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-VII-28	EZETZ	ARGIA
1935-VIII-10	ZINTZO	LA CONSTANCIA
1935-VIII-11	AITZA	ARGIA
1935-IX-29	AITZA	ARGIA
1935-X-06	AITZA	ARGIA
1935-X-08	AUÑEKUA	EUZKADI
1935-X-10	TXAPEL -ZURI	LA CONSTANCIA
1935-X-11	AUÑEKUA	EUZKADI
1935-X-18	TXAPEL-ZURI	LA CONSTANCIA
1935-X-24	BATZORDEA	EUZKADI
1935-X-29	AITZA	EUZKADI
1935-XI-10	AITZA	ARGIA
1936		
1936-I-08	AITZA	EL DÍA
1936-II-09	AITZA	ARGIA
1936-II-11	ORBELA	EUZKADI
1936-III-14	ERRENA	EL DÍA
1936-III-15	ALDEKOA	EUZKADI
1936-III-17	ERRENA	EL DÍA
1936-IV-07	¿?	EL DÍA
1936-VI-27	TRAPUZAR	LA CONSTANCIA
1936-VII-19	AITZA	ARGIA
1936-X-23	ALBERDI	EUZKADI
1936-XII-27	LUR-GORRI	EUZKADI
1937		
1937-I-02	AITZA	EGUNA
1937-I-12	AITZA	EGUNA
1937-I-14	AITZA	EGUNA
1937-II-16	AITZA	EGUNA
1937-III-03	AITZA	EGUNA
1937-III-06	BASAÑI	EGUNA
1937-III-10	AITZA	EGUNA
1937-III-19	AITZA	EGUNA
1937-III-28	AITZA	EGUNA
1937-III-31	AITZA	EGUNA
1937-IV-20	AITZA	EGUNA

Aldizkaria/ Egunkaria	Data	Zenb.	Orr.	Izenburua	Berriemailea
Euzkadi	1931-IV-24	5.731	6.	Información postal	Nicolás Aldanondo

Aretxabaleta

La constitución del nuevo ayuntamiento.- Después de haber salido triunfantes los nacionalistas en las elecciones municipales, después de haber ganado el apoyo y sostén del pueblo en masa, ven ellos, los nacionalistas, un peligro de formación del nuevo Ayuntamiento a base suya, cosa paradójica e increíble, por causa de la proclamación de la República española.

Los elementos de la conjunción republicano-socialista de esta villa, creyendo en sus manos la formación del nuevo Ayuntamiento, sin mirar a las elecciones pasadas, por el mero hecho de proclamarse la República, impidieron que el sábado, a las once de la mañana, día designado para la constitución, se proclamara el nuevo Ayuntamiento, dirigiéndose por la tarde dos de sus jefes a Donostia con objeto de entrevistarse con el señor Gobernador. El mismo día por la noche corrió la noticia de que la constitución estaba en poder de ellos; mas los incansables nacionalistas, que tampoco se tienen por tontos, acudieron el lunes por la mañana al despacho del Gobernador, señor Aldasoro, de cuya entrevista nos vino más tarde la grata noticia ansiada por toda esta muchedumbre aretxabaltarra.

El miércoles por la mañana tuvo lugar el nombramiento de los nuevos concejales, ocupando los tres primeros puestos los señores que a continuación insertamos:

Alcalde, don Pedro Jauregi.

Primer teniente de alcalde, don Domingo Lasagabaster.

Segundo teniente de alcalde, don José Galdós.

i Nacionalistas, todos debemos coadyuvar y cooperar con el nuevo Ayuntamiento para que progrese en nuestros ideales y veamos colmados nuestros trabajos con el triunfo tan esperado.

Nicolás Aldanondo

Aldizkaria/ Egunkaria	Data	Zenb.	Orr.	Izenburua	Berriemailea
Euzkadi	1931-VI-17	5.775	16.	Información postal	Muruano bat

Aretxabaleta

